

RESURRECCION MARIA AZKUE

LATSIBI

Edizio prestakuntza

Mirari Alberdi

Labayru Ikastegiko «Mikel Zarate» Mintegia

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA / EUSKALTZAINDIA
BILBAO 1989

Latsibi, es una obra de carácter narrativo, escrita por Resurrección M.^a de Azkue, y que ha permanecido inédita hasta el presente en la «Azkue Biblioteka» de Euskaltzaindia.

Es ésta la razón primordial que ha animado a la Academia a promover la edición de la misma, en colaboración con el Instituto Labayru, cuyo seminario «Mikel Zarate» ha trabajado en su preparación.

Su publicación es importante por varios motivos: a) es una obra casi desconocida para el lector, al haber permanecido inédita; b) es una obra narrativa de creación, faceta en la que Azkue no es tan conocido como por sus trabajos de lexicografía, gramática o folklore. Entre sus obras de carácter literario, *Latsibi* parece más ambiciosa que *Txirristadak*, *Bein da betiko* o *Ardi galdua*, que son de corte costumbrista, e incluso de dimensiones reducidas. *Latsibi*, podría ser calificada de «novela», aunque con algunas restricciones, y en este sentido, habría que valorar la importancia histórica de la obra, habida cuenta de que la novelística vasca emerge prácticamente con el siglo, siendo poquitos los autores y obras en los primeros decenios del siglo. Azkue escribe *Latsibi* hacia finales del segundo decenio.

Ha habido diversos intentos de edición anteriormente; todos ellos frustrados. Según Lino Akesolo (BRSVAP 1965, 35), Azkue esperó toda la vida a que apareciera algún mecenas que financiase su obra, pero al parecer infructuosamente. El Padre Onaindia asegura (EL. III, 84) que esta obra es posterior a *Ardi galdua* (1918). Por lo tanto, ha debido esperar unos 70 años para su impresión; casi tantos como *Peru Abarca*, de Moguel. Ambas obras no incidieron en el discurrir literario de su época, y ello lamentablemente.

Pese a las limitaciones que pueda presentar la obra desde el punto de vista literario, hemos de destacar el gran esfuerzo lingüístico del autor: su coherencia gramatical y su estilo riguroso en el tratamiento del lenguaje. Tiene gran riqueza lexical, valiéndose de la fuente popular, de la tradición literaria y del propio esfuerzo de creación léxica, acorde con el ambiente purista de la época. Es rico en locuciones y modismos populares. Y, finalmente, hay que valorar el esfuerzo del escritor por mostrar un modelo literario vizcaíno, alternativo al que proponían los aranistas.

Creemos que la lectura y estudio de esta obra es importante, tanto para los vascófilos e investigadores como en los programas escolares y universitarios de literatura vasca.

024 3917

LATSIBI

RESURRECCION MARIA AZKUE

LATSIBI

15

Edizio prestakuntza

Mirari Alberdi

Labayru Ikastegiko «Mikel Zarate» Mintegia

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA/EUSKALTZAINDIA
BILBAO 1989

© Euskaltzaindia

© Labayru Ikastegia

ISBN: 84-86833-10-8

Lege gordailua: BI- 444 -89

Maketazioa: Jose Antonio Arana Martija eta Jon Elorriaga

Irudiak: Goiko, Garavilla, Tillac

Fotokonposaketa: Ipar, E.K. - Particular de Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao

Inprimategia: Art. Gráf. Rontegui, S.A.L. - Ribera de Erandio, 4 - Erandio



Aurkezpen gisa

Nire aurkezpentxo honen arrazoia ez da besterik, edizio honen argitalbideko nonzebarriak emotea baino. Orain urte batzuk, Begoñako Karmeldarren etxean Lino Akesologaz berbetan nengoala, berak aiatu eustan ea zergaitik ez genduan argitaratzen geure «Sutondoan» sortan Azkueren Latsibi elaberria, liburu-sorta horren asmoetarako guztiz ajutua zala-ta.

Nik baneban izan Azkueren nobela argitaragabe horren entzutea, baina neure begiz ez neban ezagutzen. Zuzen jo neban Euskaltzaindiko «Azkue» Bibliotekara originalaren eskaria eginez, eta Villasante jaunagaz berba egin ostean heldu jatan eskuetara obra honen textu mardula, idazmakinaz idatzirik. Euskaltzaindia prest egoan obra hau argitaratzen izteko, koedizioan izatekotan. Ondo eritxi neutsan. Arrazoizkoa zan, bestalde, erakunde horren lehenengo Burua izan zaren obra bat izanda, Euskaltzaindiak gogo hori izatea.

Arterago, Alfonso Irigoyen jaunari entzun izan neutsan, Mikel Zarete erabili ebalu eskuartean Latsibi obraren kopia bat, argitaratzea merezi ebanentz ikusteko. Ez dakit haren eritxia zein izan zeitekean. Baina ziur nago poz handia hartuko ebana, jakin baleu orain bere izena daroan eta behinola bere gidaritzapean lanean hasi zan «Mikel Zarete» Iker Mintegiak oratuko eutsala gogotik berak erabilen argitaratze asmoari. Halantxe gertatu da. Neure gidaritzapean lanean jardun dabe Mirari Alberdi eta Karmele Olano mintegikideek. Lehenengoa textoaz eta edizio-prestakuntzaz arduratu da. Berau saiatu da obrearen kopia ezbardinen atzera-aurrerak argitu eta textua finkatzen. Bigarrena, obraren balio literarioak, inguru historikoa eta abar ikertzen. Bitzuk izan dabe laguntzaile handi bat Arana Martijagan Azkue bibliotekan. Bestalde, Loiolako Bibliotekako Iñaki Goikoetxea jaunak be eskuzabalez bialdu deusku han egoan obra honen kopia bat, Olabiderena zana. Denbora luzea eroan dauan beharlekua izan da. Diruz ordaintzen errez egongo ez dana, ziurrik. Baina merezi izan daualakoan gagoz. Azkueren obra euskerazko handienetariko eta ia guztiz ezezagun bati argia emotea ez da, izan ere, zorion makala. Irakurleak gogoz dastatuko daualakoan plazaratzen dogu.

Adolfo Arejita

Labayru Ikastegikoa eta Euskaltzaindiko urgazlea.



Hitzaurrea

Eskertzekoa baino ez da Labayru Ikastegiak hartu duen abelera, hots, Azkueren *Latsibi* argitaratzekoa. Horrekin Euskaltzaindia bera ere obra honetaz arduratzera bultzatu du. Izan ere, Euskaltzaindiak ezin zezakeen galtzen edo bere etxetik kanpora joaten utzi Azkueren lan bat. Orduan akordio batera heldu ginen: biok elkarrekin aterako genuela *Latsibi*, Labayruk bere liburu-sortan eta Euskaltzaindiak berean. Eta hala egin da. Gaur, bada, aurrengo aldiz ikusten du argia Azkueren elaberri edo nobela honek¹.

Horrek ez du esan nahi erabat ezezaguna zenik. Gerhard Bähr-ek aspaldi egin zuen gipuzkerazko itzulpena, baina itzulpen hau ere argitara gabe gelditu zen. Pixka bat bitxi edo arraroa da Azkueren elaberri honekin gertatu dena, gaur arte ilunpetan egote hori, alegia.

Zinez, euskal elaberrien kondairan toki bat zor zaio, eta ez nolana-hikoa, *Latsibi*-ri. Ez da edozer gauza ere, lan luze-zabala baizik. Azkuek lan honi hasiera eman eta azken ukituak egin zizkion arteko historia zehatz-mehatz egitea ez da guretzat gauza erraza. Mirari Alberdi saiatzen da horretaz, eta guk ez dugu zer gehiturik.

Hauteskunde-aldian joan den mendeko azken urteetan gure herriko zati jakin batean izaten ziren sesio eta burrukak kontatzen dira *Latsibi*-n. Oraindik ez dira ageri ez abertzale eta ez sozialistak ere. Zuriak eta beltzak soil-soilik. Erromarrak eta Kartagoarrak, alegia. Haiek karlista-integristak ziren; besteak, berriz, liberalak («lokabe-zaleak»).

Elaberri honen kokalekua Mungialdea duzu, eta zehazkiago, Jatabe. Baina Bizkaiko uriburua ere, hots, Bilbo, txitean-pitean agertzen da; garai hartako Bilbo, noski. Herri ttipietatik Bilbora joaten zirentzat bilbotarrak berantiar ziruditen, lotiak: beranduegi zabalzten zituzten dendak, Bankuak eta abar. Horrelako zerbait esaten zuen ene aita zenak ere Gernikatik Bilbora joaten zenean.

Hizkerari bagagozkio, *Latsibi* bizkaieraz dago eta hizkera guztiz

¹ Egia esan, orain baino lehen ere Euskaltzaindiak erabili izan du *Latsibi* argitaratzeko asmoa, 1968-1969ko batzar-agirietatik ateratzen denez. Ikus *Euskera* (1971), 166, 167, 178, 210. (J.A. Arana-Martija gure bibliotekari-ordeak eman digu xehetasun hau). Ikus, baita ere, 1953ko batzar-agiriak: *Euskera* (1937-1953), 30.

artatua eta jaso du. Alde batetik, herrian oinarritutako hizkera erabili nahi du, baina, bestetik, guztiz garbia ere bai. Bizkaieraz idatzia egonarren, euskalki honetan erabiltzen den hitza hain garbia ez dela iruditzen zaionean, egileak beste euskalkira joko du; adibidez, *baratza* erabiliko du, eta ez *ortu*, *itz* eta ez *berba* (elkar-hizketetan izan ezik). Berezko «a» duten hitzek, artikulua hartzen dutenean, literatur bizkaieran «ea» egin ohi dute: gauzea, euskerea, berbea. *Latsibi*-n, berriz, «äa» idatzirik ageri dira: berbäa. Seguru aski dieres horrek «a» hura «e» bihurtzen dela esan nahiko du.

Aditzean erabiltzen dituen forma batzuk ere ez dira herrikoak («ekion» «jakon»en ordezt. etab.). Beste batzuk («ebazan») herrian erabiliak izanarren, ez dira ez zabalduenak eta ez zaharrenak ere, dirudienez¹.

* * *

Joan den mendeko azken urteetan eta oraingoaren lehenengoean bizkaierazko euskal literaturan zerbait berri sortzen da, ordura arte ez bezalako zerbait. Fenomeno berri hau *hiperbizkaieraren* izenez bataiatu du Mitxelenak² eta honek beronek dioenez joera berri honen historia eta zer-nolakoak ongi aztertu gabe daude oraindik. Badirudi joera berria euskalki honen berezitasunak, hots, besteetatik bereizten duen guztia azpimarratu nahiz dabilela (salbu eta, purismoagatik, beste euskalkien hitzak edo formak hobesten ditue-
nean).

Denek dakite Azkue bere *Euskal Izkindea* agertu zuenean (1891) guztiz erreforma-zale edo iraultzaile genuela hizkuntz arazoetan. Gero, berriz, esango du bere gaztaroko bekatua izan zela hura. Eskarmentu hartuz zentzatu zen, nonbait, baina bere joerari arras uko egin gabe.

Jerusalenen, Olio mendiko maldan dagoen saindutegian, Jesusen otoitza, *Gure Aita*, ageri da anitz hizkuntzatarata itzulia. Besteen artean euskarara ere bai, eta entzun dudanez, itzulpen hura Azkuek berariaz harako eginga izan zen. Bizkaieraz dago, eta mende honen lehen urteetan hemengo erromesek hara eramane zuten, baina Bizkaika herrian orduan erabiltzen zenaz ez dator guztiz bat. Aita Berriatuaren *Ikasle Israelen* deritzon liburuskan dator, argazki eta guzti³.

¹ MICHELENA (L.), *Sobre el pasado de la lengua vasca*, Col. Auñamendi, San Sebastián 1964; p. 64.- ID., *Palabras y Textos*, Universidad del País Vasco, 1987; p. 43.

² MICHELENA (L.), «Lengua común y dialectos vascos», ASJU (1981), 300.- LAKA (ITZIAR), «Euskal Izkindeako Aditza (Hiperbizkaieraren historiaz II)», ASJU (1986), 705.

³ BERRIATUA (IMANOL), *Ikasle Israelen*; Euskaltzaindia 1982; 82.

Euskera aldizkarian, berriz, 1925. urtean, Azkuek artikulua bat du *Txukuneria* deritzona. Aita Soloeta-Dimaren *Ensayo de la unificación de dialectos baskos* liburuari buruz ari da. Liburu hura irakurtzen hasi zenean, bere buruari honako galde hau egin omen zion: «Zer dala-ta bizkarreratu ote didate lan au irakurtzeko arloa neri...?» Eta berberak erantzun ere: «Ik ere gaztetxo intzanean ire zainetan ta batez ere lumatxoan txukuneria izan uelako eta baztanga bein izan duenak bigarren ez izaten ez omen duelako, orrengatik eman diatek eri-arteke egikizun au...»¹.

Gaitz honi *txukuneria* deitzen dio Azkuek, baina gaineratzen du, grekozko hitzaz deitezketan, «katharinitis» deitu beharko litzaiokeela (Kataroak Erdi Aroko hereje batzuk izan ziren, eta hitz honek *garbiak* esan nahi du).

Azkuek, bada, aitortzen du gaztetan *baztanga* pasatu zuela berak ere, hau da, garbikeriaren gaitza, baina gaitz horretatik sendatuztat dauka bere burua. Egia da, bai, ez dela gehiago joango gazte denborako ertz edo punta haietaraino, baina «katharinitis» bat, bere gisakoa, beti gordeko du, halere. Eta batez ere hiztegiaren bidez izan duen eraginagatik, «katharinitis» horren zabaltzaile izan da Azkue gure mendeko euskal idazle askoren artean.

Azkueren Hiztegia 1905-1906 urteetan argitaratzen da. Hiztegi horretan euskaraz sustrai handiko diren hitz asko eta askok, kanpotarrak direla eta, ez dute sarrerarik izan, edo inoiz sartuak egonarrren, galde-marka batekin edo birekin susmo txarrekoztat joak ageri dira. Gero, jakina, horien ordezkioak bilatzen arituko da eta halaholako hitzekin hutsarteok bete nahiko ditu.

Hiztegi gintza-lana egiteko modu hori kritikatu zutenetako bat Altube jauna izan zen, baina garai hartako giroan kritikariak ez zuen, iduriz, arrakasta handiegirik izan.

Eusko Ikaskuntzak 1922. urtean Gernikan bere III. Biltzarra egiten du. Biltzar horretara Altubek lan mamitsu bat dakar: «Euskel-itz Barrijak»². Hiztegi gintza-lana nola egin behar den aztertzen du bertan, eta bere izenez Azkue eta Azkueren hiztegia aipatzen ez baditu ere, begien bistan da hark segituko bidearen kontra dela dena edo gehiena hitzaldi horretan. Alde honetatik guztiz irakurgarria da hitzaldi hau, eta aitortu behar da geroak honetan arrazoi eman diola Altuberi.

Pasartetxo bat bakarrik aipatuko dut:

¹ AZKUE, «Txukuneria», *Euskera* (1925) II-III, 4.

² ALTUBE (S.), «Euskel-itz Barrijak», *III Congreso de Estudios Vascos* (Guernica 1922), 78.

«Erderatiko itzen arerijook talde bittan berezi ei-giñaikez. Lenngo, zustraitijak: erderatiko itzik bat ere ontzat emon nai ez tittuenak; bigarren, biguntxoagotijak: erderatiko itzok artu geinkezala diño e oneek, baiña euskera bizijan ikurpen bardiñekorik ezagutzen ez tanean bakarrik»¹.

Biguntxoagotien artean legoke Azkue. Azkuek behintzat halakotzat jotzen zuen bere burua, nahiz eta Altubek sailkapen honi fede handirik ez eman. Izan ere, Altuberen ustetan, bi joerok berdin samarrak dira, eta biek ipintzen dute hizkuntza nahastetarako bidean; eta hori guztia dator hiztegi-lana behar bezala ez egitetik. Hiztegi-lana egiteko argibideak ematera doa, bada, Altuberen hitzaldi hori.

Altuberen hitzekin esateko, *zabalgo* handiko hitzak hiztegi-gileak aurrenengo tokian edo mailan jarri behar ditu, erdaratikoak izan edo ez izan, eta begien bistan dago Azkuek ez duela hori egin eta hala «katharinitis»-mota baten sortzaile dela bera ere. Horrek ez du esan nahi, bestalde, erdal hitzen zale dela Altube; berak oso ondo bereizten ditu *erdal hitza* eta *erdaratiko hitza*. Erdaratiko hitzak euskal hitzak dira Altuberentzat, euskarak beretakotu dituzenez gero; ezin daitezke, beraz, bazterrera bota, hizkuntzari kalte, eta kalte handia, egin gabe.

Baina Azkuek bereganatua zuen larderiagatik Altuberen irakaspen hauek gehienen artean ez ziren aintzat hartuak izaten.

* * *

Azkuek, bere bizitzako lehen aldian, bizkaieraz idazten zuen. Gero —baina aski goiz— euskararen batasunaren kezka sartzen zaio, eta berak amets duen batasun-suerte horretan idatziko du. Euskaltzaindiak argitaratuak ditu jadanik, Xarrittoni esker, Azkue eta Broussain-en arteko eskutitzak², eta handik ageri denez, badirudi Broussain izan zela batasunaren kezka hau Azkueri harrarazi ziona.

1919. urtean argitaratzen du Azkuek *Ardi Galdua* deritzon elaberria, gipuzkera osotuan egin. *Latsibi*, berriz, bizkaieraz dago, eta xehetasun honek beronek ere *Latsibi* lehenagokoa dela susmarazten digu. (Horrek ez du esan nahi, bestalde, geroagoko ukituak eta zuzenketak *Latsibi*-n ez daudenik, edo egon ez daitezkeenik).

Azkueren literatur lanek ez dute izan besteek —ikerketakoek: Hiztegi, Morfologia eta abarrek— izan duten bezalako kausitze edo arrakastarik. Hizkuntza-arloan asko dakien jauna da, eta dakien

¹ Id. *ibid.*, 81.

² *Resurreccion Maria de Azkue eta Pierre Broussain-en arteko elkarridazketa*, Euskaltzaindia, 1986.

guzti hori, edo asko behintzat, sartu nahi izaten du bere idazlanetan. Beharbada horrexegatik astuntxoa gertatzen da Azkueren idaztan-kerak; ez da, adibidez, irakurlearentzat, Txomin Agirrerena bezain atsegina eta gozoa. Dena den, asko dakienagandik asko ikas daite-ke, eta alde horretatik Azkueren lanak beti izango dira estimagarri.

Azkueren nondik-norakoa eta ibilpidea ulertzeko, kontuan edu-ki behar da beste gauza bat, eta da: Arana eta Aranatarren eskola izan zituela beti aurrez aurre. Gorago aipatu dugu Altuberen pasarte bat erdaratik hitzen arerioak bi taldetan bereiziz: *zustraitijak* eta *biguntxoagotijak*. Esan beharrik ez dago: aurrenengo taldean Arana eta haren eskola daude; bigarrenean Azkue eta honek sortutako es-kola. Baina Altubek garbi ikusi du: batetik bestera dagoen aldea ez da hain haundia. Bestela esan: ez daude bata bestetik berek uste zu-ten bezain urruti.

Eta haxe bai polita: Altube lexikologi arazoetan Azkuerekin bat ez etorriagatik, esaldi barruan hitzak ordenatzeko legeetan, bai, Azkueren jarraitzaile izan zela dirudi. *Erderismos* liburu famatuan hitzak esaldi barruan eta esaldiak elkarren artean ordenatzeko lege zehatz eta zurrunik ematen ditu Altubek; lege horien haziak, berriz, Azkueren obretan aurkitzen direla dirudi, *Euskal Izkindean* batipat (*Latsibi*-ren praktikan ere somatzen dira).

Dena den, Altube eta Azkue, bi-biak lehen aroko Euskaltzain- dian euskaltzain izan ziren, biak jakintsu eta langile fin; biek zuten euskararen arrangura. Nahiz eta aburuetan beti bat ez etorri, elkarri errespetua gordetzen zioten. Errespetuak, ordea, ez zuen kritika ga-lerazten.

* * *

Euskaltzaindiak badu bere galtzarrean Lexikologi Erizpideak Finkatzeko taldea (LEF taldea). Talde horren zeregina da lexiko-berrikuntzarako bideak gertatu. Lexiko-berrikuntza egin beharra duela gaur euskarak ez da dudarik. Sekula ez bezalako aukerak eta desafioak ditu gaur euskarak irakaskuntzan, administrazioan, kom- unikabideetan eta abar sarrera izatearekin. Baina hortik heldu izan zaio, baita ere, hitz berrien premia gorria. Hiru bide ditu pre- mia hori erremediatzeko: 1 Maileguak, 2 Hitz-elkarketa, 3 Erator- penak. Hiru bide horiek ikertzea, hitz-sorketarako baliatzea, eta ho- rretarako egoki diruditen arauak Euskaltzaindiari proposatzea, hori da LEF taldearen zeregina.

Hitz-elkarketari buruzko ikerketa egitea, hori da une honetan talde horrek esku artean darabilen lana. Orain bada, Azkue handia- ren begi zoliaz ohartzeko, aski da *Latsibi* eskutan hartzea. Hitz-el- karketa prozedura horren bidez asmatutako hitz berriak noiznahi

eta ugari azaltzen dira bertan. *Latsibi*-n dauden hitz berriak —prozedura honen bidez sortuak— zerrenda batean norbaitek jasoko babilu, pilo galanta batuko luke. Ez dakit nik hitz berri horiek zer etorkizun izango duten, baina hor daude —*Latsibi*-n, alegia— gizon honek euskara hornitzeko izan duen artegatasunaren sinestamendutzat. Ahaleginok, berriz, huts batzuk egonarren, ez dira hizkuntzarentzat alferrekoak izaten.

* * *

Kalera ateratzen da, bada, *Latsibi* aurrenengo aldiz, egileak prestatu zuenetik ia ehun urte igaro direnean. Berandu, bai; inoiz ez baino hobea, halere. Egileak utzi bezalaxe ateratzen dugu, noski.

Euskaltzaindiak uste izan du, gainera, eskubide osoz «Euskarenen Lekukoak» sailean toki bat zor zaiola *Latsibi*-ri, eta hala aitortu dio.

Eskerrak berriz ere Labayru Ikastegiari, eta bereziki Labayru eta Euskaltzaindiaren aldetik edizioa prestatzeko ardura hartu dutenei, hots, Adolfo Arejita, Mirari Alberdi, J.A. Arana Martija eta abarri.

Fr. L. Villasante
Euskaltzainburua
Arantzazu, Maiatzak 11, 1988.



R.M. Azkuez eta bere obraz zertxobait

Karmele Olano

«Euskalzale» honen bizitza eta obrari buruzko datuak jadanik hainbat aldizkari, liburu, artikulu eta abarren orrialdeen betegarri izan badira ere, jakina dogu Azkuek euskerari eta euskal kulturari egindako mesedea, neurri handi baten behintzat, ordaingaitza egiten jakula. Zilegi bekigu, beraz, orain arte ilunetan egoniko «gertitudi» honen argitaratzea paregabeko atxakia izanik, oraingo honetan ere —barririk ez arren— berbatxo bat edo beste esatea.

Bateoan Resurrección de Jesús María de las Nieves Azkue Aberasturi izena hartu eban Lekeitioko seme hau, 1864ko abuztuaren 5ean jaio zan. Bere jaioterrian egin ebazan lehen ikasketak, bertan 1876an hamairu urte aurrerago bere aita eta olerkari ospetsua zan Eusebio Mariak katedra lortu eban Nautika eskolan sartu arte. Baina karrera hori ez jakon gogozkoa, eta 1878-79 ikastaroan hamar urteren buruan katedratikoa izango zan Bizkaiko Institutuan jarraitu ebazan ikasketak. Batxilergoa Bilbon amaituta, Gasteizko Apezgaitegira jo eban 1881ean, eta hantxe egin ebazan Filosofia eta Teologiako estudioak 1885 arte. Hurrengo hiru urteetan Salamancan egongo da, abadegintzako ikasketak bertan burutu arte. Hainbat kultur ekintzatan parte hartuko dau Azkuek ordutik aurrerantzako urteetan, baina Teologia gaia ez dau alde batera itxiko.

1888an Bizkaiko Diputazioak euskerazko dohako katedra bat sortzen dau Bizkaiko Institutuan. Azkuek bertarako eskariarekin batera *Grankanton Arrantzaleak*, euskerazko kondaira bat, eta euskal gramatika baten zati batzuk aurkezten ditu. Garaikide —baina ez horrenbeste ideakide— jakozan Miguel Unamunok eta Sabino Aranak ere egingo eben eskaria, baina Batzordearen erabakiz 1888ko urrian Azkue jartzen da katedraren arduretan. Horretan jardungo dau 1903-1904 ikasturtea hasi arte, urte horretan hiztegiaren argitalpen lanak dirala eta, Tours-era joan behar daualarik.

Bere argitaratze lanak katedra lortu eta lasterlean hasi ziran, *La Abeja* aldizkarian 1889an lanen batzuk azaltzen ebazala. Ordutik aurrerantzako ekintza eta lanek erakusten deuskuenez, Azkue bene-

tako gizon polifazetikoa dogu: hizkuntzalaritza, literatura, musika eta folklore mailan izten dau agirian kreatzaile eta ikertzaile moduan daukan gaitasun handia.

1891ean *Euskal Izkindea* kaleratzen da. Gramatika honek euskeraz idatzitako lehen izatearen merezimendua dau. Lan honetan erabiltzen dituen iturriak Astarloa, Juan Mateo Zabala eta Arturo Kanpion litzatekez¹, Astarloarengandik euskera hizkuntza logikoa dalako eta gramatikazko arauak salbuespen bakoak diralako ideia hartzen dauala, urte batzuk aurreragoko neogramatikoen erizpideetatik baebilen ere.

1893an argitaratu eutsoen bere lehen lan literarioa, *Bein da Betiko*, leienda herrikoi batetan oinarritua; idazleak Antoine d'Abbadieri hitzaurrean adierazten deutsan legez, euskera kulto batez eta eskualde bien osotasun kulturalaz ardura agiri dauana.

1897an orduko giro literarioan oso garrantzitsua izango dan *Euskalzale* aldizkaria sortuko dau. Aldizkari honetan idatzitako «Tširristadak» (anekdotak, artikuluak...) izen bereko liburu baten argitaratuak dira 1898an. Izan ere, laburra izan zan 1897an jaiotako eta 1899an hil zan *Euskalzale*-ren bizitza, baina are laburragoa 1902an sortu eta urte bi besterik iraungo ez dituen *Ibaizabal*-ena.

Hala ere, 1890-1905 bitarte honetan beste era bateko lanei ere ekingo deute, adibidez, *Jesusen Biyozaren Illa* eta musika lan de-xente —*Vizcaytik Bizkaira, Eguzkia nora, Sasi Eskola...*— argitaratzeari.

1905-1906an etorkizunari eskeiniko deutson baliorik handiene-ko lana ez bada, garrantzitsuenetarikoa dana agertuko dau, hau da, *Diccionario Vasco-Español-Francés*. 1916an *Diccionario español y vasco* atalka argitaratzen hasi zan, eta 1918an salgai jarri eban *Diccionario de bolsillo* dalakoa. Urte honetakoa da baita *Prontuario fácil para el estudio de la lengua vasca popular*.

Haatik, hiztegiak edo-ta musika lanek denbora urriagotzen eutsoen arren, 1918ko udan izenpetu eban berak proposaturiko «gipuzkera osatuan» idatzitako *Ardi Galdua* nobelaren hitzaurrea.

Atsedetik bako lanari esker, 1922 inguruan ikusi eban argia *Cancionero Popular Vasco* dalakoaren bederatzi tomok. Zorte bardina izan eban 1923an *Morfología Vasca*-k eta 1935-1947 bitartean *Euskalerriaren Yakintza*-k.

Honenbestez ere, aitatu barik gelditzen jakuz Azkueren beste lan asko, 1919an Euskaltzaindia sortzetik heriotza heldu ekion

¹ ARANA MARTIJA, Jose Antonio: *Resurrección María de Azkue*, Ed. por C.A.V.; col. «temas vizcaínos» 103-104 zenb. 1983; 94.orr.

arte bertako lehendakari izanik, *Euskera* aldizkarian idatzitako gatzitik at.

Bilbon 1951eko azaroaren 9an hilgo dan hizkuntzalari ospetsuaren azken lana *El Vascuence y varias lenguas cultas. Estudio Comparativo* dogu.

Bizitza bezain obra oparodun honi buruz Antonio Tovarrek¹ hauxe dinosku: Azkueren lanak bere egilea garaiko giro zientifikoaren seme izatearen berezitasunak erakutsiko leuskiguzala. Azkue lanean hasi zan garai haretan linguistika hizkuntza hiletan oinarritutako zientzia izatetik errealitatean aplikatzen hasten da, dialektologiak ere bere burua zientzia gisa azaltzen daualarik. Tovarren eritziz, gizon honen lan zientifikoaren lehen berezitasuna joera herrikoia litzateke; alabaina, XIX.mendeko gure akademiku garbizaleen antzera jokatuz, oinarri eban herrikoitasun horri ez jakon faltatuko ikutu garbizalerik. (Dirudienez, jokabide honen ostean herri bakoitzaren arima orbangabea dalako ideial erromantikoa legoke). Era honetan, bere ikerketen helburua euskera—oraindik literatur hizkuntza batu bat ez dana—izatean, Azkue hizkuntzalaria eta tradizio herrikoia ikertzailea ez ezik, idazlea eta hizkuntza sortzailea ere badogu.

Hala eta guztiz ere, hizkuntzalari eta ikertzaile moduko fruituez lortu eban beste laudorio ez eban irabaziko literatur mailako ahaleginez. Lasagabasterren ustetan² «Azkuek, kontagintzaren barrutian bi aldiz sartu ba zen ere—*Bein da Betiko* eta *Ardi Galdua*-z ari da—inoiz ez zuen euskal nobelaren historiarako zerbait ardurazko egin». Dana dala, oso adierazgarriak iruditzen jakuz Mitxelena Azkueren lan literarioaz mintzatzen daneko hitzok:

No obstante, sin menospreciar en absoluto el valor de esta obra original, la influencia de Azkue en la literatura vasca ha sido indirecta, pero no por ello menos decisiva³.

¹ TOVAR, Antonio: «Conferencia sobre el tema: la obra de D. R.M. de Azkue», *La obra de don Resurrección María de Azcue. Edición-recuerdo de la velada necrológica celebrada en Bilbao, por la Junta de Cultura de Vizcaya, el día 4 de enero de 1952*; Bilbao, 1952. 25.orr. (folleto bat da).

² LASAGABASTER, J.M.; «Euskal nobelaren gizarte-kondairaren oinharriak», *Euskal linguistika eta literatura: Bide Berriak*. 358.orr.

³ MITXELENA, Luis; *Historia de la Literatura Vasca*. Ed. Minotauro. Madrid, 1960, 142.orr.

Latsibi-ren noz-nongoetaz

Latsibi-ren barri emoten dabenen artean¹, ez dogu datarik aurkitzen. Dana dala, dagozan datuek apurtxo bat albinotuz erakutsiko leuskiguen ondorena, sendoagoa litzateke Aita Lino Akesoloren eritzia gehitu ezkeror.

Argi legoke, bada, eleberria girotutako unetik idatzi arte urte batzuk pasatu zirela. Liburua 1888an Bizkaiko Aldundiari Bilboko Institutuan euskerazko katedra sortzeko asmoa erakutsi eutson Aureliano Galartza jaunari eskeinia da. Are gehiago, eleberriaren ekintzari hasiera emoten deutson eguna, «1890 gafen urteko garagafilaren irugañen egusentia zan». Dirudienez, eleberriaren gaia une historiko haretan gertatutakoaz bat letorke, 1890eko hauteskunde probintzialetan Mungia aldean karlistek gehiengo lortu eben eta².

Egia esan, eskuizkribuko lehen orria dirudienean izkribatutakoak, hau da, «R.M. Azkue elizgizonak *aspaldion*³ egindako gerturudia»-k, iraganean idatzitakoaren gaineko ikutu barri bat dala emongo leuke, epe luze samarra bitarteko («aspaldion» hitzak bere hiztegian «hace ya tiempo» esan nahi dau). Pentsa leiteke, beraz, Azkue nobela argitaratu barik joan jakon denboraren igarotzeaz kontzientea zala. Horregaitio, makinaz idatzitako testuari gainetik egindako beranduko zuzenketek erakusten dabenez, eleberria kalean ikusteko borondate faltarik ez eban izan, antza.

Gauzak honela, testuak hizkuntzaren aldetiko azterketa sakon bat beharko leuke hasierako bideari noraino darraion ikusteko, eta eritziak hobeto mugatu ahal izateko. Esan bedi, edozein gogoeta xumek ez leuskigula argi gehiegirik eskeiniko hizkuntzan hainbesteko maisutzara heltzen danaren aurrean.

Giroa. Euskal eleberriaren sorreraren inguruan

Gure historiaren ibileran XX.mendeak XIXgarrenari txanda hartzen deutsoneko azken urte horreetan, Mitxelenaren hitzetan «aparición de un espíritu nuevo⁴» dana gertatuko litzateke. Izpiritu barri

¹ Bai Mitxelenaren liburua eta bai J.A. Arana Martijarena aipaturikoak dira. *LATSI-BI*-ren barri emoten dabe, baina datarik ez.

² REAL CUESTA, Javier; *El carlismo vasco 1876-1900*. Ed. Siglo XXI. Madrid, 1985. 293 orr.

³ Azpimarratzea (*aspaldion*) gurea da.

⁴ MITXELENA, L.; op. cit. 141.orr.

hau literaturara ez ezik, hizkuntzalaritzara eta ideien mundura ere hedatuko litzakigu. Literatur alorrean elaberriaren sorrera, hizkuntzalaritzan batez ere Azkueren lana, eta ideien munduan Sabino Aranarena horren emaitzak dirala.

«Real Sociedad Vascongada de Amigos del País» dalako taldearen lanek garrantzi handia leukie ideia barrien zabalkundean. Euskal Herrian ordurarteko jakintsuak apezteriaren erizpideen menpe baebilzan ere, une horretan kokatuko genduke alde bien arteko aurkakotasunaren sorrera argia, nahiz eta, Mitxelenaren hitzekaz jarraituz «el fondo de todo lo que se escribe sigue siendo estrictamente católico¹». Beraz, apezteriak kulturagabeko herri euskaldunari eskua luzatuz, euskera ideia barri eta modernuen kontrako harresi bihurtzen hasi daneko egoeraren barnean koka daiteke eleberri historiko eta kostunbristekin hasiera emoten jakon euskal nobelaren sorrera.

Mendearen azken hogeitau urteetan gero ta euskal festa eta lore joko antolatze ugariago dakusgu Euskal Herrian, konkretuki leiendek Donostian oihartzun handia jasotzen dabelarik. Berandu eta horrez gainera irakurle kopuru urriaz jaiotzear dagoan literatur mota barria onartzeko giroa prestatzen hasia litzateke. Honelako «gertakizun» baterako nahitaezko jaku irakurlegoa nolabait zabaltea; era honetan, batez ere aldizkariak aurrerapausu horretarako berebiziko bide bilakatuko dira. R.M. Azkuek sorturiko *Euskalzale*-k garrantzi berezia lortuko leuke, euskal nobelaren historiari sorrera emongo leuskion *Auñamendiko Lorea* bertan ezagutarazten da eta.

Auñamendiko Lorea baino aurreragoko elaberriez mintzo dala, Lasagabaster² euskal nobelaren «prehistoria»-z ari da. Beraz, *Latsibi* euskal nobelaren «historia»-ren barneko lehenengoetariko altxorra dala esan geinke. 1897 litzateke *Euskalzale* aldizkariak, *Auñamendiko Lorea* nobelak eta Agirre nobelariak marratzen daben euskal nobelaren sorrera adierazi deikigun urte-eguna.

Gorabehera sozio-literario honeek, hemeretzigarren mende buuruan Euskal Herriak bizi izan dauan egoeraren argitan azaldu beharrean gengokez: Bigarren Karlistadaren ondoko euskal-foru askatasunaren hondamenak ondorio garrantzitsuak dakar. Hainbeste gerra osteko foruen galeraz, ekonomia mailan sistima tradizionalaren krisia agirian jartzen da, hau da, autokontsumoan, sendi arteko hustirakuntzan eta ondasun komunaletan oinarritutako nekazal

¹ MITXELENA, L.; op. cit. 141.orr.

² LASAGABASTER, J.M.; op. cit. 357.orr.

ekonomi sistema hiltzorian aurkitzen da industrializazio modernua-
ren hastapenetan, proletarizazioa oraindino gauza arrotz legez ikus-
ten danean. Horrez gainera, euskera eta euskal ohiturak, adminis-
trazioa, eskola eta inmigrazioaren aurka galtzaile sentitzen dira.
Analfabetismoa gitxituz badoa ere, eskolatzea gaztelaniaz egiten da.
Uriak —batez ere Bilbo— erdaldunak dira, euskeraz biziteko auke-
rarik gitxi eskeintzen dabenak. Ez litzakigu azalduko irakurleak lor-
tzeko girorik egokiena.

Azkue, noski, oso kontzientea da egoeraz, eta horrela agertzen
jaku, eleizarako liburu bat edo beste izan ezik beste liburu eta paper
guztiak eta euskal festetako *disursoak* (*sic*) ere erderazkoak dirala
dinoskunean¹.

Irakurle kopuru urria ugariagotzeko eragozpen honeek dirala
batetik, badago bestalde irakurlea nolabait barriztatzekeo premia:
irakurlea arimaren probetxurako testuak (sermoiak, katekismak...)
irakurtzen ohitua dago, eta zaila gertatuko da benetako literatura
irakurtzen dauan euskaldun danez tratatua izatea.

Zeresanik ez, irakurle neutrala lortzea erreza ez bada, zenbat
kosta daiteken kontestu sozio-politiko honetan neutraltasuna agiri
daben testuak aurkitzea.

Esan bezala, Azkue bere garaiko seme izateak eskaturiko jar-
duerei ekin eutsen. Honela azalduko litzateke bere lanaren ostean
izkutututako xede didaktikoa ere. Didaktismo honek era bitako as-
moak agertuko leuskiguz: aberriaren zerbitzurakoa eta hizkuntza-
ren zerbitzurakoa.

***Latsibi*-ren jomuga biak. Hizkuntza eta Aberria**

XIX. mendeko azken urteetan erretako «ispiritu barria» hizkun-
tzalaritzara ere zabaldu dala agerrarazteko lekukotasunik zuzenena,
ziur aski, Azkueren lana genduke:

«La publicación de *Euskal Izkindea* (1891) de Azkue, impone el nacimiento de una tradición de escritura, de tradición en la lengua, con el nacimiento de actitudes puristas con respecto a la lengua, en primer lugar con respecto a la morfología verbal, posición mantenida por Azkue, y

¹ 1902ko Ilbeltzaren 26an, *Ibaizabal* -en dio hori.

más tarde con la radicalización de la actitud purista a otros aspectos de la Gramática, como la lexicografía¹.»

Hasierako bide horretan errakuntzak izana autortu arren, eta *Euskalzale* inguruko lanetan erabilitako Larramendiren neologismoak urte gitxiren barruan, asmoz behintzat, erabat bazterten baditu ere, hizkuntza garbi eta koherentea lortzearen ardureaz ziharduen gogo osoz. Erderakadak onartzeko, beharrian eta antxinatutasun handikoak izan behar, edo-ta herriaren ezpainetan kiderik bakoak. Zehatz jokatu leuke Azkuek arlo honetan: zalantzezko kasuetan, *txotoa* (?), *esperentzia* (??) idazten dau. Baina herriarengan, hizkuntza biziarengan behar dauan konfiantza izanaz, «intentiño» idazten dau, «gogokizuna» Mungia aldean ez dala esaten oharrean adieraziz. Bere ustetan, «ota-abarra baino sugarri obeak izango litzakez erderakada ta erdalkeriak²». Erizpide honetan, funtsean, Azkue eta Arana Goiri bat letorkez, kontrako ustea oso zabaldua izan arren³.

Hizkuntzarekiko oso ardura handia dauanaren jarrera dakusgu *Latsibi*-n zalantzarik barik. Askotan agertzen dira parentesiak eta ohartxoek bidez egindako azalpenak esanahi aldetiko argitasunik falta ez daiten, irakurleak euskerazko hitza ulertu eta ikasi daian. «Euskereak daukana da: irakurle gitxi ta sasi-iakitun asko» dino Azkuek *Euskalzale*-n.

Nahiz eta didaktismoa literaltasunaren kontra joango litzateken, idazleak funtzio metalinguistikoari eskeinitako lekua esanguratsua dala esan behar: (asko ta asko dira adibideak).

- «¿Beka zer dan badaiki e? Doa-doarik ikasketak egitea».
- «Onkote bat izan naz txiki-txikitati, malizia bakoa beti».
- «Onetxek izan ziran bere itzak, bere eleak».

Beharbada, darabilan euskera arruntagoa, xaloagoa, errazagoa suerta eitekean didaktismoaren ikutua txikiagoa izan baleu. Honen moduko berba pilaketak ikustea besterik ez: «Euron asefe ta ikusiezin ta iguin ta kuñuka ta bekaitz ta gofotoaren gar guztia...».

Metahizkuntzazko funtzioa pertsonaien ahotan agirian gelditzen danean, errealismoaren kontrako joera legoken arren, erderazko urtenaldiak (gaztelaniaz eta latinez ere), ugariak diran hotsitzak

¹ KORTAZAR, Jon. Argitaratu gabeko artikulua. Euskal Filologiako Departamendua. U.P.V.-E.H.U. 1986.

² *Euskalzale*-n 1897ko urtarrilaren 24an.

³ PAGOLA, I.; Aipatutako hitzaurrean diona da. *Bein da Betiko...*

edo esaerak, errealismorako joera baten adierazgarri litzatekez. Erderazko hitzak, normaz kanpokoak izateagaitik, azpimarratuta dagoz: «*Sacristan, cantor, organista* egin nenduen». Bestalde, elkarriketek ere, testua irakurterrezago edo irakurtarinago eginaz, hizkerari bizitasuna eta indarra emongo leuskioe.

Azkueren estiloaz labur eta argi zerbait esateko, esanguratsuak gendukez ondorengo berbok:

«Azkue escribía en un vascuence diáfano, rico y fácil... tenía un humor amable y juguetón... no podía ocultar largo tiempo su afán preceptista y tampoco conseguía siempre refrenar el deseo incontenible de volcar a cada momento las riquezas del léxico vasco que tan bien conocía. De aquí el aire poco grato a composición literaria o a ejercicio de estilo que despiden algunas de sus páginas¹.»

Hizkuntzarekiko kezka batetik, badogu bestetik gaiaz ere goieten batzuk egin beharra. Izana eta izenaren arteko lokarri litzateken Latsibik Latsibitarrentzat izan beharko dau, interes batzuren menpeko joko zikinaren ondorio gertatzen bada ere. Santi Latsibik bere izeneko baserria bereganatzeko dauen nahiaren osteko oihartzun bezala izango gendukez, Azkue sermolariak 1895eko uztailaren 21ean Gernikako Andra Mariaren eleizan foruen ukapen legearen aurkako protesta sutsuan entzulegoari zuzendutako berbak: «¿Baiña onelan deritson erri au Bizkaidša dogu? Ižena ta izâtia sarri egoten dira banaturik»².

Luze mintzo jaku une berean Azkue, egiazko euskaldunen bihotzetan Lege zaharra eta Jaungoikoa, Aritza eta Gurutzea banatu ezinaz. Gernikako Arbola bitarteko, Euskal Herria eta Jaungoikoaren arteko itun idealak, mundu mugitu ezin, ahistoriko, arkaiko eta rural baten ikuspegi idealizatua suposatuko leuke. Santi Latsibi bezalako euskaldun eredugarriak beharko litzatekez Azkuek defenditzen eban ideologiaren proiektuak burutzeko.

Kartagoarrak galtzaile dira eta Erromarrak irabazle. Espero daitekenez, Latsibitarrak Erromazaleak dira, baina ez dira talde

¹ MITXELENA, L.; op. cit. 143.orr.

² «Sermón pronunciado en la Iglesia Parroquial de Santa María de Guernica, el 21 de julio de 1895» en *Jaungoikua eta Foruak*. Bilbao, 1896; 21.orr.

bien arteko borrokaren eszenan sartzen, borondatez behintzat. Gizon eredugarriak ez dau agirian borroka egiten ez Morrosko ez Bekosolo garaile izateagaitik.

Horrezaz gainera, Erromarrak irabaziagaitik, ezin geinke esan manikeismo huts baten jausten danik. Argi eta garbi izten da politikaz desberdinak izan arren, batzutan, «otso ta otso» barik, «bildots ta bildots» dirala. Era berean, laster susma geinke Arangoiti edo Busturiren jarrera D. Anbrus eta bere ingurukoenetik urrunduko dala. Arangoitiren hitzak honeek:

«Mungiafak bazarè jeztozue uste gure uri maite onen bearorduetan Jose Andres Bekosolo Mungiafak, Efomafa izan afen, nor dan eztakigun mutil batek baino obeto ezkauzala sorotsiko, eztauskula bear doguna eskuratuko?»

Ez dirudi politika kontua garrantzitsuena danik. Kartagoarra edo Erromarra izatearen gaintik legoke Mungiarra izatea. Azkeri bere pentsakera kontserbatzaileak zuzenduko eutsan idealismo horretarainoko bidea. Azkue ez da gizon itxia: Manikeismoa salbatzeak garrantzi berezia lortuko leuke. Gizaki «onen» eta «txarren» arteko elementu batutzailea Mungiarra izatean aurkitzen dau. Orraitio izango leuke leku berezia Lejartzegi bezalako pertsonai batek. Elaberriaren amaierarako gordetzen ditu bere berbak. Santi Latsibik heriotzako orduan Kartagoarrak beragaz daroazala entzutean, zera erantzuten dau Lejartzegik:

«Amen Jesus. Eta, gizonak, Efoma be beragaz baleroa jezzer galduko etegeuke Mungiafok?»

Gitxi balitz, kontalariak honi zerbait gehitzen deutso: «Inoretzan Lejartzegi zañari ezer erantzuten azartu». Hitz honeek kontalari orojakile batenak gendukez. Kontalariarentzat historiak ez dauka sekreturik, dana daki. Jakituria honi esker egin daikez kontatzen dauanari buruzko komentarioak.

Dana dala, gizon zintzoak ez diran D. Anbrus, Morrosko eta Epikoren maltzurkeria erakusten dauala, uriko kutsadurarik bako euskaldun jatorra, kristauaren izaera garbia eta ohitura onak agertzen ditu.

«Bilbo zaratefi astrapalatsu»-an umeeek jostailuak ezagutzen dabez, «Yatabe isilefi baketsu»-an ordea, «mantar zar batzuk alkari lotuta, eregiña direla esanda, sinistu egiten dabe.» Baserritarra eta

bere munduko baloreen aldeko apostua egiten dau; eta, Begiren hizaldia lekuko, euskaldunen betiko izen ona gogoratu ere:

«Atxinako euskaldunai, Erómar ta godo ta Mauruak azpiratu ebezan euskaldunai, baita lengo mendekoai (siglokoai) be, politika-igarle batek etorkizuna auresan baleutse, euren ondorengoak peseta batzuren aldera burua salduko ebela sinistarazo baleutse, lotsaz mendiok itxi ta beste alderen batera bizitoki-bila yoango ziran.»

Idea honeen gauzatze eta hezurmamitze litzatekez idazlearen gogozko pertsonaiak, eta kontrakoenak besteak. Hasiera baten herrigalgarri ez diranak, nahiz eta Kartagoarrak izan, inoiz ez dira izango; baina alderantziz ere, herrigalgarri diranak, beti herrigalgarri. Ez litzateke prozesu baten osteko aldaketarik edo krisialdi bitalik gertatuko pertsonaiengan. Planteamendu honetan nahiko alden-duta dakusgu idazlea urte batzuk geroago *Ardi Galdua*-n azalduko dauanetik: elaberri honetako protagonista hasieran «ardi galdua» izan arren, azkenean artalde barruan osoro ekanduta agertzen jaku.

Azkenik, esan daigun euskaldun zintzo horreen hizkuntza Azkueren helburu guztien helburua izatearen aztarna handiak ditugula, honek batzutan humore garratzez mintzatzeko eskubidea emoten deutsola ahaztu barik. Epiko «izlari» eta Ereñozti «adierazle» diran pasartea irakurtzea besterik ez dogu, «euskera eta erdera (edozein erdera) diru baten *cara ta cruz* langoak» dirala ikusteko.

Garai haretan, testua probetxuzkoa izan zedin idatzi zanaren ziurtasuna izan geinke. Denborak aurrera egin dauan arren, ondo legoke egungo irakurketek ere, euskeraren eta euskal literaturaren ezaguerarako dagokion balioaren fruituak eskuratzen jakitea.

Bibliografia

- ALTUBE, S; «Agur, Azkue Jauna, Agur!», *Gernika*, 1952, 20-21orr.
ARANA MARTIJA, J.A.; *Resurrección María de Azkue*, Ed. por C.A.V.; col. «Temas vizcaínos» 103-104 zenb. 1983.
AZKUE, R.M. de; «Sermón pronunciado en la Iglesia Parroquial de Santa María de Guernica, el 21 de julio de 1895», en *Jaungoikua eta Foruak*. Bilbao, 1896.
— *Euskalzale* 1897, 1898, 1899.

- *Ibaizabal* 1902, 1903.
- *Euskal Izkindea*.
- *Diccionario Vasco-Español-Francés*.
- *Ardi Galdua*.
- BELTZA; *Del carlismo al nacionalismo burgúes*; Ed. Txertoa; Donostia, 1978.
- GARATE, G; *Euskal Elaberrien Kondaira I*, Ed. Mensajero. Bilbao, 1983.
- ESTORNES LASA, B.; *Literatura, Vol. III*, EGIPV. Auñamendi. San Sebastián, 1970.
- JUARISTI, J; *El linaje de Aitor*, Ed. Taurus, Madrid 1987.
- KORTAZAR, J; Argitaratu gabeko artikulua. Euskal Filologiako Departamentua. U.P.V.-E.H.U. 1986.
- LASAGABASTER, J.M.; «Euskal nobelaren gizarte kondairaren oinharriak». *Euskal Linguistika eta literatura: bide berriak*. Deustuko Unibertsitatea. Bilbao, 1981.
- MAINER, José Carlos; *Análisis de una insatisfacción: Las novelas de W. Fernández Flórez*. Ed. Castalia, Madrid, 1976.
- MITXELENA, L; *Historia de la literatura vasca*. Ed. Minotauro. Madrid, 1960.
- «In memoriam. Don Resurrección María de Azcue.» *B.S.V.A.P.* 1951, VII, 473.
- OLEZA Juan; *La novela del XIX*. Ed. Laia, Barcelona 1985.
- PAGOLA, I; «Resurrección M.^a Azkue» in AZKUE, R.M.; *Bein da Betiko. Batxi Guzuzur*. Euskal Editoreen Elkarte. Donostia. 1986. 21-32.orr.
- REAL CUESTA, J; *El carlismo vasco 1876-1900*. Ed. siglo XXI, Madrid, 1985.
- SARASOLA, I; *Historia Social de la Literatura Vasca*; Ed. Akal. Madrid, 1982.
- TOLEDO, A.M.; «Kostunbrismoa eta herrialdeetako nobela, euskal nobelaren sorrera». *Literatura Biltzarreko Hitzaldia*. II. Euskal Mundu Biltzarra; Vitoria-Gazteiz 1987ko Urriaren 5-9.
- TOVAR, A; «Conferencia sobre el tema: la obra de D.R.M.^a de Azkue», *La obra de don Resurrección María de Azcue. Edición-recuerdo de la velada necrológica celebrada en Bilbao, por la Junta de Cultura de Vizcaya, el día 4 de enero de 1952*. Bilbao, 1952.
- VILLASANTE, Fr. L.; *Historia de la literatura vasca*. Ed. Aranzazu. Burgos, 1979.



Argitalpenaren prestakuntza

Mirari Alberdi

Resurrección Maria Azkueren *Latsibi* elaberriaren argitalpena gertatzeko eskuratu ahal izan dogun materiala hau izan da:

1. AZKUE Bibliotekan dagoana.
 2. Loiolako liburutegian dagoan bertsioaren fotokopia.
1. AZKUE Bibliotekan aurkitu dogun material guztia honako hau dogu:
1. *Latsibi* elaberriaren bizkaierazko bertsioa, makinaz idatzia. Bertsio hau Azkuek eskuz egindako zuzenketaz josita dago eta halan da guztiz be testuan zehar ehundaka errata gelditu dira. Bestetik, zenbait orrialdetan esaldi oso edo esaldi zati batzuk bi aldiz idatzita ageri dira, errepikatuta, nahasketa baten ondorioz, jakina. Gainera, guztiz lekuz kanpo dagoan orrialde bat be aurkitu dogu, hau da, gure argitalpeneko 114.orrialdea orijinaleko ordena errespetatuz gero gure 103.orrialdearen lekuan egongo litzake, beraz, guztiz desordenaturik. Guzti honetatik atara leiken ondorioa hau izango litzake: testu hau makinaz idatzi ebana Azkue bera izan behar litzateke eta makinaz idatzi ahala erratak eskuz zuzenduko zituan. Argi dagoana da Azkuek ez ebala testu osoa makinaz idatzita egon ondoren jarraian irakurri, hori egin baleu aurkitu dogun errata kopuru haundi hau, esaldi errepikatuak eta desordenatuta dagoan orrialdeari egokion zenbakia zuzenduta aurkituko bait gendukez, ezinezkoa bait da testu osoa jarraian irakurriz gero horrezaz ez konturatzea.
 2. *Latsibiren* gipuzkerazko bertsioa, Gerard Baehr-ek Azkueri idatzitako zenbait gutunetako idazkera aztertuz konprobatu ahal izan dogunez, hizkuntzalari honek eskuz idatzia. Bertsio honen zati batzuk falta jakuz: III.kapituluko 7-8 orrialdeak eta IV.eko 4-5 orrialdeak, batetik, eta bizkaierazko bertsioaren azken hiru kapituluaren testua, bestetik. Gipuzkerazko itzulpen honek bizkaierazko testuari zati as-

kotan ia hitzez hitz jarraitzen deutso, gipuzkerazko lesikoa eta morfologia ezaugarriak erabiliz, jakina, baina badira itzulpena bizkaierazko orijinaletik aldentzen dan orrialde eta pasarte ugari be. Beharbada Gerard Baehr-ek itzulpena egiteko oinarritzat erabili eban bizkaierazko eskuzko orijinala be guri heldu jakun makinazko bertsio honen aldean ezberdina izango zan zenbait pasartetan.

3. Aipatu dogun *Latsibiren* gipuzkerazko bertsioaren lehen bi kapituluak eta beste baten sei orrialde solte (16tik 21era bitartekoak) Gerard Baehr-ek eskuz idatzita. Bertsio hau eta beste gipuzkerazkoa ia berdin berdinak dira, hitzez hizkoak, baina bigarren honetan morfologia mailako zenbait aldaketa be badago. Lehenengoz egin eban gipuzkerazko bertsio garbi ipintzen hasi zala dirudi, orrialdeak ezin garbiago idatzita dagoz eta.
4. «Correcciones en *Latsibi*» izeneko orrialdeak. Izenburuak berak dioskunez, *Latsibin* egin beharreko zuzenketen zerrenda dogu hau. Batetik, Azkuek eskuz idatzitakoa daukagu, zerrenda osoa. Bestetik, zerrenda bera makinaz idatzita baina ez osorik. Badirudi orrialderen bat galdu egin dala. Zerrenda honeetan gehienetan hitz baten ordez erabili behar litzakeana idazten dau. Baina bada hemen argi ez dagoan puntu bat: zein bertsiotan egin beharreko zuzenketak dira honeek? Zerrendan forma zuzentzat emoten dituan hainbat hitz («autarki-batzaile», «bolingoï», «naikide», «ereserki», «baltz», «ezkurdi», «lorgailu», «ordain-agiri», «bultzi», e.a.) bizkaierazko testuan erabiltzen ditu; beste batzutan, aldiz, zerrendan zuzendu beharrezkotzat hartzen dituanak ageri dira testuan («elkizun», «bantzu», «errezel», e.a.)
Gipuzkerazko bertsioan, berriz, zerrenda honeetan zuzendu beharrezkotzat hartzen diran hitz gehienak erabiltzen ditu Baehr-ek, baina ez danak; Azkuek forma zuzentzat hartutako batzuk be ageri dira bertsio honetan («beltz», «ikerle», «asao», «bultzi»...)
Beraz, beste bertsioen bat oinarritzat hartuta egindako zuzenketak ete dira?
5. «Itzaurrea» izenburua daukan orrialdea, Azkuek eskuz idatzia. Bi zatitan banatu eban Azkuek: «I Aureliano Gallarta jaunari. II Irakurleari oar bat edo beste», hitzaurrearen hasieran berak azaltzen dauanez. Baina gure es-

kuetara lehen atalari dagokion testua bakarrik heldu da, orrialde bakarra.

6. *Latsibiren* bizkaierazko bertsioari dagokiozan bi aurkibide, Azkuek eskuz idatziak. Horreetariko baten agertzen diran kapitulu eta azpiatalen izenburuak ez dira hitzez hitz makinaz pasatutako bertsioan agertzen diranak; kapitulu batzutan ezberdintasunak dagoz, hala nola, VII, XII, XX, XXVIII, XXXIII.etan. Bestea, berriz, ez jaku osorik heldu, XXVI.kapitulurainokoa baino ez daukagu, orrialde bat edo bi falta diralarik.
7. «Yazoera ónen arteko gizakiak» izendaturiko bi orrialde. Batean *Latsibin* agertzen diran pertsonaia agirien zerrenda daukagu; bestean, berriz, ez hain agiriena. Hau be Azkuek eskuz idatzita dago.
8. *Latsibirako* irudiei buruzko apunteak. Irudiei dagokienez, AZKUE Bibliotekako karpetan dagoan materiala ordenatu ondoren aurkitu doguna hau da: Azkuek bere obran sartzeko pentsatuta eukazan irudien zerrenda eta irudi bakoitzaren deskribapena egin eban eta egin behar ebezan irudigileen artean banatu ebazan multzoka. Zerrenda bat baino gehiago egin eban: batean Tillac, Garmendia, Angel Garavilla, Julian Ibañez de Aldecoa eta Valentin Zubiaurreren artean banatu ebazan irudiok bakoitzari egokion irudien zerrenda egin ez. Zerrenda honetan batzutan irudi bera marrazkilari bati baino gehiagori enkargatu eutson. Beste bietan, berriz, liburuan ipini nahi zituan 32 irudien zerrenda egin eta bakoitzaren ondoren marrazkilariaren izena daukagu. Zerrenda honeetan Juan Ajobitaren izena be ageri da marrazkilariaren artean.

Edozein modutan be, gure eskuetara heldu diran irudiak 12 baino ez dira, 11 Tillac-ek eginak eta bat Angel Garavillarena. Tillac-en 11 horreetatik 7 lehen zerrendan berari egokiozan zazpirak dira eta beste laurak lehen zerrendan Garmendiaren izenean ipinitakoak. Angel Garavillaren bakar hori, ostera, ez dogu *Latsibi* elaberriarekin batera dagoan material guzti honekin aurkitu, *Euskalerriaren Yakintzarako* enkargatu zituan irudien artean baino.

Beste marrazkilari guztien irudiak ez ditugu aurkitu; egingo ete zituan bakoitzak bereak?

—«Fotografias» eta «Ilustraciones de *Latsibi*» izeneko bi orrialde; berriz be argazki eta irudi batzuen zerrenda.

— Azkenik, «Personajes de las ilustraciones de Latsibi» deritzan orrialdea. Pertsonaia bakoitza zein iruditan agertu behar dan adierazten dauan zerrenda.

9. *Latsibin* aitatzen dituan herri batzuen zerrenda ageri dan orrialde bat be bada. Bi zutabe ageri dira; batekoak bizkaierazko testuan erabili dituanak dira eta besteakoak, berriz, ez dakigu beste ezagutzen ez dogun bertsioren batekoak izango diran, behintzat ez dira gipuzkerazko bertsiokoak. Hona hemen zerrenda labur hori:

Mungia = Muruaga
Laukariz = Laisekan
Gatica = Gabica-Gomibay (?)
Sondica = Soloeta
Plenzia = Pinondo
Gaminiz = Gordoniz
Maruri = Meztiri
Jatabe = Larrabe
Arrieta = Arketa
Gernika = Gendika

10. Azkuek eskuz egindako «Gora Bekosolo» kantuarien partitura, gipuzkerazko bertsiotan Baehr-ek kopiatuta ageri dana.
2. Loiolako liburutegitik lortutako *Latsibiren* kopia. Lehen orrialdean eta eskuz idatzita hitz honeek irakur daitezke: «Latxibi. Novela inédita de Azkue. Propiedad del P. Olabide».
- Bertsio honetan lau idazkera edo letra ezberdin dagoz, kapitulu-luka banatuta: hiru letra mota bina kapitulurekin eta letra mota bat 10 kapitulurekin.
- Bertsio hau besteen aldean oso ezberdina da hizkuntza aldetik (lesikoa, morfologia...) zein kontaktaren aldetik (estiloa, hariaria...). Kapitulu batzutan bizkaiera eta gipuzkerazkoaren hariari jarraitzen badeutso be, honeetan ez dagozan azalpen eta kontaktizun asko dagoz. Bertsio honetako beste kapitulu batzuk, gainera, ez dira besteetan agertu ere egiten. Ez dakigu bertsiotik hau nondik norakoa dan, nortzuk idatzia izan zan, e.a. baina Azkuek idatzitakotik asko aldentzen da.

ZEIN IZANGO ETE DA LATSIBIREN JATORRIZKO TESTUA?

«Para honrar de alguna manera la memoria de este digno diputado, escribí hace ya muchos años una novela en dialecto bizkaíno

intitulada *Latsibi*. Poco después la tradujo al guipuzkoano Gerard Baehr. Uno y otro manuscrito yacen aún inéditos.»¹

Hitz honeek irakurri ondoren argi dago bizkaierazko *Latsibi*-ren eskuizkribu bat izan dala, berak «Uno y otro manuscrito» diosku eta. Baina, tamalez, ez da gure eskuetara heldu. Guri heldu jakuzan bi bertasio horreetatik, berriz, Azkuek berak dinonagaitik, gipuzkerazkoa makinaz idatzitako bizkaierazkoa baino lehenagokoa litzake, Azkueren eskuizkribua oinarritzat hartuta Gerard Baehr-ek itzulia. Makinaz idatzitakoa izango litzateke, beraz, azkena. Zergaitik hartu ete eban nobela luze hau goitik behera makinaz idazteko lan izugarri hau? Ez ete eban obra argitaratzeko asmoz egin? Ez dirudi hau esatea burugabekeria haundia danik. Hau pentsatzeko beste arrazoi bat be badaukagu: elaberrian zehar lauzpabost aldiz aitatu nahi dau obra bereko beste orrialde bat baina ez dau behin be orrialdearen zenbakia ipini... Zergaitik? Ez ete zan izan baekielako inprimatzean orrialdeen zenbakiak aldatu egin behar izango zirala?

NOIZKOA IZAN LEIKE ELABERRIA?

Azkuek *Latsibi* elaberria 1935.urtean argitaratu zan *Euskalerriarren Yakintzaren* lehen alearen hitzaurrean aitatu eban, baina obra honen eskuizkribua 1930 inguruan edo hortik aurrera ihardun eban idazten. Aipu honetan gainera «escribí hace ya muchos años» diosku.

Bestetik, berak bizkaierazko eskuizkribua egin eta denbora gutxira itzuli ei eban Gerard Baehr-ek gipuzkerara. Hizkuntzalari legazpiar hau 1900.urtean sortu² eta gazterik hasi ei zan euskeraz idazten: «Fue colaborador de las revistas «Euskal-Esnalea», «Euskera» y «RIEV». En la primera se inicia como escritor euskérico con *Uaño naiz xirietaz* (1922, p. 109).»³ Beraz, 22 urte izango zitu euskeraz idazten hasi zanean. Itzulpenak egitea «euskeraz idazte» horretan sartuko litzake ala bera euskeraz idazten hasi baino lehenagoko lana izan leike? Badirudi 22 urtetik beherakoa gazte-txoa izan leikeala hain lan zail eta neketsuaren ardura hartzeko.

¹ AZKUE, R.M. de: *Euskalerriarren Yakintza*, vol. I, Madrid, Espasa-Calpe, 1935, 9.orr.

² IKUS VILLASANTE, L: *Historia de la Literatura Vasca*, Ed. Aranzazu, 1979, 415-416.orr.

³ B.E.L.: BÄHR, Gerhard in *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco*. Cuerpo A. Diccionario Enciclopédico Vasco, vol. III, San Sebastián, Auñamendi, 1971, 467.orr.

Hori dala ta, gipuzkerazko itzulpena 1922-30 tartean egin zan susmoa daukagu. Azkuek dioskunez, gipuzkerazko itzulpena bizkaierazko orijinala berak idatzi eta denbora gutxira egina izan bazan, XX.mendeko bigarren hamarkadan idatzitako elaberria dala pentsatu leiteke, data zehatzik emoteko frogarik ez daukagun arren.

ZEIN BERTSIO ARGITARATUKO DOGU?

Guk argitaratzeko gertatu dogun testua bizkaieraz makinaz idatzitakoa izan da, jakina. Horretarako arrazoiak oso argiak eta zehatzak dira:

1. Azkuek berak *Latsibi* bizkaieraz idatzi eban eta hau da oraingoz daukagun bizkaierazko orijinal bakarra.

2. Testua makinaz idatzita eta zuzenketa eta oharrez josita egozteaz gain, obrari hitzaurrea, aurkibidea, elaberrian zehar agertzen diran pertsonaien zerrenda eta obrarako nahi zituan irudien zerrendak eta deskribapenak ez dagoz bere gaztaroko idazkeraz edo letraz idatzita. Azkuek bizitzan zehar bere adiskide eta lankide edo laguntzaileei idatzi eutsezan gutunak aztertuz, bere letra urteen buruan asko aldatu zala ikusi leike. Eta obraren hitzaurrea, aurkibidea, e.a. berandu samar idatzitakoak dirala dirudi, 1934-40 tartean idatzitako eskutitzetan ageri dan letra darabil eta.

Zertarako gertatu zituan obraren atal honeek argitaratzeko asmorik izan ezik? Zertarako enkargatuko zituan irudiak? Badirudi, zerbait argitaratzekotan behintzat, makinazko bertsio hau izan behar litzatekeala. Horrexegaitik, hain zuzen, aukeratu dogu geuk be.

Hemen egin dogun azterlantxo honezaz gain, bada Azkueren obrari buruzko ikerketa zabal eta sakonak egiteko premia bere bizitzan zehar garai ezberdinetan egin zituan lanak hobeto eta zehatzago ezagutu dagiguzan. Arlo zabala dogu hor aztergai eta aurrerantzean be izango al dogu gizon haundi honen lana aztertzen jarraitzeko aukera!

Sarreratxo honekin amaitu baino lehen, AZKUE Bibliotekako bibliotekari-orde Jose Antonio Arana Martija jaunari, liburutegiko materiala eskuratzeko eta hainbat informazio lortzeko eskaini deustan laguntza baliotsuagaitik neure eskerrik beroenak adierazi nahi neuskioz.

GURE ARGITALPENA

1. Grafiak eta puntuazio markak gaurkotu egin ditugu:

- f, l, t̃ → rr, ll, tx
- esaldi hasierako harridura eta galdera markak ezabatu, koma batzuk kendu, beharrezko ziran beste batzuk ezarri, e.a.
- Puntu honetan hitzen arteko marratxoarekin, gidoiarekin, izan ditugu zalantzarik haundienak. Azkuek ez dau honetan erizpide argirik erakusten eta kasu berean batzutan marratxoa erabiltzen dau eta besteetan ez: batetik «epebakoa da-ta», «galduak gara-ta», «ezeutsen bidali-ta», bestetik «erosten asi da ta», «bidali eustan ta», «dagoala ta»; «amaitu-arte», «sartu-arte» eta «amaituarte», «bazkalduarte»; «atundu-bearrean» eta «yoan bearrean»; «dirutxartel» eta «diru-txartel», e.a. idazten ditu. Kasu gehien gehienetan gaur egun ez genduke marratxoa erabiliko baina gu ez gara inongo aldaketarik egiten ausartu, erlatibozko esaldietan izan ezik, «txit bat atara bagerik egoan-zadorlariak...», «sortu ekion-zerbaitek...», «egin neutsazan-aleginak...», e.a. etan aditz ondoko marratxoa kendu egin dogu. Gaur egun banaturik idatziko gendukezan zenbait hitz be berak elkarrekin idazten baditu guk errespetatu egin doguz: «gengozartean», «zatzazartean», «eteyoazan», «etedakizu», «ezeidautso sinistu», «erantzun eidautso», «Ezalda»...
- Zenbait hitzetan azentoa erabiltzen dau («góra», «bégira»...); guk errespetatu egin ditugu, erizpide argirik jarraitzen ez daben arren.
- Badira testuan zehar Azkuek maiuskulaz idatzitako hainbat eta hainbat hitz (Diputau, Maipuruko, Aldungei, Gutuntegi, Zabala (plaza), Alkate, Bilbotar, Don...) eta gaur egun minuskulaz idatziko lirakeanak; guk gaurkotu egin ditugu, minuskulaz idatziz. Gainera, Azkuek ez dau hitz horiek maiuskulaz idazteko erizpide argirik erakusten, askotan berorrek hitz berbera era bietara idazten bait dau testuan zehar: «Zabala» eta «zabala», «Alkatea» eta «alkatea», e.a.
- Normalean Azkuek elaberri honetan testuaren barruan gaztelerazko hitzak erabili dituanean bi bide jarraitu ohi dau:
 1. gaztelerazko grafiak errespetatu eta hitza azpimarratu (gure argitalpenean kurtsibaz).
 2. euskal grafiaz idatzi, euskaratu.
 Halan da guztiz be badira testuan gaztelerazko grafiez idatzi eta azpimarratu barik dagoan zenbait hitz; gehienetan hitz hori azpimarratu baino ez dogu egin. Baina kasu bereziren baten hitz bera ahapaldi baten barruan behin

baino gehiagotan ageri da eta batean euskal grafiez idatzirik («alkool») eta besteetan gaztelerazko grafiez («alcohol»). Kasu honetan berdindu egin ditugu danak euskal grafiez idatziz.

2. Azkuek testuan zehar parentesi artean ipini zituan sinonimo eta gaztelerazko itzulpenak guk oin ohar bihurtu ditugu irakurleari irakurketa errezteko asmoz. Ohar honeek parentesi artean itxi ditugu, idazleak berak oin ohartzat idatzi zituaneatik bereizteko.
Bi ohar mota honeek (guk oinera ekarritakoak parentesi artean eta berak oinean idatzitakoak parentesi barik) nahasturik ageri dira argitalpen honetan, testuan bakoitzari dagokion lekuaren arabera ordenaturik.
Bestetik, geuk ezarri nahi izan ditugun geure oharrak kapitulu bakoitzaren ostean doaz.
3. Idazleak berak inoiz, pare bat bider testu osoan, (sic) darabil. Guk be ezarri dogu (sic) en bat, eta besteetatik, orijinaletati bereizteko gureak kurtsibaz agertuko dira (*sic*).
4. Testuan zehar idazleak azpimarratuta ageri diran hitz guztiak kurtsiba bihurturik emon ditugu. Danak errespetatu ditugu kasu batzutan azpiko marra beharrezkoa izan ez arren.
5. Errata argi-argiak zuzendu egin ditugu, ahal izan diran guztiak gipuzkerazko testuan konprobatuta; bertsio honetan ageri ez ziranak hiztegian nola jasotzen dituan begiratu izan dogu.
Bizkaierazko orijinallean hizkiren bat ilun dagoan hitzetan be gipuzkerazko orijinalera jo dogu erabakiak hartzeko. Inoiz hitzen bat era arraroan idatzita ageri bada eta errata baten ondorioz dan susmoa izan arren ziur ziur halan danik esan ezin dogunean, gure ustez zentzua izateko behar litzakean lez ageri da hitza testuan eta kapitulu osteko oharretan forma orijinala jaso dogu.
6. Inoiz hitzen bat lerroaren amaieran dagoanean azken hizkia orritik kanpora gelditu da eta oso argi ikusten da falta dan hizki hori zein dan; kasu horreetan hitza osotu egin dogu.
7. *Latsibiren* bizkaierazko bertsioaren kapitulu bakoitzaren hasieran kapituluaren izenburua eta egitura, hau da, kapitulua osatzen daben atalak, izenburu eta guzti, aurkezten jakuz. Atal honeek gero testuan zehar be banatuta ageri dira, hasieran bakoitzak dagokion zenbakia daualarik. Baina hau ez da beti gertatzen. Batzutan, kapitulua aurkeztean bereizitako atalak ez

dira testuan bereizirik agertzen eta testua jarraian dago. Kasu honeetan bereizketa egin beharra ikusi dogu nobela osoak egitura edo azaleko itxura bera izan dagian. Horretarako batetik gipuzkerazko bertsioa izan dogu kontutan, batzutan bizkaierazkoak atalak bereizten ez dituan lekuetan gipuzkerazkoak bereizten bait ditu. Bestetik, eta gipuzkerazko bertsioak laguntzarik eskaintzen ez deuskunean, geuk ezarri behar izan ditugu mugak atal bakoitzaren izenburua eta testuaren beraren zentzua kontutan harturik.

Guk bereizi behar izan ditugunak honeek izan dira:

| kap. | atala | kap. | atala |
|-------|-------|--------|---------|
| I | 3 | XIX | 2 |
| III | 1,2 | XXII | 2,3,4 |
| VI | 3 | XXIII | 2,3 |
| VII | 2,3 | XXIV | 2 |
| IX | 2,3 | XXVIII | 3 |
| XXII | 2 | XXX | 2,3,4,5 |
| XV | 2 | XXXIII | 2,3 |
| XVIII | 3 | XXXV | 2 |


8. Aurkibideetan, «Correcciones en *Latsibi*»n etab. Azkuek idatzi zituan kapitulu eta orrialdeen zenbakiak ezabatu egin ditugu, bizkaierazko orijinalarekin ez datoz bat eta. Eskuzko orijinalen bat oinarriztat harturik ipinitakoak izango ete dira?
9. Aurkitu ditugun irudiak be geuk ezarri ditugu elaberrian dagoen lekuan gutxi gora behera. Azkuek berak egin eban irudien deskribapenari jarraituz testuan bakoitzari dagokion pasartea bilatu eta inguru hartan kokatu dogu irudia.
10. Azkueren «Itzaurrea», aurkibideak, e.a. sarrera honen ondoren jaso ditugu, material hori ordenatu barik itxi euskun eta.

1987.eko Abendua



Latsibi

R.M. Azkue elizgizonak aspaldion
egindako gertirudia.



Itzaurrea

- Muña. I. Aureliano Galartza jaunari.
II. Irakurleari oar bat edo beste.

1. Orain urte askotxo dala Mungiak izentauriko aldun (diputadu) zintzazan; eta zeure asmo eder bat aintzat artuta euskerazko irakasgua (katedra) sortu eban Bizkaiko Aldundiak (Diputazi-noak)¹. Yazoera aren gomutagarri ta neure esker-erakutsizat aspaldi luzean nerabilen nik liburutxoren bat zuri eskinteko gogoia. Ona emen *Latsibi*. Gertirudi edo nobelatxo au, bestegaitik ezarren, zeure errialdekoa dalako, begi argiz artuko dozula uste dot.

Yazoera ónen arteko gizakiak²

*Agirienak*³

1. Andraka Floren, ogi-saltzailea.
2. Anton Imaz, Gatikako sakristau ta kantaria.
3. Arangoiti Juan, legegizona.
4. Arraitz. Sagasti Donato, sendalari ta erromarren gudaiburua, (e) Begi.
5. Arruza Pedro, alkatea.
6. Bekosolo. Agirre Jose Andres, aldun len, aldungai gero.
7. Isasti Intxaurtiaga Ambrosio, (e) Don Anbrus ta Aginbako.
8. Lejarzegi, sendalari ta tresillo-zale itsua.
9. Latsibi Unibaso Pedranton, Yatabeko alkatea.
10. Latsibi Gondraondo Santi, Yatabeko alkatearen aita.
11. Likanora, Pedrantonen emaztea.
12. Manuko, Pedrantonen semea.
13. Torrealdea Isasti Teresa, (e) Tete.
14. Torrealdea Isasti Tomas, (e) Morrosko.
15. Viñas y Andres Pedro, sendalari dubako ta kartagoarren gudaiburua, (e) Epiko.

¹ Asmo au, Galartza jaunaren itzakaz eurakaz, *Euskalerniaren Yakintza* izendun liburu laukoitzaren itzaurrean ikusi dagike irakurleak.

² Personas que intervienen en estos sucesos.

³ Las más salientes.

Ez ain agiriak

1. Adona, Epikoren etxeoandrea.
2. Arandui, abere-saleroslea.
3. Andraka Sebastian, Florenen aita, okina.
4. Arganda, *El Rásimoko* zadorlari (sekretarioa).
5. Basili, Olaberen emaztea.
6. Juan Andres Urizar, (e) Busturi, Berinoleagako kutxazaina (cagero).
7. Ereñozi, Yatabeko zadorlaria.
8. Felipetxu, aldarrilaria (pregonero).
9. Goldaraz, Bilboko legegizon bat.
10. Gumer (Gumersinda Uribe Zelaia), Busturiren emaztea.
11. Hayedo D.^a Isidora, Arangoitiren emaztea.
12. Julian Berezieta, (ez) Labarto, gelunezaina (estazinoko nagosia).
13. Lamiaran, ostararia.
14. Larrinoa, botikario ta Erromaren yaubea, ta bere seme Jose.
15. Lejarzegiren iru alaba: Krisanta, Kristeta ta Krispula.
16. Mauri, indianua, (e) Yatabe.
17. Mendiola Blas, Gatikako parrokoa.
18. Olabe, gozogina ta Kartagoren yaubea.
19. Ortiz de Treviño, eskola-maisua.
20. Zabaleta, eskribaua, ta bere seme Krisanto.

Yazoera geienak Mungiaokoak dira. Nai sendalari, nai alkate, maisu, okin, ostarari... nongoak diran aitatu ezik, Mungiaokoak orrek bere. Gizaki batzuen izen-ondoko *e* orrek *ezizenez* (erderazko *por apodo* edo *alias*) adiarazten dau.

Correcciones en *Latsibi*

1. Por *aukerazain* **autarki-batzaile**.
2. Por *espaloï* **oinbide**.
3. Por *euspen* apoyo **euskarri, oin**.
4. Por *elkizun* aventura **¿zoriketa?**
5. Con *urastegi* también **uretse**.
6. Por *esetsaldi* o *esestaldi* batalla **gudaketa?**
7. Con *batalloi* **gudaritalde**.
8. Por *bolungoi* botellón **bolingoi**.
9. Por *alegia* broma **olgeta y txintxilla**.
10. Por *argilagun* asesor **onulari**.
11. Por *bantzu* contrafuerte **burtzo y gogorgarri**.

12. Con *aurkari* contrincante **naikide**.
13. Por *elian* a coro **aldran**.
14. Por *errezel* cortina **ate-oial, oge-oial**.
15. Por *izmitzaldi* charla **izmizketa**.
16. Por *gordailutzat* en depósito **eukiten**.
17. Por *zeekatu* describir **zeaztu**.
18. Por *zeapen* descripción **zeazketa**.
19. Con *yareipen* dimisión **izte** y **yareite**.
20. Por *izkaldi* disputa **kezka**.
21. Por *zozdun* kapellmeister...
22. Por *ekoiztsu* eficaz **eragile**.
23. Por *elantze* elocuencia **eleantze**.
24. *Idazku* escritorio, *langela* oficina.
25. Con *yaurune* feudo **feudu**.
26. Por *benatsu* formal **benazko** y **yasos**.
27. Por *mailakuntza* graduación **maila**.
28. Por *gudu-arai* himno **ereserki**.
29. Con *goratsu* importante **alazoko**.
30. Por *arteko* interventor **artekari**.
31. Por *asmalari* ingenioso **asmutsu**.
32. Con *Santa Leguako* lejano **asagoko**.
33. Con *lokabezale* liberal **baltz**.
34. Por *lokabekeri* **liberalkeri**.
35. Por *arkontzi* lámpara **argiontzi**.
36. Con *lokabetasun* libertad **azkatasun**.
37. Por *ikazgu*¹ mirador **begiragu**.
38. ¿Con *ezkutapen* misterio **ezkutuki** y **mirari**?
39. Por *ilkizun* mortal **ilkor**.
40. Por *adiuntzazko* oportuno **egoki, arirako**.
41. Por *iztun* orador **izlari**.
42. Por *iztun-alkargo* **izlari-alkargo**.
43. Por *jausoro* parque **ezkurdi**.
44. Con *azturadun* perito **ikerle**.
45. Por *aintzatasun* popularidad **ospe**.
46. Por *erakori* promover **eragin**.
47. Con *aurkezpen* presentación **agerpen**.
48. Con *ginoko* proporcional **laineke**.
- 48 bis. Por *bidailu* vehículo **lorgailu**.
- 48 ter. Por *batzarkide* vocal **maiko**.

¹ «ikusgu» behar litzateke.

- 48 IV. Con *itzulmitzulka* dando vueltas **bilin-bolon** y también **gainazpika**.
49. Por *ainbanatu* repartir **banandu**.
50. Por *artats* recibo **ordain-agiri**.
51. Por *sendailu* receta **senda-arau**.
52. Por *arreun* seda **seda**.
53. Por *garuntsu* sesudo **sen oneko**.
54. Por *zautats* símbolo **igartatz**.
55. Con *egurazti* termómetro **bero neurki**.
56. Con *orgadi* tren **bultzi**.
57. Por *gogaidero* unánimemente **gogo batez**.
58. Con *langailu* utensilio **tresna** y **lan abes**.
59. Por *autitz* voto **autarki**.
60. Por *mintzura* voz **agots**.
61. Por *berinoleta* fab. de vidrio **berinola**.

Latsibi (I)

- I *Latsibi Latsibitarrentzat*. 1. Santi Latsibi bidez- 2. Sondikan ta Artxandan- 3. Bilbon.
- II *Santiren ibilerak*. 1. Don Anbrusenean- 2. Mungiarabidean.
- III *Erromarrak Mungian*. 1. Antxinako ta Mungiako Erroma ta Kartago- 2. Gudalburu ta gudari agirienak.
- IV *Mungiako kartagoarrak*. 1. Lenengo batzarra- 2. Erromarrak estu.
- V *Jauntxoa ta bere ingurukoak*. 1. Tete ta Toto- 2. *El Rásimo*-ko Maipuruan Don Anbrus.
- VI *Maipurutik... maipurura*. 1. Tete zurikatzaile- 2. Toto egurduin- 3. Busturiren egitamua.
- VII *Lenengo guduxkak urian*. 1. Jauntxoa Mungian.- 2. Arangoitireneko batzarra- 3. Iztun ta yardun-asmoa.
- VIII *Kartagoarrak Kartagon*. 1. Lenengo guduxkak.
- IX *Lenengo guduxkak aldaurietan*. 1. Yatabera -bidean- 2. Luze eritxita- 3. Don Anbrusen yarduna- 4. Iruskinak (comentarios).
- X *Indar barriak artuta*. 1. Jauntxoa birbizturik. ¿Aginbako agindun?- 2. Morrosko ta Perico Viñas- 3. Viñas idazten- 4. Gati-kan ta Laukarizen.
- XI *El Eco de Vizcaya Mungian*. 1. Begiri Viñasek aupadea- 2. Erromarrak bildurrarren- 3. Begi ta Anton Imaz uriauzoetan- 4. Erroman adore geitxoago.
- XII *Izurria (Epidemia) Mungian*. 1. Asmatzaile nor zan- 2. Basili deiez- 3. Iztun-alkargoa Kartagon.
- XIII *Estu ta nasai*. 1. Busturi estu- 2. Begi eztitan- 3. Epiko jauntxoaren billa.
- XIV *Casus belli*. 1. Aginbako ta Epiko Busturirenean- 2. Ikustaldi iruskintsua (Visita muy comentada)- 3. Aginbako ta laguna Kartagora.
- XV *Bidaldi bat*. 1. Santi Latsibi, Likanora ta Manuko bidez- 2. Begi eurakaz- 3. Baparri biparri- 4. Itxaso-aurrean- 5. Gaztelugatxen.
- XVI *Liberal, demócrata, incondicional*. 1. Floren Andraka ta Meñakako itzaldia- 2. Latsibitarrak bere zalkurdian- 3. Gorri, gorri min ta gorri ilun.

Latsibi (II)

- XVII *Epiko ta Jupiter ta erube ta sapaburuak*. 1. Epikoren metamorfosis- 2. Andra Isidora ta Epiko- 3. Morroskok Epikori- 4. Arangoitireneko bazkari bat.
- XVIII *Felipetxu aldarrika* (pregonando). 1. Felipetxu nor zan- 2. Izurria zabalago- 3. *Dove é il vostro cuore?*

- XIX Epikoren eskutitzak. 1. Aginbako ta Morrosko ta Teteri-
2. Eskutitz onen atzea.
- XX *Epiko ta Ereñozi. Iztun-burubideak*. 1. Itz-ebakerea- 2. Atz-
begiak- 3. Eskuketea- 4. Berotasuna- 5. Adierazlearen arazoa.
- XXI *Izkaldi-aurrean*. 1. Iztunak euren albotikoakaz udaletsean-
2. ¡A zan gizontza bat!- 3. Jauntxo ta Morrosko izkaldira.
- XXII *Izkaldia*. 1. Alderdi bietako agirienak- 2. Alkatea ta zantzo-
lariak- 3. Begiren itzaldia- 4. Etenaldiak (interrupciones).
- XXIII *Izkaldiaren yarraipena*. 1. Epiko iztun ta Ereñozi adierazle-
2. Arangoitiren etenaldiak- 3. *Un combate épico*-ren atzea.
- XXIV *Izkaldi-ostean*. 1. Arangoitiren beste asmo bat- 2. Karta-
goarren iruskinak (comentarios)- 3. Erriarenak.
- XXV *Izkaldi-osterago*. 1. Mungiako eskutitza- 2. Anton Imazen
yarduna- 3. Begi Bilbon- 4. Begi ta Arangoiti.
- XXVI *Kartagoarren makurraldia*. 1. Begiren erantzumena ta Aiko-
ren *gora gure Bekosolo*- 2. Apatxaldia- 3. Jauntxo ta Morros-
ko Mungiara.
- XXVII *Irakiten erria su bagarik*. 1. Anton Imaz ta oiulari batzuk
baitegian- 2. Zabaleta ta Larrinoa udaletsean- 3. Lamiaranen
ostatuko batzarra- 4. Injenieru barri bitzuk.
- XXVIII *Aukera-eguna*. 1. Yata-ganera Lejarzegi-ta- 2. Aukeraldi-
ko barri batzuk- 3. Etorkizunerako asmoak.
- XXIX *Erromarren garaipena*. 1. Epikoren zemaik- 2. Garailarien
asmoak- 3. Azpiratuenak- 4. Tete ta Epiko- 5. Morroskoren
eskutitz bat.
- XXX *Apari bat*. 1. Laukinizko bertsolaria- 2. Gure baserritarra ta
margolari batzuk- 3. Edatitzak- 4. Bigarren zaldi Periko-
5. *Voi che di notte andaaate*.
- XXXI *Latsibi Latsibitarrena*. 1. Aginbako, Morrosko ta Latsibita-
rrak eskribau batenean- 2. Onek eta Epiko ostatuan- 3. Autagi-
ria aizunduta- 4. Treviñori Torrealdeak eskutitz bat.
- XXXII *Gau utsez*. 1. Begi Gondramenditurik- 2. Begi Epikoren
paper-arteana- 3. Guzúr-urtika- 4. Erromarren batzarra- 4. Gi-
zaburuaga ta Yatabe.
- XXXIII *Aukeraldiaren atzea*. 1. Gernikako udaletsean- 2. Lege-
gizon entzutetsu baten burubidea- 3. Epiko axe entzun nairik-
4. Pedranton Latsibi baitegira ta bere aita beste mundura-
5. Gorpu lorra ta elizkariak- 6. Lejarzegiren itzaldi bat.
- XXXIV *Latsibitarrak estu ta larri*. 1. Pedranton baitegian- 2. Be-
giren asmo bat- 3. Begi ta Bekosolo Goldarazen etsean.
- XXXV *Erroma garailari*. 1. Bilboko auzitegian- 2. Bekosoloren
itzaldia ta Torrealdearen eskutitz batzuk- 3. Garaipenaren on-
doko atsekabea- 4. Bigarren auteskundea Yataben.

LATSIBI

Itzaurea

- I *¿Latsibi Latsibitarrentzat?* 1. Santi Latsibi bidez- 2. Sondikan eta Artxandan- 3. Bilbon.
- II *Santiren ibillerak Bilbon.* 1. Don Anbrusenean- 2. Mungiara bidean.
- III *Erromarrak Mungian.* 1. Antxinako ta Mungiako Erroma ta Kartago 2. Gudalburu ta gudari agirienak.
- IV *Mungiako kartagoarrak.* 1. Lenengo batzarra- 2. Erromarrak estu.
- V *Jauntxoa ta bere ingurukoak.* 1. Tete ta Toto- 2. *El Rásimo*-ko maipuruan Don Anbrus.
- VI *Maipurutik... maipurura.* 1. Tete zurikatzaile- 2. Toto egurduin-3. Busturiren egitamua.
- VII *Lenengo guduxkak urian.* 1. Jauntxoa Mungian- 2. Arangoitireneko batzarra- 3. Izlari ta yardun-asmoa.
- VIII *Kartagoarrak Kartagon.* Asmoa asmo-ganean.
- IX *Lenengo guduxkak aldaurietan.* 1. Yatabera bidean- 2. Luze erizita- 3. Don Anbrusen yarduna- 4. Iruskinak.
- X *Ii.dar barriak artuta.* 1. Jauntxoa birbizturik. ¿Aginbako agindun?- 2. Morrosko ta Perico Viñas- 3. Viñas idazten- 4. Gati-kan ta Laukarizen.
- XI. *El Eco de Vizcaya Mungian.* 1. Begiri Viñasek aupadäa- 2. Erromarrak bildurrarren- 3. Begi ta Anton Imaz uriauzoetan- 4. Erroman adore geitxoago.
- XII *Izurria Mungian.* 1. Izlari-izurria- 2. Kartagoarren batzarra.
- XIII *Estu ta nasai.* 1. Busturi estu- 2. Begi eztitan- 3. Epiko Jauntxoaren billa.
- XIV *Casus belli.* 1. Aginbako ta Epiko Busturirenean- 2. Ikustaldi iruskintsua. (Visita muy comentada)- 3. Aginbako ta laguna Kartagora.
- XV *Bidaldi bat.* 1. Santi Latsibi, Likanora ta Manuko bidez- 2. Begi eurakaz- 3. Baparri biparri- 4. Itsasoaren aurrean- 5. Gaztelugatxen...
- XVI *Liberal, demokrata, inkondisional.* 1. Floren Andraka ta Meñakako itzaldia- 2. Latsibitarrak bere zalkurdian- 3. Gorri, gorri min ta gorri ilun.
- XVII *Epiko ta Jupiter ta erube ta sapaburuak.* 1. Epikoren metamorfosis- 2. Andra Isidora ta Epiko- 3. Morroskok Epikori- 4. Arangoitireneko bazkari bat.

- XVIII *Felipetxu aldarrika*. 1. Felipetxu nor zan- 2. Izurria zabalago- 3. *Dove é il vostro cuore*.
- XIX *Epikoren eskutitzak*. 1. Aginbako ta Morrosko ta Teteri- 2. Eskutitz onen atzea.
- XX *Epiko ta adierazlea*. 1. Itz-ebakeräa- 2. Atz-begiak- 3. Eskuketäa- 4. Berotasuna- 5. Adierazlearen arazoa.
- XXI *Izkaldi-aurrean*. 1. Izlariak euren albotikoakaz udaletsean- 2. A zan gizatza bat!- 3. Jauntxoa ta Morrosko izkaldira.
- XXII *Izkaldia*. 1. Alderdi bietako agirienak- 2. Zantzolariak eta alkatea- 3. Begiren itzaldia- 4. Etenaldiak (interrupciones).
- XXIII *Izkaldiaren yarraipena*. 1. Epiko izlari ta Ereñozti adierazle- 2. Arangoitiren estualdia- 3. «Un combate épico»ren atzea
- XXIV *Izkaldi-ostean*. 1. Arangoitiren beste asmo bat- 2. Kartagoarren iruskinak- 3. Erriarenak.
- XXV *Izkaldi-oste gerokoan*. 1. Mungiako eskutitza- 2. Anton Imazen yarduna- 3. Begi Bilbon- 4. Begi ta Arangoiti.
- XXVI *Kartagoarren makurraldia*. 1. Begiren erantzuna ta Aikoren *Gora Bekosolo*- 2. Apatxaldia- 3. Jaun-



I. Latsibi latsibitarrentzat

1. Santi Latsibi bidez.
2. Sondikan eta Artxandan.
3. Bilbon.

1

Nagitasun bage, egusentiko argitasun zurbilla leioko inzirri-tuetan barrura sartu zaneko, yagi zan ogetik Santi Latsibi, Bilbo-ra goizerdian eltzeko arduraz. Lenen otu ekiozan gogamenak ezagunearn argitu eutsen burua. «Zabalduen asi dan egun au gautu orduko, Latsibi latsibitarrena izango doagu» ziñoan bere barrurako.

Bere erran maratzak atonduriko soiñeko, urtez zâr, irudiz barri barriak, ogazurean esegita itxirik, kortara yatsi zan Santi, murrusaka ziarduen abereakana. 1890 garren urteko garagarrillaren irugarren egusentia zan Latsibiko abelgorriak kortan eta abelzaiña goian iratzarri ebazana.

— Erko, bedarra gura euke? Ogeti bêra egin dodan zapartadâa entzun aldok? Ator, ba, orra bêra, lats-ondoko motara.

Ator i be, Naparra. Apala, logura? Ezalaiz lotsa, gazteena eu aizala, logura izaten? Gorri, non don ik txala? Txordo, lanerako atzerago izaten aiz i auznar egiteko baiño. Aupa seirok! neugaz batera, eguraldia be ona dakar da.

Morroilloak Santiren eskuz klak-klak eta solo-aldeko aterdiak irrintza ta kurrink egin eben ta an yoan Santi, abereak lagun ebazala, lats-ondoko motara.

Etedago, atzetik begiratuezkero, itxusia eztan basetserik? Latsibik, orregaitiño, aurretik baizen ikusgarri zirudian motax ganetik, Santiren begiz ikusita. Luzaro ta zurt egon zan abelzaiña, besoak

auma ebazala, bere yaiotetseari adi. Mutilkotxotan ikasgura¹ sartu baiño be lenago, aitaitari ate ataxiek berak lagun egiten eutsan, zidor atantxe zear, baratzera bertara, idi ta idisko, bei ta bigantxa ataraten.

Etsagun zan aitaita, Latsibiren yaubea, Latsibiko jauna; etsagun aita; bera, Santi, yaubegei yaio zan ta yaubegei, oiñordeko, azi ta kozkortu. Ezkunduteko egoala, amaren aldeko aide batek molokot egieran, ondatu ekioezan euren ondasun guztiak; eta zorrai arpegi emoteko, yaiotetsea Simon Intxaurtiagari, Aginbakoren osaba indianuari, saldu eutsen. Etsera ta etseari begira ta aita zana irudimezez ikusten egoanartean, gurasoak iltamuan² esandako itz onek gogoratu ekiozan: «Santi, esku utsean, etse bagarik naioak lurpera, neure aitaren azur-artera. Alegin osoa egik, seme, baztar onek izerdiz bigundu ta ekarkor biurtzeko. Zortzi milla dukat garbi-garbi pillotu dagiazan egunean ager adi Simonen oiñordekoakgana ta esan egioek: “Zortzi milla dukatean saldu eutsuen nire aitak Latsibi barrero erosi al izatekotan. Óna emen zortzi milla dukatak. Bere ize-nean indazue, arren bai arren, geure etse au ta Jaungoikoak zori oneko egin zagiezala, gaurrarte zutunik euki dozelako”. Seme, etsagun iltea yaurri badagik, Yatabeko ilerri-lurrari biguna eritxiko ñautsek ire azurrak, nireak eritxiko dautsen baiño bigunagoa.»

Bat-batera, gogamen onek etenda, txapela erantzi eban Santik. Mungiako txirrinean³ laurak yota ango elizaiña daun-daun asi zan argi txilinar ots eragiten; ta bere durundiak, alboeritxoetako txilin loak artuak iratzarrik, Laukarizen ta Gatican ta Yataben daun-daun txirrinzaiñak ots egin eben. Otoitz labur bat egindakoan, kortako atean barruna gelara yoan zan Santi, bere burua Bilborako arkolatera.

Mailletan gora yoala, erranak suetetik «Aita —esan eutsan— alperrekoa izango dogu. Bada-ezpada, orregaitiño, libretäa eroan gero.»

— Bai, Likanora, au bagarik ezkozan ezer-da.

— Oge-adarretik bëra esegita dagoz yaieguneko yazkinak. Entzuuuuuun?

— Baita.

Apain-apaiñik yantzita suetera yatsi zanean mai oboki⁴ apalaltxo baten ganean eukan Santik erranak gerturiko ezne-zukua,

¹ (eskolara)

² (eriotzako orduan)

³ (torrean)

⁴ (circular)

ori-oria, artozatiz ondo ornidua, lurruna eriola. Zapi nabar baten barruan zerbait ekarrela ikusirik, arri ta zur eginda, begiak urten-urten ebazala, «Aita —esan eban emakumeak —, or aldaroa, or, libretäa? Eta galduezkero?»

— Ez, Likanora. Emen oiñetakoak ñaroanadaz, Bilbon sarreran abarkak aldatuteko. Bestea kolkoan doa.

— Ortxe eroango dau gosaria be.

— Ze gosari ta gosalondo?

— Bai, aita, bideak gosetu eragiten dau ta. Berori, barriz, bada-
kit nik nor dan; ardantegi baten burua ikusi baiño lenago gosez ibi-
lliko litzate.

Itzok ezpanetatik eriozanartean, untzedun oiñetako lodi-on-
doan gosari alazoko bat, bidaria, sartu eban etseko andreak. Gero-
txoago Santi, txapela azal-azaltxorik buruan ta ezkerreko sorbaldan
zarta batetik dingilizka axea¹ artuta, soloan zirimara ziarduan se-
meari «Aup, gauerarte» esanaz, Likanora bide zidorreragiño lagun
ebala, bizkor asi zan ibiltzen. Alkarri azken-agurra egin eta gero,
urruntxotik erranak, irribarrea ezpanetan erakutsita, ziñoan: «Ma-
nukori agur egin bagarik doa berau.»

— Yoan nona, Likanora, agur egitera; baia angeruak zeruan lez
lo yegonan ta...

— Zeruan lo egiten alda?

Ezekiala adiarazoteko, sorbaldako zarta ta zamaskoari² goraldi
bat eragin eutsen eta atzera begiratu be egin bagarik alde egin eban
agura bizkorrak.

2

Gatikako elizaldera yo eban Santi Latsibik lenengo. Andik,
Lauroeta deritxon auzotegia atzean itxita, beingo baten Sondikara
eldu zan.

Sondikan, elizondoko soloetan aurkitu ebazan lugiñai «Bein edo
bein geurea geuretu bear gaienduan» esateko ari-arian egon zan. Os-
tera, esakeratxo ori iluntzerako itxita «Aro ona e?» zirautsen.

— Ona dago. Orregaitiño, lanerako baiño dotore yantzita bide-
rik-bidarte ibilteko obea.

— Geure aldiak be eldu bear eban.

¹ (maletatxoa)

² (kargatxoari)

— Nora zoaz zeu, Santi? Bilbora edo?

— Arako bidea daroat, Bilbo orrek niretzako lagin leku izango aldau-ta.

— Alkate zarenok diputaziñora be yoan bearra izaten dozue ta ibilli beti.

— Ona zagoz, Berreteaga! Zu be bizi zara! Ez naiz alkate aspaldion be. Semea dogu angō nagosi, Pazkoetatik onakoan. Badakizu, gaur eguneko alkatekuntzan, baserritxoetan be, yakituria bear eida-ta nire semea nire aldean argia dala, Antonek eta aurpegira ezeusten bau esan?

— Entzutea badau, onetan bê.

— Ezeieban berak ezetara gura (egia esateko, neuk be ez, arean) bera izaterik. Oraindiñokogarren zerbaitetarakoa banintzala uste neuan; baia, gizona, Yatabe guztian etzan besterik entzuten, «Latsibi gazteak au, Latsibi gazteak ori, Latsibi gaztea langorik non baserritarra izateko?». Auxe baiño etzan besterik orduan entzuten; ta, aurra! gogoaz bestera izanarren, bertan bêra itxi neuan neure arlo dubakoa ta egi-egia eztot damu, obeto bizi naiz, buruko min gitxiago.

— Santi, zuk-u... burutan alango zerbait, gorabêraren bat edo, badaroazu.

— Bilbo lengo tokian etedagoan yakin gura dot.

— Beiren bat eroatera edo?

— Bai zera! Gu yatabetartxuok, Sondikarron lez, diruz ganezka bizi garala uste aldozu?

— Sondikan dirua! Dakustanez aitzu ñatzu zuri arako esakune zâr:

*Asua ta Erandio,
Sondika ta Loiu;
Arto gitxi erein ta
gari gitxi koiu.*

Sondika! Yataberen ondoan aitatu be egitea! An eidora diruok, an, Yata-barreneko zuen basauritxoan.

— Otsak andiango an be, otsak andiango. Agur, gizonak; ekin zuok ortxe gogoz.

— Agur Santi, ondo ibili.

Artxanda-ganera eldueran, etse-ondoko burtigun baten yezarrita, Likanorak gerturiko gosaria gogoz garbitu eban Yatabeko bi-deztiak. Gero suetezan sartu zan, egarri zala-ta. Etseko andratxo zâr-ragandik zazpi ta erdiak zirala yakin ebanean, pozik egoan Santi.

— Yatabetik onagiño ordu bi ta erdi! Naikoa ezalda ibilterik, arreba, irurogeta sei urteko agura batek egiteko!

— Aguräa, irurogeta sei urteko gizon gordiña! Gaur egunean edozein umek daukaz berrogei, berrogeta amar urte. Yatabeko bertakoa zara zeu?

— Latsibin yayoa ta ain zuzen izena be Latsibi dot, Santi Latsibi.

— Orra ederto. Lenago be ikusi etezaitudalakoa daukat.

— Bai, urte-atzenean, Santu larriz ikusi nenduzun, etsearen urtesaria ugazabari emotera yoan nintzanean. Eztozu gomuta, soloan zengozala «Aup Maripa, aro ona dago?» neuk, eta zuk orduan «Sekulakoa, Txanton» erantzunda, zelango barreak egin zenduzan?

— Aiztuta neukan. Orduan be bakarrik zintzazan?

— Ez, errana lagun artuta nentorren.

— Bilbora sarritxo zabitz zeu?

— Sarri da urtean bitxotan? Sarriago be ibiliko gintzakez gu, etsaldean zeregin gitxiago ta erbestean doako ostatuak aurkituezke-ro.

— *Ibilta duztia da erromeria* esaten ekian nire ama zanak.

— Nireak be baekian ori esaten, eta geuk be amaika bidar bai!

Andik urtenda ogei bat urrats¹ egin ta beste bagarik Bilbo bere zabaltasun osoan ekusan Santik. Bera ikusita pozak itz onek ots ta guzti ezpanetan zuzendu eutsazan:

«Ai Bilbo, Bilbo, orren zabal ta etsesu ta gizatsu zakustan uri eder ori, ondo medarra ta mirriza ezagutu aut nik i, arako kolera-urtean, Mungia baiño asko andiago ezintzala, izurriak² urriturik, aren baten nor il be ezeukala bizi intzanean! Eskerrak an dagoanari.» Au esanaz txapela erantzita, Begoñako Andra Mariari, inguru aretako baserritarrak Artxandara eldueran oi ebenez, *Salbe* bat isil-txorik zuzendu eutsan Santik. «Etse ederrik asko egin dauek arrezkero, Bilbo, baia zer? guztiak izen bakoak. Nik barriz, non bizi noka etzakiadala, etxoat bizi gura, bizi be ez».

Azken-gogamentxo onek, biotzari gili eraginaz, barru-barruan gordeta eukazan izen biak barriro gomutarazo eutsazan. «Bein edo bein —ziñoan bere artean—, bigundu ñako biotza. Latsibik latsibitarrentzat izan bear dau oraingotan. *Doala Santi Bilbora biar goizean goiz don Anbrusenera, ardurazko zerbait yakin-arazo bear dau-tsala-ia.* Ardurazko zer ori, besterik zer izan leite axe baiño?

Laster nozu or, don Anbrus. Belusko natorrela baderitzazu, parkatu, Likanorak errua, nik ez neban gosaririk bear-ta.»

¹ (pausu)

² la peste

Bilbon sartu zanean, atari baten sartuta oiñetakoak aldatu eban. Zortzi ta laurenak ziran udaletseko¹ erlojuan. Beingo baten eldu zan Anbrus Isastirenera. Otseinak, isil-misilka, ugazaba bederatziaikarte etzala yagiten esan eutsan.

— Goizean goiz etorteko mandatua bialdu eusten ta...

— Bilbon bederatziaik goiz da. Gerotxoago etorri zaitezke.

Andik diruetsera² yoan zan, kolkoan eukan libretäa erakutsi nairik. Garbitzaile batzuk goizegi zala esan eutsen. Diruetsetik zubiondora. An alperrierian egoteaz gogaituta, batera ta bestera astiro ebillela, norbaitek atzetik garondokotxo bat emon eutsan, «Zer dozu, Santi?» esanaz.

— Zu emen, Jose Andres?

— Ni emen egotea ezta arrigarria. Zeu emen, Santi? Zek zakarz onen goiz, Yatabe isilerri baketsu atati Bilbo zaraterri astrapalatsu onetara? Zek?

— Diruetsean sartu gura izan dot; eta geroago yoateko.

— Eztakit nori entzunda dakidan, antxina surpekoa³ ta esku-makillea zirala ondasun-ezaugarririk onenak. Gaur beintzat ez. Gaur zeatzenik ondasuna iragarten dauskuenak abarkak eta akulua doguz.

— Bai! Berez zankarin eztana, gure lauzuri-laumaraikoak gorabêra ezta urrun elduko.

— Elizako tellatura zurt zengozan zeu begira. Katuren bat elaitan aldabil?

— Jose Andres, neuk eztot eguno ikusi; baeidira, orregaitino, buru biko txalak. Nire ustez buru biko txala ta torre biko elizea or or dabilz. Txilini naikoa ezalduke baten?

— Egia, Santi.

— Ganera, erdi bertokoa zara, diputadu zauguzan urteotan beintzat; eta, zeuk txartzat artuko ezpazeust, nik auxe esango neuskezu: uri andietan eztirala gauza guztiak beti zuzen, beti artez ibilten.

— Zer ba?

— Begiratu ara. Torre batean iparra da, bestean barriz zearraizea, mendebala.

— Zelan dakizu ori, Santi?

¹ (ayuntamiento)

² (bankura)

³ (bigotea)

— Zelan dakidan! Zelan dakidan! Aiko an aizorrazak¹. Ezaldakutsuz bata Somorrostrora ta bestea Donostiara begira?

Bekosolo aldunari², Jose Andres Bekosolori, bere asmoa ostendutearren edo, eliza axe, San Nicolasena, ikusi bear ebala esan eta agur gozatsu bat eginaz barrura sartu zan Santi.



¹ (beletak)

² (diputaduari)



II. Santiren ibilerak Bilbon

1. Don Anbrusenean.
2. Mungiara bidean.

1

Bederatzi ta erdiak Isastiren etseko mailletan ots egin eutsen Santiri. Orduko, baekian ugazabak, otseinari entzunda, nor etorkion. Arrera ona egin eta, iñoiz egin ezeutsena, bazkaltegitira ugazabagana eroan eben. Zurru ta purru eragoion bertan etseko yaun Anbrosio Isasti Intxaurtiagak, erdia gora ta erdia bêra, katillu andi batetik kafeznea artzen. Alkarri «Kaixio» esan eta, etseko yaunak, ordurarte beintxo egin ezeutsana, eskua emon eutsan, oiñez etorri etezan itanduaz.

— Oiñok zetarako doguz, don Anbrus?

— Nekatu be egin izango zara, e?

— Aitzurlarientzat ibiltea atsedena da. Gure nekea soloetan dago: aitzurren (sic), layetan, ereiten, galebaten, goldaketan...

Yauna, euri-egunetan, idoietan papar zuria basatu-aginik eulibila, tximiztea lez bizkor dabilzan enada goseberai nekatu etediran ez itandu, zer yan etedauken baiño.

— Zeu barurik alzagoz?

— Bai, barua birritan ausita! Lenen etsean, bostak aurretxoan; gero Artxandan, erranak biderako gertu daustan...

— Baukagu gaur zer esan, Santi, neure txikitako lagun zarean orrek eta biok.

— Bada gor ez gorraize ezkagoz eta asi autu ori, gura dabenean.

— Orain ez, Gortalde mineroari ama il ðako ta nire loba legegizonak «Elizkarietara ez gero utsik egin» esan daust eta banoa.

— Elizkariok diruetse-ondoko elizan badira, amaitu be egin aldira oraingo.

— Ez, ibaiaz beste aldeko eliztarra zan il dan ori. Gero, Santi, alkarregaz bazkalduko dogu, ementxe, biok biotara. Orain zeregini-
nik zeuk?

— Bein Bilbon nagoanezkero, atxur bat eta layak nai gurgullu-
ren bat erosi gura neukez, ta diru etsera be... baia ori geroago egin
daiteke, berorrek baderitxo.

— Neure otsein batek lagun dagizula erospen orrek egiten. Bir-
lobentzako andrakillaren bat nai pelota bat edo beste eztozu gura?

— Arek, yauna, mantar zar batzuk alkarri lotuta, erregiña dirala
esanda sinistu egiten dabe.

— Gero amabi ta erdi-erdietan sopea¹ maira ta eztorrenari
maipe.

Izentauriko orduan mairatu ziranean, Santik Aitearen egin eta
txiki-txikitan ikasiriko otoixkoa² isiltxorik egin eban. Isastik bitar-
tean ots bagako barrea egiten ziarduan. Santik, bigarrenez Aitearen
eginda, burua yazo ebanean, etseko jaunak urrunetatik ekarririko
biguntasunez «Gero emen bakizu, adiskide —esan eutsan—, eztozu
zinuminurik³ bear; datorrena yan».

Santik bere urdail andia erdi bete ebanean Isastiri itz onek esan
eutsazan:

— Gomuta dau arako, gamiztarra zala ta, Gatikako maisu gil-
bor-andia, Gilbor esan be egiten geutsana?

— Gomuta ez! Gaur bailitzan.

— Axe baiño lodiago egingo nintzate, onelan bizi banintz. Ta-
malik asko da bazkari onen ugari ta gozoa izerditan yoatea.

— Zuk esango eztozunik?

— Egia ezalda?

Don Anbrusek txikitako lagun guztiai zuketan itz egiten eutsen.
Euren ezpanetatik «Berori» entzutearren alzan! Santik gerotxoago
bere gogaldi onaren ezaugarri bat emon eutsan, suburru⁴ ganera be-
gira egoala, irri-barrezka itz onek ezpaneratueran:

— Don Anbrus, esan bagarik ezin nagoke gu, baserritarrok, as-
tokillo batzuk garala, baya gure aldean ori, or erlax⁵ ganean dagoan
ori...

— Nor?

— Ardi-bildotsak aurrean dabezala, ezaldakus or, surpeko ta
guzti, zaldi-ganean, abelburu gaixoari akulua sartzen?

¹ (zukua)

² (erregutxo)

³ (zeremoniarik)⁽¹⁾

⁴ (tximinia)

⁵ (kornisa)

— Ori etzan artzaina, Don Quijote eizan ori, jeneral (???) andi bat.

— Nai Bibote nai Mimote, zein jenerala, zein karabinerua, gure aldean burubako andia zan beintzat eta eztakit besterik.

Etseko jaunak bere zeresan andiak asteko tayu b̄arik egoala oartueran; berari itz eragitearren, «Don Anbrus — zirautsan bere mais-terrak¹—, bazkari ona, on da; baya barri onak entzutea ez bapere txarrago».

— Esaizuz beraz barri onok.

— Nik! Zetara ots egin daustan yakin arte irakiten daukat barrua.

— Kafe-ordurarte ezegoan zeri leiarik artu, baia, aurra! Nok esango eustan niri txikitan alkarregaz eskolara genbilzan biok barri-ro alkarregaz zerbait egin bear genduala? Santi, noiz dira urrengo elezinoak?

Santik eskuan lauortza² eukan, ezkerrean ogi-zatia, biakaz okela-tato bat txikitu gurarik. Itaune au entzueran «Ori da guztia» esan gura bailebaneko arpegiaz, esku biak okotz ondoan baturik gelditu zan, don Anbrusen zamauari begira.

— Zer dozu, Santi?

— Nik etsezkoa zala uste neban oraingo dei au.

— Ze etse ta etse-ondo?

— Badaki, bada, neure aita zanak eriotzako orduan zer agindu eustan. Ementxe nekarren diruetseko libretea, zortzi mila dukatak atarateko.

— Latsibitarren leloa! Etsea gora ta etsea b̄era. Zuentzat etsaguntza ona bada, neuretzat bere ona da.

— Berorrek asko daukaz. Guk battxo bere ez. Geu yaio gintzana ta guraso z̄arrak itzirikoa izanarren, inoren eskuetan daukagu.

— Eta zeuon eskuetan euki!

— Bai, baia ezta bardin. Guri edozein ordutan esan dagikegu yaubeak «Santi, alde orti». Ta Santi orduxean lurpera, Latsibin bizi izan ezik, bizi be eztau gura-ta.

— Abenduan esan neutsun nekazale bati etsea saltzea eder egiten ezpañako, aberatsari itsusi egiten ñakala. «Lur yo bear dau orrek» esaten da, ondasunak auzora daroazan dirudunagaiti.

— Jauna, zortzi milla dukat, gure aita zanak berorren osaba zaganagandi arturiko zortzi milla dukatak, gitxi dirala uste badau, erdi gosez bizi bear badot bere, eun bat geiago emoteko gertu nago.

¹ (errenteruak)

² (tenedora)

— *Caracolada!* Eztala orregaiti. Ona, Santi, zetakoa dan nire dei au. Nire loba don Teodoro Torrealdea e Isasti. Donianez an ezagutu dozuen legegizon egin-barri burutsua, diputadu izan bear dabela diraste ta neu be orretantxe nago. Yatabeko alkate ogei urte onetan izan zaran orrek laguntasun andia onelango arazoetan...

— Agur nire poza.

— Santi, lagun zakidaz neure arlo onetan ta eztozu damu izango.

— Berbäa emonda daukat, jauna.

— Nori?

— Arraitz medikua (don Donato) ðabilku egunokaz, minez gogozanean baiño be gogozago, ikustaldiak¹ egiten. Eramen bat dauko izten eztabena, ezpanetan bêra, ordiari adurra ta barautsa lez, beti darion esamaiña bat.

— Begik edozer, zurrut-zale bat dozue-ta.

— «Gizonak —esaten dasku—, elezinoetako adiskideak eta gure baso ta beresietako laranjak bardin dira.»

— Berak izan gura aldau alde orretako diputadu?

— Beretzat eztabil; orain lau urte lez Bekosolorentzat baiño. Onaxe etorri aurretxoan Jose Andres bera zubi-ondoan ikusi dot, beti-betiko txeratsu; berba egitera bera andi-andirik etorri ðat. Ak, Mungia-alde guztian maite dabe-ta, kalte andia egin leio berorren loba orri, baita azpiratu edo... bildur bear.

— Nok nor?

— Arraitz medikuak berorren loba marota.

— Lenago Moro.

— Nok azpiratu eban orain lau urteko elezinoetan Arangoiti? Arraitz medikuak, bestek ez.

— Barriketa geitxo egin badagi, or dozue laster doako sendalari bat, geure diruz...

— Guk ba, jauna, berbäa emonda daukagu ta...

— *Cara... cas!* Erreteru batek ugazabarentzakoa baiño beste berbarik ez botorik eztauko.

Errezpe gogor ta bidebako ukamen au entzueran, burua makur-makur egin ekion maisterrari. Don Anbrusek, gogortasun onezaz damuturik, biguntxoago itz eginaz, biotzaren erdi-erdian ikutu eban Santi.

— Eztinozu, ba, Latsibi gura dozula?

Beste bat zirudian latsibitarrak au entzunda.

¹ (bisitak)

— Lan egizu orain, Santi, neure lobearen alde ta, bein diputadu dala, eskuetan darabilgun zerbait geuretu al badagigu, orduantxe edo...

— Esango dausat semeari. A da gaur Yatabeko nagosi.

— Ea ba, Santi. Orain trenerako ordua dozu ta goazan biok. Edan beste txikerdi.

— Oinez ederto yoango naiz ni, atan orain, Latsibi urte bete barru geuretuko dogula...

— Eskuaratean darabilgun asmo batek ondo urten ezkeru.

Ordu lauren geroago Bilbotik Mungiarako gelunean, lenengoe-tariko orga¹ baten barruan egozan yatabetar biak.

— Santi, txapel ori ez erantzi, elizan etzagoz-ta.

— Jauna, biar kortan bekorotz-arteana eta gaur emen, aberatsen bagoian, lege eteda?

— Zabalago yoango zara.

— Orrezaz zer esanik eztago. Aurten-e, don Anbrus, neu barruan naizala, zazpi yatabetar yoan etedira gure alderantz leku eder onetan? Iru baete?

— Ezer egingo etedogu urrengo botazinoan?

— Onelango lekuetan pipäa debekauta etedago?

— Erre gaur neure izenean ke obedun tabakoa.

— Ori be bai! Barre egingo dau Labartok nire ezpanetan puru eder au ikusita.

— Ez barruregi sartu, pipa kirtena bailitzan, bestela busti ta al-perrik galdu egingo datzu.

— Yauna, arrituta nago. Berori onelango aukeretan bizi, zer gura ta axe yan, eztarriak gili egiten dabeneko ardao zarra, su egingo leukeana, edan, ta aginak yausi, oiak minberatu! Nok sinistuko leuke?

Itz onek Santiren ezpanetatik barurik egon balitz etziran atera-ko, ta Isastik, zana zala, txartzat artuko eutsazan, ontzat artzea ego-ki izan ezpaltzakio.

— Zer gura dozu ba! Gero ez aitzu. Ilebete barru barriratzuko dabe diputazinoa ta nire lobäa lagun dodala egunen baten an nozue.

— Berorrek deritxonean. Al dagiguntxoa egiteko...

— Seme alkateari be esan gero.

— Ordu bi-iru barru nire arnasaraginokoak badakiz nire semeak. Alkate izateko neu be oraindino ba, oraindinokarren-e...

— Txilinak ots egin dau ta banoa. Auzokoai be gero egin berbal-ditxo bat.

¹ (bagoi)

—Jauna, nire esanen bearreko eztago, baia uste dot ondo izango leukeala Bekosolori etsera dei egitea.

—Zetarako?

—Gaurkoa lango bazkari batek itoko leuskio diputadu izateko guraria.

—Ori baiño ezpaltitz... alegia! Aitzu etxatanean! Zoaz, utsik egin barik, zoaz estazinoti artez Berinoleagako nagosiarenera, Busturigana. Berak esango dautsu zer egin.

2⁽²⁾

Santi Latsibik bere burua lenengoetariko organ¹ ikusirik, birlobatxorik zirinenak etxean lez ikusgurazko umekeririk asko egin ebazan: batean aburdiko² guriari atzakaz ikutu, bestean bere ganean mokorrez bunp egin, bestean leioetako errezelak³ gora ta bêra erabili, bestean bere arpegi latza bizkarraldeko oial legunari eutsala igortzi. Atantxe ziarduala, bere aurreko aldean untzez yositako ol bat, latoi-ola ikusi eban, yauregi andi baten irudiz ederturik.

Zer etezan yakin nairik, zutundu ta urreratu zan gure gizona ta itz onetxek, erdiok ulertu bagarik, geldika-geldika irakurri ebazan: *Hotel de la Concha, Ascensor, cocina la más esmerada, cuartos de baño, confort moderno. San Sebastián.*

«Ementxe be ez don Anbrusenean baiño obeto. Berba itsusi orretan baietz badiño, guzurra» esanda, blaust! bost edo seigarren mokorrotsa artu eban aburdiko-ganean.

Gero begi argituak txilotuaz «Onelan bizi izanda be... il egin bear» esatera yoala, txantelzaina agertu ekion eta txotäa sabaira musturra ebala ipinita «Latsibi — esan eutsan — aurretxoan ñagok irugarrenetariko bagoi iretzakoa». Santik txapel-barrutik paper zuri bat atara eban ta ezpanetako andoil-mustur bustiari aginakaz akats bat kendu ta txu eginaz, «Baita emen barriz lenengoetariko txantela —erantzun eutsan—. Txantela baiño be andiagoa dala esan daust don Anbrusek».

Treneko ogipekoa⁴ autua luzatu nairik Santiri arpegira tinko-tinko bégira luzaro egon ekion.

Onek yaramoten ezeutsala ikusirik, bakarrik itxi eban, usain ederdun kêtan inguraturik. Santik orduan, norbaitegaz autuan bai-

¹ (bagoian)

² (almoadoi)

³ (kortinak)

⁴ (morroia)

liarduan, «I lango arlotetxoakaz biar berba egingo doat» esan eban. Mungiako geltokian¹ geltokizainak Santi bere orgatik urten eta zigarro baltz ederra eskuan ebala ikusi ebanean, txotâa burutik erantzita «Don Santiago, arrasti on dakarrela —esan eutsan—. Bakarrik dator? *Mayordomua* non dau?». Santik bere aldetik, «Lagun zârra, urtean beintxo elezinoren bat ezipagendu ezlitzakigu agoti lapikokosundâa eguno kenduko. A izan dok bazkaria!»

— Nor ðatorku?

— Igarri badagik, puru-erdikin au euretzat, Labarto, izango dok. Obarik eztok iñoiz ikusi be egin izango, gizagaiso orrek.

— Etxakiat ba. Izten.

Izten esan-orduko, gelunezainak txanteltegira eroanaz, agopean eraso eutsan Santiri bere zadorra².

— Aginbakoren loba, arako Morrosko esaten dautsena.

— Aginbako esan dok, Aginbako? Luki zârra beti goiztar.

Oharrak:

(¹) Orijinalean «zeremoniarik». Erratua dirudi; geroago, 68.orrialdean, «zeremonia» idatzi dau.

(²) Atal hau hasi aurretik «(3.^a Ilustración)» ipintzen dau orijinalean baina ez dogu honako irudirik aurkitu.

¹ (estazinoan)

² (sekretua)



III. Erromarrak Mungian

1. Antxinako ta Mungiako Erroma ta Kartago.
2. Gudalburu ta gudari agirienak.

1

Italiako Erroma ta Afrikako Kartago noiz sortuak izan ziran liburu askotan irakurri dagikegu. Mungiakoen yatorria ezta ezetari-ko paperetan orainarte agertu. Arek urtez goibe andikoak ziran, Afrikako uria Italiakoa baiño zârrago. Mungiako ónek adinide¹ dira, urte batekoak, geure egun onetako aukeraldi baten yaioak. Arek ur-ondoan izan eben euren seaska² ospetsua: Tiber-bazterrean bata, Mediterraneo-zoko baten besteak. Mungiakoen seaska biak ez euri tantak ez iruntzek ez ibaiurek eztauz inoiz busti. Arek, euren entzutea edonon zabal izanarren, izenik ezeben erakusten; kale ta une ta yauregi askorena bai: Appius-kalea, Trajanoren zabala, Auzitegia, Agriparen zelaia, Ponpeyoren baratzak³... eta abar. Uriaren izena etzan baia agiri. Mungiako Erromak eta Kartagok bardin bardin egin eben euren izenakaz, agertu ez; eta domugarri (1) bada be, beste baten azpian ostendu. *Farmacia de Larrinoa* irakurten da *Erromaren* orde; *Kartago* irakurri bear litzakearen (sic) tokian, *Confiteria de Olabe*. Gertaera onek (orain yakinarazoetakook) baiño lau urte lenagoko aldunen⁴ aukeraldian⁵ Mungiak ordurarte inoiz ez lango esetsi⁶ izugarri bat ezagutu eban. Bekosolo (Bilbon

¹ (coetáneos)

² (kuma)

³ Via Appia, Forum Trajani, Forum, Campus Agrippae, Horti Pompeyani.

⁴ (diputaduen)

⁵ (elezioetan)

⁶ (batalla)

Santi Latsibigaz ezagutu dogun Jose Andres) zan alderdi bateko al-
dungeia¹; beste alderdikoa, Arangoiti. Bata ta bestea yaiotzaz ta ya-
torriz mungiar utsak, urenak, benetako andikiak; gizon masal zea-
tzak, erri-maiteak, dabenari dabena emotekoak, burutsu, esku-
zabal ta biotz andikoak; bata ta bestea etsezulo, liburu-zale, artu
emon gitxiko ostu-samarrak, edozetan alkarren antzekoak, politi-
kaz bakar-bakarrak banâk eta banatuak. Bekosolo zuria, erdi karlis-
ta erdi integrista zala, Arangoiti baltza, liberala zan.

Antxinako erromar ta kartagoarren guduak² iru izan ziran, ba-
tak zein besteak urte asko iraun eben eta ezeben amairik izan eure-
tan legorrez ta itxasoz il ta itoriko gizonak. Mungiako Punikaldi
onek bi izan dira, bi soil-soilik: lenengoa ilebete ta erdikoa; bigarre-
na lau bat asteko iraupenduna. Lenengo apatxaldi edo burruka atan
etzan inor il ez ito; odolik, (edaniko ardao guztia izerditan lurrundu
etxakelako edo) odolik len baino ugariago euken azkenean guda-
riak; garondoa mamintsu ta gorriago, matrailertzak bete eta osa-
sun-irudikoago. Antxinako gudu aretan ospe andia izan eben erro-
marren gudaiburu³ Szpionek eta kartagoarren Anibalek. Oraingo
bigarren onetarako, sendalan bi izan dira gudaiburutzat artuak:
Begi ta Epiko, euron izenez Donato Arraitz Sagasti⁴ ta Pedro Viñas
y Andrés. Emendik bi milla bat urtera izango etedabe ónek Aniba-
lek eta Szpionek orain daben entzutea? Etorkizunaren barri eztaki-
gu. Anibal nai Szpionen gudamutilak ezpataz, igunez⁵, geziz, abai-
lez egin ebezan euren atomada ta esetsiak, euren alkar yote ta saki
ta zauritze ta ilteak. Mungiako erromar ta kartagoarrak, alkarri
atoma ta esesteko, eztabe inoiz ez ezpatarik, ez igunik⁶, ez gezirik,
ez azkonik ez abailik eskuratu. Onen iskilo⁷ bakarrak mîna ta be-
giak izan dira, begiak batez bére. Kale nagosiko ezker nai eskumako
espaloian⁸ bata gorantz, berantz bestea doazala, alderdi banatako
bik topo egin bear dabenean, alkarri agur ez egiteko, bata ezpada
bestea, sakeletik zigarrotxo bat aterata papera aldatzen geldituaz,
eskuetara begira egongo da, arerioa igaroarte. Antxinako gudula-
rien antzik iskiloetan ezpadauke, aserreari emoten dautsen edape-

¹ (candidato a diputado)

² (guerras púnicas)

³ (caudillo)

⁴ Onen yatorrizko izena Donato Txopitea zan.

⁵ (lantzaz)

⁶ lanza. *Burtigun* «lanza de carro» erriaren itza da.

⁷ (arma)

⁸ (losadurian)

nean¹ gitxiago. Ordukoak, nai Anibal bere gizonakaz Erroma-alde-
ra yoala, nai Szipion bereakaz Kartagorantz etorrela, euren guda-
riak non nai, alkar ezagutu ezkerro beintzat, otsoak otsoari lez, nai
itxasoz nai legorrez, bai mendi bai zelaietan, edonon alkar berotzen
eben. Aren ondorengo gudulari onek, oster, Mungian bertan bai,
otso ta otso dira; baina andik lau-bost orduko bidean alkar aurkitu
ezkerro bildots ta bildots, adiskide-usaingan itz egiteko gertu egoten
dakuz. Eztabe, orregaitino, onelango autuetan ez botorik ez dipu-
taukuntzarik aitatuko. Euron aserre ta ikusiezin ta iguin ta kurruka
ta bekaitz ta gorrotoaren gar guztia urirako gorde daroe; ta, elizan
izanarren, etxake ez oztu ez epeltzen. Meza-bitartean Bekosolota-
rrak (erromarrak) epistolaldean asko batuta egozanean, alde atan
kartagoarrik baegoan, karramarroak legez atzekera nai albo-alboka
ibilita bére, Ebangelio aldera laster yoango zan, bere iskiloide edo
armalagunakaz mordo bat egitera.

2

Santi Latsibik Bilbotik barri, arako beretzat ain pozgarri zan ba-
rria ekarriarte, inok ezekian Mungian kartagoarren aldugei² nor
izango zan. Gudalburuaren izena gerotxoago zabaldu eben. Gudal-
buruak aiatatu doguzanezkero, alderdi bateko ta besteko gizon agi-
rienak erakutsi daiguzan orain. Begik, erromarren buru Begik, la-
gun urko ta lankide andientzat *Anton Imaz* Gatikako sakristau-
orgaunlaria dauko. Mungian Begirenean eta Erroman sartu-urten
bat egin bagako egunik etxako oni igaroko. *Bekosolo* gitxitan ikus-
ten dabe erromarrak euren batzokian, aukera-egunetan bein bére
ez. *Yatabeko indianua*, gizon isila, gorabera bâkoa, basetsean bizi
izanarren uri andietako bizargin bat baizen garbi ta txukun Mun-
gian egunero agertzen zan. Lagun-artean Yatabe, beste izenik ezeu-
kan. Aideren batzuen ezpanetan Mauri zan. Gatikako parroku *don*
Blas Mendiola, gizon potzoloa zalako, Begik don Biribil izentatzen
ebana, arratsalderik geienetan agertuko zan batzartegian. *Larrinoa*
botikario ta batzoki-yaubea erromar sutsu zan. Beronen koñatu *Za-
baleta* eskribaua, batzarkide zintzoa au bére. Noizean bein *Zenon*
Aspe Bilbon azokari³ luzaro izandakoa ta *Azkarreta* eritxon kape-
llau gazte bat bére agertu oi ziran besteen artean.

¹ (zabaltasunean)

² (candidato)

³ (tratante)

Aukeraldia igaro ta zer esan andirik ezeukenean tresilloan yokatzen eben. Yokalariak egunik geienetan Begi ta Larrinoa (Zabaleta bere anaitzakoa ezegoanean) alde batetik, bestetik Yatabe ta don Blas izaten ziran. Anton Imaz yokalaririk yokalari ibiltan zan, Begiren bildurrez beti isilik. Sendailu¹ bila etozanak Larrinoari aurreko aldera dei egiten eutsenetan, Begik Madrid ta Milanen yazoriko zer-bait erasoten eutsan. Yatabek ez, beste edozein bazkidek² zipladaren bat yaurtigi oi eutsan Gatikako sakristauari. Sarrien ogetik yagierako esakera auxe aitatu oi eutsan:

*Anton Imaz ta Ezkurdi,
natural de Mendata:
gora gorputz baldar ori,
yagi-ordua da-ta.*

— Ta ori esan bagarik ezin yagi, Anton Imaz?

— Beti eztoz esaten; nagi naizanean.

Urtean iru-lau bidar arrotzik³ euren Erroman agertzen zanetan, Anton Imazi bere bizikerea esan eragiten eutsen.

— Ni, yauna —zirautsan berak arrotzari—, ni, baldaki berorrek Mendata non dagoan? Gernikati Oiz-aldean iru bat ordu laureneko bidean datza Mendata; bada ni angoxe semea naiz. Osaba abadeagaz amazortzi urterarte bizi izan nintzan. Latina irakatsi gura izan eustan. Nik barriz atarako burua gogortxo ta Gernikara egunaro yoaten nintzan organisteru zarragana do-mi-do-mi-sol-do ta pianua ikastera. Boza, ez neuk esatearren baia, nai umetan nai mutiletan ederra neukan, oraintxe langoxea. Bein angoxe sendalari batek (musiku andia zan bera ta Yainkoak zeruan euki dagiala) «Anton Imaz —esan eustan—, (niri Anton soil-soilik eztauste inoiz esaneta) Anton Imaz, iges egin len bai len mendi onen artetik, yoan adi goietara. Ire boz orrezaz mendia langoxe urre piloa egingo naieukek eta txalotan batuko naieukek, txalotan.» Jesus! Ta nor lanean, nor bideak egiten asiko? ta bera, Gernikako sendalari musikua. Diputazinoagandik beka bat lortu eustan. Beka zer dan badaki e? Doadoarik ikasteak egitea. Madridera yoan nintzan orretarako. An urte bete ta beste bete Milanen igarota Bilbora ni, diputazinoan boz au entzun bear eustela ta eginiko aurrerazpideak aztertu bere bai ta orretarako, dinodana, Bilbora etorri eragin eusten. Or nengoala, Gatikako alaba bat ezagutu neban, etse andi baten otsein⁴ egoana.

¹ (errezeta)

² (socio)

³ (kanpotarrrik)

⁴ (kriada)

Ez neuk esatearren baia neskatila ederragorik eta onagorik! Aingerua izateko, egoak, eziban besterik bear. Beragaz ezkondu nintzan. Eztegu-ondoan Madridera gu, baia zer? Emazteak an bizi gura ez; Milanera, Italiako Milanera tu, tu, tu, tu, tu, tu! ezta entzun bére. Bagatoz ostera Bilbora ta gizona, orti-emendi, ziri emen ta zara an, zikirri-makarra tipili plaust, Bilboko eliza baten *Bajo de Capilla* ta *organista ajunto* egin nenduen. Ni, ez neuk esatearren baia, onkote bat izan naiz txiki-txikitati, malizia¹ bakoa beti; ta azpiti azpiti azpiti lan eginda neugaz orfeoian ibilten zan batek, gizona, plaza bagarik itxi nenduan. Nik baino yoten obeto ekiala ta au zala ta ori zala, Anton Imaz gizagaixoa kalean gelditu zan, kale gogorraren ganean. Eskerrak aurrean daukadan Donato Arraitz-i, beronek entzun gura ezpadau bére, don Donato Arraitz Sagastiri eskerrak Gatikan, neure emaztearen basauritxo orretan, emendi ordu-erdi labur datzan basauri polita, neuretzako lagin leku egin eusten. *Sacristan*, *cantor*, *organista* egin nenduen.

— Eta *campanero* non izten dok?

— Ondoan bizi bear genduanean, emazte aingeruak zerura iges egin eustan, ume gatzetxo bi itxita.

— Esaik, bada, Burdeoskoa.

— Berorrek — esaten eutsan Anton Imazek arrotzari— *Orfeón Bilbaino*-ren entzutea bâldauko, nok ez? Angoxea naiz ni oraintxe be. Uriz kanporako diranean, nai Bartzelonara nai Iruñara dala, edonora, eurakaz eroaten nabe. Igazlanean Burdeos-en, *Sertamen de Orfeones*, au zer dan badaki e?, *Sertamen* andi bat izan zan eta niri «Anton Imaz, tira geugaz» eta ni, txapel gorria yantzita «Aurre-ra mutilak». Zaparradea atera genduan gero guk an. Ikaratu, konkortu, zer esan ezekiela gelditu ziran prantzes guztiak guri entzunda. Ango orfeonistak gure ondoan monja batzun zaratatxo ataraten dabe. Maisuak batean *Muchachos*, *sangre*, bestean *Arlotes*, *aquí pegar* esaten euskunean, goiburua bêra yausiko ekigula uste neban. Teatru guztia txaloka irakiten legez egoan guk geure *La flauta encantada* amaitu genduanean.

— Zelan dok ori bada?

— Lalalalalala lalarala lalalalalala... Gauzearen ederra! *Sé dibin Muxu*² esan euskun prantzes garri-bigun batek. Lenengo saria geuretzat izan zan. Beste orfeoia urrik bére ezeuskuen emon, urrik bére ez gero.

¹ gaitzuste

² *C'est divin, Monsieur* etezan?

— Arkatxongoa esaik orain.

— Ostra-tokia da Arkatxon. Burdeostik ara burdinbidez Bilbotik Ermura beste, or or. Ostrada bat egin bear genduala ta araxe gu.

— Euk bakar-bakarrik berreun yan euazala entzutea ðaukât nik.

— Asko zirana badakit beintzat. Umetan kerizak lez arnasea gorantz ufffff artuta, barro! onelantxe yaten genduzan.

— Eta zelan dok arako *Alto la*, Hugonotes-en zati, ik diputazi-noari entzun eragin eutsâna?

Gatikako elizaina, batez bére Begik zirikatuezkero beingo baten asten zan oiuka¹, asierako *vocal* guztiai y aurretik ezarrita:

Yalto la: rumor di passi io sento.

Nell'ombra io non discerno

se molti sono, e armati.

Voi, che di notte andate,

*che mai volete qui?*²

Amaika *Yalto la* Anton Imazen bular-eztarri sendotik entzun dabe Mungia-inguruko elizetxeak, elizkari egunetako bazkari luze amaibako oparo bitartean!

Oharrak:

(1) Badirudi, testuinguruaren arabera, «damugarri» esan nahi izango ebala.

¹ (kantetan)

² *Gli Ugonotti*. Atto terzo, scena IV. «Geldi or, oinotsa dantzut. Gerizan ezin ezagutu dot asko ta iskilodunak etediran. Gabaz zabilzenok, zer gura dozue emen?»



IV. Mungiaiko kartagoarrak

1. Lenengo batzarra.
2. Erromarrak estu.

1

Lenagoko Kartago ta gure egunetako au eztira izen utsez alkarren antzekoak. Antxinakoari bere salerosle ta azokariak emon eutsen eukan ospe andia. Etzan izan, Erroma zanez, yakitunez entzutetsua. Mungiaiko kartagoarren artean iru ziran liburu ta yakituria-zaleak: *Arangoiti* legegizona, *Ortiz de Treviño* eskola-maisua ta *Busturi*, Berinolean kutxazain¹ egoan Jose Andres Urizar, seminarioan luzaro egondakoa. Beste guztiak irakurte gitxiko, yakituria bagako, antxinakoen ondorengoak ziran. Gozogin² zan *Olabe*, Kartagoren yaubea; zalkurdidun³ *Laraudo*; Andraka aita-semeak, okin⁴ bata ta bestea; arakin⁵ *Arandui*; ardao ta edari-saltzaile, *Belaunde*; ostatari ta begi oneko azokari⁶ ta estankodun, *Lamiaran*; *Simon Gangoitik* abarka ta partan⁷, lapiko ta aspil⁸, buztarri ta ede, katai, agun⁹, aza-landara ta porru-azi ta lugintzarako bear diran tresna ta tramankuluak ugari saldu oi ebazan. Onen aurretiko kartagoarrak Sizilia ta Baleares, Inghlaterra ta Zerdeña, Espainia ta Ejipto-aldea salgeiz ornidu eroezanez, Olabek eta Laraudok eta Andrakak eta lagunak, Mungia erdiune ebela, Bakiora ta Meñakara, Arrietara ta Emerandora, Fika, Gatika ta Morgara, Derio, Zamudio

¹ (cajero)
² (konfiteru)
³ (kotxeru)
⁴ (panaderu)
⁵ (karnazeru)
⁶ (traginante)
⁷ (abarka-manta)
⁸ (kazuelara)
⁹ (soka)

ta Lezamara, alde batetik ia Bilbora, beste aldetik Gernikaratsu, bestetik Bermeoragino aren baten zabaltzen ebezan euren salgeiak. Floren Andrakak (Andraka gazteak) maisuagaz erderaz ziarduala, bein baino geiagotan arrosko esan eutsan eurak, kartagoarrak, Mungia *Las fuersas bibas* zirala. Erromarrak légez ónek bére euron artean urezandiko bat, indianu bat, euken: *Gondramendi*; Yatabeko Mauri baizen isila au. A esku-zabala, au estu-estu, zikotz, dirurik sakeletik ateraten inok inoiz ikusten ezebana. Kartagoarra zan ganera ta ez etzerena *Labarto* geltokizaina¹.

Beronen izena Julian Berezieta ezalekien ogei lagunek Mungia ta bere uri-auzoetan.

Santi Latsibik Bilbotik ekarren barria yakin ta lasterko txotoa kakoan ezegirik itxita, txapela buruan ebala, zidorrik zidor inok ikusi ezegian, kale ostetik Kartagoratu zan. Olaberen emazte Basili mandatari zala, ordu lauren baten barruan kartagoar agirienok an ziran. Aren poza, aren atsegina, Arangoiti zaldun legegizona, Bus-turi olaria lagun ebala, agertu ekionean! Guztiak zutundu ziran eurak sartzen ikusita.

— Zer da, gizonak? Barri andiren bat edo?

— Bâldaki berorrek Morrosko nor dan?—itandu eutsan Larau-dok Arangoitiri.

— Nik ez arean.

— Don Anbrus Isastiren loba, mutil gazte eder bat. Eztakit zelan deritxon.

— Eta nor dogu don Anbrus Isasti?

Kartagon etzan apurtxo baten euli-soñua baiño beste otsik entzun. Arangoiti bizi, urduri ta aserrakor zan. Lotsa andia eutsen. Inok ezeukan beragaz barrukotasunik eta etzan battxo bére aren itaunari erantzuten azartu.

— Intxaurtiaga Puerto Riko-ko negreruaren loba kirten ori, nor da guri, baserritar gizagaixo mozkortu baten bidez, «Orra or neure loba Morrosko» esanda, emengo seme ta etsagun ta beti-betiko liberal garanoi diputazinora bidean inok nor dan eztakian bat, papuak baiño beste agergerri bagako ori ezarteko? Nor dozue, gizonok, don Anbrus ori?

Isiltasun luze baten urren Andraka zarrak apal-apalik esan eban:

— Bat edo bat bear genduan da...

— Bat edo bat bear? Mungiararak bazarê, eztozue uste gure uri maite onen bear-orduetan Jose Andres Bekosolo mungiararak, erro-

¹ (Jefe de estación)

marra izan arren, nor dan eztakigun mutil batek baino obeto ezkaualazala sorotsiko, eztauskula bear doguna eskuratuko? Gizonak, ni orain lau urte enenduzuen aintzat artu nire osabaren batek esan eutsuelako, mungiar ona, beintzat erri-maitea naizalako baino. Berrogei etsaguntza daukadaz inguru onetan. Maister guztiak esku ganean ekarten dauste urtero urtero etsesaria. Eztauste besterik ezertxo zor. Euren botoen yaube eurak dira. Nik eneutsan orain lau urte, guztiok dakizue, eneutsan nik maister bati bere botorik eskatu. Geienak, orregaitino, emon eusten. Batzuk, karlista zintzoak izaneta Bekosolo-ren alde yoan ekidazan. Ondo egin eben. Orrelango arazoetan bakoitzak bere barrua, bere kontzientzia dau ugazaba. Besterik ezer etedaukazue niri esateko?

Arên naiera, arên atsakabea Arangoiti zaldun legegizona, Busturi olaria lagun ebala, ilundu ta itsutu¹ ekioenean!

2

Erroma, bitartean, ezegoan lo. Anton Imaz arratsalderik geienetan egoten zan Mungiako geltokian Bilbotik nor etorren yakin-gurarririk. Santi Latsibi orgatik² yasten ikusi ebanean beragana urreratu zan sakristau barrizalea. Labarto geltokizainak ezeutsan txanteltelgian sartzen itxi. Inguruan ebilen sakristaua agura birloratu zigarro ederduna noiz urtengo. Au esamesaka Busturiren etsealdera, Berinoleara, yoaten asi zaneke, Anton Imazek ezaban neke andirik izan agureari ekizan guztiak erasoteko; eta txairo ta lerden ta bizkor bere batzokira yoan zan, Erromara; andik beingo baten Begirenera. Ordu-lauren barru baltzuko guztiak, Anton Imazek dei eginda, Erromaraturik egozan. Begi izan zan, oi ebanez, barritsuena. Anton Imazek Yatabeko alkate lengoagandik entzuniko itzak, bazkide bakoitzari esanda eukazanak, barriri bére belarriratu eutsezanean, Begik «Morrosko —zinoan—, orain lau urte Arangoiti azpiratu genduanok Morrosko? Gura dozue tema egin guztiontzako apari eder bat Bekosolo gureak Morroskok baiño iru bidar boto geiago izan baietz?»

— Dirurik emotea ezpalitz, bai. Zuri aitzu datzu, Donato, Morroskoren osabäri diru-atsa dariola.

— Atsa bai, dirurik ez, Larrinoa.

— Isastik sakela bete bete daukala eztau ukatuko.

¹ (aienatu)

² (bagoitik)

— Sakela! Gizona dan gizonak, yateko ta berba egiteko ta gizar-tean lotsa bagarik agertu gura badau, aginak bear dozak; eta zikozkeriz, esku eutsiz, Isastikeriz agoa aginez ornidu gura eztaben arlotetzar orrek, uste dozu, Larrinoa, botoak erosteko bero orren sakel bete orretan eskua sartuko dabela?

— Don Anbrusek...

— Aginbako esaizu, aginbako da-ta.

— Aginbakok etsaguntzak daukaz Yataben.

— Arangoitik askozaz geiago daukaz ta eukazan eta au gorabêra orain lau urte guk zaputzeti oratuta...

— Berinolea berea dau.

— Berinolean bai, ogeta amarreti berrogeta bat boto izan leikez, Busturik biotzaren taupadak entzun da zerbait egin ezik. Zer dira baia berrogei?

— Geltokian bera, Aginbako, da aginduten dabena.

— Geltokian Labarto ta beste iru dagoz botodunik. Nik barriz lau boto edozein auzotan itsu-itsuka ibilita batuko neukez. Orreku azpiratu? Onako geu? Gomuta dozu, orain lau urte meñakarrak, sasimaisua aurreti ebela, Mungiara iluntze baten etorrita, emengo balzkumeok eurakaz mordotuaz, deadar onezaz gortu-aginik zelan euki genduezan?

*Bekosolo bekoroztu,
Arangoiti beti goiti;
Gora geu ta geutarrak
zangar, bakar, azkarrak.*

Ta ekin beti ta ekin beti, rak, rak, rak, erromarron azur-mazurak zerraketan ziarduela esan zeikean. Ez al dozue gomuta? Zuk orduan «Galduak gara, izan» esaten zeuskun, Larrinoa. Anton Imaz eztarria, ez tul egiteko bêre, indarga eukala egoan. Don Biribil ez tot orduxerarte inoiz zurbil ta larri ikusi. Guztiok zengozen oilotuta. Neu nintzan, Txorierriko gizon itsusien au, neu nintzan garailari-ustedun bakarra. Ta yo kontuak eta Erromak Kartago baltza birrindu, austu, bekoroztu egin eban.

— Baia orduan dirurik etzan. Gaur barriz-i...

— Eta zer?

— Ai dirua! Eztira oraindino urte ta erdi bilbotar eukitsu bik, Madriden aldun¹ izateko, emen auzka egin dabena. Gizonak erosten asi-orduko, asikintzat, aste bete aurrerago, Gandiagak bosna ogerleko autesle² bakotxari emon eutsen «Eutsi» esanda, elezino-

¹ (diputadu)

² (botodun)

egunean goia libre izateko. Bere naikide¹ ta aurkari Alonsotegi beste ainbeste egiten asi zan. Eta, entzun au ondo! Iru egun aurrerago, eguen baten, arloari bertan bera itxita, dinoenez, bigarren onek irurogei mila ogerleko eralgi ebazan². Irurogei mila ogerleko! Diruak dira.

— Eta zer?

— Irurogei mila ogerleko gure ganera badakarrez...

— Irurogei mila ogerleko gure ganera badakarrez, dakarrezanak zubian bêra Okara³ yaurtigiko doguz (Barre-zantzoka guztiak). Eta orduan Anton Imaz ta neu ta guztiok arrantzale geure buruok egin-da, blaust! ibaira «Ona emen nik aingira bat»: *Ferdinandus dei gratia*, amaseiko gorri ederra. «Ona nik arrankari zuri ederra»: mila pe-setako paper egin-barria. Erri guztia aberastu ta «Gora Bekosolo.»

Begiren burutasun sutsu ónek entzunda Anton Imaz baritonoaren zantzoak Gatikatik entzun egikezan.

— Irurogei milla ogerleko nok ekarri? Gandiagak eta Alonsotegik bigarrenez ez beintzat, ez bestek be. Orduko sutan erreta ñagozak eurak eta beste asko.

— Baiña yazo leiteke, gizona. Bada-ezpada ezkaizan, Donato, lo etzan. Lan egin dagigun.

— Ori bai, Larrinoa. Gaur Laukarizen ama izateko bat ikustera deituko nabe⁴ ta ango gizonak etxagun ta maister, biarko eguzkiak argi egin-orduko, lenago lez geuretuko doguz. Sacristan de Gatika, Heroe de Arcachon, gaur geurean apalduta alkarregaz yoango gozak gero Laukariza.

Erromar ta kartagoar guztiak ezeben Mungian gau atan zurruka ta beingo beingoan lo egin al izan.

¹ (rival)

² Gertarikoa. Aldungeien izenak aldatuta emon doguz.

³ Oka dau Mungiaiko ibaitxoak izena.

⁴ «Deituko deuste» ezta orren esakera zeatza, «dei egingo deuste» bai.



V. Jauntxoa ta bere ingurukoak

1. Tete ta Toto.
2. *El Rásimo*-ko maipuruan don Anbrus.

1

Agintarien artean izan dira luze ta izan dira labur nagositasuna irauñ dautsenak. Aita gurenak¹ esaterako, batzuk ogetaz urtetan, bat edo beste ogetaz egunetan yesarri izan dira Erromako aulkian. Aguratu arteko erregeak oparo darakuskuz Edestiak²; gazte-gazterik ilak ez gitxi. Jauntxoak, orregaitino, zoritxarra baizen iraupentsu ta luzakor izan doaz euren aginpidean. Bat, bakar bakartxo bat ezagutu dogu iragaitzekoa³, jauntxotasunak ilebete ozta irauñ eutsan bat. Zuri, neure Erri maite zar onen Edesti zurizka gazte orri, jauntxo bakar onen izena opa gura dautsut, baserrietan itsu-soiñua artu daroenez, orripean artu dagizun. Anbrus Isasti Intxaurtiaga da izen burrundaratsu ori.

Beronen yaioturixka Yatabetik Puerto Rico-ra, gazte zala, mutiko bizarga zala, eroan eban bere ondora osaba aberats batek, Afrikatik Antilletara gizalorrean, balzlorrean (Arangoitik esandako negreru) aberastu zan Simon Intxaurtiagak. Berrogetaz urteak an igarota errialdera etortea otu ekion Anbrusi, yoan zanez ezkontzaga, mutilzar, eta egokiago esateko, agura-mutil. Arreba bakar bat eukan, Juana, Torrealdea eritxon itxasgizon bategaz ezkondua. Lau seme-alaba izan ebezan Torrealdea-Isasti senar-emazteok. Aitaren apetaz⁴ T-dun izenak ezarri eutsezan laurai: Tomas, Teresa, Tiburzia ta Teófilo. Laugarren au yaiio-aurretxoan Juanak senarrari

¹ (santuak)

² (Historiak)

³ (transitorio)

⁴ (por capricho)

«Timo —zirautsan—, oi dozunez, zure naikundea egin bear bada, egin bedi; baia ez gero irugarrenaren⁽¹⁾ taiuko izen motzik gurera ekarri.» Atatik izan zan gaztênari, sendi-kondoari, izen zoli apain ori ezarte.

Lau nebarrebak arpegi-bete, azal-urdin, begi-ederdun, irazki¹ andikoak ziran. Tomas lenen yaioa, legegizon egin barri zala, bere amaren erritarrak boto-eske agerkeran ezagutu eben.

Teresak bere ikaskide neskatila-artean ezaban iñoiz izena osorik entzuten. Eurakaz ikasguan² zala, aitaren odoleko ta bera lez apeta-tsu³ zala erakusteko, Teresa Torrealdearen ordeaz, T.T. ipinten eban izentzat. Ordukoxea eban bere belarrietan ain gozaro, ain zoli, ain bigun ta apain ots egiten eutsan ezizentxo Tete. Eguzkiaren azpian ezegoala uste eban onelango izendun gizasemerik⁴ eta pozik bizi zan bakar zaneko uste onezaz. Amaika bidar irakurri eben izen ori Bil-boko gixon ta andere eztimetxak⁵ egunerokoen *Ecos de Sociedad* eritxon uanean!

Ezeben urte atan ez bizarginek ez eskola-mutilek zezenketarik egin, beste iru neskato eder inguruko ebazala, Tete maipurura eroan bagakorik. Eta biaramonean tintaz baiño eztiurez⁶ eginak zirudien *Ecos* aretan tete zoragarria, Tete begi-eder, Tete Kupidoren alaba bakarra eta beste eskukada bete txotxolokeri zuzentzen eutsezan.

Alango aldietan bere izena Bilboko neskamutil dirutsu geienak aitatu eroen: bêratzeko neskato askok; mutil guztiak goratzeko. Onen artetik sei bat yarraitzaile agertu ekiozan; ezagunena (guretzat beintzat) eta Tetek inoiz aintzat artu ezebana, Pedro Viñas y Andrés zan, Puerto Ricoarra, urte atantxe Valladolid-en sendalari egina. Gazte au don Anbrusek, adiskide baten semea zalako, aspaldi lu-zean magalpean eukan. Perico, ezaban Viñasek beste izenik jaun-txoaren ezpanetan. Magalpeko⁷ izateak Teteganako bidea laburtu-ko eutsalakoan egoan Perico. Aitak beragana Puerto Ricora deituarren, Bilboko eritegian⁸ azturatu⁹ bear ebala aikomaikotzat artuta, urte beteko luzapena eskuratu eban. Don Anbrusenean bein baiño geiagotan alkar ikusten eben.

¹ (estatura)

² (kolejioan)

³ (caprichoso)

⁴ (personarik)

⁵ (remilgados hombrecillos y señoritas)

⁶ (con hidromiel)

⁷ (recomendado)

⁸ (hospitallean)

⁹ (adquirir experiencia)

Mutillak txeratsu¹ itz eginda be, neskatilla andinai buru-eritxiak otz ta motz erantzuten eutsan. Kanean barriz ez arpegira begiratu, ez agurrai yaramon.

Teteri bere lagun neskatillak mosu andiak emon eta «laztantxo» gora ta «laztantxo» bêra esanarren, bekaitz² andia eutsen eta pozik ekusen Pedro Viñas bere atzetik, gai apaltxoa zalako, sendalari eginbarri ta aomen³ bagako bat baiño etzalako. Goian zerua ta bean lurra eukazan bat izan balitz, pozago. Sarrien beragaz ibiltan zan euretariko batek «Ori dozu, Tete, eskuarte. Ori dozu txokoa! —esan eutsan bein—. Gu nora berau ara ñabilku *Virgo-fidelis*-en antzeko Portorriqueñotxo ortzargi⁴ au, beti zeuri begira, zeure itz, txerazko itzxo bat entzun ta zeure begirakune bigun adikor⁵ bat ikusi gurarik.

— Eztabe esaten ideak ideakaz ezkondu bear dabela? Ezkondu dadila *Virgo fidelis*egaz beragaz —Iribarrez erantzun eban Tetek.

Urte aretan Bilbon nondikbait agerturiko aizta bi bizi ziran, elizkoi ta eukitsuak eritxi baten. Nonnai burua erakutsi oi eben, batez be gar-lanetan⁶. Zarrena gizon-antzeko zirt edo zartekoa zan; gaztêna otzanago. Laguntzat emakume adintsuago bat⁷ edonora erabilten eben. Norbaitek ezizen txanbelin⁸ ônek ezarri eutsezan: aizta zarrenari, *Virgo potens*; besteari, *Virgo clemens*; kale-lagunari, *Virgo fidelis*. Pedro Viñas sendalaria eztakigu zetan zan irugarren onen antzekoa.

2

Aspaldikoa da Ibaizabalen bazterreko uri zaratatsuan bizi zan *La Concordia Cívica*. Ezizen-zale dira bilbotarrak eta beingo baten ezarri eutsen *Concordia* oni, batasun osoa eukalako edo, irri-izentxo au: *El Rácimo*⁹, euskeraz *Mordoa*. Tomas Torrealdea, bere sorbaldan legegizonen soinekoa¹⁰ ikusi ebaneko, zerbait izan nairik *Mordoa*ren inguruan eabilen, urruntxotik lenengotan, urtxoago gero,

¹ (cariñoso)

² (envidia)

³ (entzute)

⁴ (simpático)

⁵ (atento)

⁶ (en obras de celo)

⁷ (zârrago bat)

⁸ (lindo)

⁹ Askorentzat *La Piña* zan ezizen au.

¹⁰ (*toga*)

argi-inguruan eltxo ta sits ta txiribiriak ibili doazan antzera. Bertako ogipeko¹ baten adiskide egin zan onetarako. Beronen bidez laster lortu eban Tomasek biotzak uda guztian egunoro ta orduoro eskatzen eutsana: Mungia-aldeko aldungei² izatea. *Concordiakoak* onetarako dei egin eutsenean, bere azpi-yokoa zurikatzearren, ogeta lau orduko epea eskatu eban erantzuteko. Osaba Isastiren baimena bear ebala ta egoki izango zala euren baltzura osabeari ots egitea. Auxe izan zan Morroskoren erantzuna.

— Garatzen bat alda (*Algun negocio o así será*)— zinoan don Anbrusek arako deia izan ebanean.

— Isasti yauna, zu Cuban *Voluntario de la Libertad* izan eizara.

— Ni ez; ni Puertorricon salerosle berrogetaz urtetan.

— Baiña andik etorrita *Palaciego de la Libertad* zara.

Don Anbrusek ezekian zer erantzun.

— Gure *El Sition* sartuta ezalzagoz?

— Ori bai.

— Bada *El Sitio*-ko izar argitsu zaran ori, izan zaitez aurrerantzean *Patriarca de la Libertad*. Gure baltzu³ onetantxe euki nai zenukeguz.

Ezpanen orde z begiak eukazan don Anbrusek «Bai pozik» erantzuten.

— Gure *Mordo* au sortu zanetik zarrena izan oi dogu beti maipuruko⁴. Zeuri dagotzu, Isasti, duintasun au. Aurrerantzean zeu yarriko zara guztion aurrean.

Pozez ordirik, aren baten, eldu zan don Anbrus arreba ta loben etsera. Gau atan Tomas Torrealdea Isasti, (e) edo ezizenez⁵ Morrosko, txakur-amesetan *Diputado a Cortes*, *Senador* ta *Ministro* egin eben. Yardun⁶ ederrak ugari egin ebazan. Erreginak Donostiatik Bilbora ta Bilbotik Donostiara, almirante yantzita, sarri erabili eban; eta bere alaba *Infanta* bategaz ia ezkontzeko egoala, loak buru nekatua gozaro eskuetan artu eutsan.

Biamonean Tetek osabeari eun izen-txartel urrebitsezko ertz ta guztikoak eroatsazan. Auxe zan euretan irakurten zana:

*Ambrosio de Isasti Inchaustiaga
Presidente del Comité Liberal*

Bilbao

¹ (empleado)

² (candidato a diputado)

³ (sociedad)

⁴ (presidente)

⁵ e onek ezizenez esan gura dau erderazko a-k *alias* lez.

⁶ (diskursu)

Ordurarte egunik geienetan Plentziako seme ziorl¹ baten dendara yoan oi zan don Anbrus.

Lobak beingoan zuritu eben etxakala eder egiten bera lango maipuruko yaun bati alango zoko-bazterretan burua sartzea.

Gauoro yoaten zan baltzura edo beintzat batzokira² ta andik, bere bizitokira baiño lenago, loben etsera, baltzuko barriak azalztera. *El Eco de Vizcaya*-n «Isasti el ilustre hombre público, gloria de las Antillas», Bilboko *Comité liberal*-en bere sarigei³ andiz burutzat autatu ebela agertu zanean, Tete *Corrida estudiantil* irakurrita baiño bere pozago ebilen. «Txutxu dagiela —zinoan—, txutxu dagiela Josefina Ansorenak-eta; txutxu bekaitzez, andiago bat ikusi ezinez.»

Laugarren gauean, orregaitino, don Anbrusek isil, muturtsu ta aserrakor bere etsera-bidea artez, beste inon gelditu bagarik, artu eban. Eta lenagoko izen-txartel bat, Ambrosio Isasti-dun bat, eskuan arturik, *Comité*-ko lagunai bere maipurukuntzea⁴ euren eskuetan itxi eutsen. Zegaitik etezan? Morroskok urrengo bazkalondoan *El Sitio*-n bere adiskide Mordopekoarengandik⁵ yazoriko guztiaren barri izan eban, eta astirik galdu baga, arrapaladan osa-beagana yo eban.

— Yareipena, dimisinoa?

— Bai, ta iri zer?

— Niri zer? Niri zer daustan? Bâldaki berorrek orrelango comite baten maipuruko izatea zer dan? Biar-etzietan nai Bilboko alkate, nai *Diputado a Cortes*, nai *Senadore*, eta *Conde de Berinoleaga* izateko beste ainbeste mailla. Eztaki, osaba, eztaki berorrek zer egin daben.

— Eztakidala! Ze izen dau baltzutxo orrek Bilbon? *El Rásimo*? *El Rásimo*?

— Lenengo ta bein ezpegi esan, osaba, *El Rásimo*, *El Racimo* baiño, a baiño *i* asko luzeago ta gogorrago.

— Euk neuri irakatsiko daustak! Legegixonen txitxili-patxala orrekaz ez etorri nigana. Emen masmordoari erderaz beti *El Rásimo* esan izan dautsagu. Ezpadakik, ikasi. («No vengas ande mí con chichili-páchalas de abogaditos. Aquí al masmordo siempre le hemos

¹ (zapatari)

² Yakingura danak liburu onen azkenean dauko itz bi onen goi-bea, banatasuna. (2)

³ (mérito)

⁴ (la presidencia)

⁵ Mordopeko: empleado de *El Racimo*.

llamao en castellano *El Rásimo*. Si no sabes, aprender». Onetxek izan ziran bere itzak, bere eleak.)

— Zer dala-ta agertu dau yareipen ori?

— Puertorrikon berrogei urte anditan, jauntxo orrei sabela ta sakela beteteko lanean ekin dodala uste aldok? Zein baltzutan ikusi dok ik norbait buru egin, maipuruan ezarri ta urtean onenbesteko bat berari ez emoten? Or barriz buru egin nαιοek eta saritzat lotsabakotzarrok!! neure lanen saritzat bost milla ogerleko eskatu daustezak, agoa beteko bost milla ogerleko. Dirua gura bañoek, doazala Puertoricora irabaztera. Caramelo! El Rásimo! Arrrrrranpalásimo dok baltzu ori.

— Baiña diru ori eurentzat alda? Eurak ezaldabe ezer emoten?

— Bosna milla emongo doela (sic) yinosten. Esan bai. Nok emon?

Burubakoa nokala uste aldok? Dirua emon! Astoak aldozak, dirua olan emoteko?

— Berori ezta inoiz onelako arazoetan sartu ta...

— Ezta sartuko be.

— Eta eztaki aukereguntan¹ eskuartea bear izaten dala? Ganera diru ori ezta uretara yaurtigiten. Galgaraua lurrean lez, erein egiten da aukeraldian, bost emon dabezanak ogei nai ogetamar batzeko. Jauntxo bat meadun² egiten da, euren izenakaz eun aitatuko neuskioz; eta, politikan sartuta eztagozan mea-yaubeak lo datzazan artean, aurrera doa ereilea bere garatzetan³, batu ta gorde, gorde ta batu.

— Txitxili-patxalak dira orrek.

— Bene-benetan diñot. Don Anbrusen txitxili-patxalak eztakit zer diran. Itz polit zoli au eztot iñoiz ez liburutan ikusi, ez gizoni entzun. Puertoricokoa eteda?

Morroskok, osaba zikotza ezin zuritu ebala ikusirik, sutan arpegia ebala, etsera bidea artu eban; eta arreba zarrenari banazean⁴ dei eginda «Zeu zara, Tete —esan eutsan—, zeu zara gurean osaba kolo orren kutun; ta zuk ezin dagikezuna eztau iñok lortu al izango. Osaba orrek yareipena⁵ bidali dau *Concordiara*. Erdu arren! erdu berori zuritzera.»

— Zer? Gaur goiz guztian ta atzo goiz ta arrats batak «Ordu

¹ (elezinoetan)

² (minero)

³ (negozioetan)

⁴ (a solas)

⁵ (dimisinoa)

onean», besteak «Urte askotan», besteak «Pozkide nozue» atsegina atseginarene ganean artuta, orain au! Alkarregaz yoango gara. Zuk iñori ez esan yareipen onezazko ezer, lotsatu ezkaitezen. Astoak bolura¹ gari ta urun-lorreen ibilteko bai, bestetarako eztira.



Oharrak:

(¹) Orij. «irugarren». Testuinguruak «irugarrenaren» eskatzen dau eta gipuzkerazko bertsioan be hala dator.

(²) Azalpen hori ez da liburu honen azkenaldean inon ageri.

¹ (errotara)



VI. Maipurutik... maipurura

1. Tete zurikatzaile.
2. Toto egur-duin.
3. Busturiren egitamua.

1

Don Anbrus batzokira, *El Sitio*-ra, agertzen azartu ez ta, bere lagun urezandikoakaz¹ batzeko gogorik ez eta plentziar zapata-riarengana lenago lez yoian loba zârren biak etsean sartu ekiozanean.

— Osabatxo, eztira txitxili-patxalak ez gitxiago be— esanaz, belarri-gingila bigun-biguntxorik estutu eutsan Tetek.

— Ona emen au. Gure etse beti isila abarrotsez ta zarataz birbiztuko bada, eztogu besterik bear.

— Aurra, don Ambrosio de Isasti! Goazan bazkaltegi², maipuruko yauna, itz egin-bearrak gara-ta.

Yezarri be etzan egin Tete, ain egoan urduri³. Atzotik onako ya-zoera arrigarri au zearo ikasarazo daust Tomasek, osabatxo; norae-zekoa dogu, nai ta ezkoa, arnasea baizen bearra, bidali daben esku-titz ori urratu ta txiki txiki egitea.

— Emakumeak zer etedakie politika-arazoetan?

— Arazo au ezta politikazkoa, deduzkoa da.

— Zer da dedua? («¿Qué es honor?») ⁴

— Dedua zer dan!

¹ (indianuakaz)

² (komedorera)

³ (nerviosa)

⁴ *Make money, if you can, honorably; if you can not so, make it however:* Egizu dirua, al badagizu, deduz; baldin onelan ezin badozu, egizu zelangura. Goi-Amerikako gizalegea eida. Goi-Amerika Puertorrico yoten dago. Puertorricon luzaro bizi izan da don Ambrus. Arrigarri eteda «Zer da dedua» itandu izatea?

Bêko ezpana agin-artean artu eban Tetek, begietan erion nairik agertu ekiozan malkotzar biak betazal-barruan gorde âl izateko.

— Dueda izen ona da, entzute ona da, lotsea da, gizaseme baten bizitza osoa da. Begi bagarik bizi gaitekez: bizi dira mutuak. Dedu bagarik zelan bizi âl izan? Dedu bagako gizona ezta gizon.

— Zer dauko dedu orrek arazo onetan zer ikusi?

— Zer daben! *El Eco de Vizcaya*-n ain goragarria genduan barrua agertuta gero, au itandu? «Bost mila ogerleko aurreratu ta erein gura izan eztauzalako atzeratu eida Isasti». Bilbo guztian ezta beste izketarik, beste auturik izango ta gu edonoren aogozagarri⁽¹⁾ izango gara. Bâldaki, osaba, Mungian gizon ezkondu bat ilten danean, bere alarguna arpegia oial baltzez estalirik, gorpu-lorreatan, entierroan zelan obietara¹ aurreti yoaten dan? Alantxe, lotsa gorritz, arpegia ostuta izan ezik, ez nintzake ni kalean agertu al izango.

— Asi da garretan gure Su-buru.

— Bost mila ogerlekori asko baderitxo, entzun begi. Zenbat mila daukaz berorren loba maite Teterentzat ilburukoan² ixteko? Bost, amar, ogei, ogeta amar? *Concordiako* bostak ken andixek eta orra ni pozarren.

— Eroa!

— Eroa neu! Komentu batera iges egin bear izango dot— esanda negarrez asi zan Tete eta urren zan aulkian inkesaka, erostaka, uluka, malko andiak eriozala etzan zan.

— *Cara... cas!* Goazan, Tomas, diruetsera ta eroaik euk diru ori neskato au il zedakigun³. Gero neuk dinodala esan maipuruko izateko beste peseta bat, soil-soilik, uts-utsik, bakar bat emon bear baldin bada, gorde dagiela eurentzat buru izate ori, mai ta guzti.

Morrosko, jauntxo zikotzari damutu ekion baiño lenago, beragaz diruetsera yoan zan.

2

— Gizon bat ezi ta erabilteko, utsa gara gizonok. Orretarako eztago emakumea langorik— zirauntsan Tomasek bere arreba Teteri, *El Rasimotik* etseratu zanean.

— Zelan artu zauez?

— Ezin obeto. Neure guzurtxo bati esker, oso-osorik leneratu

¹ (ilerrira)

² (azken naian)

³ Gaur be Mungialdean *il eztaigun, il ezdaitean...* en ordez *il zedakigun, il zedaitean...* esan oi da.

dogu arlo au. Osaba Ambrosio maipuruko izateari lartxo eritxita atzeratu dala esan dautset.

— Orduan maipurutik kendu egingo dabe.

— Pzzzz!

— Eta agurea amurruz gora-gora asi baledi?

— Teteren negar-malkotxo batek laster ibituko dautso amurru ori.

— Gizonak zerbait zarêla uste dozue gero! Ai andren burua! Non zara?

Jauntxoak bazkide-artean egotalditxo bat egindakoan, loben etsera eldu zanean, nebarrebok Mungialdeko aukeraldia ao-minean ebela idoro¹ ebazan.

— Kaixio, osaba! Ederto artu nabe, ezer yazo ezpailitzan. Dirua emon dautset eta *tutti contenti*.

— Ordain-agiria² emon izango dauek.

— Ordain-agiria! Atxak dantzuela itz ori. Onelango arazoetan orrelango gauzarik ezta bear izaten.

— Hmmm!— iru edo lau bidar murrusa egin eban agureak.

— Gure Subururi esetsi-egitamua³ erakusten niarduan, berori ona sartu dakunean. Ea berorrek zer deritxon. Mungialdean dogun areriorik bildurgarriena Begi sendalaria eida. Onen lanak indargatu ta ezereztu gura badoguz, bidali dagiogun aurkaritzat⁴ gure Perico Viñas. Sendalaria da, barritsua da ta ganera abenduko eulia baizen lotsa gitxikoa. Sartuko litzate, sartu!

— Eta Perikori saria nok emon? Maipurukoak?

— Ez, *Comitearen* diruti emongo ñako. Milla bat erreal ileko emonezkero, pozik a; batez be Tetek ori gura dabela baleki.

— Ez gero, Tomas, beste bein zuen Viñas orren izena ta nirea batera aitatu. Olgetan be eztira gauza batzuk minean artu bear. Agur, osabatxo. Uruna eralgiten asi zarenezkeru, ekin arloari arik eta ogia eginarte.

— Niri be zerbait esan gero. Ala ni eznaiz agur-duin?

— Egur-duin, bai, egur-duin.

— Tamala⁵ da, Tomas, gure neskato eder au gizon ez izatea —ziraitsan osabeak biak bietara gelditu ziranean—. *El Rásimoko* jauntxo guztiak sakelean, yostailu batzuk lez sartuko leukez Tetek. Orren burua ta biotza ta yasa ta adorea ta ganorea ta igurdizia!

¹ (hallar)

² (erreziboa)

³ (plan de batalla)

⁴ (kontrariotzat)

⁵ (lastima)

Morroskok arrebearen nebatzat eukan bere burua ta jauntxo guztiak sakeleratzeko bear ziran doiak ganezka ebazala uste izanik, osabari belarrira irribarrez:

— Osaba —zirautsan—, neskato eder ori Tete bada, izketan diarduan mutiko au Toto dogu. Lagunen batek onelantxe esan be egiten daust. Berori lagun dodala, Mungiako jauntxo izango naiz orain, izango gara; ta iru edo lau urte barru Bizkai guztian ezta Isastik eta Torrealdeak gura dabena baiño beste aginpiderik izango.

— Karatxoles! Gauza andia litzate ori.

— Orretarako erein egin bear, erein. Ulertzen? Berorren *El Rásimo* orretan dagozanok buruzuri batzuk dira ta ez ule-urdirin diralako, gaztaña txikol mamin bagakoen burudun izatearren baiño. Amaika bidar entzun dautsat berorri Urlia ta Berendia ta Zandiaz esaten «Inusente». Orixe dira orrek, guztiok gero, diran diranok, *inusente* andi batzuk. Gure asmo onetarako ereiteaz ganera, beste zerbait bear da: zurtasuna¹. Gure barrua ez iñori osorik zabaldu. Don Ambrosio de Isasti e Inchaurtiaga *Gloria de las Antillas* dala irakurri dogu egun onetan. Zerbait geiago, asko geiago izatera elduko da, Totogaz bat eginda badabil.

3

Osaba-lobak izketa atantxe Santi Latsibiri, Busturiren bitartez, dei egitea erabagi eben. Berinoleagako kutzazain Busturi zan, beraz, Yatabeko alkate zârrari arako mezua² *Doala Santi Bilbora biar goizean goiz...* bidali eutsana. Ezeben, orregaitino, osaba-lobok zûr-zûr ziranen erakutsirik emon, Arangoiti legegizona, mungiarrik agiriena, lenengo-lenengotatik bazterreratu nai izateaz. Kartagoarren baztarrean yazo zanak gure gizonoi zûrrago izan bear ebela irakatsi eutsen.

Gau atan eurakana yo eban Berinoleagako kutzazainak³. Onen kabuz⁴ Morroskoren esetsi-egitamua⁵ aldatu bear izan eben.

— Ezer onik egin nai badogu, Arangoiti geuretu dagigun lenengo; gero uriauzo aretako alkate ta etsagun agirienak bigun-bigun-txorik zuritu bear izango doguz; ondo esanez, gogorrean ezin leite.

¹ (prudencia)

² (mandatua)

³ (kajeruak)

⁴ (ustez)

⁵ (plan de batalla)

Liberalik eta karlistarik aitatu be ez egin. Zergak¹ urriago izango dirala, erregebideak² ugariago. Onetarako betoz eurok bertara arin bai arin, len bai len. Eurok baderitxoe *El Rásimo*-koak³ agiri bat, papertxo bat Arangoitirentzat emon dagiela⁽²⁾, baltzukide guztien eritxiz Mungialdeko aldungeitzat don Tomas legegizon, odolez yatabetarra, aukeratu dabela ta Arangoitiren beraren itun ta euspena⁴ gura leukezala. Betoz eurok bertara, Kartagora baiño be lenago, Arangoitirenera; andik aldauritxo bat edo bitara: Yatabe, Gatika, Larrauri, Meñaka ta abar. Neuk lagun egingo dautset. Berinoleagan bertan gertuko dot bazkaria ta iluntzerako nasai ta zabal Bilboratu daitez... Aldaurietara⁵ yoate au sarritxo egin bear izango da garailari izateko.

— Zer dirauskuzu, kutxazain, Arangoiti orrezaz? Dinoen baizen altzu eteda? Nire begiak eztautse gatik egin, eztabe inoiz ikusi-ta. Zelango gizona da?

— Don Tomás? Badakizu ardatza zer dan? Gazte zara ta ezalduzu gorularirik ari iruten ikusi? Gorulariak, linoa ari biurtzeko, eskuan erabili daroen tresnatxoa; auxe da ardatza: lanabes⁶ artez, gogor, mingarria, arduraz erabili ezik beintzat. Arteza, zuzena, ñor ez zuzenagorik, gogorra, gitxi bera baizen gogorrik, eta sarri askotan mingarria da Mungiako baltzik⁷ andiena, argitsuena, aberatsena. Adiskiderik urri daukaz; mendekorik, edo beintzat esker bat edo beste zor dautsenik, ugari. Maite, egi bat esateko, gitxi dabe maite. Bildurra ta batez be lotsea, begirunea, askok eta askok dautse.

— Nondikoak dauz al izate ta ospe⁸ ori?

— Orain ogei bat urterarte Gernikak ezaban auzietarako Mungialdea baiño iturri obarik. Zer zan a! Bide zidor baten barruna auzokoaren burdia igaro zala... ta auzia. Auntz talderen batek azategi bat orriuldu nai babaarlo bat itzindu ebal... ta auzia. Urliak Zandiari «lotsabako», «fepako» nai «ugerdo» nai «mozkorti» nai «arpegi andi» nai beste onelango irautxoren bat zuzendu eutsala ta auzia. Arangoiti, Arangoiti ardatz, legegizonduta, yaioterrian eta

¹ (kontribuzinoak)

² (caminos reales)

³ Don Anbrusi entzunen entzunez, iztxo au *El Sitio*-n asi ta kalerik kale Bilbon ta Bilbo-inguru guztietan, odeirik odei edo, beingo baten zabaldu zan.

⁴ (consejo y apoyo)

⁵ (arrabaletara)

⁶ (utensilio)

⁷ (liberalik)

⁸ (popularidad)

yaiotetsean zuztraitu zaneti agur Gernika! Beronek bakeak egiten dauz ta onen epaia gorabide bako¹ da.

— Diru andia egin izango dau, e?

— Zuriko bat eztautso inoiz inori ez eskatu, ez artu. Ostean da aberats, yatorriz; indianua eban aita, Montevideon luzaro egonikoa. Etsetsua da ta dinoenez, dirutan baieldauko! Ta ganera gitxi bear, seme-alabarik ez, etseak bear dabena ta geiago bere lurrak eta gizon eskertsu askorenak emoten dautse. Gizon ospetsu ta áltsu bat zelangoa dan adierazoteko, sarri entzun izango dozue «ur andiko arraina» dala esaten. Auxe da Mungiako legegizon ta ongile Arangoiti, ur andiko arraina.

— Etzi ezagutu bear dogu, arren, gizon ori.

Aldaurietako alkate ta maisu ta gizonik ardurazkoenak eta lengo aukera-egunetan eginiko utsak eta beste onelango zerbait labur ta yasean azaldu eutsezan Busturik. Mutilla zan bera nok entzun eukanean! Aintzat eta ontzat artu eutsezan osaba-lobak bere burutasun ta asmoak; ez, orregaitino, Pedro Viñasegazkoa. Pedro Viñas ara doako sendalari² ta autarki-batzaile³ eroateari ezeritxon Busturik egoki. Euskeraz izketan eztakianak an zer egiteko? «Ganera —zinoan berak—, Arraitz maite dabe inguru aretan, bai erromar ta bai kartagoarrak. Gizon adikor⁴, biotzbigun ta sendalari burutsua da. Ak «Ilgo da» badiño, alper izango da Santa Leguati mediku ospe andikoena ekarte. Ak «Ezta oraingotan ilgo» esanezkerok...»

— Zein? Begi olakoa! Uuut orti— esan eutsan don Anbrusek.

Errezpe au entzunda, Busturik ganeko ordu erdian ezaban mistik atara.

Oharrak:

(¹) Orij. «aogozarri». Gipuzkerazko bertsioan «aogozgarri».

(²) Orij. «... papertxo bat emon dagiela, au baltzukide guztien eritxiz Mungialdeko aldungeitzat don Tomas legegizona, odolez yatabetarra, aukeratu dabela...». «au» horrek ez dauka zentzurik esaldi honetan eta ezabatu egin dogu. Gipuzkerazko bertsioan «An esan dezatela» ageri da horren orde. Bizkaieraz be «An esan dagiela» ipiniko baleu, zentzuz zuzena izango litzake.

¹ (*apelazino* bako)

² (*médico gratuito*)

³ (*agente electoral*)

⁴ (*atento*)



VII. Lenengo guduxkak¹ urian

1. Jauntxoa Mungian.
2. Arangoitireneko batzarra.
3. Izlari ta yardun-asmoa.

1

Arrats beranduan Busturik Adona, Pedro Viñasen etsandregaia, kartagoar sutsuen etserik etse bidali eban. *Biar goizeko trenean datoza* zan, ez geiago ez gitxiago, etse bakotxean itzi eban mezua².

Biamamonean bultzia³ eldu-baiño askozaz lenago batzandu ziran gelunean kartagoar agirienak: Olabe, Laraudo, Floren Andraka bere aitaren izenean, Simon Gangoiti, Belaunde ta Arandui. Oni ezeutsen geienak ontzat artu odolez zikinduriko arakin⁴-narrua alzoan ebala alango arrera baten agertu izatea. Baita Gondramendi be an ebilen, geltokira sartzea doakoa zan-ta. Maisuak, umeakana yoan bear ebala izentxartel baten esanaz, Adonari emon eutsan bere ordezkotasuna. Busturi ta Labarto ebilzan aurrerengo.

Laukarizpeko tuneletik txiztuka ta ketan suburdia⁵ agertuta geroago, Pedro Viñasek orga⁶-atzeko aldetik suziri⁷ batzuk erauzi⁸ ebazan.

Noizik noizera alderdikoitasunak ganez eginda edo «Gora Kartago» deadar egiten eban Floren Andrakak.

Busturi zan aurkezpenak⁹ egitekoa.

¹ guerrillas

² (mandatua)

³ (trena)

⁴ (karnazeru)

⁵ (locomotora)

⁶ (bagoi)

⁷ (bolandera)

⁸ (disparar)

⁹ (presentaciones)

Don Anbrusek, Morroskok eta Viñasek banan banan guztiai esku emon eutsen. Floren Andrakak, aurkeztordua eldu ekionean, *inkondisional* zala esan eutsen. Irunaka sartu ziran Mungiako kalean; lenengo lerroan, Busturi ta Laraudoren erdian, jauntxoa; bigarrenean aldungeia, Olabe ta Gangoiti lagun ebazala; irugarrenean sendalaria ta bere esker-eskuma Floren Andraka ta Belaunde. Arakinak, Gondramendik eta Adonak askozaz atzerago zerraien besteai. Alkatea agertu etzalako marmar eragon eben kartagoarrak egun osoan. Alan be, Arangoitiren begi-begikoa zalako, alkarren artean ta isil-misilka baiño ezeben yardun.

Anton Imazek suziri-otsa entzun ebanean, Gatikako elizondotik gelunera begiratu eban eta «Eurak etedoguz» esanaz arineketan barrigosez Mungiaratu zan. Urian zeinbat sartuago ainbat sarriago, lodiago ta gizatsuago, egiten ekioen kartagoarrai euren mordo, pilloa. Berrogeita iru lagun ziran, txiki ta andi, ume ta umêrezi, Erroma-aurrean igaro ziranean. Floren Andraka, bere lerrotik aurreko bietara yoanda «Auxe da Erroma... auxe da Erroma... auxe da Erroma» aldizka ta belarri belarrira eguneko iru gizonai esan eutsen. Iru-rak goi ta bê *Farmacia de Larrinaga* zurt ikertu¹ eben.

Anton Imaz kaleratu zaneko, besteak Arangoitiren etse ondoan egozan. Iru bilbotarrak eta Busturi, besterik inor etzan Arangoitigana yoan. «Amaika amaietan Kartagon batuko gara guztiok. Floren, datorrela aita be.»

Busturiren agindu au entzunda, beingo baten egabanatu ziran kartagoar zintzoak, zaldi-artera Laraudo, Olabe bere gozotegira... eta onelantxe bakotxa bere egikizunetara.

2

Arangoitik txeratsu ta maiterik artu ebazan lau ikustariak «Gizonak, etzagoze elizan» esanaz, esegita itzi ebezan burukoak bururaturata «Andia da, —ganeratu eutsen etseko jaunak—, andia da ta biotzeragino sartuko ñaku etxe oni egin dautsazuen dedua. Yezarri, jaunak; zu ortxe erdi-erdian, *don Ambrosio de Isasti, gloria de las Antillas* (Irribarre Busturik). Zuok gizalegez ta txeraz artzeko, zeuok agertzea naikoa ezpaltzakidan, neure aspaldiko adiskide ta gogaide bilbotarrak zuek onako zarena yakin-arazo dauste; baita legegizon gazte au euren izeneko aldungei dala be ganeratu dabe.

¹ (esaminau)

Ondo etorriak izan zaitezela. Artu dodan paper onetan ituna ta eusp¹ena¹ eskatzen dataz.

Gizonak, parkatu; etxat oraindino gomutaratu zerbait eskintea. Jereza nai beste edariren bat, Navako ardao zuria, Kariñena... onelango zerbait artu nai dozue?»

— Ez, eskerrik asko; maiti gatoz, gosalduta.

— Zeuen etsean zagoze ta eskuetan daukazuez nire eskubide guztiak.

Onetan lau bat urteko neskatilatxo marot eder bat, Arangoitiren loba zurtza, arteratu ekioen «Osabatxo» zinoala.

— Madalen, laztantxo, erdu ona, eder ori— esanaz, mosuka alzoan artu eban etseko yaunak—. Gaixo oni ai^a, Orioko seme, Bilbon injenieru egin zan bat, orain urte bete il ekion, eta ama, neure arreba bakarra, aurtengo udan. Umea gora-bera itz egin dagikegu, isilla da. Ituna edo burubidea ta ganera eusp¹ena, goratzeko laguntasuna, nigandi izan gura eidozuez. Al dodantxo^a egiteko gertu nago. Liberala naiz ta nire botoa izango dozue. Belgikan oi danez, emengo aukerak ginokoak² balira ta nik legegizon ta etsagun ta lurdun naizalako boto baten orde^z iru baneuz, irurak, Torrealdea, irurak emongo neuskizuz.

— Eskerrik asko, yaun Arangoiti; ta eskertsu naizala erakusteko, beste onenbeste ta geiago zure alde egin gura neuke.

Orregaitino, boto bat baiño eztaukazula entzutean arri ta zur nago. Maistar utsetan berrogeiti gora daukazuzala esaten izan dabe Bilboko gure adiskideak eta gero adiskideta...

— Berrogei maistar baukadaz, egia da; autitzik barriz, botorik, neurea soil-soilik. Maistarren autitza maistarrena da; eurak dira botosodun. Gizonak, arpegia lotsaz gorri-gorri dogula bada be, auxe autortu bearreko gagoz: gaur eguneko aukerak, menpekoen³ arterako dira egoki; liberalak garala, lokabezaleak⁴ dala gure izengoitia ta gero maistarrari libertade dontsu ori kendu! «Maister⁵, emoidak eure botoa, bestela bide, alde egik etseti, atera⁶ yoan adi.»

Lentxoago Morroskok autortu ebana, arri ta zur eginik eukazan Arangoitik, «Bere eskuz ereindako gari ta artoen ernaminak biotzean daukaz sustraiturik.»

¹ (consejo y apoyo)

² (proporcionales)

³ (esklaboen)

⁴ (amantes de la libertad)

⁵ (inquilino)

⁶ (kanpora)

«Autarki-batzaileak¹ *bestela atera*² (¹) dirautsanean, mendira eizari batek txakurrak lez, arimea lotuta, trailan daroe ta maistarra onelan lotu ta erabiltea badakizue, gizonak, zer dan? Azaluseria, *hipocresia*.»

Ezetezioen damutu jauntxo ta lagunai ara agertzea?

Arangoitik, ori bai, egiarik garratzenak ez titsu ezpanetati ataraten eutsezan. Urrengoak, lengoak baiño be garratzago euren ez izanarren, eufonia utsezkoak zirudien bere agoan. «Nik lapurra erruki dot, mozkortia erruki dot; azalutsak, hipokritak, eztozaz erruki, iguin dodaz, gorrotoa dauset. Gure egunotan Europa geienean *trata de blancas* kendu bear dala ta yo ta su dabil... Burutasun ona da. *Trata de blancos* sustraitik erauztea, ondo-ondotik, errotik atara ta eten ta erre ta austutea gogotan artu bear dogu, egiazko liberalak bagara, azaluts andi batzuk izan-ezik. Bilboko gogaideak³ eskatu dausten euspina maistarrai botoa emon eragitea bada, gizonak, ez-naiz giza-merkatari, *no soy mercader de hombres, no soy tratante de blancos* erantzungo dauset.»

— Baiña zuk maistarrai autitza eskatu ta indarrez kendu nai ezarren, itunez, burubidez, egia zein dan erakutsiz...

— Bai, Torrealdea. Ni iztun⁴ banintz, eztautsut esango ez nintzateala Mungialdeko botodunakana urreratuko. Eztegu-ondoan ezkonbarriak Valladolid-tik Parisa ta Londresa yoan gintzazanean, ain zuzen be, Ingalaterra guztian aukeraldia zan. Gladstone ta Salisbury ziran ango Bekosolo ta Torrealdea. Ezkurdi bat⁵, beste batzun artean *Hyde Park* izenduna, luze-laburrean Bilbo osoa baiño edatsuago baita bada!! gizonez bete-bete beterik egoan. Unean izlariak⁶...

Onetan Mañalen gogaituta osabaren altzoti yatsi zan «Osaba, banoa» esanda.

— Mosutxo bat, Mañalen. Jaun onei be emon bana.

Umea suetera yoan zanean «Eztakit zetan gengoan —esan eban Arangoitik—. Au da burua!

A! bai. *Hyde Park*-en gengoan ingeles izlariai entzuten. Alantxe egin bear litzatez gure arteko aukera guztiak.»

Laurak era batera itz eginez aintzat artu eben etseko jaunaren

¹ (agente elektoralak)

² (kanpora)

³ (correligionarios)

⁴ (berbalari)

⁵ (parke bat)

⁶ (oradoreak)

eritxia. Arangoitik, bitartean, otseinari jereza ta kokil batzuk ekarri eraginaz, bere emazte Andra Isidora Hayedo de Arangoiti lau arrotzai aurkeztu eutsen.

— Valladoliden urte askotan bizi eizara— esan eutsan andra Isidorak Viñasi.

— Bai, andrea, sendalari eginarte, zazpi urtetan.

— Nire poza, neure yaioturi ederra aitatu lekion norbait Mungian dakustanean.

— Viñas, Don José Zorrilla olerkari¹ bizarzuria, zuk igazko ne-guan *Teatro Calderón*-en ikusi izango zenduan arako olerkari buruntzitu² ebena, ezta nire emaztea baizen Valladolid-koi. Nor da au ta zer da au!

Tango baten izmizka ekin-ondoan, andra Isidorak, etzataulkitik yagita «Gizonak —zirautsen—, zuek arlo andiari lotuta zakusedaz ta banoa neure ezgauzetara. Mañalen, ekazu eskutxo ta goazan po-lito-polito. Viñas yauna, gero datorren domekan geurera, bazkaritara, e?».

— Eztakit, bada, astirik edo... izango ete...

— Akiakularik eztogu bear, domekararte.

3

Eztarriak busti ta zigarroak ondakindu ebezanean, Arangoitik, barriro yesarri-arazota, itaune au zuzendu eutsen: «Non dozuez, bada, izlariok, kale-sermolariok?»

— Izlaria! Gitxi langoxea da, gure adiskide Perico Viñas. Amaika bidar ikusi dot Valladolid-ko Suizoan legegizonak eurak isilik eukiten! Aukeraldiko garaipena orretan badatza...

— Euskeraz izketan bıldaki berorrek?

— Tautik be ez.

— Orduan toton. Emen kalean bizi diranok, osoro nai erdizka ta zelanbait, erdere bururutzen dabe; baia kaletik urten ezkerro, sei ezaldagoz basauri baktxean, sei gizaki, erderazko itzaldi bat ulertuko dabenik. Isilik zagoz zeu, Viñas. Zer dirauskuzu?

— Adiarazle baten bitartez baserritarrai lokabetasunaren zirzar-tadak³ ikusi ta goratu-arazo lekioz.

— Gatx da gure artean adiarazle on bat idorotea. Etedago bakar bat, orretarako gai danik? Ostean on bat aurkituezkerro, Begi, zure

¹ (poeta)

² (koroetu)

³ (los resplandores de la libertad)

naikide ta aurkari Begi errez garaituko dozu orretan, itzaldiak egiteko arazo orretan. Sendakuntzan Bilboko sendalariarik onenak, azturratsuenak¹ atzak bete lan izango leuke Begi sendalariari daukan bezeria kentzen. Baserritarrakazkoa eukiteko inor ez langoa da, ez bakarrik adikor², irribarretsu ta autuzale, baita eritasun-azalkeran ulerterreza be bada. Sendalari-arterako azalkera-taiu bat, baserritarren arterako beste bat, guztiz bestea, erabili oi dauz. Bitarikoak dira eritasunak Begiren izketan: astunak eta arinak, ardurazkoak eta ezerezak, ilkizunak eta osasungarriak. Lenengoak guztiak dira —*litis*, bigarrenak barriz— *min*. *Burukolitis*, *gibelekolitis*, *biotzekolitis*, *kuntzurrunlitis*... gatx astun, ardurazko, ilkizunak dira. *Ostera burukomin*, *gibelekomin*, *biotzekomin*, *estekomin*, *kuntzurrunmin* osasun-garriztat daukaz, gizonari atsedena arrarazoten dautse ta. Buruan, geienetan, txapel andi bat darabil; ezpanetan, amar minuturik amar minutura, zigarrotxo bat; sakeletan beti paperen batzuk; eguneroko, liburu ta abar; beti gogaldi³ oneko, beti astrapalatsu, beartsuai on egiteko beti gertu; aukeraldia igarota aurkari⁴ bakoa; aila-gineko ortzargia⁵; begi-andi, azal-gorri; odol-bero, negar-samur dala, guztiz barrekor; azbegiz⁶ itsusi, motz; gorputzez zirats, lerdin; ibilkeraz txairo; emazte maratz burutsuaren gurtzaile; iru seme-alaba eder zelan azi eztakizan gizona; auxe da Mungiaiko sendalari Begi. Amaseiko gorri eder bat gitxienez emongo neuke gizon ori gure alderdiko, gure gogaide ta aukera-lagun izatearren.

— Mungiaiko zabalean⁷ itzaldi bat ganoraz egiteko gauza ezpada, ezkagoz txarto.

— Ori? Atari nai etsari edo sala baten lau edo bost gizoni itz egiteko, egokia da, bere bizikoa; batez be kopa bat edo bi ustu baditu; baia leku agiri baten eun bat gizon begira ta adi badauz, nok Begiri itz eragin?

— Adierazle on izateko zer bear da?

— Ai, Viñas! Zuk uste dozun baiño asko geiago. Bateti izlariak diñoan guztia burutan artu bear dau; besteti, burutan artuta bateratsu, euskerazko itz ta esakera egokiak euren artean erne bear dakioz, erdaldunari entzundakoa argi ta garbi agertzeko. Euskera ta erderazko mintzo onek española ta frantzesaz lez alkarren antzeko balitzaz, orduan isilik nengoke. Bat batera gogamentxo bat buruak

¹ (los más expertos)

² (atento)

³ (umore)

⁴ (kontrario)

⁵ (simpático)

⁶ (por facciones)

⁷ (plazan)

emon daust. Yatabearrak beti izan dira eztizko ezpandun. Tira, don Anbrus! Antilletan bizi izan zaran artean etxatzuz ezpanok garrastu izango ta asi, auxe da erarik onena, asi lokabetasunaren zirzartadak baserritarren ulepean sartzen. Etseti eztakit nik urteten noizean beintxo izan ezik; baia Isasti gurea argi-banatzaile asi baledi, entzule izango nenduke ta neure txaloak izango leukez zolienak.

— Nire urteak eztira, Arangoiti, biderik bidarte ta sasirik baso ibiltekoak.

— Ain zuzen gure basauritxoetara zalkurdiz¹ yoan leite.

— Osaba, Mungiako itzaldia Perikorentzat itxita, berorrek Yatabeko udaletsean itz egin begi. Neuk be erderaz zerbait generatuko dauset.

— Busturi, nor izan da goizeon nire ezkerreti etorren mutil gazte andia? Orixe adiarazle ona, yasekoa, izan daiteala uste dot. Urduri ta eragina da, barritsu-samarra be bai, ernea be badirudi ta puska bategaitik ezta ori atzeratuko.

— Floren Andraka da ori. Aiko or Arangoiti yauna, Viñasek aukeratu daben adiarazlea.

— Floren! Jajajaja. Gizonak, berandutxo zoazelako Kartagon agiraka asi badakizuez neuri egotzi errua. Au entzun bagarik etzaitzeze iñora yoan. Orain lau urte gure aukeraldi atan, eztakit nori otu ekion alderdi bateko ta bestekoai ezizen bana ezartea: erromarrak eta kartagoarrak. Aukera-eguna gure elizyaurri² San Pedroren eguna baiño lau-bost egun geroago zan. Meza nagositan, alde baten, granada-garauak baizen tinko eurak egozan, erromarrak. Gu eura-kandik al genduan urrunen, pulpitoaren aurrez aur. Eleketaritzat³ gizon onkote bat ekarri eben, Arrietako parrokoa. Eldu ekion gizonari igotordua, izketordua; ta yakina! Gurena⁴ zelakoa, izkuntzea alakoa. Erroma gora ta Erroma bera ebilen izlaria, eromarrak au, erromarrak ori; yakitunak Erroman, olerkari⁵ andiak Erroman. «Argitasun-billa nora da yoatea? Erromara. Erriak euren erregegaz bat eztiranean, batasun ori sortu dadin nora yo bear dabe? Erromara». Nik mutiko eder bat, bai, banekusan neure aurretxoan, batean burua kordoka ta sorbaldak urduri erabiltzazala. Banekusan nik au. Nori, baia, buruak emon, andik sortu ta erakori zan zaparradea? Alango baten amaitu zan itzaldia, meza nagusia be amaitu zan ta ni, gomuta dot, arrapaladan etsera, norbait zain neukana banekian-

¹ (kotxean)

² (patroi)

³ (sermolaritzat)

⁴ (santua)

⁵ (poeta)

eta. Arik lastertxora etseti erlaro baten antzeko burundarea nentzuan. Enekian, orregaitino, kartagoarrena ala erromarrena ala alkarren arteko izkaldi ta atralakea zan. Gerotxoago erle-zurrumurru ori neure etseko zulubian¹ gora etorren. «Gizonak dozak. Zer etedakarrek?» neuk neure artean. Idazku² onetantxe ots egin eustenean «Barrura» esan neutsen. Gure maisu Treviño ta mutil gazte galant bat ziran gizerleok. Maisuak ezetz, besteak baietz; ezetz, baietz. Autua erderazkoa zan, erdaldunak doguz irakasle geienak eta. «*Katarata!* — esan neutsen —. Zer dakarstazue? Zezazkoa dozue eztabaida ori?»

— Arangoiti jauna, nik diñot, eta neugaz dagoz aita ta Laraudo ta Labarto be, nik diñot eta beti esango dot auzia ipiñi bear dakola gaurko sermolari tentel orri, *por coasión eletoral*.

Etengarriak izan ziran Morroskok eta lagunak, au entzunda, egin ebezan barreak.

— Oraintxe amaituko dot. Arako mutil marot, kokolo eder, maisuagaz onaxe bertora etorri ekidana nor zan yakin gura aldozue? Floren Andraka. Au gora bêra bere aitak eta lau arrebak, nes-kato ederrak, ederrik iñun badago, au gora-bêra, diñot, etsean Salomon bat daukela uste dabe.

Beste barrealdi gozo luze bat egin eben guztiak.

— Ori, Floren Jalapa edo Casaca edo ori ezin izan daite nire adiarazle — esan eban Viñasek.

— Nor orduan? — ganeratu eban Morroskok.

— Nire ustez — ziñoan Arangoitik — ez Mungian ez beste baztar ta inguru askotan eztozue adierazle egokirik idoro edo aurkitu al izango. Zegaitik? Len esan dodana, euskera ta erdera, edozein erdera, diru baten *cara ta cruz* langoak diralako. Ori baiño aiutuago Berinoleagan bertan idazmutil³ daukagun Ereñozti izan daiteke.

— Bai gizona! Nora begira egon gara?

— Mutil ben-bena⁴, odol-otza ta zorrotza edo zûrra bere baderitxot. Ezta egia, Busturi?

— Orretarako ta ganera autarki-batzailearen lagun izateko agindu ta egina dirudi.

Onenbestez alkarri esku-emote beroak egin ta zulubian⁵ banakatzeko egozala «Zetan gelditzen gara? — itandu eutsan etseko yau-nari Morroskok —. Zure euspen osoa, e?»

¹ (eskillaran)

² (eskiritorio)

³ (escribiente)

⁴ (formal)

⁵ (mailladian)

- Bai, baia maistarren botoak maistarren.
- Zu gugaz zaukaguzala esan ete daikiegu?
- Ori bai, Viñas. Gero domekan, bakizu, zure bazkaria emen.

Oharrak:

(¹) Orijinalean hitz hau ez da bape argi ikusten, parentesi baten gainean oso letra txikiz eta goiko lerroaren kontrari idatzita bait dago. Lehenxeago, ordea, testuinguru berean, «atera (kanpora)» dago idatzita eta ondo ikusten ez dogun hitz honen ostean be «(kanpora)» idatzi dau idazleak aurreko hitzaren esanahia azaltzeko. Beraz, hitz hori «atera» izango dala pentsatu leiteke.



VIII. Kartagoarrak Kartagon. Asmoa asmo-ganean.

Iru ate arantzago kale-mutur baten euken Kartago. Eurak arar-orduko, luze-eritxian egozan alderdiko agirienak bertan baturik; goizean ikusi doguzanen ganera Andraka zarra ta besteren bat. Jauntxoa ta lagunak sartu ziranean, Olaberen emazte Basilik, begiak agoa baiño be zabalago ebazala «Bâtoz, bâtoz, orixe ondo, bâ, orixe ondo» esan eutsen. Olabek, atorra-beso¹ sorkituak luzatuta, dendati laster denda-atzera eroan ebazan, egiazko Kartagora.

Antxinakoa, Afrikako Kartago, bikotxa eizan. Alde zârrena urondoan egoan; barriagoa legorrenago, arresiz² inguratua. Gaurko Kartago auxe be bikotxa da. Aurrekoan, kale-ondoan, Basili ta gozo-erosleak egoten dira. Barrukoan, ilunetan, berin-esiz³ ingurat-urik, Olabek, Laraudok eta lagunak euren batzar ardurazkoak euki daroez, bake nai gudurakoak.

Anibal, Etrurian begi bat galduta, mendekoakana agertu zanean, gure jauntxoa Olaberen batzarkideai agertu ekioenean baiño pozago artu eteeben eztakigu. Besodun aurki bakar bat euken, lastozkoa; jauntxoarentzat izan zan. Arrapalean⁴ kako osorik bat agira (*sic*) zan; Jauntxoaren soinganekoa esegiteko izan eben. Lanmaiaz ganera beste maitxo bat euken, briskalarientzakoa. Argimutil⁵ bi egozan bestean; biak jauntxoaren ezker-eskuma ezarri ebazan Basilik. Antxina lez oraintxe be demokratak dira kartagoarrak; bada yesarteko lekurik ez ta lanmaian apáz egin eben batzuk; gaztênak zutunik egozan.

¹ (alkondara-mauka)

² (murallaz)

³ Con vallados de vidrio.

⁴ (kolgadorean)

⁵ (kandeleru)

— Argia biztuko aldot? (Eguerdi-aurrea zan)
— Ez, andrea, ezta bear.
— Bai, bai, alkar ikusteko be.
Ardao zuririk edo...
— Ezta. Or goian zerbait artu dogu ta eskerrik asko, andrea.
— Gero, eurok Bilbon obeto oituta dagoz; baia an, an lez eta emen, emengo erara. Intentziño¹ ona badogu beinik bein eta agindu gura dabena. Kartarik eztabe bear izango? Gitxitan erabiliak be gordeta daukadaz.

— Kartak, Basili, gaur! Aitatu be...
Olaberi, bere itza atzeratuta, Viñasek batean Busturiri, bestean zutunik egozan kartagoarrai begira «Eztozue aukera-maparik?»² itandu eutsen.

Olabek: *Carta electoral* zer da?

Viñasek: Mapa bat, Mungialde osoko barri, guri dagokiguzan barriak, emotekoa: onen erritan zeinbat boto, orren uriauzotan zeinbat maistar. ain aldauritan gure aldekoak nortzuk diran...

Busturik: Buruz dakiguz barri orrek.

Laraudok: *Karta electoral*ik onena zein dan badakizu, Viñas jau-na? Dirupaper-mordo ederra. Eztago onelangorik.

Jauntxoak: Geldi or. Arangoitiren ustez, eta neure ustea be auxe da, oraingo aukera-arazo au ezta diruz egin bear, *por combisión*³ baiño, eta guk onelantxe *por combisión* ekingo dautsagu geure arloa-ri.

Laraudok: Olanik? Olanik eztago ama etsean, galduak gara.

Jauntxoak: Galduak! Mayagueztarrak⁴ baiño latzago ta eurenkoiago aldira Mungialdeko botodunok? Arangoitik ez nau ni onetan *konbenzidu*⁵ ez ta urretan be. Maistarren botoa maistarrena dala, ez tala ugazabarena. Nik neureai beintzat emon gura ezpaleuste, arrika atarako neukez etseti. Zetarako gara ugazaba?

Laraudok: Burutasun batzuk badaukaz Arangoitik, burutasun batzuk! Bein baiño geiagotan entzun dautsat esaten Mungialde osoan egiazko liberalik bat bakarra dala: bera, Arangoiti. Besteok zer etegara? Ni neurez, entzuterik dauken ezta kit, Plentziako Urbana nagosiaren lobeia naiz. Madalena-egunean karlistak, lenengo karlistadan, Plentzian sartuta saskelak alakoak!! nire izekoa Mungia-ri ekarri eben ta burua mutuldu, ra ra ra ra ulea moztu, buru

¹ *Mendixan*(^{de}) nabarriztar bati ikasiriko «gogokizuna» ezta Mungialdean esaten.

² (carta electoral)

³ Zuriketaz.

⁴ Puertorricon datza Mayagüez. Jauntxoak luzaro bizi izan zan uri andi bat da.

⁵ Zuritu.

ori eztiz ta lumaz bete ta ezeutsuen ba kalerik kale ementxe, Mungian, asto-ganean erabili? Aretxen lobäa ni. Ta liberal eznaizala!! Burutasun batzuk badaukaz Arangoitik, burutasun batzuk!!

Gaminizko urbanen nagosia karlistak Mungiaera eroan ta, Larraudok diñoana, asto-ganean erabili ebena egi egia da.

Beste ainbeste egin eben Lekeition Prantziska eritxon urbana battegaz. Bere nagosi Dama Ezekielak beste urbana askogaz Donostia-
ra itxasoz iges egin eban.

Bilbon urbanarik eteegoan? *Urbanos* bai, bigarren karlistadako *Auxiliares*-en antzera.

Busturik: Burutasun egokiak be badaukaz. Arangoitiren burubidez uri ta uriauzo batzuetan itzaldiak egitea erabagi dogu, Mungian erderaz ta euskeraz. Don Pedro Viñas izango da emengo eleketari², norbait adierazle³ dabela. Begi sendalariari aupadäa yaurtigiko dautso.

Txalo andiak aurre ta atzeko Kartagon.

Andrakak: Izkaldietan⁴ adierazle izateko nai *oradore* izateko be bai, ez geurea dalako, baia gure mutilla baiño orretarakoagorik ez-takit Mungian ez urruntxoago be... Kuidao! Floren Andraka dau izena.

Burua makur-makur ebela isilean barre egin eben mai ureneko⁵ laurak.

Busturik: Erderaz be badaki Florenek ezta?

Andrakak: Erderaz ta euskeraz ta edozetan ak.

Morroskok: Non da bera?

Andrakak: Bakiora yoan da ogidun. Onezkero laster dogu emen.

¹ Lenengo karlistadan Bizkaiko uri gitxitan euken liberalak aginpidea, guarnizino ta guzi: Bilbon, Lekeition, Plentzian. Antonio Piralak *Historia de la guerra civilen* II 1835 garren urteko urtarrilaren 10-an Lekeitioko gudaiburuak Bilboko agintedunari egindako eskutitz luzean itz onek dakuskuz «He invitado a las mujeres *notables* de este pueblo a inscribirse en una compañía que se denominará de *Antiguas cántabras*». Izen onen orde *Compañía de Urbanas* artu eben. Euren egikizuna zaurituak yagon ta sendatzea zan, eta bear bearrekoa zanean munizinoak eroatea be bai. «Serán destinadas, siendo necesario, a la conducción de municiones» (Tomo II, pág. 9).

Plentzian be baziran urbanak. «Además contaba Plencia una compañía de mujeres llamas urbanas, organizada con bandera, armas y tambores» (Pirala, Tomo III, pág. 21). Larraudoren aidetasunaren barri eztakigu. Beronek dinoana sinistu bear. Plentzia 1836ko zezeilaren 25 an yausi zan karlisten eskuetan, Larraudok Madalena egunean izan zala esanarren. Lekeition martiaren 7 sartu ziran karlistak. Gaminiz edo Plentzian lez Egia jenerala buru ebela.

² (orador)

³ (interprete)

⁴ En las polémicas.

⁵ (printzipaleko)

Busturik: Floren arazopean dago ta Ereñozti, Berinoleagako idazmutil daukagun gazte zurrak, goiz ta arratsalde don Pedro Viñasi ederto lagun egin al izango dautso orra ta ona ibilten; ta gero adierazle izateko, boz ederra deuko Ereñoztik.

Andrakak: Bai, ta gureak ez! Intxausti organisteru zarra bizi baltz...

Busturik: Ganera gure idazmutilla burutsua be bada. Berinoleagako yoan-etorriak gogotan zelan artzen dabezan ikusiko bazendu Andraka, ikusi...

Andrakak: Ffffff! Orretan da, ba, mutil gure mutilla!

Busturik: Ederto etorriko ñaku zure semea, ori bai. Edozeinbat tokitan izango dira itzaldiak, Arrietan, Bakion, Laukinizen...

Andrakak: Baia Mungian goratsuenak. Onakoxe bear izango dira burutsu ta etorritsuenak. Nik Floren geurea dot eta noraiñokoa dan eztagokit esatea. Itanduten asi Bakioti Deriora ta Plentziati Errigoitira. Beste beralango bat? Esan dagiela orrek. Ona emen berau!

Floren Andraka: Egun on, jaunak. Badiarduzue?

Jauntxoak: Kaisio, gazte.

Busturik (Andraka zarrari): Itxi dagigun orain izketa au. Gero erabagiko dogu zer ori.

Florenek: Gero, don Anbrus, badaki, gu *inkondisionalak* gara Andrakatarrok eta gora Kartago!

Laraudok: Yatabera doaz orain e? Lando eder bat neuk atonduko dautset.

Jauntxoak: Oiñez be emendi arako ori...

Laraudok: Asaotxo¹ dago baia; ta berori andik ona ta emendik ara txaka-txaka ebilen urteak yoan ziran, don Anbrus. Orain azurak gogor. Ganera berandu dabe.

Floren Andrakak: Neure burpil bikotxoa gura bada, zaldiai zaldarea² emotea, beste bagarik yoan ginaikez.

Jauntxoak: Nik, batez be basaurietan, olangoxe kotxe apaletan, arrokeria bagakoetan, ibili gurago dot. Gu astiro aurrera yoango gara ta eroaizu, Floren, uriz kanpora zure bidailu³ ori. Onetantxe be Arangoiti eta ni ezgara alkarren antzeko. Ori *Liberal de aristocracia* da, ni *Liberal demócrata*. *Liberal* dala esan dot. Ezetarikoa eteda gero? Meza nagosietara yoaten dala esan dausku. Konpesanariora be yoaten dala egingo neuke.

Arnasa barik, aren baten, geratu ziran au entzueran kartagoarrak. Jauntxo agoandiari erantzuten etzan iñor azartu. Bere loba

¹ (urruntxo)

² (pentsua)

³ (vehículo)

Morroskok, esan oi danez, zeruaz kipula egitearren, auxe esan eban:

«Beatak lez Arangoiti be astero autortegira ostera etedabilen esan gura dau.»

Éta elealdi¹ erdi-il au birbiztu etzedin, Morrosko bera zutundu zan lenengo, «Goazan Yatabera» ganeratuaz.

Onetxek izan ziran kartagoar onek euron bigarren Punikaldian egindako lenengo guduxkak.



¹ (izketa, autu)



IX. Lenengo guduxkak aldaurietan

1. Yatabera-bidean.
2. Luze eritxita.
3. Don Anbrusen yarduna.
4. Iruskinak.

1

Kartagoti, kalean zear, Yatabe-alderantz ibiltzen asi ziranean, goizean lez irunan yoazan jauntxoak ta lagunak: don Anbrus aurre-rengo, Andraka zarra ta Belaunde lagun ebazala; Viñas gero, Arandui ta Gondramendiren erdian; Morroskok ezaban irugarren lagun-nik nai izan. Busturi alboan ebala, besteai atzetxotik zerraien. Laraudo iñori agur egin baga Kartagoti bere etsera, zaldiakgana yoañ zan itzal ta illunik.

Beste edozeini baino zauzkada¹ andiagoa egin eutsan Torrealdeari osabäaren astakeriak.

Baekian Busturi guztizko elizkoi zana; eta aukeraldiko arazoak bertan bëra itxiko etëbazan bildurrak yota egoan Morrosko bera.

— Zer diraustazu, Busturi? Polito asi gara, e?

— Polito! Txartoago ezin. Gaur amabost Bilbon esan neutsue-na⁽¹⁾ barriri belarriratu gura dautsut oraintxe. Eznaiz ni liberala. Berinoleagan ogipeko² nagoalako, zuen alde lan egiteko itza emon neban; baia aldungai askatutzat, *como candidato independiente* ager-tzekotan. Osterantzean, datorrena datorrela, geldi egongo naiz; baukat nora yoañ.

— Gizona!

— Eta ezpaneu be, Arangoitik Berinoleagara ekarri nenduan, Arangoiti artezak; eta eznenduke ak ni kale gogorrean itziko.

¹ (inpresino)

² (enpleadu)

—Gizona! Ez estutu. Zu osaba Anbrusen ganora bagako eritxiak ikaratuta zagoz. Ez yaramon, gizona, ez yaramon. Nor dan eztakienak, noizean beingo bere itz batzuk entzunezkero, *anticlerical* anditzat euki dagike. Eginetan barriz gizaixo bat da, gizaixo ez-yakin bat. Eriotzaurrean eztau iñok zirikatu bear izango; bera izango da abadeari arin bai arin dei egitekoa.

—Ori izan leite. Ordu ilun aretan baltzok, zuek liberalok, urritasun andian¹ izaten zarê.

—E! Zuk ni, dakustanez, liberalizat naukazu. Ni askatua naiz.

Busturik soinak² goratuaz irribarre egin eban.

—Itxi dagigun au alde batera betiko. Esaidazu, adiskide, zelango balztasuna da gure lagun orrek daukena? Ikustekoa izan da, osabaren astakeria entzunda, ez zuk bakarrik, guztiok erakutsi daben arpegia!

—Orrek? Yai egun baten emen bazengoz, eguerdiko txilinak ots egieran, guztiok txapela erantzita Aitearen egiten ikusiko zendukez. Aukera-eguna urreratzen danean kartagoar urtenenak amabiak bost gitxiagoetan etsealdera yoan doaz, otoizka³ iñok ikusi zedagizan. Elizan abade bat aurreti doakienean, nai erromarrak izan nai ez izan, gizon guztiak lanketati⁴ elizgizona igaroarte zutundu egiten dira. Auxe da, Torrealdea, ónen balztasuna. Arangoitik Kartagon eta erromarren artean lau-bostek dakie egiazko baltz izatea zer dan. Emen eztago Erroma ta Kartago baiño beste politikarik; eta alkarren arteko aldea, goibêa zein dala uste dozu? Batzuk tresilloan, briskan besteak yokatzea.

—Eztiñozu ba, orain lau urte, alkar gorrotauarte esetsi ebela, burukatu zirala?

—Bai; ta ambosta barru bardin-bardin sutuko dira.

—Eta beste goi-bêrik ezaldago izenezkoa baiño?

—Nik dakustanik eta esan al izatekorik ez.

—Orretaraezkero danau agerkailu bat, komedia bat da.

—Ezta agerkailu bat, gizâgerkailua da—. *No es un comedia; es la comedia humana* ziran Busturiren itzak. Eta Yataberako erregebi-dera (bide barrira) eldu ziran, besteak aspaldi luzean artega ta luze-ritxian egozan tokira.

Andraka zarra andi-andirik⁵ eta alik bizkorren bere etsera yoan

¹ (en gran minoría)

² (sorbaldak)

³ (errezetan)

⁴ (bankuetatik)

⁵ en persona

zan, ze barri zan yakitera. Besteak, epebakotuak, itxaron ta arrausi... ta kotxe edo burdi edo zana zala agiri ez!

«Yaki ta onki ta guzti emon etedautse gaur Floren Andrakak zaldiai pentsua?» zinoan Busturik.

Alango baten, lengo aldean beste bat zirudiala, agertu zan bidailu¹ ori. *Panadería de* polito estalduta ekarren. *Andraka* ta *Mungia* baiño beste itzik ezaban agiri. Estalki ta apaingarriztat Florenen lau arrebak oge biren azalak soineratu eutsezan kotxeari. Barruan oinperako, azpigarriztat, zerri² batzuk iraurri³ ebezan. Mokoerako lau burruko, bidezirik aina⁴. Zaldiak eurak be etziran apaintzaka agertu. Udamineko kapela lastozko bana bururatu eutsen; eta euriantzik asmau ezarren, narruzko estalki, orratzetik arakoak, zabaldu ebezan zaldien bizkarretan.

Eskuetako zartaa be edertuta ekarren zaltzainak; ertz-aldean arreunezko gibitzin⁵ zuri bat ekarren ondo lotuta. Bera, Andraka gaztea, domeketako⁽²⁾ yantzita, bizarra be eginda etorren: auzkarako oilar bat baizen lerdin, txapela atzeratxo, ule orraztu-barriak erakusten. Zaldiai (iñoiz egiten ezeutsena), uri andietako zaltzainen antzera, bere asmoak erderaz ta zoli-zoli yakin eragiten eutsezan: «*Hala, Vizconde; hala, Cabrera, que vamos a Jatabe y tenemos prisa; hala, hala.*»

2

«Amabi-amabietan udaletsean egoteko». Yataben don Anbrusen amar maisterrak goizerdian artu eben agindu au. Eta arako, Arangoitiren zipladaz ta irriz, jauntxoak eta loba marotak basauritxo aretan itzalditxo bana egitea erabagi ebenean, balkoitik Busturik auxe esanaz mutiko bat Yatabera bialdu eban: «Alkateari neure izenean esaiok erriko gizon guztiai, diran diranai gero, amabi-amabietan udaletsera yoan eragin dagioela, berbaldi bi egingo ñakezala-ta.»

Latsibiko alkateak goiza barriketa-entzuten igaroteko gogorik ezeukan... Aita, jauntxoak dei eginda, Bilbon izan zanean gaberdian mozkor andiaz eta albañu legor bârik Latsibira eldu zan. Ganeko egunak beroen⁶ andi bategaz ogean eroazan Santi errukarriak, zan-

¹ (vehículo)

² (estera)

³ tender

⁴ tantos como viajeros

⁵ (sedazko lazada)

⁶ (sukar)

giño zetzala¹ ta indarga, makalik, elizakoak ez eragingo bai eragingo. Estualdi atan semea barriketa-gura ez izatea etzan arritzekoa.

— Amabi amabietan amar maistarrok udaletsean agertu gaitetzala. Nire bear dana neugana betor— erantzun eban Pedrantonek.

Alan ba, Likanora bere emazteak zurututa, bederatzi maisterki-deai morroiaren bidez dei egin eutsen.

Bigarren mandatua artu ebanean, min-min eginda «Itzaldiak!! —deadar egin eban—. Orain barriz ez maisterrez, ez alkatez, ez uritarra naizan aldeti, eznoa ta eznoa ta eznoa. Bear nauena neure etsera datorrela.»

Likanora naikoa izan ez ta ogekoak arteratu bear izan eban Pedranton udaletsera yoango bazan. Ogeta lau yatabetar batu ziran guztitara uriko etsetxoan, amabiak yo baiño lentxoago. Amabiak ots eginda, ordu-lauren geroago iñor agiri etzanean, buruz zorrotzen ziranak barre gaiak egiten asi ziran.

Batak: Itzaldiak ikasten diarduek arek.

Besteak: Guretzat dakarren dirua yaso ezinik auspoketan abailduta, arnasoska edodatoz.

Irugarren batek: Itzaldi edo mintzaldi ori sermoia bada, abade ta praileok loditu bear ñoek oraingotan, inok euren egiñenak daroa-tsez-da.

Barurik egon ezpalitzaz, zer ezeteeben atxurlari gogaldi oneko arek esango itxaroten egozan bitarte luze atan?

Amabi ta erdiak inguruan, izertanpuluak mara-mara bekokitik erioezala, Anton Imaz ta Mauri, Yatabeko indianua, agertu ziran, Larrinoa botikarioak bialduta. Indianuak, gogait egin ebanean, bere etsera bazkaritara eroan eban Anton Imaz. «Arek datozeanean, ator txotxo geurera, emen dirala yakin-arazotera» mutiko bati esanda, biak bizkortxo alde egin eben.

Ogi-ordez burdian etozan gizonak Mungiatik arako bidea artu ebanean, Morroskok jauntxoari «Zer izango dogu, osaba, berorren⁽³⁾ berbaldiaren gaia?» itandu eutsan.

— Etxoat nik sekula politikaz yardun ta zeuek esaidazue.

Viñasek: Berorrek narea argitsua (*ilustre prosapia*) aiatu bear leuke, don Anbrus.

Jauntxoak: Zer da narea edo ori? (*¿Qué es prosapia o eso?*)

Viñasek: Berorren asabak, aitaitaren aitaita ta amama.

Jauntxoak: Perico, Perico *inutente*. Zer uste dok? Aitaitaren aitaita ta amama txikitako lagun izan naioazala? Etxoadaz nik eza-gutu.

¹ yaciendo cuan largo era

Viñasek: Ezta ardura. Erri-maiteak zirala esan daite, Yataberen onerako lan andiak egin ebezala.

Jauntxoak: Bai, atxurren (*sic*) udabarrian, udaguenean laietan ta ereiten, yorran ta batzen udan, neguan gaztaiñak tanboliñean erre ta yaten.

Viñasek: Baita *Concordia Civica*-ko maipuruko dala be esan da-gike berorrek eta mesede andiak egingo dautsazala Yataberi, bo-toak berorren lobäari emotekotan.

Jauntxoak: Oooori bai, orixe da esan bear dana, prosapia ta ko-plak itxita.

Morrokok: Baia, osaba, inoiz gaurrate erriari itz egin aldautso?

Jauntxoak: Arrrrrraio gorria! Mutu naizala uste aldok? *Aboga-ditos de...* Ia esan neban esatekoa!

Morrokok: Agirian, esan gura dot; erriari bein edo bein itzaldi-rik, diskurtsurik egin etedautsan.

Jauntxoak: E! Puertoricoko urteak barriketan igaro baneuz, ezintzan i gaur legegizon izango.

Morrokok: Ba lenago agirian erri baten aurrean itz egin ezpa-dau, gaurkoagaitik itxi edo... luzatu edo...

Viñasek: Bein iragarri dogunezkero... Programatxo bat be egin dot eta...

Busturik: Eta ganera baserritarrai lau zertxo esateko, ezta, gizo-nak, Ciceron izan bear.

Bitartean elizondoan urritzen asi zan gizon-mordoa. Eguerdian ogeta lau, gizon utsetan ziranak, orduan amazortzi baiño ez. Jauntxoaren maistar etziran guztiak etserako asmoz egozan, Mungiako tibuli oial zuriz estaldua urruntxo agertu zanean.

«Or dira mutillok» esanda, etserantz asita egozan batzuk ostera artetsuenakaz mordotu ziran. Lurreratuta batera Morrokok belarri-ara osabari iztxo onek esan eutsazan: «Zurtasuna, zurtasuna ta zurtasuna (*Prudencia, prudencia*). Eliza ta konfesino-konturik ez aiatu gero.»

Alkatearentzakoak izan ebezan etorri-barriok euron lenengo itzak. Aita zelan eukan itandu eutsenean, Pedrantonek «Obakuntzatxo bat dabelakoan gagoz, baia oraindino kikili-mokolo datza gi-zaixo andia» erantzun eutsen.

—Gero, emengoa eginda, bera ikustera yoango gara— zirautsan Pedrantori Busturik.

Zinuminu¹ andi bagarik sartu ziran guztiak udaletsean. Viñasek paper zuri andi bat atarata «Programa de la primera asamblea» irakurri eban:

1. Presentación de los oradores hecha por el Sr. Cajero de Berinoleaga.
2. Discurso del Sr. Isasti, ilustre hijo de esta localidad. «Y gloria de las Antillas»—Floren Andrakak isil-misilka.
3. Discurso del Sr. Torrealdea, acreditado juriconsulto, candidato liberal.

Busturik au entzueran, Morroskori zerbait belarrira esanaz, ikutxo bat egin eutsan onek Viñasek irakurririko paperari eta gero labur itz egin eban. Don Anbrus baekiela yatabetarrak nor zan ta nor eben, Torrealdea bere loba legegizona aldungai askatua (*candidato independiente*) zala, etzala *candidato liberal*, irakurri zanez.

Don Anbrus zutundu zanean bere loba Morroskok, keizuraz edo, burua makur-makur egin eban. Viñasek agopean zerbait esan eutsan jauntxoari. Nire ustez yardunaren lenengo iru itzak ziran Perico Viñasek bere magaldunari belarriratu eutsazanak.

Eztakit noiztik onakoa dan oitura au: Irundik asi eta Cadiz-a birtartean, erri baten aurrean yardun bat egiten daberen eunetatik berrogeta amarrek don Anbrusek bere itzaldia lez asten dabez eurenak «Ni eznaiz oradorea» esanaz.

Bigarrenez esan eban jauntxoak: «Eznaiz ni oradorea». Irugarrenez bere «Ni... ni...» esaten asi zanean, Busturik, eskupean agoa gordeta, «Ni Yatabeko semea naiz.»

—Ni Yatabeko semea naiz —don Anbrusek—. Yatabeko semea naiz ni ta zuok... zuok be badakizue ni nongo semea ta... ta... ta... zein etsetakoa. In... Intxaurtiagako semea. Anbrus Isasti deitzen... deitzen nozue zuok, Anbrus edo don Anbrus; baia don Anbrusio de Isasti Intxaurtiaga naiz ni—. Eztul egin eban gero, surzapia² atara be bai. Izlari andien zerbait baeukan jauntxoak orregaitino: zapia.

«La Concordia cívica, la Concordia cívica» atsemon eutsan lobbak. Berak agopean *Ya saben lo que es o qué?* esanda, burua lerdenduta, erri guztiari bere buruz sorturiko gogamen au zuzendu eban: «*El Rásimo* zer dan badakizue, *El Rásimo? El Rásimoko presidente,*

¹ (zeremonia)

² Pañelua

maipuruko, maipuruko, ta presidente gauza bat dira ta, *El Rásimoko* Bilboko aberatsenak egin nabe ni, *El Rásimoko* buru.»

Anton Imaz ta Yatabeko indianua entzulên artean agertu ziran. Gizelia, entzule-kopurua, asko ez baia geroago ta mardoago, orni-dutxoago edozan.

Bitartean, izerditan yoakion don Anbrusi bere elantzea¹ ta ezin ba zoritxarrean, ezin ezpanak emon izerdiak eroakona. Morroskok atzeti zerbait txutxumutxuka belarriratuta onelan eragoion jaun-txoak:

— Yatabetarrak, gure basauritxo au maite dot nik, polita da, maite dot. (Izerdi-tantak erruki bagarik zeriozan). Nire maitetasun au andia da ta onegaitik doako sendalaria, *mediku* doakona, Perico Viñas, don Pedro Viñas, esan gura dot, don Pedro datorkizue, geure dirua sari dabela.

Viñasek aria emonda «Aukera au ezta lengoen antzekoa izango, lengoen antzekoa ezta izango, ez, ezta izango lengoen antzekoa —esan eban don Anbrusek—. Oraingo au *por conbisión*. *Por conbisión* zer dan eztakizue? *Por konbisión* ba esaten ñako... zelan esango dot? Eta ba...» (Busturik belarrira urreratu ekion «*Por conbisión* bo-toa diru bagarik emotea da».)

Barre-zantzo andiak egin ebezan Yatabeko botodun gizonak.

Don Anbrusi, bere esanak barregarritzat artu eutsezala uste izanda, izerdi otza tantaka erion eta yausteko bildurrez maiari esku biakaz ondo oratu bear izan eutsan. Bai areri yardunean asia damutu! Busturiren beste bultzadatxo bati esker, onelantxe yarraitu al izan eban: «Gu, lobäa ta biok, zugatzak² lez gara, zugatz andia ta txikarra. Zugatzak arnaria (*arbolak frutua*) emoteko zer bear dabe? Satsa. Sats ori zeuk zare... zeuk zare sats ori³. Zeuon botoakaz indarra emonda... (Eztulka asi zan gaixoa, lobäa atzetik zerbait esaten eukanartean)... guk... guk... guk frutua emongo dogu, frutua emongo dogu guk. Eta zelako frutua emongo dogu? Lenengo ta bein trenä, tren txiki bat, erderaz deritxo... ba...

— *De via estrecha*— aopean Busturik.

— *De via estrecha*— don Anbrusek guztiz aul—. *Via estrecha* zer dan badakizue?

— Bai, badakie; bide medarra, estua— esan eban Busturik. Barriri, izlari andien antzera zapia aterata, bekoki busti otza beragaz igortzi eban jauntxoak.

¹ (*elocuencia*)

² (*arbolak*)

³ Aldungai batek Bermeon esate ilezin au autatzailleai zuzendu eutsen. Orditik ona amalau bat urte igaro dira.

— Orixe izango da gure arnaria, gure frutua: trena. Mungiatik egingo dogu, Mungiatik Plentziara. Ta zelan da *estasi6n* euskeraz, Busturi?

— Gelunea.

— Lenengo gelunea Yataben egingo dogu. Ori zuok botoak geure alde, don Tomás Torrealdeari emotekotan. Lenengoa ementxe Yataben, *tren de de de... via estrecha*. (Geroago larri ta otzago; errukarria!) Yatabearrak, ez aitzu: gu arbolak gara, zuok... zuok...

— Onek satsa— ots egin eban, barre-zantzo andi bat generatuta, Anton Imazek.

— Fuera ese, fuera ese (Bide orri, bide orri) —deadar egin eban Floren Andrakak.

—¿*Qui6n es usted?*— Morroskok.

—*Yo soy elector de Gatika*— erantzun eutsan Anton Imazek.

Frankfurten atxina kaiser barri bat begiz yoteko ta autatzeko batzen ziran aleman andiki arei «Nor zara zu?» aldizka itantzen ekioenean «Sajoniako lenendari aukeratzaillea naiz ni, Koloniako lenendari aukeratzaillea naiz ni» ezeben aurki¹ Anton Imazek Yataben baizen yasean ta zaratatsu erantzuten.

—Alkate, yaurtigizuz gizon orrek emendi— esan eutsan Morroskok Pedranton.

—Errudun, gaizkin aldira?

—Yaurtigiteko diñot. Zeuk gura ezpadozu, neuk, aldungei naitzan onek, botako² dodaz. Eztago emen iskilodunik, armadunik? Urizainik, aguazilik be ez?

—Iskiloak Yataben! Or dagoan indianu orrek, Maurik, eskope-taa ekarri ezpadau, Yataben eztago beste iskilorik.

—Doazala orti barrura.

—Pedranton —zirautsan Floren Andrakak—, barregarri erabili etzagiezan gero...

—Goazan geu geure kabuz, bakea ona da-ta —esan eban indianuak, Anton Imazek barriz—. Agur gizonak, Gatican alkar ikusiko dogu.

Zantzo andi bat atera eban bere eztarri sendotik Gatikako sakristauak andik urteeran. Floren Andrakak leiotik burua aterata «Gora Kartago» deadar egin eutsen erromarrai.

Gogo andi bagarik yagi zan itz egitera Morrosko. Laburtxo yardun eban; ta laburrago ekin baleutso, ezaban ezer galduko.

¹ (bear bada)

² (egotziko)

Azken-itzak baiño besterik ezeutsen ulertu entzule geienak: *Viva el ilustre ayuntamiento de Jatabe*. Viñasek, Busturik eta Floren Andrakak txalo zaratatsuak yo eutsezan izlariari. Don Anbrus abailduta, unatuta, guztizko apal, ilun ta musturtsu egoan. Urtêran Busturi, Santi Latsibi ikustera eroan gurarik, jauntxoari gerturatu ekion. Gogorik ezeukala erantzun eutsanean, Busturik Pedranton eurakana erakarri eban.

4

Arrotzak¹ baiño gogaldi askozaz ohea euken yatabetarrak bakotxak bere etsaldera bidea artu ebanean. Euretariko batzuk Latsibitik elizaldera zaldiz etorren sendalariagaz bat egin eben; eta onek ze barri êkarren itandu eutsenean, «Guk entzun doguz entzutekoak, don Donato!» esan eutsen zaldizkoari.

— Zer da, gizonak, entzun dozuen ori?

— Amaka ta erdiak inguruan banabil, bâ, soloan arbiak atara edo... badaki bâ; ta «Aup» Latsibiko neskatoa solo-barreneti aldarrika, uluka.

— Zer da?

— Pedrantonek erriko etsera, arren bai arren! eguerdi-eguerdian yoateko, itzaldiak dagozala-ta. «Zer etedok ori?» nik neure artean. Baietz, yoango nonala. Banator ta Pedranton bertan, udaletsean. «Mutil, itzaldi orrek zer dozak?» eta berak «Sermioia langoak; elizati kanpokoak izatea.»

Nik, egi-egia, don Donato, alango zer andiren batek gaur belarria gozatuko euskula uste neban nik, eta zer? Barriketak dira itzaldiok, barriketak... Aiko ni! Astokillo bat naizantxo au; nik esturazekero, barrua bero-bero eginda, zer ohea egingo neuke, Aginbakok baiño bai beintzat. Besteari eztautsat *Biba ayuntamiento de Jatabe* baiño besterik arean ulertu. Gazteak ganora geitxoago daukala dirudi, orregaitino. Eztausku Pedrantonek ziri txarra sartu.

— Zer esan dautsue don Anbrusek?

— Bera eztala toreadorea, iru bidar gero esan be. «Neu be ez saguzarra» esateko egon naiz; baia... tira! *El Rásimo* aitatu dau urren-go ta gerotxoago bera ta Morrosko arbolak dirala ta gu yatabetarrak satsa.

— E? Satsa? Ongarria? Ondo ulertu etedozue gero?

¹ (kanpotarrak)

— Bai, jauna. Satsa garala esan dausku, birritan esan be. An sor-
tu dan astrapalaa ta abarrotsa!

— Ni ez egon bearra!

— Andik uxatuko eben berori, Anton Imaz be uxatu dabe ta.

— Zelan izan da ori?

— Guk baiño yas obatan eurak esango dautse. Elizondoan da-
goz, baldin urirantz yoaten asi ezpadira.

— Nortzuk?

— Anton Imaz ta indianua.

— Eskerrik asko, gizonak; ta on dagizuela bazkariak eta itzal-
diak be bai. Agur.

Elizpean mañaka¹ ziarduen ume batzuk. Begi zaldiz urreratzen
ikusituz baizen laster, euren arteko neskatotxo batek «Don Donato»
dei egin eutsan.

— Zer gura dona Mariñasitxo?

— Manukok «Aor dator Begi» esan dau.

— Ederrak daukadanaz ta etxona guzurrik esan. Non dabilna
bera?

— Bêrantza yoan da, igesi.

— Bere aita Pedranton ta aitaita Santi langoa izan daiteala
esaion.

Minutu ta erdi geroago Mariñasitxoren negar zoliak entzun zi-
ran, Manukok ederrak emonda edo.

Beste alderdikoan artean jauntxoak baiño larriago, betilunago ta
estuago zirudian bere loba Morroskok. Viñasi bazter batera dei
eginda «Ai Perico! —zirautsan—, bildurrak yota ñagok gaur asi
doagun⁽⁴⁾ arlo au aguräk bertan bêra itxi zedagian, bildurrak
yota. Alegin guztia egin bear doagu, Perico, agura abaildu ta erdi-il
au birbiztu, adoretu ta poztu dakigun.»


— Ezadi orrenbeste larritu. Zorionean bere Komite-lagunak
bost milla ogerleko aurreratu eragin eutsazen, (*sic*) bestela txulut!
onezkeru Bilborako trena artu eban gure gizonak. Eskerrak bere sa-
keleko utsunetxo orri, axe beteteko gurari ta gutarrak² asiriko arlo
onetan iraun-arazoko dautsak.

— Bada-ezpada asmaik zerbait, ilda daukagun ori biztuteko.

Isiltxorik gelditu ziran tindi baten. Viñasek, erpurua agin ar-
tean ebala, lurrera begira egonda «Tomas —esan eutsan lagunari—,
edo neu ez nok Perico Viñas edo ogeta lau ordu barru atzo baizen

¹ (olgetan)

² (el ansia)



pozik edo pozagorik ikusiko ñoagu nire magaldun, ire osaba laztan ori.»

— Zer otu ñak, orretarako?

— Papera apala dok; emoten ñakon guztia isil-isilik artzen ñok. Biarko *El Eco de Vizcaya* irakurri dagianean, beste bat izango dok ire osaba abaildu, musturtsu, ilun ori. Gure egunotan gizona bikoitza dok: banazekoa (*privado*) ta agirikoa (*público*). Banazeko gizona sendatzeko gure yakituri kazkarrak etxok sarri askotan osagarririk idoroten. Agiriko gizona bizkortzeko ta azkartzeko osagarririk ekoiztsuena, eragileena¹ geure eskueran ñaukâgu. Osagarri au zein dan ezaldakik? Elazkoaren gorespenak². Eztirala egiazkoak? Pzzzz! Etxagok ardurarik. Gizon goratuak beti artzen ñozak gorespen orrek egiazkotzat. Gizon goratua zeinbat astoago, zeinbat kokoloago, ainbat sendaberago, sendaerrezago izaten dok.

— Bene-benetan dirauat. Gizona aiz. Ekak esku ori.

Elizaurrean Begi eldu-barria zaldi-ganean eta bere inguruan Anton Imaz ta indianua barreka egozan, batean udaletseko itzaldiak iruskintzen³, bêstean kartagoarren tibuli apainduari begira.

Lengo neskatilla-mutikoak euren olgetatxoetan ziarduen. Jauntxoagaz berbetan egozan maistarren seme-alabak ziran umeok. Eurotariko bati, Pedrantonen semeari, Begik «Manuko, ator ona» esan eutsan. Mutilkoa bildurrez atze-atzeka ibilten asi zan.

— Ez adi, mutil, atzeraka asi, maite aut eta. Eutso txakur txiki bat eta oa ara bêra, Floren Andrakagana; eta aitak orain ogirik egiten ezetedaben esaiok.

Zalkurditxo⁴-ondora yoazan Morrosko ta Viñas mutilko marotak mezu⁵ au emon ebanean.

— ¿*Qué dice?*— itandu eutsan zaltzainari Viñasek.

Begiren erreparria⁶ erderaz adierazo eutsenean, Viñasek emoniko erantzuna onelantxe euskerazkotu eban Florenek:

— Esaiok ari, txotxo, Andraka zarrak galletak egiten diarduala, nai eztabezanai emoteko, doako galleta gozo-gozo-gozoak.

Manuko erantzun onezaz tipi-tapa yoala, Floren Andrakak ostera dei eginda «Zer emon dask Begik mandatusaritzat?» itandu eutsan.

— Txakur txiki bat.

¹ (el más eficaz)

² (los elogios de la prensa)

³ (*comentando*)

⁴ (cochecito)

⁵ (mandatu)

⁶ (komisioa)

—Orra nik bi—esanda, lerdan ta oi eban yasaz sakeletik txakur txiki bi atarata, eskura banan banan ta oska emon eutsazan.

Viñasek bere lankide aurkariari zorrotz ta egoki erantzunarren, begiak zabaltzea naikoa zan nor asi zan garai ta nor azpi yakiteko. Esan oi dana, kartagoarrak mandoak ilda agiri ziran-bitartean, iretargia laba-ganean euken erromarrak.

Oharrak:

(¹) Gipuzkerazko bertsioan «esan nizuna». Bizkaierazkoan be «neutsuna» ondo geldituko litzake baina dagoan dagoanean be badauka zentzua.

(²) Orijinalean ipintzen dauena ez da argi ikusten. Azpian «domeketakoko» egoan eta gainean zuzenketa dauka, baina ez da argi ikusten «domeketakoa» ala «domeketako» gelditu dan. Gipuzkerazko bertsioan «iganderako yantzita» dino.

(³) Orij. «berorrek».

(⁴) Hitzaren hasiera oso ilun dago orijinalean; argi ikusten dana «~ agun» da, lehen bi hizkiak ez. ̃ren azpikoak *d* izan behar leuke, aditza da eta. Bestetik, liburuan zehar hikako aditz forma alokutiboak menpeko esaldietan be erabiltzen dituela kontutan harturik, hemen «doagun» izan leitekeala dirudi.



X. Indar barriak artuta

1. Jauntxoak birbizturik. Aginbako agindun?
2. Morrosko ta Perico Viñas.
3. Viñas idazten.
4. Gatican ta Laukarizen.

1

Ordu biak yota eldu ziran kartagoarrak Berinoleagara. Viñasen etsandra Adonak, agindu eutsenez, ordu bat eta laurenatarako gertu eutsen bazkaria. Bazkaltegitzat¹ idazkua² artu eben. Maira yoazala Viñasek Busturiri Adona zelango izena zan itandu eutsan.

— Erderazko Abdonak. Eztautsazu goizeon Anton Imazi *eleitor de Gatika* esaten entzun? Onelantxe aldatua da zure etsandra maratzaren izena.

Auxe baizen mirrizak eta góra gitxikoak izan ziran bazkaldarren artean barrua berotu-arteko autuak. Jauntxoak mintzul³ zirudian. Ezer itantzen eutsenetan, ezaban agoa zabaltzen; buruaz bai ta ez, sorbaldaaz ardurarik ezeutsala eta súrrez hmmm eginda erantzuten eutsen maikideai. Viñas izan zan mînari geien eragin eutsana. Jauntxoaren zinuak ez, ostean, erderazkoak izan ziran bazkalarte guztian batak zein besteak esaniko itzak. Emen, batzuk artzaka itxita, beste batzuk laburtuaz ta euskeraz agertuko doguz.

— Biar *El Eco de Vizcayak* esango dabenez, nik uste neban baiño ta berorrek susmurtu zegikean baiño be doe andiagoak daukaz eleantzerako⁴ —zirautsan puertorricoar gazteak bere magaldun ta guztien jauntxoari—. Izlari guztiak eztira yardunetan⁽¹⁾ euren buruen yaube izaten; berori, Isasti, berorren buruaren yaube izan

¹ (komedoretzat)

² (eskritorioa)

³ (mutu)

⁴ (*elocuenziarako*)

da. Izlari andien begirakunea, yardun bitartean, zaldi zoroena izan oi da sarri; berorrena barriz begirakune artetsua, biguna, bakezkoa. Erriaren aita zirudian goizeon. Berorren eskuketaa izlari andiena izan da; eskuketa barea, ezta, urduritasun bagakoa. Esaldien amaiunek (eztakit beste zelan euskerazkotu Viñasen *las cadencias de los párrafos*) iztun andienak ónek be. Nik, erdaldun naizan onek, eztodaz ulertu berorren itzak ezpanetatik urtêran, entzuleen belarrietara eldueran bai; euren arpegian irakurten izan dot itzen sentzuna. Yardun baten bitartean sarri ikusi oi doguz entzuleak, batzuk eztulka, besteak albora begira, gogaituta. Gaur Isastiren entzuleak guztiak ikusi dodaz isilik, agoa zabalik eta adi. Laketu bekit «Isasti jauna»ren ordez «Isasti» esatea. Mirabeau, Castelar, Oconell, Gladstone ta beste izlari entzutetsuenak agotan darabilguzanean, «Mirabeau jauna» ta «Castelar jauna» izendatzea euren anditasuna txikitu gura izatea litzate. Mirabeau, Castelar, Oconell, Isasti, labur labur ta geigarri baga aitatu bear doguz onelango gizon andien ize-nak. Gure izlari onek Yataben uts bat egin dau, uts bakar bat: erderaz ekin bearrean, euskeraz yardun izatea.

— Ta ulertuko aleben?— Morroskok.

— Noizko dira adierazleak?— Busturik.

— Neu izango nintzan adierazle— Floren Andrakak.

— Zeinbat urte da —zirautsan Viñasek jauntxoari— Puertorri-con umetako izkerea entzun ta erabili bagarik bizi izan dana?

— Amalau urtekoa yoan, berrogeta amazortzi lepoan nebazala etorri: euk atara kontuak.

— Berrogeta lau urte, berrogeta lau urte andi. Mirabeauk, Amsterdamanen ta Londresen labur egon zanez, luzaro ta gazterik yoanda urrungo erdalerriren baten bizi izan balitz, eziban frantsesez yardun al izango. Isastik gaur erderaz yardun bear eban, euskeraz ez.

— Orretxegaitik izan alda —zinoan Morroskok—, orretxegaitik Busturiri *estación* euskeraz zelan esaten dan itandu izatea.

— Ganera, parkatu gero, Isasti, nik berorren goraldirako ta batez be geure alderdi andiaren onagaitik oartxo onek egitea. Berori goian, tontorrean, gizadiaren gan-ganean izateko yaioa da. Arranoari Izadiak¹ lez, berorri eleantzak² emon dautsaz egoak, goiak gora igoteko. Demostenesek tirli-torlo itz egiten ebalako, kizkirriak sartzen ebazan agoan, arik eta itzak egoki ebakiten ikasiarte. Gizonak, zeuok erabagi. Greziar izlari andi ak aginik izan ezpaleu eta orduan agin-ezarlerik izan balitz, eztozue, gizonak, uste Demos-

¹ (la Naturaleza)

² (la elocuencia)

tenes dentistearen etsera pozik yoango zala? Argi ta ganoraz itz egiteko aginak bear dira. Gure izlari onek agin barriak ezarri bear leukez. Aukeraldi au *a la inglesa* egingo dogunezkero, izlariak bear doguz.

— *Por combisión* eztoгу bada esan?

— Bai, don Anbrus. Orixe da *a la inglesa*; ta orretarako arerioakaz izkaldiak¹ egin bearko doguz, berori eurrerengo dogula. Mungian berorrek yardun bear leuke erderaz ta gero besteren batek euskeraz adierazo.

— Mungian nik ez, lotsatu egingo nintzate. Ganera, eztinozue Begiri aupada bat² egin bear dakola? Gorroto andiegia dausat nik orri, alkarren aurrez aur gagozala «Txakurra zara» ez esateko. Cataplasma! Zuek eztaizue niri orrek Bilbon aurtemin egin daustana. Eztausat nik oraindino iñori esan.

— Azazka begi barru ori, osaba, baretu bedi.

— Bilbon, badakizue, gelunera igoteko mailladi³ andi bat daukagu, udaletse ondokoa⁴. Antxe bêra ninoan ni, antxe gora etorren bera, Begi, nire aldean gaztea, umea, egin kontu. Topez tope egin genduanean, edozein baserritar askok esaten dautsanezkero, neuk be «Kaisio, Begi» esan neutsan. Ezeustan ba, ordiak alangoak «Kaisio, Agin» erantzun? Deabrurik be badago, deabrurik be arpegi ederrago daukanik.

— Orra or, don Anbrus, beste zio bat, beste oin bat, aginak len bai len ipintekoa. Goiamerikatik agertuta Bilbon *dentista bat* daukagu leber, errime, esku onekoa.

— Tetek sarri aitatu daustana alda? Dan baiño merketxoago balitz...

— Ango milla errealean goraberäa zer da berorrentzat? Alderdia-
ren onerako, Isasti, izlariak bear doguz-da.

— Aurra ba! Biar yoango naiz bere etsera.

Txaloka artu eban Floren Andrakak jauntxoaren erabagia.

Eztakigu ala bazkariak ala Demostenesek eta lagunak, beintzat zerbaitek edo norbaitek don Anbrusen gogaldia iñoizko pozkorren ta argien biurtu eben.

Beragandikoa izan zan arratsalderdian Gatikara ta Laukariza yoatea, Busturik euskeraz ta berak erderaz itzaldi bana izatera. Morrosko bildur zan ta «Goizeko sakristau zoroa an baldin balego...»

¹ (controversias)

² (desafío bat)

³ (zulubi)

⁴ Lenengo urtetan Mungiarako gelunca (estazinoa) San Agustinen egoan, Bilboko udaletse-ostean

esaten asi zan. «Anton Imaz? —eten eutsan Floren Andrakak— Mistik egin badagi, mistik, neuk andik atara ta musturak ausiko dautsadaz.»

Yatabeko lau yardungeiak, goizekoak, Viñasek paper baten idatzi eutsazan jauntxoari, goizean lez aitzu ezekiozan:

- 1.º *No soy orador.*
- 2.º *Hijo de Jatabe, casi casi de Gatika... y Laukariz.*
- 3.º *Presidente de la Concordia Cívica(a) El Rásimo.*
- 4.º *Frutas del árbol. Ferrocarril de vía estrecha. Primera estación: Gatika y Laukariz respectivamente.*

Ereñoztzi, Berinoleagako idazmutil gatikarra, bere errira ta Laukariza diskurtsuak izango zirala ta ango baserritarrak batu eragitera bidali eben. Ordu-erdi bat geroago Gatikarako bidea artu eban don Anbrusek, Busturi ta Floren Andraka lagun ebazala.

2

Morroskok Viñasi, beste iñor baga gelditu ziranean, txurrut eta ke ziarduela, auxe esan eutsan:

— Zein izarrek argi egin etêutsan osabari yaio zanean? Ordu be-tean beragaz itz egiten dabenak, nai dala indianua nai dala Indiara yoan bakoa, irri egin bear dautso gure don Anbrusi. Bilbon plentziar zapatariak eta Sitio-ko adiskideak eztabe besterik egiten bere lepotik irri ta barre baiño. Ementxe be bardin: goizean Arangoitik, yatabetarrak ezpan-bigunak dirala asmau dabenean, eta bazkalorduan Viñasek, Periko Viñasek...

— Nik?

— Kiñu egin gurarik egon nok bazkalarte geienean, baia aurreko argontziak¹ galarazoten izan ðaustak.

— Nik irri ta barre?

— Barrerik ez, baia irri... Zer besterik? Bizia maite badok, *El Eco de Vizcaya*-n Mirabeau, Oconell... ta euren ondoan Isasti ezegizak aitatu. Nire osaba kokoloak Asturias edo Galiziako indianuren batzuk zirala uste izan aldok. Baia *El Eco*-n irakurrita, norbaitek begiak zabaldu balegioz, ik eztakik oraindino gure don Anbrus nor dan. Tintontzi bat arpegira yaurtigiteko gai dok ori. Sei urte ðarozak emen urez andik etorrita. Amaika ikusi ðoagu orregandik, batez be gure aita zanak, errukarri gaixoak. Amaika bai!

¹ (kinkeak)

Arriturik entzun eutsazan Viñasek Morroskori etseko barrukotasunak. Ordurarte iñoiz ez ta orduan zer zala ta?

Txolinduta, txerbelik, edan-samur ekusan aldungeia. Yakinguraz ezeutsan, orregaitino, autua aldatu gura izan.

— Arrebäari (gure amari) bai, maitetasun apurtxo bat bađausak; Teteri andia. Beste iru nebarrebok loba ezpagintzazan gaiaukazak. Zarrena đok kuñun ta txatxan. Berau izan ezpalitzok, ezkaingoazan gaur gu emen, Perico. Astoak, asto andi kokolotzarrak maipuruko izan gura bai, baia dirurik atara... Teteri eskerrak. Bein edo bein otu đatak, buruak emon đautsak don Anbrusek biotzean sartuta ezetedaukan loba zarrentxo ederragaz ezkontzeko garramurea.

— E! Ori be bai?

— Indianuak, egiazkoak beintzat, bide onetantxe zear eltzen dokak ilezintasunera. Urezandiko¹ guztientzat indianua daukagu izentzat. Nire lagun batek, lengo astean, ain zuzen be, urezandikoak bitarikoak dirala ziñoan: batzuk urietan uritar-antzera bizi izanikoak, besteak basamortuetan artzain nai urietan denda-bazter baten urteak igaro dabezanak. Lenengoentzat amerikano-izena egokiago litzatela zirauskun, indianu-izena bigarren ónentzat itxita. Alde andiago dago beintzat batzun ta besteen artean. Indianu geien geienak anai edo arrebaren bati alaba zarrena eskatzen đautsek emaztetzat; eta ango diru guztia etsean gelditu dadin, pozik suintzat artzen đok ordurarte anai nai neba baiño etzana. Indianu egiazko bi eidagozak Mungiaiko erromar ta kartagoarren artean. Tema egin gura dok emengo urezandiko biok, mutil zarrak ezpadozak, emaztetzat lobäa daukela bata eta besteak?

— Sorgin banagaz ezkondu daitezala emengoak, gura bađoek. A! Don Anbrusek ik diñoan asmo ori gogotan balaieukak nik esango naieukezak *El Eco de Vizcaya*-n esatekoak! Arranoen artean goietan bizi dala entzun đok len. Kakarraldo ta sator-lagun bizi bear leukeala irakurriko laieukek gero. Eriotzea baiño sendoago eidok maitetasuna. Maitetasuna baiño askozaz zalago ta iraunkorra-go dok bekaitza². Tete, ire arreba Teteri dautsadan maitetasuna baiden sakona ta negurtzakea izango litzatek, Tomas, bere senargaiarentzako bekaitza ta gorrotoa.

— Isiltxoago, Viñas, Adonak entzun eztagian. Eztok zeri estutu ta artegatü. Buruari geiegi đeritxok Teresa Torrealdeak irurogeta

¹ (ultramarinos)

² (enbidia)

lau urteko agura bategaz ezkondu gura izateko. Amalau bat urte gixiagi baleukaz, orduan bildur bear; amak be, nebäa besteren bategaz ezkondu zedakion, ziri egingo laieuekek-eta.

— Niri au esan? Ezaldakik, Tomas, nire barri? Erraldoi¹ bategaz, gudari-talde oso baten aurka esetsiko naieuekek, Tete ederraren eskua bestek eroan gura balaieustak.

— Aspaldion igarrita naieukan. Adiskide baten itza entzun gura badok, neuk esango dauat zein dan orrelango erbi ederrak atxitu ta atzemoteko *paradarik* onena: aldun-izatea, diputaukuntzea. Aldundian, amar urteti onakoan ezkontzaga² sartu diran guztiak, emazte aberatsa besoti dabela andik kaleratu dozak. Bilbotar egin adi, Viñas; urte bi barru Valmaseda nai Bilboko aldun egin agiela ta eu euren atzetik ibili bearrean, eurak, Tata, Tete ta Titi, eure atzeti ibiliko dozak.

Orduan osaba orren ezkontza ori ezeuke ik onetsiko³.

— Baia ik zer uste dok? Eznok ni arrebäaren esku-yaube. Banintzok, atan-orretan eznaieuekek zoritxarrera eroan gura izango. Maitêgi ñoat.

— Eskerrik asko, Tomas. Peku bat, susmotxo bat sartu ñatak garun-arteana. Ezaiz minduko, nire susmo au aitatu badakiat?

— Mindu, ostera?

— *Parada* onetara, aldundiko paradara, orren gogo beroz atorren orrek erbiren bat, erbi guri galant ikusgarriren bat ezetedaukak begiz yota?

— Izan leitek. Beste egunen baten astiroago onezaz itz egingo ñoagu. Orain lan egik, idatzi ortxe gogoz, Mirabeau aitatu bagarik. Neuk neure eskuz eroango ñoat arratsean *El Eco*-ra ire eskutitz Mungiakoa. Astean bitxotan idaztea egoki litzakiguk.

— Iru bidar gura badok be...

— I eure arazoan itxita, Ortiz de Treviñogana naioak ni, emengo barri geitxoago yakitera.

— Oba euke ta gaieuekek, Tomas, maisuagana bagarik Gaticaralditxo bat egitea, osabäa, gure Mirabeau, goizean lez lur yota kilikolo zer esan eztakiala ibili zedaitean.

— Bere orde z neuk yardutea gura aleuke?

— Bai oba...

— Ik eztakik a nor dan, nor dogun, nor doan. Asto zar bat baiño

¹ (gigante)

² (solteros)

³ (ontzat artuko)

burugogorrigo ta burukoiago ta buruari eutsiago dok. Bein *aida* badinok, nok ari *aurt* esan eragin?

— Euk orretarako adorerik izan-ezik, Busturik poliño poliño zaplandatuaz esan lekiok.

— Zer da esatea baia?

— Entzule gitxi batuko datzuez gaur Gatican, arratsalde-erdia da-ta. Busturik esan lekiona auxe dok: Isasti lango izlari batek aurkintza ospetsuetan¹ izan-ezik ezabela yardun bear. Zegaitik uste dok asto guztiak ain dekor, burugogor, zital, eurena egin-guratsuak dirala? Astazainak, aurrera eragiteko, zartearen orde, zurikeria² erabilten eztabelako. Don Anbrus bigarrenez lurreratu-ekero, nok barriro zutundu? Ta ak aukeraldi au itzi badagi, agur, Tomas, ire parada dontsu ori, agur ire erbi, begiz yota daukân erbi galant ori. Oa, Tomas.

— Banaioak, banaioak. Gero, ezlitzatek lenengoa izango-ta, be-larrondoko bat, zaplada bat, osabäak emon badagik...

— Nik ez artu.

Barreka sakabanatu ziran gazteok.

3

«Neure begien argitasuna, neure biotzaren sua, neure erraien bi-
zia zaran Tete, lagun zakidaz, arren! ta urgatzi nagizu³ kokolo andi
bat gizon andi egiteko asmo onetan. Izan zaitez zeu, eder ori, ene
gogamen beroen atsemole⁴ ta idaztortz⁵ zorrotz onen bultzari.»

Ta geiagoko bagarik asi zan lanean Mayaguez-ko seme ta Muni-
giako Anibal Pedro Viñas y Andrés. *El Eco de Vizcaya*-ren berrika-
ri-lana⁶ zan eskuartean erabilena. Idaztortzaren bizkorra! Ezagun
zan arazo onetan asbarri⁷ etzana. Goiz atan Isasti ta lobäari ta bera-
ri (don Pedro Viñas-i) egin eutsen abegia azalduta gero, Arangoiti-
renean ta gozogintzan kartagoarrak izandako batzarrak zeatu-on-
doan, Yatabeko bitiña⁸ erakutsi eban. Zeazketa⁹ auxe egiten

¹ (*en ocasiones solemnes*)

² (*lisonja*)

³ (*ayudadme*)

⁴ (*inspiradora*)

⁵ (*pluma*)

⁶ (*korresponzal-arazoa*)

⁷ (*novicio*)

⁸ Meeting, mitin; Meñakako sakristauaren itza.

⁹ (*descripción*)

ziarduala, ezetorkion idaztortzera, buruan atz eginarren bere, are-tantxe bear eban izen bat; eta atea zabalduaz⁽²⁾ «Aup, gazte» dei egin eutsan ola-mutil bati.

- Jauna, zer gura dau?
- Zelan dok izena Yatabeko alkateak?
- Pedranton.
- De?
- Latsibi.
- Ederto dagok. Besterik ez.

Lerro batzuk geiago betetakoan «Tema egingo neuke —zirautsan Viñasek bere buruari— urrengo mintzaldi¹ *Sitio*-koa don Anbrusi eskini baietz». Beste zirriborro batzuk eginda «Alegia! —zinoan berak—. Oraintxe nago ona. Eztakit Gatican, ez Laukarizen ze barri dan, ez nok itz egin daben; ez asko batu diran, ez elizaiñari Floren Andrakak musturrak ausi etedautsazan. Ilunetan nabil. Eskutitz au amaitzeko, barriz, ango yazoerak ezagutuarte banago, berandu izango da. Zeri etenakio? Aurra, Isasti! Arranoen egoak besapean artuta igon zaitez odeiak baiño gorago» esanda, yo berak lanari, gogoz ta ganoraz.

Luze zoakion berrikari arduratsuari bere lan au, Ereñozi agertu ekionean.

— Eraz, adiuntzaz zatoz, Ereñozi. Ze barri dakazu Gatika ta Laukarizti?

— Gatican alkateari udaletsean ainbat goizen ta geien gizonak batu dagizala agindu dautsat. Beste onenbeste egin dot Laukarizen. Eztakit arean geiago. Bizkor ibilteko esan dauste ta ordu bi bete bagarik, ibilera guztiak eginda, emen nago.

— Yesarri or. Atsedan artuizu. Zelango izlaria da Begi?

— Begi izlari, berbalari! Danik bere eztot eguno entzun.

— Ona zegaitik itandu dodan. Dirautsudan au, biariko egun osoan beintzat, ez zuk iñori esan; zador bat da, isileko gauzäa da. Begi aurkari dodala, aukeraldi-aurreko domekan izkaldi² bat eragin edo erakori³ gura dot. Badakizu, Ereñozi, izkaldia zer dan? Aiko. Zaldiak ostikoka, zezenak adarka, oilarrak orkazka, katuak erpeka ta otso ta azeri ta txakurrak aginka lez, gizonak alkarri izka esetsi bear dautse; eta ez ukabilka, ez auzka, ez burruka, ez apaxka. Itza da gizonaren iskiloa, armäa. Lau bat egun barru aupadäa⁴ bialduko dautsat. Zeu izango zara, Ereñozi, Begiri aupada ori eskuz esku

¹ (conferencia)

² (kontrobertsia)

³ (promover)

⁴ (desafioa)

eroatekoa. Orretarako adierazle bat bear dot, nik erderaz esango dodana euskeraz zintzo, argi ta garbi irakatsiko daben bat. Badazaguzu emen arazo ori yasean bete dagikeanik?

Minutu erdi-inguruan, erpurua agin-artean ebalá, lurrera begira egonda «Eztazagut iñor» erantzun eban Ereñoztik.

— Floren Andraka?

— Ernea, buru-argia, bai, bada ori, izan; iñogaiti atzera egingo eztabena be bai; buru erakusten zaletxea be bada, baia erderazko politikeriak belarrian sartuta batera agotik euskeraz zintzo ta zeatz atarako dabenik? Hmm!

— Bakar bat, besterik ezpada, ezetedago Mungialde guztian?

— Bein Mungian orrelango, zelan esango dot neuk?, orrelango atzarin bat, *prestidigitadore* bat, agertu zan. Bolungoi¹ (3) ilun andi bat erabilten eban eskuetan. Iturritik ekarririko ura sartzen eben batzuk, neuk be sartu neban, bolungoi aren barruan, ta gizona! eztakit deabrukeriz, sorginkeriz ala zelan benedeziño, atzarinak beintzat musturreti bertatik ardao baltz ederra ataraten eban. Auxe egin bear dau, zelanbait, adierazle on batek: erdereá, ura, barruan sartuta geiagoko bagarik, barrutik euskerea, ardaoá, atara. Au ondo egi-tekorik bat, bakar bat etedago Txorierri guztian?

— Andia da, Ereñozti, zuk Mungian yaio...

— Gatican ni.

— Dana dala. Mungialdean yaio ta bizi zaran orrek eztakizuna, nik, aste bete osorik emen eztaroadan onek, yakitea. Aukeraldi au irabazteko bear dan adierazlea Berinoleagatik urten бага idoroko neuke.

— Nor da, arren?

— Ereñozti.

— Ni?

— Bai, zerori, zeu. Nok esan daustan yakin gura dozu? Arangoitik.

Pozezko irribarretxea agertu ekion ezpanetan. Arangoiti lango gizon batek bera, idazmutiltxo bat, aintzat artzea!

— Zer ikasi dot nik, don Pedro, olango zeretán ibilteko?

— Zer? Bein edo bein igaro izango zara oinez, zubi baten azpian, nai arrobi² baten ondoan. Olango aldietan etxatzu baten be otu dea-darrez «Aup» edo beste zerbait esatea? Zer ikasi dabe zubi orren arlanduak? Zer arrobi orretako atxak, norbaitek dirautsena eurak ba-

¹ (botellón)

² (kantera)

rriro esateko? Orixe izango zara zu, Ereñoztzi, arrobiko atxa, zubipeko arlandua, neure eztarri onen arribizia¹.

— Gero, damutu zedakizun gero. Nik ezin...

— Eztago emen ezinik. Zoaz orain Kartagora; ta entzun, zelan dau gozogiñak izena?

— Olabe.

— Olaberi esaiozu trena Bilborako asi baiño lentxoago batu dadila gelunean gure *Estado Mayorra*.

4

Gatikan ta Laukarizen utsa yazo zan. Alkateak Gatican Ereñoztiren mandatua artu ebanean, arloari itxita solotik etxerantz etorrela, Anton Imaz aurkitu eban.

— Neuk bialduko dot solorik solo Antontxo neure semea. Egon zu ardura bagarik.

Anton Imazek au aginduarren, etzan iñor gizonai deiez ibili ta don Anbrus ta lagunak eldueran alkatea baiño besterik iñor etzan agiri udaletsean.

Bere artekotxoia eroian jauntxoak ara-bidean. Zeinbat urrago ainbat taupada geiago biotzak ta ainbat odolots geiago eskuturrak entzun eragin eutsazan.

Busturiri itz egiteko adore bagarik egoala esan gura ez ta larri ebilen gizona, geroago larriago.

Morrosko Gatikara eldu zanean, Laukarizako bidean yoazan beste irurak. Laster batu zan eurakaz aldungeia. Aldauri atako atxurlariai ardaudunaren emazte Mainton agertu ñaken Ereñoztiren barriak emotera:

«Aup! Don Anbrus Yatabekok Bilboti diskurtsuak dakazala ta guztiok geure etse-aurrean batzeko.»

Iñok ezeutsan Maintoni yaramon osorik egin.

Batzuk irriz «Dakazala bertora esaion don Anbrus Aginbakori», besteren batek «Zer dira diskurtsuok?» «Neuk baneki» zerantzun Maintonek.

— Aup, Mainton! —erantzun eutsan eztarri zolidun norbaitek—. Zaragi baten ganean badakaz, baietz, yoango garala don Anbrusen zerok yatera.

Nekatu-samar eldu zan don Anbrus Laukarizko elizaurrera. Berak autortu ezarren, zabal-zabal egin ñakon barrua, Mainton ta nes-

¹ (*el eco*)

ka-mutilko batzuk eta txitadun oillo loka bat baiño beste entzulerik aurkitu ezebenezan (4).

Maintonenean urardao gozatuaz egarria ildakoan, artatza-arte-ko bide zidor baten zear gelune-alderantza etozala, don Anbrusek bide-lagunai zador¹ andi bat bailitzan auxe esan eutsen:

«Goizean, Yataben, eznaiz ainbeste ainbestean ibili. Lenengo aldia zan, noberaren erria be bai ta beti lotsa edo onelango zerbait izaten da bakotxa. Baia arratsaldean arloari ekin baneutso, ikaratuta konkorrrik itxiko nebazan Gatika laukariztarrok.»

Ordurarte txordo ta isilkor izan zanez, larritasunak iges eginaz biotza zabaldu ta nasaitu ekionean, gitxitan lango esatedun asmau eban jauntxoak bere burua; ta bateko *El Rásimo*, besteko Mayaguez, ortiko ta emendiko barritan kolko betena banandu² eutsen loba marotari, Floren Andraka kartagoar gogo-beroari ta Berino-leagako kutzazainari. Astiro etozan, Bilborako orduaz aztuta. Floren Andrakak ordu bete osoan, garun-arteon, yauntxoarentzako itaune bat erabilen; eretirik ezaz ezeutsan ordurarte urtepiderik emon.

— Don Anbrus, —esan eutsan (Viñas-en antzera Isasti utsik esaten azartu ez-ta) — don Anbrus, berorrek erakutsi dauskun paper-txo atan lenengo puntutzat *yo no soy orador* irakurri dot. Berori lango gizon batek ori esango etêban?

— Ez, Floren. Goizean, Viñasek atsemonda, olantxe asi doat yarduna, bai niri damutu!! Orixe autortuak galdu naiok. Gizonak, guzurra garatzetan³ esan legike. Amaika esan izan dogu geure egunotan! Baia onezaz ostean, barruan eztaukaguna zetarako ezpanetatik atara?

Gitxien uste eben zer batek eten eutsan Aginbakori bere autor-men gozoa: Mungiatik Bilborako bultziak⁴. Berlin nai Londresko bultzirik andienak baiño be txiztu luzeago yota, fufu fufu triki-traka triki-traka asi zan ibilten; eta lasterko Laukarizpeko atxuloan sartu zan, ikatz merkezeko kê baltza gura ebanarentzat itzita.

Don Anbrusek al eban deadar andienaz «*Alto, alto*» esanarren, inok entzun ez, edo nor zan ezagutu ez edo, ezeutsen beintzat yaramonik egin.

— Ezalekian orrek, zorritzto goseak il orrek, ezalekien *Presidente del Consejo de Amistración* (5) gaur Mungian zala? Zegaitik itxaron ez? Caramelada! Neuk emongo deutsat Labartori.

¹ (sekretu)

² (errepertidu)

³ (negozioetan)

⁴ (trenak)

Eta gero zertuk eraso eutsazan ak bere miinari Labarto gizagai-soa agotan artuta!

Orduko kartagoar zintzoenak gelunean batuta egozan, bat ez, gartsuena ez, Plentziako Urbana arako karlistak asto-ganean erabilitako Urbanäaren loba Laraudo; auxe ez; besteok, ezagunenok beintzat, an ziran.

Morroskok Floren Andrakari, banazean artuta, «Osabäak tibulitxoa eskatu badagizu...» zirautsan.

— *Yo ya sabusté, yo por la Libertá.*

— Itxidazu, gizona, amaitzen. Osabäak tibulia eskatu badagizu, ogiz beteta norabait eroan bear dozula erantzuiozu. Ezkozuz gero Bilbora eroango.

Onetarako Laraudori dei egin bear izan eutsen. Labarto gelunezainak burua makur-makurrik eta utsik ebalá, otzan ta apal, ezer erantzun bage, belarriratu ebazan jauntxoak zuzenduriko txakurkeria guztiak.

Burdinbidez doarik yoan baiño ezeukela, Laraudok lando ederrean eroatearren amaika diru eskatuko eutsen, batetik gaba laster zalako, bestetik goizean egin eutsen irria gomutauta! Amaika diru!

— Tomas, lando arro ori bear bada ez gero nigana diru-billa iñor bialdu. *El Rásimon* dago dirua batuta. Andik, anditek artu dagizala artzekoak.

Viñasek, Morroskogandik Gatika-Laukarizko barri txikolak, ezerezak yakin ebazanean «Azkenaldea orraztuik euk pizka bat» esanaz *El Eco de Vizcayarako* eskutitza emon eutsan.

Txalo-artean itxi eben osaba-lobak Mungia. Floren Andrakak beti zintzo, *Gora Kartago* deadar egin eban.

Deriora-orduko gautu ñaken. Ez artean, ez arrezkero, ezeban don Anbrusek txit bat agotik atara. Elizkoia izan balitz, errosarioa esaten etseratu zala esan zegikean. Zabalbiden bêra Bilboko kale-artean sartu bear ebenean «Nora, don Anbrus? Etsera?» itandu eban Laraudok.

Morroskok: A la Concordia Cívica, calle de...

—¿*Al Rásimo? Ya sé ande está*— erantzun eutsan zaltzainak.

Oharrak:

- (1) Orijinalean «yadurnetan».
- (2) Orij. «zabalduaaz»; gipuzkerazko bertsioan «zabalduaaz».
- (3) Geroago, 240.orr., «bolingoí» idazten dau eta bere hiztegian be ez dau «bolungoi» jasotzen, baina bai «bolingoí».
- (4) Gipuzkerazkoan «arkitu etzuenen» dino.
- (5) Erratua? Gipuzkerazko bertsioan «Aministración» dago idatzita.



XI.⁽¹⁾ El Eco de Vizcaya Mungian

1. Begiri Viñasek aupadäa.
2. Erromarrak bildurrarren.
3. Begi ta Anton Imaz⁽²⁾ uriauzoetan.
4. Erroman adore geitxoago.

1

Viñas, goiz beranduan yagita, Berinoleagara yoan zan lenengo; andik eskolara, Ortiz de Treviñogana; Kartagoralditxo bat be egin eban. Iru edo lau bidar ikusi eben bera gora ta bêra kale nagosian. Denda guztietakoak bera ikustearren, burua leiotik atara eben.

Orixe ezaban berak gura! Lerdentasunean alkate egin-barri bat zirudian. Viñas sendalariaz etzan iñor gomuta.

Viñas autarki-batzailea lanean etzan asi, orduantxe zan asteko. Viñas berrikaria¹ zan goiz atan mungiarrak ekusena. Alderdi bateko ta bestekoak eskurik esku erabilen *El Eco de Vizcaya*.

Erromarren barre-zantzoak, Viñasen barriak irakurri ta Anton Imazen ta Begiren iruskiñak² entzueran!

«Aitalen-antzeko izkuna da... Erriaren aita zirudian... Aren eskuketearen masala! Aren begirakunearen urena! Aren itzen tolesbage, azarri ta zeaztasuna! Aren gogamenen sakona!³ Txalo gortugarriak burutu eben Isasti andiaren lana. Isasti gaurdanik Bizkaiko adimenaren andikia da.»⁴

Bazkalaurretxoan Arangoiti Berinoleagarantz, *El Eco* eskuan

¹ (korresponsala)

² (komentarioak)

³ Es orador patriarcal... Parecía el padre del pueblo... ¡Qué nobleza en sus ademanes! ¡Qué distinción en su mirada! ¡Qué sencillez, fluidez y justeza en sus palabras! ¡Qué profundidad en sus conceptos!

⁴ Nutrida salva de aplausos coronó la obra del gran Isasti. Isasti desde hoy pertenece a la aristocracia de la inteligencia vizcaina. (*El Eco de Vizcaya*, septiembre de 1890).

ebala, yoaten ikusi eben. Busturi ta bera alkarregaz sartu ziran gero-txoago urian, barreka, Viñasen burutasunak irakurten. Erromarrak entzuteko eraz «Au ezta berrikaria, au barriketaria da» ziñoan Arangoitik eta barre gogoz egin be bai.

—Arranoa!— zirautsan lagunari—. Ago-beroak, bat bitzat agertzekoak, lur-rean datzana adarretan dagoala esatekoak, geure artean be asko ez, baia bat edo beste badira. Orregaitino guzurrak, upea lango guzur andiak, paperean ezartekorik, Puertorricotik auxe ekarri dauskuenarte eztogu emen ezagutu. Ez Gatiken ez Laukarizen bitinik izan ezta zuk, Busturi, euskeraz itz egin zenduala ta osaba-lobak, *orador patriarcalek* eta Morroskok, erderaz yardun ebela! Caracolada! Bizarrak bear dira onelango gaztaña gorringo biribillak *El Eco*-ra bialduteko.

Arek ezekien Mungiako eskutitz onezaz Bilbon yazo zana ta etzan andia arrituta egotea. Morroskori, *El Rásimora* eldu zanean, Viñasek esanikoa aztu egin ñakon ta oso-osorik bialdu eban *El Eco*-ra berrikariaren papera.

Iru egun geroago Mungiako beste eskutitz bat ekarren paperak berak, luzea, arroa ta gogo beroz idatzitako eskutitza. Azkenaldea zan yakingarriena.

Ona emen an ziñoana:

«Gure ezaupidera eldu ñaku Pedro Viñas de Andres jaunak bart beste alderdiko gudalburu¹ Donato Arraitz Sagasti jaunari aupada bat agertu eutsala, il onen 25-garrenean, igande-arratsaldean, Mungian, erriaren aurrean izkaldi bat² egitea. Onetarakoxe aup egin dau kartagoarren gudalburuak. Ereti au, aurkintze³ au egokia dau Arraitz jaunak Bekosoloren izena goresteko. Viñas de Andresek, adierazletzat norbait dabela, Torrealdea jaunaren gorespena egingo dau. Arraitzek atzera egin ezik, eguen arratsaldean udaletsean iztun biak batuko dira, alkate jaunagaz zertzelada onetantxe alkar artu dagien: a) lenengo izlari nor izango dan b) izkaldia zein lekutan z) yardun bakoitzak zeinbat iraungo daben... eta abar.»

2

Au irakurrita erromar geien-geienak bildurrak yota apal apal gelditu ziran. Kartagoarrak, ostera, adoretzu ta garailari-ustez, burua zutunik erabilen.

¹ (caudillo)

² (kontrobertsia bat)

³ (okasino)

— Oraintxe ikusiko dogu nor nor dan —zinoen Laraudok eta lagunak—. Utsa da Anton Imaz lango kokolo-artean barriketan yartutea. Diñoen baizen burutsua bada, lekutan dago mutil ori.

Mutil au Begi zan ta berau, aupadäa irakurri ebanetik, estu egoan beronen kaltzetan. Urian aupada-barria zabaldu ta iruskindu¹ baiño lenago, Zabaleta notarioaren etsera yoan zan erromarren gudaiburua itun-eske, burubide-billa.

— Irakurri au— esanda, Viñasen eskutitza mai-ganera yaurtigi eutsan.

—Eta zeuk, Donato, zer erabagi dozu?— itandu eban Zabaletak papertxoan irakurtondoan.

— Ezetz, izkaldirik eztodala gura. Auxe erantzutea erabagi dot.

— Ezetz erantzun badagiozu yoan zan gurea. Sailean, aurrez ta erraz ta zelangura eroango dauskuz Morroskok emengo botorik geienak.

— Baietz erantzun badagiot, barriz, errazago. Zabaleta, laureun gizon aurrean dodazala eznaiz ni duin, eznaiz ni gauza *Credoa* zoli esateko be. *Poncio-Pilato*-ra orduko birritan eztul egin bear izango neuke ta barriro *Creo en Dios Padre* asi. Onen ordez izkaldia² baltiz, txarrago, eun bidar txarrago; kili-kolo asiko nintzate, motel-motel yarraituko neuke ta atzenerako katuaren erpe arteko saguarena. iiiiik eginda, il ezarren, isildu bai beintzat; eta lotsarren norabait iges egin bear, alik urrunen, Epikoren errialdera edo³.

— Baia, gizona, baserritar batzun artean txir-txor, txir-txor-aldi bat egiteko lotsa? Bildur? Ikara? Sarrakioa? Neuk uste neban baiño epelago dogu Arraitz, erromarron *generala*, lagun-artean gagozanean isiltzen etxakun Arraitz begi ederduna.

— Arrano gorria! Zer gura dozu egitea? Biotzean sartuta daukadazan ta zuk aitaturiko lotsa ta bildur ta ikara ta... Zelan da bestea?

— Sarrakioa, erderazko *pavor*.

— ... ta sarrakioa, laurok batuta, bior bior eginda, Epikori Mungiako plazan mosura yaurtigi al banegioz, orain lau urte Arangoiti baiño errazago garaituko geuke oraingotan Aginbako edo berorren loba Morrosko. Baia... adi, Zabaleta, adi; Epiko nire aldean orreta-

¹ (comentar)

² (kontrobertsia)

³ Viñasi egun gitxitan ezizen polit bi ezarri eutsezan: *Peru dubako* ta *Epiko*; lenengoa, gaizdunak doarik (duban) sendatzeko ekarri ebelako; bigarrena, autu geienetan itz auxe esatetik. Yoko ederra baucan, ak ezaban *un juego hermoso* esango, *un juego épico* baiño. Koch, Alemaniako sendalari ospetsuak bularretikoak osatzeko asmau eban sendailua Viñasen ezpanetan *un remedio épico* zan; ta *épico* gora ta *épico* bëra, eskerrak egun aretan-txe Adonaren etseko atarian ezarri eben iragarriari, bestela askok ezeben yakingo bere ize-na zein zan. Erromar nai kartagoarrak, Médico cirujano, Lic. Pedro Viñas de Andrés, eurak *Epiko* izentatzen eben.

rako, izkaldietarako, erri baten aurrean barriketan jarduteko, nire aldean uf! Sinistu egizu, gizona; Aginbakok berak, *Orador patriarkalek*, isilarazo ta zapalduko nenduke ni.

— Esan be egitea, esan be!

— Biotzeti sarrakio edo marrakio ori kentzeko, auxe edo egin ezpadagigu: kolkoa baiño barrurago, biotzaren bêko aldetxoan katu-erditxo bat sartu, txolinduta agertu, txerbelik, erdi mozkorrik. Orduan bai, barruan beste norbait dodala, txarto edo ondo neuk bé itz egingo neuke.

— Hmmm! Gero katutxo ori miau geitxo egiten asi ezker...! Donato, Hipokrates ala Galeno zan *similia similibus curantur* asmau ebana?

— Neuk baneki! Arek, ori gero sendalariak zirala, barriketa asko egin eben euren egunetan. Zer yazoko etezan, baratariak¹ izan balira?

— Ja ja ja ja! Barritsutzat ni, baratari gaixo au, euki zenagizun, itz gitxitan azalduko dot neure ustea. Naparrerriaren aurka² zuok, galenokumeok, naparrerria edo bere antzeko zerbait eztitu oi dautsazue umeai. Ezalda egia? Ona emen *similia similibus*. Epikoren aurrean zagozala, bost egia garbi esateko bildur izan etzaitzean, eztitu egizu, ondo eztitu lendanik bildurra zeure biotzean.

— *Adieu, Pasteur*. Non aurkitu edo non idoro, baia, bildurrezko ezti ori?

— Non? Gatikan, Emerandon, Laukarizen, Larraurain, Yataben, Meñakan, Arrietan... nongura.

— Ezin ulertu dot. Gure *orador patriarcal* ta arranoak lez etzaitetz goiak gora igoten ibili zu be.

— Aiko, Donato. Gaurdanik izkaldi-egunerarte zeinbat arrats, zeinbat gau daukazuz?

— Nik? Zeuk daukazuzan beste.

— Benazkoak³ izan gaitezkan lenengo ta bein. Zeinbat arrats dira oraindanik ordurartekoak? Amar? Bada amar arrats orretan Mungia-inguruko beste ainbeste basauri ta uriauzotan batu beitez baserriarrak, boto-yaubeak, Donato Arraitz izlariari, yarduleari, zerbait entzutera. Amar gautan sartuizu bildurra arimearen erraietan ta amaikagarren arratsaldean, Epikori erantzueran, erriaren aurrean etzara bildur izango.

— Ederto. Nok, ostera, batuarazo? Nok mordotu-eragin gure auzunetarrok, baserriarrok, *diskurtsua* gora-bêra? Eztakizu, Zaba-

¹ (notarioak)

² (kontra)

³ (formalak)

leta, Laukarizen Aginbakok eta Busturik eurakanatu bear ebenean, Mainton ardaudunari zer erantzun eutsen? Diskurtsuak zaragi ganean eroateko ta orduan baietz, batuko zirala. Ardao ta guzti egonarren, ezetelitzakidaz arek niri gogaituta lotara yoango?

— Orretarako, loguräa kentzeko, zeu naikoa etzarala uste badozu, eroaizu zeugaz Anton Imaz ta batean *Alto la*, bestean *Ume eder bat*, bestean *Peru Dubako* edo orrelango zerbait kantadu dagiala.

— Eder-eder-edërto esana, Zabaleta. Elizkarietan¹, badakizu, inguru guzti onetakoetara Gatikako sakristaua eroaten dabe, ta *Parce mihi* ta olango zerbait entzun eragiten dauzanean, edonor egoten ðako agoa zabalik. Anton Imazek berak be goian baiño gurago izaten dau elizäaren erdi-erdian oiü egin. Ikustekoak izaten dira aren begiak *Parce* orren azkenaldean *Peccavi*-ra eltzen danean. Baserritarrak gure oiulari oni entzutearren, arratsalderdian eztiñot, baia arratseraezkero aparria itxiko leukê. Itaune bat orain baratari jaun orri. Nok eztitu dautsu zeuri Maquiaveloren odola? Burubide aituagorik, itun egokiagorik, kontzeju oberik eztaust aspaldion iñok emon. Oraingo agertu alda Erroman gure Anton Imaz y Ezkurdi. Bagoaz bertara?

— Goazan.

3

Urrengo arrats guztietan, aldizka, iluntze baten emen, beste baten an, Mungia-inguruko auzune ta basauri askotan batzarrak eragin ebazan Begik. Gerizeak argiari baizen zintzo ta kirmen arratsean-arratsean zerraion Anton Imazek bere ongile ta adiskide onari.

Arratsalderdian asten zan Anton Imaz solorik solo ibilten gizonai iluntzerako deika. Batzarra asiorduan berak gogo beroz zerbait kantadu oi eban. Eztitan egoten ekiozan agoa zabalik inguru aretako atxurlariak. Gauzarik onenak batzar anditxoenetarako izaten ebazan. Arrietan Gounod-en *Ave Maria* entzun eragin eban, asieran pianoak daukazan *arpegioak* onelantxe antzeratuta: *tiripiti tarapata, tiripiti tarapata*; ta gero *Yabe, Maria*, begiak itxita, beti lez gogo beroz. Gatikako sakristaua entzungarri baizen ikusgarri izaten zan onelangoetan. Ezekian geldi egoten. Nai elizako koruan nai batzar ónetako mai-ganean, eskuak bularrean ebazala batean, bestean besoak zabal-zabal eginga erakusten eban bere gogo-berotasuna.

¹ (ondretan)

Gounoden melodia onen azkenaldean lez bere eztarri sendotik go-
rengo *nota* iraunkor zaratatsuak atara bear ebazanean, oinak aurre-
keratuta, gogo osoa¹ agotik ikusle-entzuleakana yoaten ekion An-
ton Imazi.

Ave Maria au amaitu baiño lentxoago, asieran legetxe, *tiripiti ta-
rapata*, *tiripiti tarapata* pianu-arpegioak bigun-biguntxorik entzun
eragin ebazan. Barrerik aiña txalo ta txalorik aiña zantzo egin
eutsen arrietarrak.

Aretarikoxe arrats baten, Begi berandutxo ibili zalako, bere la-
gun au kantari ta ganera izlari be izan zan. Gamizen yazo zan au.
Maiganeratu zanean, *Ume yeder bat* abestu eben, ez Iparragirrek
egina, Santestebanek Orfeoietarako aldaturikoa zan gau atan An-
ton Imazek entzun eragin ebana. Bigarren apaldi² arako

*Gorputza zuen liraiña eta
oiñak zebiltzen aidean,
pollitagorik eztet ikusi
nere begien aurrean.*

asi bear ebanean, orroia langoxe mintzo³ lodi geroago lodiagoaz
atara eban lenengo itza, onelantxe:

«Gooooooooooooooooorputza zuen...»

Au amaituta, Begi etzan agiri ta berak *Gernikako arbola* asi ta
amaitu eban. Orduan be agiri etzanean «*Diskursua* onezkero zeuk
egin bear izango dauskuzu» esan eutsan norbaitek.

— Ondo dago — erantzunaz, asko ikaratu bagarik asi zan Anton
Imaz izketan. Arraitz sendalariak euren Erroman esandako barregei
bat irakurleak, buruz gomuta ezpadau, liburu onetxen 35garren
orrialdean⁽³⁾ ikusi dagike. «Irurogei milla ogerleko gugana badaka-
rrez, dakarreenak zubian bêra, Okara, yaurtigiko doguz». Begiren
burutasun auxe al eban ginotxoan iruskindu eban bere ordezeko iztu-
nak.

Onetantxe ziarduala, udaletxeko balkoian burua agertu eban
Begik eta izketan asi zan. Anton Imaz zintzoaren eztarri ederra ta
biotz ona ta sabel ase-ezina goratuta gero, Aginbako artu eban iztu-
nak bere ezpanetan. Zertzuk esan ak! «Gamiztarrak, —zinoan
gero— Yatabeko torreak, orain urte bi, lur yo eban ta bertako alka-
te ta abadeak aurea artuta erri guztiak dirua ugari emon eban. Ba-
tzorde bat⁴ yoan zan orduan Bilbora, euren erritar don Anbrus

¹ (arima guztia)

² (estrofa)

³ (boz)

⁴ (komisiño bat)

orregana. Eztakizue zer erantzun eban ganbelu andiak? «Elizäa abadên gauzea da ta abadeak eregi dagiela». Beste bein, oraintsuago, Mungian gaisoetse bat¹ bear zala ta badoaz bada indianuaren katanarruari gili-gili eragitera. (Barre andiak gamiztarrak) Aginbakok auxe erantzun eutsen: «Ospitalik uritxoetan ezta bear arean. Ilteko bakotxa bere etsean dago ondoen.» Ezeutsen lauzuriko zar bat emon! Ta orain loba, papu-yaube dan loba Morroskorentzat boto-billa dator, arlote, mastodonte, aginbako andi ori.»

Onelantxe igaro ebazan amar iluntze Mungiako sendalari ortzargiak, Zabaletaren burubidez, Gatikako sakristaua lagun ebala. Agiriko itzaldi onetan, bildurra biotzetik kenduaz, Aginbakori, Morroskori ta Epikori narrua ederto erasten eutsen.

4

Aldaurietako barri onak artuta, erromar batzuk, egunoro alkar ikusi ta irozo edo eusten ebenak, itxaropen-apurtxo bat biotzeratzen asi ziran eta, bat edo batzuk beintzat, euren gudalburuak kartagoarrrena Mungiako izkaldian azpiratuko etêbalakoa uste eben. Ganerakoak, erromar zintzoak izanarren, galdutzat euken izkaldi au.

Beste alderdikoak, Laraudo, Gangoiti ta lagunak, pozez ebilzan. *El Eco de Vizcayan* berrikariak, Epikok, irugarren eskutitzean gogor artu ta zorrotz esetsi² ebazan Begi ta Anton Imaz. Eurezaz ziñoan erdia ezaleben Kartagon ulertu al izan, gogoz irakurri bai orregaitino. *Rústicos oradores... Inspiraciones del morapio... Contrabandistas de la elocuencia... Remachadores de la ignorancia popular... El Sátiro y el Juglar...* ta beste iraun andiak eta asko ziran paper-txo ak ekazanak.

Epiko, Mungialdean edozeinak (*sic*) gizon anditzat eukana yakinda, puzgotua³, irazegia⁴ bizi zan. Zeinbat bera arro ta irazegia-go, ainbat txiki ta ziztrinagotzat eukazan beste enparauak. Lenengo egunetan Busturi gizon zintzo ta kirmena⁵ bailitzan eukan; laster asi ekion, ostera, zankantzanak yaten⁶.

Elizkoia zalako *el sacristán de Cartago* izentau oi eban. Arangoiti bera, edonoren aurrean ezarren, maisua entzule bakar ebanean, *El Quijote* zala bein baiño sarriago esan eban. Arentzat iru soil soilik

¹ (ospital bat)

² (atacar)

³ (hinchado)

⁴ (ensoberbecido)

⁵ (leiala)

⁶ (roer zancajos)

ziran Mungian mungiar akats bagakoak: Andra Isidora Hayedo de Arangoiti, Treviño maisua ta bera, gure Epiko. Laraudo ta beste kartagoarrak zêkatzeko¹ sarri artzen eban agotan Floren Andrakak noizbait esandako itz polita: *Las fuersas bibas*.

Gizon kazkar guztiak, gixon guztiak goratzeko egiten dabena egiten eban Viñasek, ingurukoak apalatu. Onezaz ganera beste asmo bat erabilen: besteak bera anditzat eukitea. *El Eco de Vizcaya* Mungian berrikari baten ordezt bi izan baleuz, biak alkar yantziko eben ta biak pozik. Bein aitatu eban Viñas *El Ekok* bere kabuz, baiña zer? Utsa. Epiko ezaban asko poztu gorespentxo arek. Berrikari guztientzat sorturiko gorespena zan: *nuestro activo y diligente corresponsal*, gure berrikari eragile ta maratza. Berak bere burua birritan izentau eban paper atan. Berrikaria nor zan edonok ekialako, etzan azartu auxe baiño gorago igoten: *el sesudo médico*, sendalari sen onekoa. Treviño egin gura izan eban *El Noticieroaren* berrikari. Maisuak barriz, goragoko asmo bagarik bizi zalako, astirik ezeukala erantzunda, ezaban aintzat artu bere adiskidearen gurari au.

Oharrak:

(¹) 11, 12, 13 eta 14garren kapituluaren zenbakia, beste guztietan lez zenbaki erromatarrez adierazi beharrean, «*Amaikagarren txatala*», «*Amabigarren txatala*», «*Amairugarren txatala*» eta «*Amalagarren txatala*» idatzita adierazten dau.

(²) Orij. «Anton» bakarrik ipintzen dau baina aurkibidean «Anton Imaz» dago eta nobelan zehar be, pertsonaia hau izendatzean beti «Anton Imaz» dino, inoiz ez «Anton» hutsik.

(³) Idazleak liburuko orrialderen bat aipatu nahi ebanean ez eban orrialdearen zenbakia orijinalean ezarri, inprentara eroandakoan egin behar izango ziran aldaketegaitik ziur asko. Beraz, geuk ezarriak izan dira orrialde horreen zenbakiak, bai kasu honetan eta bai orrialdeak aipatu nahi izan dituen beste hiru kasuetan.

¹ (deskribiduteko)



XII. Izurria Mungian

1. Izlari-izurria.
2. Kartagoarren batzarra.

1

Kartago ta Erroma (Mungia-koak) irakiten bizi ziran. Zer zan al Izurri asko, batzuk alkarren antz andi bagakoak, ezagutu dabez lengo gizaldietan Europako erri andienak. Sarrien zabaldu dana Asia-tik sarturiko *colera morbo* izan da. Erroman (Italiakoan) atxina gizonak arrausika asi ta agoa zabalik ilda gelditzen eiziran; eta andik sortua dala diño gaur daukagun ekandu, erpuruaz ago zabalduan kurutze txiki bat egitekoa. Milan, amaseigarren gizaldian, 250 milla uritarduna zala, 60 millara gitxitu eban izurri batek. Londres amazpigarren mendean ta Marsella amazortzigarreanean gino¹ onetanxe urritu ziran.

Mungia, don Anbrus Isasti jauntxo zan egun aretan, izurriak yota egoan. Etzan, orregaitino, iñor il; etzan iñor makaldu a gora bêra. Bakar bat ez batek ezaban yateko gogorik ez gogaldi onik galdu. Pozezko izurria zan Mungia-koak, izlari-izurria, erderaz *epidemia de oradores*. Au etzan, beste geienen antzera, Asia-tik etorri. Mungia-ko au Mungian bertan sortu zan; Kartagon. Izurri onezaz, Gondramendi indianua ta Labarto gelunezaiña ez, beste bazkide guztiak iratsi ziran. Goizerik gaberakoan izlari izan bear ebela-ta, bata ona ta bestea ara, erria batu ta *diskurtsuak* egiten asi ziran Olabe gozogiña, Larauo zaldiduna, Simon Gangoiti, Lamiaran ostataria ta besteren batzuk. Andraka zarrak, bere lau alaba ta auzoko baten aurrean, *politika lokala* azaldu eban etseko suetean. Arandui arakiña, Basurtoko erriara txal batzuk eroatera yoan zan baten, angoxe ardantegi baten asi zan baserritarrai berbaldi bat, politikazko yar-

¹ (proporzino)

dun bat egiten; eta arrezkero gaurik etxakon igaro, aukeraldi-egunertarte, nonbait itz egin bagarik.

Nondik norakoa zan, baia, izurri au? Arangoitiren garun artean sortu zan. Jauntxoak Yataben egindako diskurtsuaren barri Busturigandik yakin ebanean, aren poza!

Gau atantxe, loak iges eginda, erne ekion burutasun au: zaltzain, arakin, okin, gozogin, ostatari... Kartagoko nekazale guztiak izlari¹ biurtzea. Urrengo egunean Busturigaz arpegi-ikuste² bat izan eban orretarako. «Nik Kartagora dei egin banegioe, ezeteleukê igarriko adarra yo nairik nabilela? Oba da beste batek aurea artzea. Zoaz zeu, Busturi, Olabe gozogiñagana, Kartagoko alkate ta errege ta yaube dogun Olabegana. Berak bere izenean eta bere garun-artean sorturiko asmoa bailitzan dei egin dagigula. Begik eta Anton Imazek euren diskurtsuen indarrez boto guztiak erromarrentzakotuten diarduela esanezkero, laster dozu ori zuritu.

Eztogu egunik galdu bear. Gaur arratsean, bizkor bazabilz, izlari-baltzua³, Mungiari betiko izen andia Amerikaragiño zabalduko dautsana, gaur sortu bear dogu.»

Esan ta egin. Busturik bost minutu baiño lenago Olabe gozogiña atarako zuritu ta berotu ta sutu eban, auxe generatuta: «Niri, bada-kizu, beste batzuren azpian bizi naizan oni, etxat eder egiten onelango asmo andietan neure ugazabak diran don Anbrus ta Arangoiti sarrarazo ta zelanbait neure mendeko egitea. Zeuk, bereber⁴ zaran orrek erraz egin dagikezu, nire izena aitatu be egin bagerik.» Orixe ezaban gura Olabek!! Laukarizko barriak berak be artu ebazala ta baietz. Busturik Arangoitirenean sartzea baiño ezaban egin, Olaberen emazte Basili kartagoarren etserik etse aldarri au egiten asi zanean: *Zortziretan gurera sin falta yoateko.*

2

Basiliren «geurera» Kartagora esatea zan. Lau itz onek erreskada onetantxe ots egin eben: Arangoitirenean, Busturirenean, Epikorenean, Larauadorenean eta alderdiko gizon agiri guztien etsean, Gondramendirenean be bai. Kartagoko lau aulkiak lenengo irurentzat eta Andraka zarrantzat izan ziran. Beste guztiak zutunik, nai

¹ (oradore)

² (entrevista)

³ (sociedad de oradores)

⁴ (independiente)

azukre-zorroetan erdi-etzunik (bakoitzak al ebanez) igaro eben batzarraldi osoa.

«Zer yazo eteda? —zirautsen kartagoarrak alkarri—. Don Anbrus dirua emoten aspertu egin eteda? Ala Morrosko bera atzeratu?» Inok ezekian ez ze barri ebilen ez zetara ta nok deitua izan zan, arik eta Olabek lau aurkidunai *pido la palabra* esanarte.

Gau atan erderazko iru itz onek sarri ots egin eben Kartagon. Beintxo be ezeutsen inok erantzun, arako *la tiene su señoría* nai beste onelango zerbaitez; *Pido la palabra* esanda batera asten ziran izketan. «Jaunak —zinoan Olabek—, nik gaur uriauzo askotati artu dodazan barriak artuta, isilik egon banintz, dei egin ezpaneutsue, kartagoar usteltzat neure burua eukiko neuke.» Itz onek entzunda eztul kirri-marrea egin eben zutunik egozan geienak.

—Badakizue —zerraion Olabek— igazleneko uiol andi ak Emerandoko sakonean egin ebana, lurra errekatu ta dandarrez troketa-
ra eroan. Ezaldozue gomuta? Alantxe yazoko daku aukeraldi onetan. Erromarrak gure baserritarren boto guztiak aurrez ta narrazean eroango dauskuez baldin gu orainarte lez lo egotekoak bagara.

Eztul barriro be goietakoak, gogortxoago oraingotan.


—Arraitz sendalaria, ezizenez Begi —zinoan Olabek— uriauzorik uriauzo dabilkigu diskurtsuak egiten. Baserritarrak gogoz dago-
kioz adi; asko gogo beroz, gogo otzez inor be ez arean. Anton Imaz bera, Begiren aleginak zelango atzea daben ikusita, berbaldiak egiten asita dago. Entzutekoa da goizeon dendara etorri datan laukariztarra! Auzo atan ezeidarabile baserritarrak beste auturik, Begi ta lagunaren diskurtsuak gora ta bêra. Eta gu lo!!

—Itzarri gaitez— esan eban Arangoitik.

—Itzarri gaitez— erantzun eben kartagoarrak aldran¹; eta bere alboko Busturiri ukondoan ikututa «Gizonak —yarraitu eban legegizonak—, erromarrak izkamizka² daroaskuez botoak. Izkamizka ekarri dagiguzan guztion artean geure aldera. Nire ustez edozein gizon da yatorriz izlari, eleketari, berbalari, oradore; edozeinek, lenengotan ain ondo ezarren, egin dagikez itzaldiak, eleketak, diskurtsuak. Eztozue ikusi Yataben bertako seme ospetsu *Gloria de las Antillas, orador patriarcal* don Anbrusek, lenengo egunean bertan, bere itzaldiaz ango baserritar guztiak arrituta agoa zabalik izten? Viñasek, aurrez aur daukadan *El Eco de Vizcayaren* berrikari onek, esan dagiala au onelantxe eztan. Zuen arteko zârrenok, Laraudo ta Andrakak, neuk lez dakizue Isasti andiak zelango ikasteak dauka-

¹ (a coro)

² (discurseando)



zan. Zer esan gura dau onek? Gizona yatorriz, berez, sortzez, izatez dala izlari, berbalari, oradore.»

Kartagoar guztiak, Epikok ez, batzuk eztulka, besteak «Ori ori» esanaz ontzat artu ebezan Arangoitiren itzak. Treviñok, irri-barreka, eskolarako goitzotik yagi bear ebala ta etsera yoala esan eutsen eta «Geienak aintzat daukena neuk be aintzat artuko dot» generatuaz kaleratu zan.

— Jaunak — zerraion Arangoitik —, kartagoarren alderdi osoak erabagi goratsu bi onek artzea egoki litzakigula uste dot. Lenengo erabagia: gizona yatorriz, sortzez, izatez, berez izlari, berbalari, oradore dala. Aintzat artzen dozue, lagun maiteok, uste au?

Guztiak, Epikok ez, aintzat artu eben.

— Bigarren erabagia: — zinoan Arangoitik — Guztiok yatorriz izlari garanezkero, izlari-alkargo bat sortu dagigun. Guztiok geurez izlari bagara, Kartago zer dogu besterik izlari-alkargo¹ baiño? Guztiok asi gaizan ba, gaur emen, biar an, itzaldiak egiten; eta onelan gure lagun kirmen Olabek Erromarantz sailean yoatan ikusi dauzan botoak laster ikusiko doguz Kartagorantza etorten. Ni, badakizue, arrebäa aurtan il ðatalako ezin asi naite Mungian, ez uri-auzoetan lan onetan baia zeuk ondo eritxiezkero, Bakiora yoan naite biar. Juan Andres Urizarrek, Berinoleagako kutxazaina da-ta, angoxe langileai itz egingo dautse. Doala etzi Laraudo Markaidara, etzikaramon Larraurira... eta onelantxe emen gagozan guztiok, geure buruak izlari eginda, izlari izatea geurezkoa dogulako, auzo guztietan ibili gaitazan guztiok, garanok². Andraka zarrak, *pido la palabra* esan bagarik, au zerakutsen lagunai: «Floren gureak domeka-arrastian Meñakan diskurtsu bi daukaz; erderaz ta euskeraz.»

— Erderaz Meñakan! Nok ulertzeko? Ugarazioak?

— Don Pedro Viñas ara baleioa, *El Eco*-n zerbait esan gura baleu, ulertu âl izan dagien...

— Zer diño *El Eco*-gaitik? — itandu eban Viñasek.

— Zeuk Meñakara Floren Andrakaren *diskurtsu* erderazkoa entzutera, *El Eco*-n zerbait esateko, yoan gura bazendu...

— Ni orri entzutera! Amama doakiola! (*Que se le vaya la abuela*) — erantzun eban, gogaldi txarreko, Epikok.

— *Pido la palabra* — esanda, Arandui asi zan izketan —. Jaunak, neure buruagan ikusi dot Arangoiti jaun onek dirauskuna. Lengo domekan, Basurton nengoala, bazkaritxo onaz barrua bero bero egin nebanean, Begi ta Anton Imaz gomutaratuta, diskurtsua egin

¹ (alianza de oradores)

² *Danak* esaten dabe askok, baiña iztxo au ezta egokia.

neutsen neuk be ardantegian egozan baserritarrai eta, diñoenez, atze ona izan eban nire berbaldiak. Burubide bat, kontseju bat emongo neuskizue arlo onetan asteko zagozanoi: zerbait edan bagarik ezta-giela agoa zabaldu.

Zantzoka barre egin eben entzule guztiak, aulkidunak eta ainba-koak.

— *Pido la palabra* — Labartok —. Jaunak, ni, badakizue, neure eginenak, neure arazoak *estazinoan* yosita nauke. Eztaukat astirik auzorik auzo ibilteko.

— *Pido la palabra* — Gondramendik —. Jaunak, ni orretarako eznaiz gauza.

— Aurreti zerbait edanda be ez? — Aranduik.

— Nik ura baiño eztot edaten — Gondramendik.

— Txanpañ ederra doarik balego...

— Ezta errekan baleioa be, ezneuke nik edango.

— Errekan txanpaña baleioa gu andik nok atara, Gondramendi? Itota edo...

Jajajaja luzaro ekin eutsen barre-zantzoka izlari alkartu guztiak.

— *Pido la palabra* — Epikok. Onek yakiña! erderaz ta luze ta zoli ekin eutsan. Gei bikoa izan zan Viñasen yarduna: Arangoitiren eritzia — edozein gizon yatorriz izlari zala — ezeukala berak egiazko-tzat; eta gero, Begik orain zaparrada batzuk atarârren, Mungia-ko zabalean ikusiko ebela, bai kartago ta bai erromarrak, nor nor zan.

— Viñas — zirautsan Arangoitik —, gizona berez izlari dan ala eztan ezin orain eztabaidan ezarri dagike. Gizona berez da izlari, yatorriz da oradore. Kartagok erabagi dau. Erabagita dagoana ezta lege eritxipean barrero ipintea. Izlari-alkargoa be sortua dago. Mungia-kiak Mungia danetik auxe baiño gauza andiagorik eztau egin. Gora Mungia ta beronen izlari-alkargoa!¹

— Gora! — erantzun eben besteak. Aurreko Kartagon Basili adurretan egoan, yazoera andi ónek ikusi ta entzuten. «Gora!» esanda erantzun eutsan berak be Arangoitiren deadarrari.

— Gura dozue, gizonak, orain alkartu bakotxari bere egiñenak erakustea? Badakizue Viñas nor dogun, geure gudalburu, geure izlari andi. Berau egin dagigun alkargo ilezin onen maipuruko. Baietz deritxoenak eskua gora. Bat, bi, iru, lau... gogo batez². Birburu³ nor egingo dogu? — Guztiak begira asi zan Arangoiti, bat begiz yoteko. Guztiak burua makurtu eben, lotsaz ala batek badaki zerarren.

¹ (alianza de oradores)

² (por unanimidad)

³ (Vice-presidente)

Gondramendi kenduezkero beste edozeiñek pozik entzungo eban bere izena—. Gizonak, gaur batzar onen asmoduna ta izlari alkargo onen azia erain dabena badakizue nor dogun? Olabe. Birburu izateko nor duinagorik? Gora eskuak, nire eretxi au aintzat daukenak. Geienak aintzat artu dabe— zinoan Arangoitik «bat, bi, iru, lau...» zeinbatuta gero.

Onelantxe autatu ebezan Laraudo ta Andraka zarra onulari-tzat¹, beste guztiak maiko² egin ebezan, Gondramendi ta Labarto kutxazain³ ta zeinbatzaile⁴.

—Gizonak —esan eban orduan Arangoitik—, atzenerako itxi gura izan dot beste guztien ganetiko asmo au. Munduko alkargo andi geienetan maipurukoagaz batera, deduzko maipurukoa izaten da. Nor da, gizonak, emen duintasun ori ondoen datorkiona?

—Berori edo... —isiltxorik Laraudok.

—Zelango ni! Nor da Kartagoko oradore guztien artean andiena? Nor da *Orador patriarcal*?

—Don Anbrus— erantzun eben izlari alkartuak.

—Nor, besterik nor izan leite gure deduzko buru? Bera, inor be ez besterik. Viñas, *El Eco de Vizcayan* gaurko barri andiok emon dagizuzanean, errezke erakutsiko dozu *por aclamación y con entusiasmo* aukeratua izan dala don Ambrosio de Isasti Inchaustiaga.

Onelantxe sortu zan Mungiako izurri, izlari-izurria.

¹ (*por asesores*)

² (*vocales*)

³ (*cajero*)

⁴ (*kontulari*)



XIII. Estu ta nasai

1. Busturi estu.
2. Begi eztitan.
3. Epiko jauntxoaren billa.

1

Juan Andraka Urizar, ezizenez Busturi, seminarioan urte batzuk igarota, sotanääri astuntxo eritxi eutsalako edo, beste bizibide bat artu gurarik, urian gelditu zan. Nok yaube urten ez ta Mungian, zetara yo ezekiala, urte-erdi inguru igarota, Bilboko ikastetse baten mutilzain¹ izateko artu eben. Antxe egoala, salerospenetako liburuak zelan erabili ikasi eban, frantzes-apur bat buruan sartu be bai. Ezebazan alperrik emon bere astiuneak. Oi lez, udan gurasoen etsean egoala, Arangoitigaz kalean topo egin eban baten, zabaltzen asi ekion bere bizibidea. Aren ezaupidez Bilbon lau bat urtetan bizi izan zan, goiz ta arratsalde, diruetse baten ta iluntzetan denda andi bateko salerosien barri artzen eba. Neskatiilla on bat, alabaz urduliztarra zan Gumersinda Uribe-Zelaia, emaztetzat artu eban. Eskutsean ezekion au etseratu; ta aurre! estuago bizi zanik bazan Bilbon ta ez gitxi, soinekoetan andiki-anzdun izanarren.

Mungia-ondoan Arangoitik, Anbrus Isastik eta beste batzuk Berinoleaga sortu ebenean, an egindako berinak² non saldu ta euren dirua gordeteko kutxazain bat bear eben, ta pozik egozan onetarako ta garatz osoaren zuzentzaile izateko Juan Andres Urizar lango gizon bat idoro ebenean. Gurasoakandikoa eban bere ezizen Busturi. Gumer bere emazteak eta mendekoren batek izan ezik, beste edozeinek ezizena erabilten eben bera izentateko.

Iru seme-alaba izan ebezan senar-emazteok. Zarrentxoa, Teresa,

¹ (pasante)

² (bidrioak)

egun aretan ondoez batek ogeratuta eukan; eztulka arpegia gorri-min ebalatuta lo, lo barik. Ondoez au beste aldiren baten agertu baltz, gurasôk etziran medikuari ots egin bagerik ónen luzaro egongo. Baia nor deitu, nori dei egin? Antxe eukun untzea. Nori ots egin? Begiri? Epikori? Lenengo lenengotatik gura izan eban amak egingo zana egitea. Aitak barriz «Ezta gauza andia ta agertu ñakon bidetarik itsutuko alðako» esanaz baketu oi eban bere barruko kezka etenbakoa.

Goizalde atan txakurreztulka umea asi zanean, ezagunean estutu zan Gumer. Bere senarrak ezaban aurregunetan lango egoarri¹, epe² ez zabaltasunik erakutsi. Bederatziak ingururarte, uleak orrazketako be asti baga, baru-barurik egon zan emazte arduratsua. Ordu orretantxe kafêzne birberotua artzen ziarduala, aurrez aur eukan senarra, batean barri-papera irakurri ta bestean emaztearen itauneren bati erantzuten.

— Ona gero, Juan Andres, eguerdira-orduko zeuk dei egin gura ezpadautsazu, neu, otseina be ez, neu andi-andirik yoango nakio.

— Baia, Gumer, infernu bizia emongo dauste.

— Emon dagiela. Neuk ilgo dot infernu orren sua.

— Umeai elgorria pzzzz! txoriai lumeria ta oilloai mikaldia legetxe, berera ta igarri bagarik yoaten ñakee. Au ezta ezer. Medikua bear bada, dei egin daiogun Epikori.

— Ezer ezpadau umeak, ez ñor be deitu. Ezer badau, Begiri dei egin. Zer zor dauzsazu zeuk Aginbakori, bere otsein bat dirudizula ibilteko? Berak ekarri alzenduzan Berinoleagara? Don Donato bear dogu Teresatxorentzat.

— Gizon irakurria da Viñas be. Beti dabil liburu bat edo beste kaltzerpean dabela.

— Liburuak, liburuak! Badakit nik, Adonak gure Ana Mariri esanda, badakit nik liburu órrek zelangoak diran, Sorki edo Morkirenak, gizon uletsu itzal baten irudiak azalean daukezanak. Txarra-goak be baecidaukaz. Benetan dirautsut gero, bene-bene-benetan. Zeuk Ana Mari bialdu gura ezpadautsazu, dagoana dagoan lekuan itxita, neu kaleratuko naiz sendalari-billa, neu.

— Viñas gura ezpadozu, Lejarzegi or daukagu, Gumer.

— Txotxatuta dagoan agura zar ori geure alabatxo eder au sendatutera! Nor, esango leukee auzokoak, nor eteda txotxoago, Lejarzegi ala eurok, dei egin dauksenok?

Onetantxe ziarduala atean norbaitek ots egin eban. Berinoleagako mandataria zan, Aginbakoren eskutitz bat eskuan ebalatuta. Bus-

¹ (cachaza)

² (paciencia)

turik pàper au irakurrita, emazteari atzamarren ertzean eskini eutsan «Ikusi Isastik diraustana» esanaz.

— Eztot gura.

— Gumer, Gumersinda! —esan eutsan gogortxoago, papera urrun yaurtigita—. Begiri dei egin bear bađako, egin; baia gero egun bi barru zeuk ikusiko dozu gure etse baketsu au sustarreti Aginbakok eta Epikok atarata. Arren, emazte maite, arren! Dei egin daiogun orain ozkil oni, umea txarragotuezkero, orduan besteari; ta zeuk...

Ezeutsan emazteak amaitzen itxi: «Juan Andres —esan eutsan—, emazte esanginik munduan bada, banozu ni. Oraintxe be zure esana egiteko gertu nago; baia geure etsean zeu baiño beste ugazabarik ezagututeko ez, orretarako ez. Gaitz batek diputadugei, gabontz, ikusi be egiten eztozun ori, yoko baleu, Epikori dei egingo eteleuskio berak, Aginbakok? Eztozu, Juan Andrés, uste gure alabäk guretzat Morroskok osabäaren begietan balio dabena balio dabela?»

Au esaeran urduri-aldi batek yota, aulki-ganera bat-batera gorputza egotzirik¹ garraisika ta negarrez asi zan.

— Ana Mari! —deadar egin eban Busturik—. Ana Mari, zatoz ona, Jaungoikoaren alaba. Zoaz don Donatoren etsera ta len bai len datorrela, Teresatxo ondo ezik daukagula-ta.

Epiko, pozik, birloratuta, Teteri egindako bigarren eskutitza (lengoari ezeutsan erantzun Morroskoren arrebäk) maisuari irakurrita, eskolatik ostatuz egoan etsera txiztuka yoan zan. Urte aretan edonon zabaldua egoan habanera ziztrintxo auxe zan txiztuka yo ebana:

*¡Cariño!
No hay mejor café
que el de Puerto Rico.
¡Mi niño!
Si lo duda usted,
yo lo certifico.
Ya se ve que sí,
¡ay! ya se ve que sí.
El que quiera probar
cosa buena, cosa buena, cosa buena,
el que quiera probar cosa buena
que se venga aquí.*

¹ (botauaz)

Etixeratu zanean, Gumerrek esandako Sorki edo Morkiren liburu bat irakurten asi zan Epiko. Liburu onek, olandreak ziñoana, gizon uletsu itzal-itzal baten irudia eukan azalean eta bere ondoan, goi ta be, itz onek:

Obras de Máximo Gorki

2

Begik Bermeoko adiskide bati idazten ziarduan Busturi ta emaztea zarataka ta eztabaidan ebilzan artean. Ona emen Begiren eskutitzeko zerbait: «Berari arpegi-arpegira esaten dautsadana dirautsut emen zuri: gure Bekosolo *Quijote de Munguia* dala. Orain lau urte lez garaiz¹ esan ebala ta eztabela andik urtengo; aukeraldiak berez dakazan irazketai² erantzuteko eztabela atzera egingo, baia boto billa etsetik urten? Lenago gonak yantzi ta gorua erabilten asi. Boto bakar bat erosi? «Daukadazan diruak uretara yaurtigi gurago. Ez urratsik ez lobenik (*ni un paso, ni un cornado*)». Auxe diño ta auxe egingo dau, bizkaitarra da ta.

Arrantzale gizagaixoez diraustazun ori...»

Itz onetxek idatzita, lau i onei ganeko takadäa³ ezarteko be asti bagarik yagi zan, Busturiren otseina etorri zala emazteak iragarri utsanean.

— Ana Mari, erdu barrura. Zer dozu?

— Egun on, don Donato. Ugazabak aralditxo bat berorrek len bai len egitea nai leuke (¹). Auxe esatera nator.

— Zer dau ba?

— Teresatxo ondoezik daukagu bai? ta berorrek ikustea gura leuke.

— Don Pedro Viñas ezaldago urian?

— Bai, jauna; oraintxe ikusi dot, eskolati etsera doala, pozezko arpegiak, kapeläa eskuan ta txiztuka.

— Baetedaki Epi... don Pedrok ondoez onen barri?

— Ezetz deritxat.

— Ugazabari minutu bi barru an nabela esaiozu zeuk Ana Mari. Irada⁴ ezipazagoz, kartatxo au korreora eroan gura bazeust...

— Pozarren, jauna.

¹ (sasoiz)

² (gastuai)

³ (puntua)

⁴ (leiaz)

— Amaituten dodanartean, yezarri ortxe. Ostera, neure emazteagaz itz bat edo bi egitea gurago badozu...

— Bai jauna, andra Mikaelagana yoan naite.

Begik arako lau *i* orrek takadaz orniduta, beste lerro bi geitxoago ezarririk, itz onezaz amaitu eban Bermeorako eskutitza:

«Barri onak bialdu, atzo baiño obeak mediku itsusi ta epebako ta asti gitxiko autarki-batzaile oni.

Begi.»

Bere ezizen onen azpian, geienak taiatu oi daben ta zetarakoa dan eztakigun zirriborro bat eginda, azalean «Sr. D. Alejandro Gorostiola. Bermeo» ezarrita, iru semaiko¹ selloarentzat emonaz, esker andiak erakutsita, bialdu eban Ana Mari.

Bakartu zanean «Arranoa! —zinoan— Oraingo ikustaldi onek gitxienez ogei boto etseratuko dauskuz; eta Epikotxok txutxu egin dagian, urrundi baintorren edo urruna baininoan, zaldi-ganean bere sūrpeko zorrotzaren aurreti traka traka naioak.»

Mailladian² bêra, pozen pozez azbegiak argiturik yoala, goitik emazteak, «Donato —esan eutsan—, txapel zar ori daroak?»

— Egia! Ekarri kapelarik barriena. Diputaukuntzea galduarren, ogibidea beintzat, Busturiri eskerrak, eztoгу galduko.

Irribarre egin eutsan emazteak, soinekoai erraxkada³ batzuk emonaz.

Ana Mari Busturirenera ozta eldu izango zan, Arraitz sendalaria, *Perico* zaldia azpian ebalatzen, bere naikidea⁴ bizi zan kalean zear traka traka abiadu zanean. Epiko, trakada onek entzueran, ikusguzaz Gorkiren liburua lepoz gora maian itxita, leiora yoan zan. «Adona —apaltxorik esan eutsan etsandreari—, zoaz itsusi orren atzeta berorrek ikusi bârik, eta begiratu ondo nora doan. Yaieguna-ko⁽²⁾ yantzita, zer etedarabil mamu orrek?»

Arraitzek, Epikoren yakingureari asti geiago emotearren edo, zaldia geldiarazo ta zigarrotxo bat biztu eban.

Busturiren etsera eldu zanean, mutilko bati zaldiaren musukoa emonda, pozik yoian Begi zulubian gora.

Adona kale nagosira elduta, zaldia zein atariren aurrean egoan ikusirik, ibilkerâa bizkortu ta laster izan zan Epikoren aurrean.

— *Sacristân traidor* (Elizain azpisugea) —Bost bidar gitxienez esan eban Viñasek, geroago gogorrago—. Atzo nirautsan nik maisuari, Mungian morroskotar egiazkorik iru baiño eztaukaguzala, bera,

¹ (txakur txiki)

² (Zulubian)

³ *Erratz* escoba, *erratz* (itz barria) cepillo, escobilla, *erraxkada* cepillazo.

⁴ (rival)

Arangoiti ta neu. Beste guztiok Begiren aldeko morroskotarrak dira, eurok beste bat esan ta zurikatu gura izanarren. Adona, zoaz barrero ta bestela-baitakoan yakizu zeure aitzäagandik arzulo atan ze barri dan. Zeuk zeurez al badozu, sorotsizuz Busturi, emaztea ta eurakaz dauken otsoa.

— Esaten nëutsan nik berorri alperrik izango zala atean ezarri daben iragarria. Emen-e... mediku arazoetan-a...

— Eztaukat barriketa-gurarik, zoaz.

Adonak bere aizta Ana Mariren agotiko barri zeatz zeatzak¹ ya-kin eragin eutsazanean, buruko kapeläari egaletatik oratuta, surpekoaren ertz zorrotz biak alkar yoaz, zurbil ta etseko andrearen senar zanaren irudiari begira zurt, zer esan ezekiala, luzaro egon zan Gorkiren irakurlea. Amurruaren amurruz, eskilasoak eguraldi onetan egin daroen karrakada-antzeko bat eginda, batera ta bestera ebilen gero, uleai tenka, ostikoaz bea yoten. Biotz amurratua azazkateko, kapeläa esku-artean lauskituta, ormakondora yaurtigi eban, itz auxe esanaz: *Sacristan*.

Aulkian erdi yesarri, erdi etzunik, gogoketan luzarotxo egonda, zenbatak ziran ikusirik «Adona» dei egin eutsan etseko andreari arnasoska ta motelik.

— Ze atsegin?

— Ez niri itxaron bazkaritarako. Treviño badator, Bilbora yoan naizala.

Egun atararte iñoz kaleratu etezan Epiko gurea, ispillu-aurrean kapeläa arrotu, sürpekoa zorrotzu ta ñafarra² astindu bagarik?

Bera Bilbora-orduko, Mungia guztian zabal ziran goiz atako bariak. Eguerdian, bai kartago ta bai erromarrak, yateko baiño etorri bear eben yazoerak yakiteko gogo biziagoaz yarri ziran maian.

3

Epiko Bilbon

Bilbora eldueran, zuzen zuzen artu eban Viñasek don Anbrusen etserako bidea. Atean dei eginda, otseinak urten eutsanean «Nor zaraäala esango dot?» itandu eutsan.

— Don Pedro Viñas y Andrés — erantzun eutsan Epikok.

— Datorrela barrura, bertora, bazkaltegi onetaraxe.

¹ (muy circunstanciales)

² (gorbetäa)

Itz onek entzunda, atzera ateragino yoanaz «Sartzeko» esan utesan don Anbrusen otseinak.

— On dagiola.

— Eskerrik asko. Yesarri or.

— Ondo nago.

— Yesarteko, gizona. Ortze, neure aurrez aur, ederto. Ze barri dakak, Perico? Ezaldok nire eskutitza artu? —lebatz-zati bat erabilen oi-artean jauntxoak, au esaeran.

— Bai, jauna, ta eskerrik asko.

— Zer dok, mutil, orren zurbil, orren betazpitsu, orren eure moduko agertzeko? Zer dok?

— Zer dodan? Busturik sotanäa ezaban erantzi, yakepean darabil.

— Noiz ikusi dautsak? I be elizara ostera alabil? *¿La inoransia más que la siensia te gusta o qué?*¹ —ta barre don Anbrusek, ogimamiña ta arrain-mamurkinak aosabaian erakutsiaz.

— Isasti jauna, barri txarrak, guztizko barri txarrak dakartsadaz.

— Bazkalaurrean Gernikatik onak izan doadazak; kitu.

— Gernika ta Mungia bana dira.

— Arainegun aizea poparean, ta orain aurretik! Egun bi onetan orrenbesteragino itzulaztu etedakuz geure zerok?

— Nik kale-barruan Arangoiti, maisua ta neu, beste iñor eztaukat gure aldekotzat.

— Eta arainegun ik irauстана? «Urriaren bian betiko galenduko² doguz sakristaukumeok.»

— Baia arainegundik ona...

— Esaik, mutil, esango badok.

— Busturi bekosolotarra salduta daukagu. Erromarrakaz isileko artu-emonak darabiltz.

— Zelan dakik ori? Mayagueztarrak beti pekotsu, beti susmotsu, an, emen ta edonon.

— Busturiren etsera yoan da gaur Begi; ta, neuri beraren burua obeto erakustearren, neu bizi naizan kalean zear zaldi-ganean yoan be egin da.

— Euk ikusi aldok Begi Juan Andresenean?

— Neure otseina bialdu dot bertara; ak, Adonak, ekarri daustaz barriok.

— Egia eteda gero?

¹ *Ezyakiña yakituria baiño atsegiñago aldok?* Don Anbrusen itz ónek bere ezpanetatik erio ziranez agertu gura izan doguz.

² (eskrebentau)

Alde guztietara begiratu eban Epikok zerbait ikusi gurarik. Er-lax-ganeko Don Quijote brontzekoa, goialdean *New York: Brook-lins's Bridge*¹ eta beste artailu² merke batzuk bai, agiri ziran. Kuru-tzerik begiztatu al izan ezebanean, esku bietako atz erakusleak kurtzetara alkartuta, euren batûnean mun eginaz, *juro*³ esan eban Epikok.

Aginbakok añen biribil bat yaurtigita itz onek generatu ebazan: «Abade saskeltzarren bat dabil bitartean.»

— Orixe uste dot neuk be. Ta gaurkoa bakarrik balitz!

— Cataluña! Dakian guztia, astroliokeria bârik esaik esan.

— Amar bat egunean alkar ikusteko akiakula⁴ ederra dauke. Alaba bat makaldu ðakola zabaldu dau Berinoleagako kutxazai-nak; eta piper baten erretasuna baiño beste gatzik ezpadauko be, Begiren zaldia gaur ikusi daben tokian ikusiko dau erri guztiak aukera-egunerarte.

— Zer diño onezaz Arangoitik?

— Yakin dodaneko, lenengo lenengo berorregana ekarri nau ni neure eginbearrak, neronen arazoak. Eztot besterik ikusi gura izan.

— Goazan gaur bertara ta yakepeko sotana baltz ori yakega-nean yantzi-arazoko ðautsat; edo, bestela ogibidea kendu, olatik atara. Ordu bete daukagu trenak urten-orduko.

— Zerbait daukat orain egiteko ta berorrek gura badau, ordu-erdi barru bertora nator, nai gelunera⁵ yoan naite.

— Antxe alkar bat egingo ðoagu, gelunean. Oa bertara.

— Etsean? Tete ta Tomas ta Tibur ta Teo, guztiak ondo?

— Txarrik izan balitzok, esango yeusten.

Epikok urren zan yatetse baten gosea arindu eban. Jauntxoak otseinak ekarrirako ur epelez oiak maian bertan ikuzita⁶ gero, subu-ruko erlats-ganean⁽³⁾ eukazan ortz, iru egun aurrerago erosiak, amasei agin-nako ortz eder bi, goikoa ta bêkoa, ormazetan zelan edo alan, erpuru biakaz bultz eginda, erâtsi ebazan.

Oharrak:

(1) Orijinalean «nai leuke» hitzak ikusten dira baina ezabaturik. Dana

¹ New York: Brooklingo Zubia.

² (kuadru)

³ zin dagit

⁴ (pretexto)

⁵ (estazinora)

⁶ (garbituta)



dala, testuinguruan beharrezkoak dirala dirudi. Gipuzkerazko bertsioan «egiteko» ipintzen dau, agindu zentzuaz. Beharbada bizkaierazkoan be agindu kutsu hori emon nahi izango eutsalako ezabatuko eban «nai leuke», baina ez dau «egiteko» ipini.

(²) Gipuzkerazko bertsioan «yayeguneko».

(³) Elaberrian zehar hitz hau agertzen danean, beti «erlax» idazten dau eta oraingo honetan be gipuzkerazko bertsioan hala dator. Azkueren hiztegiak biak jasotzen ditu baina zentzu guztiz ezberdineko hitzak dira: «erlats» 'ronco, muy ronco'; «erlax» 'cornisa de pared'. Gure testuinguruan bigarren hau litzake, jakina.



XIV. Casus belli

1. Aginbako ta Epiko Busturirenera.
2. Ikustaldi iruskintsua¹.
3. Aginbako ta laguna Kartagora.

1

Sendalari gaztea Bilbora eldu baiño lénago zabaldu zan Mungian bera non zaneke barria. Begi, poza sinistu ezinda, etseak be ezin artuta, Erromara yoan zan, lagun artean goiz atako yazoera mamintsuak iruskintzera.

— Mutilkoak, guk ikusi bear doguz arratsaldean ikustekoak!! Gura dozue tema egin Aginbako gaur Epikogaz emen izan baietz?

Arratsalderdian, trena eldu baiño ordu-lauren luzea lenagotik gelune-aldera noizik noizera begiratu eroen dendarik geienetatik bat edo batzuk.

Eta Laukarizpeko atxulotik² urtenda, ke-adarrez erdi estaldu-rik, suburdia txistuka asi zanean, egunoko ikusgurarik geien ebilen gelune-inguruetan.

Ez alkarri ez iñori ezeutsen txit bat esan Bilbotiko bideztiak, Aginbakok eta Epikok, gelunea atzean itxita Busturiren bizitokira elduarte. Bai eurak begiz ondo negurtuak izan! Etse bat ezegoan kale nagosian, leioan ezpazan atean beintzat, ikusguraren batzuk agiri ezebazanik. Erroma-aurrean ate ta oinbide³-bitartean sei gizon egozan, atzerengo Begi, elizgizon morrosko andi baten sorbalda-ostean ostendurik.

Larrinoa botikarioak bere mintzo⁴ lodi zoliaz «Eztakutsue ezer berarizkorik jauntxoagan?» ziñoan.

¹ (visita muy comentada)

² (tuneletik)

³ (acera)

⁴ (boz)

— Esku-makillaa? Lêngo egun baten be orixe ekarri eban, ban-buzkoa.

— Ez, beste zerbait. Begiratu ondo arpegira.

— Surpekoa beti lez gorriturik ñakak, betaurrekoak urrebitsezkoak, egunero darabilzanak.

— Begiratu ezpanetara. Gizonak, gizonak! Non dozuez begiok? Agin barriak ñakazak.

— Etxakiat orixe.

— Baietz. Otxorio or etedabil? Otxorio, Otxoriooooo!

— Ezegioek esan Otxorio, bestela arriren bategaz yoko aue orrek.

— Nik etxakiat euron izenik eta...

— Gaztênari Julian deritxo, zarrenari Batista.

— Batista, oa eurakana, andikiak dozak, aberatsak; dirua emongo dauk. Oa ta esan egioek, uria ikustera badatoz, euk erakutsiko dautsezala emengo bazter-mazterrok. Zarrenari esan gero. Mutillak, jauntxoak izketan asitakoan ondo begiratu agora.

Otxorio gitxirena¹ eurakana eldu-orduko, Busturiren etseko atarian sartu ziran etorri-barriok. Gaztênak, Epikok, geldituaz «Gura dau ni ementxe geratzea? Nik, neuk, egi egia, gurago neuke» esan eban.

— Ez, mutil; gora biok.

— Orretarazkero sendalaria ementxe geratuko da. Azpisugearen etsera Pedro Viñas soil-soilik doa. «A casa del traidor solo va Pedro Viñas» ziran bere itzak.

Erromarrak eztabaidan ziarduen. Batek, Zabaletak, Larrinoak egia esan ebala zinoan, jauntxoak ezpanak urtentxo ekazala ta agin barridun etorri izango zala. Elizgizon sorbalda-zabalak, Begi zirikatzearren, besteai kiñu eginda «Gizonak —esan eutsen—, jauntxoari gaur urtu ñako, gaur amaitu ñako bere ezizena. Aurrerantzean, yatabear bere maistarrak oi dabenez, geuk be don Anbrus esan bear izango dogu.»

— Nori? —zinoan Begi sendalariak —. Aginak badaukaz, baitu-retseren baten² merkezaroan erosi izango dauz arlote orrek.

— Baia, Donato, nai merke dirala nai dirala gora³, aginak agin dira ta guk agindunari ezin aginbako esan.

— Zeugaz nago, don Biribil. Agin esango dautsagu; Agin, Aginbakoren orde. Neu be begi ederduna naizalako ezalnozue Begi izentatzen?

¹ (el imbécil)

² (prestamu-etseren baten)

³ (karu)



Algaraka, barre-zantzoka artu ebezan beste bostak Arraitzen itz onek.

2

Busturi etzan arritu Ana Mari otseinak don Anbrus ta mediku gaztea iragarri eutsazanean. Bere emaztea, ikustaldi au itxaroten ebalako, autsak zokondoetatik ondo kenduta gero, bestetan baiño apaiñago yantzita, alaba mindunaren ondoan isil-isilik egoan, zer yazoko etezanen arduratan. Bien artean senarra yoko eben bildurrez, otseinari «Ana Mari —esan eutsan—, zoaz aitzägana ta kalzterdiaz datorrela. Bizkor ibili.»

Senarra etsarian¹ zan bitartean, bazkaltegiko² bazter baten, lorontzi txikitxo-artean euken irudian zurt begiratuaz, Agur Maria bat eraspen³ andiz zuzendu eutsan ta irudi-aurreko txiribiria, oriotan katillutxo pitin baten eukan arkai⁴ tentan tatana izegita⁵ itxi eban. Gero Ana Mari ta Adona umeak yagoten egozala, beatzen ganean etsari-ondoko gelan, zaratarik egin bârik, sartu zan Gumer. Tamal andiz, bere belarriak bitarteko atea yoten ipini-orduko, auturik erdia aizeak eroan eutsan. Bere senarraren aldia zan.

— Eztauko zeri eraginik; irakurri gura eztaben erri bati yardun batek zauskada andiago eragin bear dautso. Guk Arangoitirenean lenengo ta Kartagon gero erabagi gebanez basauritxo guztietan yardunak, berbaldiak, dikurtsuak izan balira...! Bart izlari baltzu bat sortu genduan Kartagon. Ezeteda belutxo⁶ izango?

— Zer egin dozu zeuk, Juan Andres, diskurtsu orrek taiatu ta erriaren aurrean agertu bagarik?

— Nik Berinoleagan lan egin. Ementxe berberton eztauko orde-laria, orretan maisu dana? Autarki-batzailletzat eztauskue Bilbotik Viñas jaun au bialdu?

Isilaldi bat emen. Burdinbidean etozala, jauntxoak Busturi gordinik yan bear ebala esan zegikean.

Ostera zeinbat urrago, otzago ta lotuago egoan, batez be onen arpegi benazkoa⁷ ikusita. Alangoren baten, nondik edo andik euren

¹ (salan)

² (komedoreko)

³ (debozino)

⁴ (kandela)

⁵ (biztuta)

⁶ (berandu samar)

⁷ (formala)

isiltasun au eten bear eben ta bi asi ziran batera ezgauzaren bat esaten.

Busturik: Eta noiz...

Aginbakok: Gure alderdiko eletoreak gauza onik...

— Emen, garaitzeko, len azaldu neutsana —erantzun eutsan pozik Busturik—, diru andia bear. A! ta eskerrak Bekosolo marraskulu baten antzera oskolean sartuta egoteari; bestela...

— Bera ezarren, Begi yo ta su eidabil, Anton Imaz kokolo andi ori lagun dabela, auzunerik auzune.

Begiren izenak irurai zausk eragin eutsen. Isiltasunaren bildurrez zauskada ori zurikaturik eta berekiak eta antzekoak etziran gogamen bi alkartuaz «Ori egia —zinoan Busturik—, eta baserritarrek eztarabile beste geirik euren autuetan. Berori be asi zan, don Anbrus. Ekin baleutso, ekin, beste txorik kantauko euskun. Izlari baltzu barri ori naikoa ezpada, bertsolari batzuk ekarri leitez oraindino eta ardantegirik ardantegi dabilzala. Viñas sendalariak, gure erri onen odolotsa¹ artzen asi da-ta, onezkero badaki...».

— Egon bein— ziñoan Epikok, eta onetxek izan ziran bere lengo itzak—. Sendalaria bean geratu da, atarian. Ona, bizileku onetara, Isasti jaunaren adiskide Pedro Viñas soil-soilik etorri da.

Apurren baten zer esan ezekiela, mina zerbaitez lotuta baileuken, egozan irurak. Gumerrek errosarioaren laugarren arena² ezpan-artean erabilen. Epikok orduan, lengo ta oraingo zauskada Busturirenak bildurrezkoak ziralakoan, bizkortuta, min-min eginaz «Mediku bat datorren etsera —zinoan— bigarrena ezta etorten, berariz deitua izan ezik.»

Beste isilalditxo bat. Iruretarik auxe luzêna, arriskuz ernaldue-na³. Epikok Busturi, burua erdimakurrik ikusita, azpiratu-aginik eukalakoan, albokera ta irriz begiratuaz, itz gogor onetxek ebagi ebazan: «Lokabetasunaren gordetzaile izateko baiño azpisuge⁴ izateko egokiago da bein sotana baltza soineratu dabena.»

Esan baeban, esan eban. Burdin-adur goriak betseinean ikutu baleutso, etzan Busturi bizkorrago lerdenduko. Burua zut, bekokia tximurrik eta ezpanak zauskadaz dart dart ebazala, mediku mânluzeari begietara adi egoan azpisugetzakoa; ezpanetara gero, itz geiagoren eske bailegoan.

— Txotxolo, ozkil, txepetxa lez ipurloka abilen kaxkar ori!—

¹ (pultsua)

² (misterioa)

³ el silencio más preñado de riesgos.

⁴ (traidore)

Alango mintzorik¹! Etzirudian eztarrikoa, zer zan a! Aginbakok ezaban iñoiz bere erritar au edu onetan berotuta ikusi. Epikok, oar-kuntza bârik, yesarlekua atzeratu egin eban. Isilaldi au etzan ordu-rartekoak langoa.

Belarriak bitarteko atean yosita lez eukazan-emakumeak iñok baiño sakonagorik olajaun sumindua ezagutuarren, ezaban uste mendu ónen bero, ónenugarri, ónen aserrakorduna zanik. Kaleko entzungura geienak etse-inguruan batuta, obeto sorostearren, burua oker-oker ta begiak itxita eukezan.

—Azpisuge neu, azpisuge! Gaur nire azpikeriaren bat, ementxe, iruron aurrean ager ezpadagik, agertu, ortxe bêra, balkoi orretan bêra yoango aiz kálera, ozkil, buruarin ori.

Isiltasun labur baten urrengo.

—Lokabetasuna agominean artuta, guraso bati, berak ondoen deritxon sendalaria alaba gaizdunarentzat ekarteko eskubidea kendu gura zeuskioe, arloteok, bat orrek eta beste onek.

Adurra zerion Busturiri ezpanetatik, begietatik txinpartak. Kallean, itz egin gura ebanari «Ixo» oi danez esan bearrean, atz bat ezpanetan ezarrita isilik egon eragiten eutsen. Aginbakok apal apal ta gorputzari zirkintxo bat eragin bage «Mediku oba bat geure artean eukita —ziñoan—, eztozula ondo egin...»

—Mediku ohea non? Ezaldakizu Bilboko sendalari andi batek Arangoitirenean, oraindiño urte bete eztala, gure mediku yakintsu onezaz esan ebana? Au emen daukagula, zetarako gabiltzan besterik ekarten. Eta zuk, Isasti, atzo goizean igorri² zeustan eskutitz onetan ezyakinaren semetzat daukazuz Begi ta Bekosolo, Larrinoa ta Zabaléta, abade ta elizainok. Zeuk nongo Unibersidadetan ikasiak dozuz zeure yakituria andiok? Elizgizonak ikasten daben erdia bazeki, gaur lango amar zekike. Ezyakinaren semeak!

Jauntxoak, sare aretatik iges egiteko mailla ausi bat aurkitu ebanean «Arraitzek Madridenten lez Viñasek Valladoliden ikasi dau» zirauntsan.

—Valladoliden ikasi e? Bai barriketan ta zaplanderiak egiten. Zu, zeure zorionerako, elizkoia bazintzaz, emen dagoan prakestu au, Kartagoko sakristau lez egunero mezatara al-lebilke.

—Nik olango gauzetan, mediku jaunen zer orretan, eztakit ezer ta ezin agertu dagikedaz onen ikaste andiak.

—Beronek agertu dagizala— irribarrez ta otz otz erantzun eutsan Busturik.

¹ (agotsik)

² (bialdu)

Epiko ilda lez egoan, zurbil, giltzetako zanetan odol illuna agiri ebala.

—Baia norberak norbere burua ezin goratu— ziñoan indianu arrituak.

—Ezetz? —Lengo irribarrea baiño be otzagoaz zerraion Busturik—. Viñas sendalaria atarian geratu ñaku; ona, bizileku onetara, don Pedro Viñas de Andrés soil-soilik etorri da. Don Pedrok emen diñoana eztau Viñas medikuak andik entzun al izango, ikaste ta onespén andi orrek isiltxorik edatsiezkero. Zetan gara, don Pedro? Zeure erantzunaren zain nago aspaldion.

Gorantz ta beranzko arnasaldi antzitsu baten ostean, begiak lotsaz itxita «Nik, nik —zinoan Epikok— eztoz izan zu mindu ta irianduteko gogokizunik¹».

Samurtzen asi ekion Busturiri biotza itz apal motel ónek entzueran; baiña bere buru irianduari zor eutsan begiruneak² itz mingots ónek ekarri eutsazan ezpanetara:

—Viñas jauna, irutatik bat: edo azpisugea naizan agiriak argitara, edo parka eskatu, edo bestela ementxe bêra dago kalera-bidea.

Azken itzok ezkerreko eskua pendiz³ aldera luzatuaz atara ebazan Busturik; eta gero koratilloaren⁴ botoi-artean, erpurua ta atxikarra ez, beste iru atzak sartuta, begiak zabal zabalik, jauntxoaren bekokira adi gelditu zan.

Viñasek, amurruzko negar-tanta gora etorkiazanai (*sic*) biderik ez emotearren, begiak indarrez itxita, gorputz guztiko dardara andi baten urren, itz soil, durundi bageko bi ónek ebagi ebazan:

—Parkeske nago⁵.

—Parkeske zagozala diñozunezkero, amaitu da emengo arloa— zoli zoli erantzunda Busturi bere burua askatu baileutsen, zutundurik beti betiko mintzo⁶ eztarritikoaz arrotz biai esan eutsen—. Gizonak, nik eztaukat zeresan geiago. Zeuok?

Onek be, biok zutunduta, ezer erantzun bârik, atera-bidea artu eben. An, urtêran, ez zino minorik, ez esku emoterik. «Agur gizonak» esan eutsen etseyaubeak eta alantxe ta atantxe amaitu zan egun atako ikustaldi iruzkintsua.

¹ (intentzinorik)

² (errespetuak)

³ (balkoi)

⁴ (txalekoaren)

⁵ *Pido perdón* izan ziran bere itzak.

⁶ (agots)

Goiko atea barrutik zabaldueran entzuniko txilin-otsak ataritik tokiak artuala lagun kaleratu ebazan, kalekoak alkarri bultzaka sakabanatuaz. Zulubian¹ bêra gorpu baten ondoren lez etozanentzat axe zan unerik, tangorik apalgarriena, lotsagarriena.

Urian gitxi gelditu zan gizonik, eta emakumerik ez asko, arratsalde atan kale nagosira yo bâkorik. Guztien begiak amazpigarren etseko atari-agoan euken euren soen itua². Andik Kartagora kale-erdia baiño geiago igaro bear eben jauntxoak eta bere autarkibatzaileak. *Zer da dedua?* beinola itandu ebanak ezeukan zeri itandu *zer da lotsäa?*, arpegian agiri eban lotsa gorria-ta. Bêra begira yoazala, Otxorio gitxirenak³ «Jaunak —esan eutsen—, uria ikustera badatoz, geuk erakutsiko dautseguz emengo ingurumari guzti-guzti-guztiak; geuk, geuk, geuk.»

— Ken ortik, iñusente arrrrraio orrek!

Aginak orduantxe erakutsi ebazan don Anbrusek, banbuzko makila lodia yasota, amurruz; agin zuri ederrak, inoiz ezer txikitu bagako aginak.

Egun atan Busturiren izena, lengo aldean baiño be begirune ta entzutetsuago egin zan. Aldeko ta aurkari, kaletar ta baserriko, adiskide ta arerio, ezagun guztiak lotsa andiago izan eutsen aurrerantzean. Gumer, bere emaztea, bazkaltegiara aurt eginda, euren seme, aizta biren urrengo seintxo urtebetekoa bularrean ebalá, arroarren egoan, sein matrailla-gorri au aitaren antzekoa zalako.

Kartagoarrak, agirienak beintzat, euren batzokiratuta, geienak, *demokratak* izanarren, non yesarri ezeukela, zutunik egozan batzar-bitartean. Epikok, gaizdun bi ikusi bear ebazala akiakulatatzat artuta, laster itzi eban utsik bere aulkia. Etsean sartu zanean «Nire billa iñor badator, eznagoala» esan eutsan Adonari.

Erromarrak, ango barri yakiteko gutarturik⁴, gogo bizidun egozan, eta batean Otxorio, bestean mutilko azarturen bat Olaberen gozogintzara zerbait eroatera bialdu eben. Alperrik, «Sarrezinak izan ziran Kartagoko berin-esiak (las vallas de vidrio de Cartago fueron impenetrables)» esango eban Epikok *El Eco de Vizcaya*-n, onetarako gogaldirik izan baleu.

Batzar bat ez baten ezaban jauntxoak gau atakoan baiño itz gi-

¹ (mailladian)

² (el blanco de sus miradas)

³ (imbéciles)

⁴ (ansiosos)

txiago egin, betaurrekoak meatzago¹ erabili ta egia geiago entzun. Treviño maisuak ez, beste guztiak esan eutsen txarto egin ebala Busturiri arpegi artzeaz. Epikori errua egotzita, bere burua zuritu zegi-keala, ezaban don Anbrusek murtik egin; bear bada, erri guztiaren aurreko lotsariak gogoia abaildu eutsalako. Arangoiti izan zan, be-reber² zalako edo, zorrotzen ta luzaroen ekin ebana. Bere aburu³ bat guztiak aintzat artuta, bera ta alkatea, gaututa gero, kartagoa-rren izenean Busturiren etsera yoan ziran.

— Juan Andres —esan eutsan Arangoitik—, gizona aiz i ta gizo-nez artu dozak emen izaniko arlote biak. Arrera obarik, itz biguna-gorik etxoek merezi izan. Nire ezpaneaz alderdi osoak diarduk izke-tan. Erri guztiak buruz dakizak ik batari ta besteari zuzenduriko itz adoretzu, gizonetzkoak. Kartagoarrak, onezaz ganera, euren atse-giña obeto erakusteko, euren artean euki gura abe gaur, ta ator geu-gaz, arren!

Bost minutu geroago Arangoiti ta alkatea Busturi erdian ebela ikusi ebazan Larrinoa botikarioak, Kartagora yoazala. Baia ez be-rak ez beste erromarrek urrengo goizerarte ezeben ango barririk ya-kin al izan.

Zenon Aspek, goizean goitzxo okintzara⁴ yoanda, bere adiskide Andraka zarragandik ase al izan eban bere barri-gose andia. Zeno-nek Larrinoari, Larrinoak seme bizkorraren bitartez erromar agirie-nai dei egin ta goizerdirako bala-bala ebilzan Mungia guztian aurre-guneko barriak.

¹ (gitxiagotan)

² (independiente)

³ (eritxi)

⁴ (panaderiara)



XV. Bidaldi bat

1. Santi Latsibi, Likanora ta Manuko bidez.
2. Begi eurakaz.
3. Baparra-biparra.
4. Itxasoaren aurrean.
5. Gaztelugatxen.

1

Santi Latsibi, amabi egun osotan yagi b̄arik eta gaixondoan beste zortzi igarotakoan, errana ta birloba Manuko lagun ebazala, Gaztelugatxerako bidean, egun-usaiña artu ebaneko, lokatu zan, igitu zan. Euren elizaldetik, zuzen yoanda, Bakiora ordu bitan zelangura sartu baiño ezeukela, gurago izan eban Mungiara lenengo yo ta andik bidebarriz bidebarri itxasondora eldu. Onelan ordu ta lauren, gitxi yota, luzeagotu ekioen bidaldia. Aurregunetako sendailuak¹ ordaindu bear ebazala ta Larrinoarenean sartu-urtenantxo bat egin gura izan eban Likanorak. Santik beste egotaldi bat eragin eutsen; Begirenean au.

Ezetariko atzerapenik ezeutsen erakutsi Arraitz sendalariaren emazte Mikaelak, goiz-ikustaldi au gora b̄era. Santik, iru bat atz txapela goratuta, Gaztelugatxerako *promes* bat eukala esan eutsan, makalen egon zan gabean egina, ta goizaro ederra ta bidaro ona eukazanezkero, orduantxe yoala, errana ta birloba zarrentxoia lagun artuta.

— Au dozu orduan Manuko? Donato gure gizonari entzunda dakit ikast̄etan guztizkoa ta ostein be yaseko mutilla datorkizuela.

Agur̄aa pozezko adurretan ipinteko ezin egikean andra Mikaelak itz egokiagorik ezpanetaratu.

— Donato zerera yoan da hmm! zerera, zelan deritxo Beñakati

¹ (osagarriak)

gorako auzuneari? Angoxe etsaguna zuritu bear dabela ta kafeznea zurru-zurru artuta yoan ñaku.

— Babil bera, egunokaz batez be.

— Ori esaizu, Likanora.

— Eztot gura izan, andrea, berorren senarrari «Egun on» esan bârik bidez asi.

— Eskerrik asko, Santi. Esango dauosat berari. Zu zeu beti-betiko-a zagoz, gizabidetsu, bizkor, zala.

— Ai andrea! Eritxi baten bai; baia urteak aurrera doakidaz, lepoa makurtxo darabilt eta atxurra ta laiak egunean baiño egunean astunago dodaz.

— Etorriko ñatzuz indarrok, Santi. Ondo ibili, ba, ta ikusiarte. Egon bein, mutilkoari galleta bat edo bi emon dagiodazan.

— Buruko zimeran daroat gosea zezaz il. Ez yaramon, andrea.

— Egoteko, arren!

Manukok arturiko galletak sakeletan sartzen ziarduanartean, zulubian¹ bêra irurak etozala zarrak erranari «Senarra ta emaztea bardinak» zirautsan.

— Biotzez bai, arpegiz ez.

— Orretan zer-esanik eztago. Eztaukaz beronek atarriak makalak! Ta begirakune masal ederra? Ta azala? Azalaren urdiña!

— Gu lez soloan, eguzki ta euri, balebil...

— Txotxo, oraingo yaten asita, Bakiora-orduko apurrik be ez-tok arean eukiko.

Manuko erdian ebela, txairo yoazan Latsibiko ginarraba-erranak, Goyeta eritxon auzunetxoan, Arriolarako bidea eskuman itxita, bêak bêra.

— Txotxo, eztakusk an, bost etseko mortxaka atan, bat, buztina gordinez egina, eskutarri² ta guztikoa? An, txotxo, an, ereiñotz andi baten atzetxoan. Trobika ñok etse ak izena. Antxe yaio zoan arako Matxin, Matxin mungiarra. Ezetedausk iñoiz Atxulaur maisuak Matxin nor zan azaldu?

Soinak gora eginda erantzun eban Manukok, agoa galletaz betarik ebala, nai Matxin nai Patxiko bardin ekiozala esan gura baileban.

— Inguru guzti au be, Matxinen yaiotetse ta auzunea lez, Trobika izentau ñaroagu.

Onelantxe azaldu eutsazan aitaitak alde atako etse, sakon, zabal, ganalde ta troka agiri zirianen izenak: Gondramendi, Elordi, Elor-

¹ (mailladian)

² Larraunen *mazmarro* da eskutarri (escudo de armas) au.

diko beresia, Beñaka (B ta guzti, Meñaka esan oi dogun baserri oskoltxoa), Txakurzulo, Elordigane, Olalde, Trobikoerrota, Trokoe-tse, Barrene...

— Ataita, an, gantxo atan agiri dan etse, torre ta guztiko etsea, elizäa eteda?

— Bai, laztan; Santa Marina ðok izena.

Laraurin ezeben atsedetik artu. Herodesen yauregitzat egina dirudian etse andi, Panticosa izendun urastegia¹ geratzaka ikusita, aurrera yoan ziran, erderazko izendun etseai begiratu be egin bage-rik.

— Mutil, bâldakik orrako mendi eder ori zein dan?

— Ez! yakin bârik! Yata. Or zozo-abiak be badagoz.

— Ori dok, ori! Ezkerretara agiri dan au Tailu dok. Aurrez aur daukagun ori, Obargane, ta eskoako au Sollube. Beste eder bat ða-gok, emendik eztakuskun bat; Burgo ðok izena; eta aren azpiko uri andi arraintsua Bermeo dok.

2

Onetan-orretan, Bidebieta deritxon bidekurtze batera eldu baiño lentxoago «Aiko an Periko» esan eban Manukok. Alantxe zan, izan be. Begiren zaldi Periko zan Bidebietako tabako-dendan, leioko burdinsareari lotuta egoan zamaria.

— Orduan beronen yaubea ezaldok asao²— zinoan Santik. Bidebietara bertara yoeran, mutilkoak amaren ostetxoan ostu eban burua. Santiren barbaroa entzueran, Begi, esku batan⁽¹⁾ lauortzean³ sarturiko lukainka bat, beste eskuan ardaoz erdi-beteriko edontzia ebazala, agertu zan.

— Begiren ordez Belarri esan balegide, ezleukê guzurrik esango. Santi dala neuk eta Santi, Yatabeko alkate zârra. Likanora, zu be bai? Aurra! Barrura biok zerbait artzera. Nora edo zetara zoaze biderik bidarte, ginarraba-erranok? Latsibigaz naikoa ez ta beste etse- ren bat erostera?

— Gu, jauna —zinoan zarrak⁽²⁾—, iru gara. Tira, txotxo, oilas- kotuta or egon bage.

— Manuko zeuekaz dakazue? Orra ederto. Ama ta aitaita ken- duezkerok, iñok ezau, txotxo, nik baiño maiteago. Ta ager adi. Santi,

¹ (establecimiento de aguas termales)

² (urrun)

³ (tenedorean)

zino-mino b̄arik ementxe gosalduko dozue irurok. Autso, maite, lukainka-mustur au.

— Ez, jauna, eskerrik asko. Bakion gara gosalduteko, orduko sabelzorriak usigi ezpagaiz — esan eutsan Likanorak.

— Zetara zoaze zeuok? Aideren bat il edo...?

— Berorren emazteari, an izan gara ta, esan dautsagu Donianegana, Gaztelugatxera goazala.

— Gaztelugatxera irailaren azkenetan!!

— Makalen nengoan gauean otu ekidan, don Donato, promes auxe egitea; ta ara goaz.

— Ederto, Santi. Gero neuretzat be zerbait eskatu bear dautsazue atx-ganeko santu ederrari.

— Zer gura dau esatea?

— Boto-arazo onetan estu gabiltzala, estu ta larri; ta lagun daki-gula.

— Orren estu ta larri ibili ta ónen gogaldi onez egon?

— Gogaldi ona egurats¹ garbia baizen bearra dau osasunak. Edan, Santi, zurrutatatxo bat. Olantxe. Orain barrura.

— Ori ez. Belutuko litzakigu ta, eskerrik asko.

— Aurra, gizona! Urdaileko litisik eztakar onek-eta.

— Estu dabilzala ta bart beorrek eroaniko barri arezaz Yatabe guztia zororik!

— Ai, Santi! Atzo arratsaldean asarre ziranak, gaur len baizen txatxan, adiskide mamin, ikusita estutu ez?

— Eztakit orren barri.

— B̄aldakizu onezkero atzo Busturi ta Aginbako asarratu zirana.

— Ori bai.

— Arratsean Arangoiti ta alkatea Busturigana yoan ta ondo esanen ondo esanez bigundu eben ta Kartagora eroan be bai. Andraka zarrak goizeon Zenon Asperi esanikoak dodaz barriok. An, jauntxoak Busturi ta Arangoitiren eskabideai amen amen eginda, guztiak gogaidero² alkarren arteko meniak³ egin ebezan. Eskabide bi egin ebazan Busturik; beste bi bere adiskide andi Arangoitik.

Lenengoa: Morroskoren diputaunaitasuna eztaiteala, orainarte zanez, *candidatura liberal* izan, *independiente* baiño. Bigarrena: elizearen aurkako⁴ itz bakar bat, ez agoz ez agirietan, eztagiela eraku-

¹ (aire)

² unánimemente

³ treguas

⁴ (kontrako)

tsi. Irugarrena: botoak erosteak bada, ez bata ez bestea ez tirala aukeraldian sartuko. Laugarrena: alkartasun au oraingoxe baiño ez tala.

— Aginbako ta besteok bakeak eginarren, nik Bekosolo garailari izango dala uste dot.

— Bai neuk be, Santi; baia, esan oi danez, atzak bete lan izango dogu.

— Eztau orduan besterik gura Donianerentzat..

— Gitxi deritxazu aukeraldi onetan yagola ta yaurri¹ izateari? Manuko, ator ona, neugana, maite maite aut-eta. Baldakik euk Gaztelugatx non dagoan?

— Ez, jauna.

— Urrun dagok a, asao. Nekatu bear dok, gizagaixo orrek ararorduko. Onantzean oba egingo dok Andrakaren zalkurditxoan² Mungiaratu. Geurera etorriko aiz gero gaua igarotera ta biar goizean nai bazkalondoan Perikok trapa-trapa, igarri barik, eroango gaiozak biok Yatabera.

Eskerrak bat-batera emon eutsezan amak eta aitaitak. Mutilkoa, txapela eskuan ebala, pozarren, irribarrez ta isilik, belaunetara begira gelditu ekion sendalari esku-zabalari.

3

Alkarregandik banatueran agur andiak eginda, Santik barrua samur samur ebala «Likanora —zirautsan erranari—, auxe be bada; guk onelango gizon bati botoa ukatu egin bear.»

— Baldaki, aita, nik euron azalean banengo, egingo neukeana zer dan? Maisterrez, maisterrek diran aldeti, Morroskori botoa opa ta erakutsi; gizonoz barriz, gizonak diran aldeti, Bekosolori emon.

— Ori guzurra esatea baiño be dongago litzate, Likanora. Iruzur egitea litzate ori.

— Nai iru zur, nai lau zur; nik euron azalean banengo, orixe egin ta aurrera.

Manukok, medikuaren maitagarritasuna gogoratuta, matraillaertzak barruko pozak izegirik³ gorri gorri eukazan.

Inguru aretako etse batzun izenak aitatu eutsazan Santik mutilkoari: Elezpuru, Amezti, Atxurraga, Landabarrene, Larragane ta

¹ (tutore)

² (tibulitxoan)

³ (bizturik)

beste asko. Eta bere nekaldia âzarazoteko, ipuin bat edo bestetxo nastaurik, Bakioko elizondora eldu ziran gure bideztiok.

— Manuko, adi ara... gorago. Zer dakusk?

— Elizea.

— Basauri onek zelango uzena¹ daukan baldakik?

— Bakio.

— Bakio, baketan aparta akio, ezelan al bâkio.

— Orren gaiztoak aldira bakioarrak?

— Gaiztoak ez, Likanora; bigun-bigunak dozana, txeratsuak; arrera ona egiten ðakine arrotzai² etseondoragino. Etsera elduezke-ro txakurra barruan gaiztoa.

— Esku-zabalak eztirala esan gura dau orrek, ezta?

— Txotxo, gero onelangorik ez euroi aitatu.

Bakion, Mundaka-Bermeoetan atsoren batzuk, gaur eta atxina, nongura edozeinek iru gizaki³ bidez datozenai «Bazatoz» esaten ðake; geldi, zeri nakio dagozanai «Bazagoz»; eta soloan nai etsondoan zerbait egiten daragoioenai «Biñarduzu»; urruntzen diranai «Bazoaz», datorrena ta dagoana ta dinarduana ta doana bat baiño ezpailitzan. Gure bideztioki, okotz-aldean bizar zarratua eukan batek «Ona emen Santi be. Etsekoak aldozak ónek?» esan eutsan.

— Bai, Garategi, errana ta birlobatxo zarrena ðoadaz. Okertu ezpadagi, mutila izango ðoagu berau.

— Bizkorra bai beintzat eta marota⁴. Yatabeti zeuok berau oiñez aldakarzu?⁵

— Bai ta gero ez or Zumintzagan bêra, Mungiako kalean zear ta bidebarriz bidebarri baiño.

— Txotxo, ni baiño sendotxoago aiz. Gaztelugatxera, e?

— Arakoxe asmoa artu dogu, eguraldia be ederra daukagula-ta.

— Orixe ondo. Tira ba. Bêti, bakizu Santi, bêti urrago, parajea-go; baia goiti bide ohea.

— Batau be ezkagoz gu auntzak lez ibilteko taiuan.

— Osterarte.

— Agur, Garategi.

Lau urrats⁶ ozta emonda, Manukok aitaitari belarrira agopean «Laietan bâldaki gizon orrek?» itandu eutsan.

— Lurrean ez, itxasoan egin ðok orrek laietan luzaro.

— Ez sinistu, maite; itxasoan etxagok laiaririk.

¹ (izena)

² (kanpotarrai)

³ (personas)

⁴ (galanta)

⁵ gaur geienok *aldakazue* esaten dogu.

⁶ (pausu)

—Laster ikusiko doagu itxasoa ta orduan ikusiko dok, laztantxo, nor dagoan zuzen ta nor oker, ire ama ala ni— irribarrezka zinoan agureak.

4

Beingo baten begiztau eben itxasoa. Mutil bizkorra «Eeeene» esanda, agoa ta begiak zabal-zabalik zer esan ezekiala luzaro egon ñaken. Arrigarria zan, izan be, latsibitarrai zartadan opa ekioen ikuskizuna. Arrastakulon asi ta Atxuloperagino, Bakioko latsagoa¹ erdian zala, zabal-zabal, norbaitek ibilpidea neurtu baileutsen, ondartzara urreratu ta legorra baiño ogei bat oin atzerago austen ziran ugin², esmeraldazko ugin ederrak, irunan irunan, euren arteko balditxoak irunatu oi ebezala. Ondartzan, apakin³ urandituai bultz eginaz, al ebenik goren igonda gero, euren bitsa itxas-barrura ostera eroan nairik egiten eben indarraz abislaiko⁴ txirla-azal ta txutxurru-txuak itzul-mitzulka⁵ dandarrez pustilla-artean ñoakezan. Eta barriro gora ta barriro bêra, ausi ta osotu, apakinak ekarri ta apakinak eroan; onelantxe ebiltzan, beintxo be gelditu bagerik, Manukoren begi zabal-zabalduen aurreko ugin ederrak, beti loka, beti garbi, beti ikusgarri; goiz guztian ta goiz guztietan, eguzkiak lenengo goizari argi egin eutsanetik onakoan, geratzaka, nekatzaka, aspertzaka.

Santik itxasoa baiño be pozagorik ekusazan bere birloba kutunaren azbegi⁶ birloratuak; eta bere ederrarren antxe, ondartzaburuan, gosaldu bear ebela esan eutsan erranari. Gosalbitartean zazpi bidar gitxienez entzun eban mutilkoak «Yesarri adi, laztantxo, itxasoa gero be or izango dok eta.»

—Eeeene! —esan eban bigarrenez berak, Bilbo-aldetik Donostialderako zuzenbidea ekarren ontzi bat, lurrun-ontzi bat, ikuseran—. Aitaita, zer da au ketan datorrena?

—A, gurdia, itxas-gurdia⁷.

—Ez sinistu, neure eder orrek; ontzia, itxas-ontzia esaten ñakok olangoari.

—Ta zetarako egiten dau kee ta kee?

¹ desembocadura del arroyo

² (olatu)

³ Itsasoak dakarzan sastar ta saskarrak *apakin* dabe Lekeition izena.

⁴ de la vertiente

⁵ (bira-biraka)

⁶ (facciones)

⁷ Bizkaiko toki geienetan *burdia* esaten da; Txorierrin barriz, Gipuzkoan lez, *gurdia*.

— Uste dok an barruan datozenak yan bârik ibiltekoak dirala? Arek be, geu emen lez, bazkaritan ðagozak; guk bazkari otza, arek beroa eukitea; etxaukaguk beste alderik, beste goi-bêrik.

— Eta atzean, buztanpean, bits andia agiri da. Jesus! Amak bogadan aldagarriakaz ataraten dabena baiño eun bidar andiagoa!

— Bakik a zer dan? Laietan ðinarduek, ura laietan.

— Ez, txotxo, sinistu.

— Eeeeeene! An asao¹ izara andi bat, bi, iru. Zer dira arek?

— Ez itandu aitaitari, gogaldi² onegia ðaukak eta. Neuk azalduko dauat arek zer diran. Bermeora arrainaz datozen txalopak dozak. Iru baiño geiago ðatozak, bai ta!

— Gura dok, laztantxo, biok arrainetara yoatea?

— Eta gaur arratsean don Donatorenera zelan yoan ni?

— Egia dok. Goazan orduan geure bidean, Donianegana.

Egun atararte Santik, birlobäa goratu ebanetan bere buru, arpegi, biotz ta gorpuzkeräa aitatu eroazan: burutsua zala, arpegi ederrekoa. Biotz bat barriz samurrago, errukiurrago!! Ta gorpuzta goiz-oilasko batek langoxe txairoa ta ziratsa. Egun atatik gora beste zerbait eukan aguräak mutilkoaren goresgarri: oiñak eta bularra.

Ostienen gora Urizarreta-ganera yoazala, Manuko txori batzuri arrika ebilenartean, ginarrabäak erranari «Badakusna gure mutilkoa? —zirautsan—. Amaika urte bete bârik eta begiratu berorri, goizeko seiretatik ona, zazpi ordu asko gitxiago eztirala yesartzaka ta nekeusain bage. Beronen adineko beste bat etedago, Likanora, inguruotan, urtez urte, ibilpide sendoagodun mutilik?» Eta berari begira «Manuko —esan eutsan garai ta zoli—, ezegizak txoritxuok il, ama ðaukek-eta.»

5

Urizarretara elduta, aldatz pike baten bêra asi ziranekoxe ikusi eben Gaztelugatx. Gaztelurik gaur agiri ezarren, bertara igonda ikusi dagikez orregaitino, arresi zâr, guztizko zabal sendoak; euren artean, amama izurtsu ta azur-gogor batek sein samur guri-guria altzoan lez, elizatxo bat dauke arresi orrek euren aldean, zengle, txatxar, elizpe ta guztikoa. Astiro ta nekez garairatu ziran gure bideztiak. Erdi-inguruko maillaburu baten, laugarren atsedeen-aldian, izerdi otza giltzetan³ bêra eriola, Santik erranari arnasoska ta larri-

¹ (urrun)

² (umore)

³ (lokietan)

txo «Gureak egin dau —zirautsan—. Urte ta erdi da azkanengo emen nintzala ta orduan, gaur Manuko lez gelditu bârik elizaratu nintzan; gaur barriz... gureak egin dau, Likanora!»

—Zer gura leuke ba? Sendailu-artean gaur zortzi ta daburduko txoriturik egotea? Goizeon esan dautso medikuaren emazteak indarrok etorriko dakiozala, baia geldi-geldi. Eta senarrak baiño be geiago yakiten dabe orrelangoak.

— Bai, zera!

Elizpean, aitaita poztu nairik, Likanorak mutilkoari ormetako idatzi ta iragarriak irakurri eragin eutsazan.

— An goian zer ñok, txotxo?

— *Se suplica que no se escriba en las paredes de este Santuario.*

— Zer esan gura ñok?

— Santutegi onetako arresietan ez eskribietako.

Gaztelugatxeko elizea gaztelutxo bati dagokion erakoa da, txiki, tutu, tatana. Au gora-bêra iru opalmai¹ daukaz: nagosia, burdinsare-artean datza; beste biak esker-eskuma, arresiari dautsela, orma-kontran. Erdikoan, goitxoan, Andra Mariaren irudi bat agiri da, soineko zuri ta soinganeko urdinduna. Aren bêko aldean Donianen burua ekusen, erratillu² andi baten, bizi-bizia zirudiala; eskumaldean santua bera, basamortuan bizi zaneko soinekoz yantzita; ezkerraldean Paduako mirarigina, San Antonio, bizkaitar zarrak esan eroenez «Askoren biotzeko santu debotua.» Alboko altara bietan kandela bi³ egozan zoko-bazter baten izegita⁴. Linakorak euren aurrean arkai lodi ori-gorri bat irazegi eban, eurak baiño andi ta ederragoa.

Iru bidezti latsibitarrak belauniko, besapean euskarritxo bat bagarik, ordu-lauren baten bost areneko errosarioa errezadu eben. *Kyrie eleison*-etara eldueran, orma-ondoko lanka⁵ baten yezarri zan Santi. Manuko be bai laster aitaitaren egaltxoan. Likanora etzan lokatu. Euren egiñena amaituta, amar bat minututan isilik gelditu zan agurâa, ama-semeak elizako ikusgarriak araketan⁶ ziarduen-artean. Iru abe andi ikusi ebezan, tellapetik burdinazko bantzuz⁷ gogortuta. Lenengo abetik argiontzi⁸ boskoitz bat egoan gingilizka, azal gorriz estaldua; ebangelio-aldean iru tantaিদun fragata bat, epistola-aldean beronen bikia zirudian beste bat eta ganera arrantzarako ba-

¹ (altara)

² (fuente)

³ (arkai bi)

⁴ (biztuta)

⁵ (banku)

⁶ (ikertzen)

⁷ Mungialdean *bantzu* contrafuerte da.

⁸ (lanpara)

por¹ txiki *San Antonio* izendun bat. Beste abe bietatik itxasontziak esegita ikusiarren, *San Antonio* baporak bete eutsan Manukori begia. Aitaitagana belarri-ondora yoanda «An —esan eutsan— gauza ederra, aitaita». Santik, bere begi negarrez bustiak birlobatxoaren ederrarren erakorita² «Zer, laztan?» itandu eutsan.

— Yatabeko elizan orrelangoxe bat balego e?

— Yataben gurdia katae bateti eskegiko doagu, idi ta guzti.

Au esaeran, Martiko eguraldian eguzkia ta euria lez negarra ta barrea agertu ziran Santiren begi ta ezpanetan.

Elizpera urtenda erranak «Zer dau, aita?» itandu eutsanean, Santik «Gaurrarte etxatana, Likanora, beste onenbeste yazo; letaiña nik yesarrita esan bear.»

— Gaixondoan letaiña asko esan aldauz berorrek berorren egunetan?

— Ez, ori ez.

— Orduan ez arritu. Orrenbeste edonori yazo lekio.

— Beste zerbait gomutaratu dat santu andiari begira nagoala. Ogeta amar bat bidar izan nona emen, gitxienez; aurtengoa azkena— Bigarrenez be —Aurtengoa azkena, Likanora— esanda, negar egin eban Santik, negar be lodi ta malkotsu.

Emakume yasoak Manukori txutxumutxuka zerbait belarriratu eutsanean, mutilkoak «Aitaita —esan eban— an asao³ mendi-muturrean eliza bi agiri dira, auxe baiño be tatanagoak, torre ta guzti, baia txilini ez, arean. An. Zelango ermitak dira arek?»

— Nongo ermita ta ermitondo! Ez, laztan. Matxaku deritxakok mendi-mutur orri ta torre zorrotz orrek eztozak elizatxirrinak, argitxirrinak baiño, zarra ta barria. Ez aldok inoiz entzun Matxakuko farola au ta ori ta bestea?

Mutilak buruaz ezezkoa egin eutsan. Likanorak orduan «Aurra! Goazan orain baretxe baretxe, etserako ordua dogu ta» esanaz, iru latsibitarrak ibiltan asi ziran.

— Esatea da —zinoan Likanorak berak— bik eztabezala bardin kontetan Gaztelugatxeko mailla ónek. Asi zaitze biok, aurra! Bat, bi, iru...

Mutilkoa bizkor asi zan ibiltan ta zoli-zoli «Bat, bi, iru, lau» esaten. Agurea begiak ondo legortu b̄arik mutilkoari yarraika ta bera lez armailak zenbatzen asi zan. Likanorak bere barruan, eurak atan ikusita «Zein etedot umeago —zinoan—, zar au ala an b̄ak b̄era bizkor doakigun mutil babalora ederra?»

¹ (lurrenontzi)

² (goratuta)

³ (urrun)

— Berraun ta ogeta amasei dira —esan eban Manukok; eta lau bat minutu geroago—. Zenbat, aitatea? —itandu eban.

— Berraun¹ ta ogeta amalau.

— Eztot nik esan? —zirautsen Linakorak—. Manuko, emon bat aitaitari ta orra biok ainbanan, berrogeta amabostna.

Andik Urizarretarako aldatzean irurak nekatu ziran. Sagastietan zugatzak, garauz yosita dagozanean, adarrak abail-abail euki daroezan antzera, gure latsibitarrak euron besoak abailduta, yausten lez, eroezan aldapa gora. Inok ezeban, orregaitino, itez² nekerik erakutsi. Bakiora eldu-aurrean, mutilkoa gogamentsu ebillelako, Santi, Ostiene zein etse zan, zein Asetxo, Ondarre zein ta agiri ziran bizitokien izenak edasten asi ekion.

Yaramon andirik egiten ezeutsala oarturik, makillea Yata-ton-torrera begira ezarrita «Txotxo —esan eutsan—, biar gaztañak emongo dauadaz, eskutaða aaaundi bi emon be, mendi aren andiko aldean dagoan uritxoa zein dan igarri badagik.»

Mutilkoak irribarreka, aguräari sorbalan ikutuaz «Yatabe» zirautsan.

— Bai ta igarri be. Etxagok i langorik.

— Aitatea, gaztaña gorringoak, e?

— Bai, laztan— erantzunda, mosu andi batez beizendu³ eban agura samurtuak bere agindua.

Bakioko ondartzaburua igarota elizalderantz yoazala PANADERIA DE ANDRAKA-MUNGIA-dun zalkurdi⁴ ezaguna urrun-txotik ikusi eben.

Floren Andrakak arpegi txeratsua⁵ Latsibikoai erakutsita, eurok eskatu baiño be lenago, bere zalkurditxoan Mungiaragiño eroatea opa eutsen.

Oharrak:

(¹) *bat* «a» artikulua? Bizkaiera landuan «batean» erabili ohi da «baten» artikulua gabekotik bereiztuz.

(²) Orijinalean *aren* gainean zerbait dagoala ikusten da baina ez dago argi bokala luzatzeko ikurra dan ala ikur hori, ezabatzeko beste marra bat dagoan. Edozein modutan ere, «zâr» hitza bokal luzeaz askotan idazten dau liburuan zehar eta hemen ere *â* iztea erabagi dogu.

¹ (Yatabarrak *eun* ta *berreun* ta *neu* ta *geu* -ren ordez *aun*, *berraun*, *nau*, *gau* dakie esaten.)

² (berbaz)

³ (firmadu)

⁴ (tibuli)

⁵ (cariñoso)



XVI. Liberal, demócrata, incondicional

1. Floren Andraka ta Meñakako itzaldia.
2. Latsibitarrak bere zalkurdian.
3. Gorri, gorri min ta gorri iluna.

1

Andrakaren zaldi Noblek eta Vizcondek ezeben arratsalde atan, jauntxoa Yatabera eroan ebenean lez, erderakadarik entzun. Aldatz goretan batean «Arre», bestean «Yao», bestean «Guaxque», tautik be ez geiago.

Florenek zaldiakaz baiño bideztiakaz itz egiteko gogo andiago eukan. Egun aretan norbait bear eban ganezka pil-pil ebilkon poza banatzeko, zabaltzeko. Nondikoa eteeban Andraka gazteak zorion andi, ganezka egiten eutsan atsegin zabalkor ordukoa? Liburu onen 84 garren orrialdean irakurleak ikusi al izan dau, Floren Andraka Epikoren adierazletzat irriz bazterturik, Berinoleagako idazmutil Ereñozi aukeratua izan zala. Ganeko egunetan musturturik ibili zan Noble ta Vizkonderen yaube gaztea.

Bere aita ta arriben ustez ezegoan Bizkai guztian Floren baiño egokiagorik nai adierazle nai izlari izateko. Yata-tontorretik ikusi egikezan uri ta basauri ta aldauri ta uriauzoetan nor zan bolatoki baten txirlorik geien ta zaratatsuen yaurtigi oi ebazan bolakaria. Floren. Nor, amazortzi urtetik ogeta amarrera-bitarteko mutilik, garondo-gorri, sorbalda-zabal, soin-andi, buru-lerden, musuz ederrera? Floren. Nor zan arrazko-otsak¹ zelai baten gazte gonadun ta prakadunak batu-orduan, nor zan neskatilarik geien begiak zabalzabalik adi egoten ekiozan mutil morrosko, marot galant ederra?. Floren. Ta Mungiako *Plaza de los Fueros*-en, irailaren 25-garrenean, beste bat izan bear Epikoren adierazle!!

¹ (panderu-soñuak)

Azkenen buruan, Arangoitiren emazte andra Isidoraren bitartez lortu eutsen orregaitiño, arrebak gura eben guztia ez arren, zerbaitxo bai beintzat: Meñakako elizaurrean batzar baten itz egitea. Domeka arrastiri baten, Mungiakoa baiño aste bete aurrerago, ospatu¹ bear eben batzar au. Iru egun baiño ezeukazan yardun-egunerako ta ezerabilen okin gazteak beste usterik gogotan. Bakion Urlia nai Berendia Lebfuelera (Liberpool-a) eldu zala bazirautsen, nondik edo andik Liverpool-dik Meñakara beingo baten yoko eban Floren Andrakak. Kartagon Olabe gozoginaren emazteak, gozoki batzuk labara eroateko eukazala-ta, labäa noiz gertu egongo zan itandu eutsan baten «Labäa dinozu Basili, labäa? —zirautsan okinak—. Neuk darabilt egunokaz neure barrua laba bat eginik. Entzun izango dozu datorren domekan Meñakan diskurtsua daukadala. Neuk ezneban gura, baia alderdiaren² onerako, gogoaz bestera izanarren, alegin guztia egin bear dala-ta artu dot ba arazo andi ori; ta lorik be ezin dot, Basili, lorik be, irakiten daukat barrua, arduratan, zer yazoko. Euskeraz baiño ezpalitz, aurra! Baiña erderaz be yardun bear ta estu ni.»

2

Zaltzainaren ezkerrean, aurre aurrean, yarri zan Santi Latsibi. Likanora ta Manuko barruan, alkarren aurrez aur. Iru bideztiok, zalkurdian sartu baiño be lenago, Meñakan iru egun barru yazo bear ebana, zertzelada ta guzti, Floren Andrakagandik yakin eben. Santi, ogidun gazteari ordurarte ika itz eginarren, kartagoarren yardulari egin ebela entzun eutsanetik, zuka itz egiten asi ekion.

— Zer diñozu, Floren, atzo arrastian, ordu onetantxe Mungian yazo zanaz? Ikaragarriak esan eieutsezan Busturik don Anbrusi ta Epikori.

— Neu an egon banintz!

— Eta gero, *seguru* be, gero Epikok parka eskatu bear. Eta ezin izan zegikean bestera. Kartagoarrak, gauoro lez, batu eiziran bart eta batak au ta besteak ori, zer erabagi eutsuela ta zagoz? Ondra³ andiagorik gizonari ezin egin leio; Arangoitik eta alkateak bien erdian eroan eieben Busturi, Mungiako kale nagosia betean, bere etseti Kartagora.

— Neu an egon banintz!

¹ (zelebrau)

² (partiduaren)

³ (dedu)

— Eta gero, don Anbrus arrizkoa bailitzan isil-isilik egoala, Busturiri, Busturi beti gizon arteza izan da-ta, Busturiri laudu andiak, gorespe andiak egin eieutsezan.

— Neu an egon banintz!

— Zer egingo zeutsan zuk, an egon bazintzaz, zer? Besteak egin eutsena, burua makurtu...

— Nik? Aupadäa, desafiõa egingo neutsan nik; mosuan bizarrrik badauko, datorrela Meñakara urrengo domekan, antxe alkar ikusiko dogula-ta. Auxe egingo neutsan nik... Zer, ba? Ezetedozu uste, Santi, Busturi baiño gitxiago garala edo?

— Txarto alderitxazu Busturik egin ebanari?

— Txarto nik, Santi.

— Nik ez, Floren, nik ez. Gizonak alaba gaizdun bati, medikutzat, onen deritxona ekarri ezin?

— Ezin, Santi, ezin; gizon ori *partidario* zintzoa baldin bada, ezin.

— Zer da *partidarioa*?

— Alkate izan zaran orrek au yakin ez? *Partidario* alderdikoa da, yarrailea da, geutarra da.

— Eta egon bein. Busturik etsera, alabatxoa osatuteko Begi eroateaz ezebala ondo egin dinozu barriro be?

— Ezebala ondo egin diñot barriro be, *partiduak*¹ beste mediku bat dauko-ta.

— Arranoa! Floren-e... mutillak gozak gu. Orrelangoxerik ikusteko be... Entzuidak, mutil, entzuidak.

Floren Andraka bekokia txordo² ebalu gelditu zan, besteak ika itz egin eutsanean. Santik, au ezagututa, iketatik zuketara bidea artuaz «Bermeoko Pio Laba nor dan baedodakizu, Floren —esan eutsan— zuok lez a be uruna erosi ta ogia saldu, onelantxe bizi darta. Karlista itsua da ta Bermeon karlista dana Mungian erromar izan bear. Ezalda egia?

— Bai, egia da.

— Pio Laba ori Mungiara gaur baletor ta biar panaderia³ bat zabaldu balegi, ez Larrinoa, ez Zabaleta, ez Arraitz, ez Bekosolo, ez beste eun erromarren arteti inor ezin yoan izango litzate Andrakaren denda barrira, *partiduak* beste ogidun bat daukalako. Ondo deritxazu oni, Floren? Ondo?

— Oni ez.

— Oni ez! Zein izan da len esan dozun itza? *Parti...*

¹ (alderdiak)

² (serio)

³ (okintza)

— Santi, pildorak eta ogia eztira bat.

— Ezta kitarräa ta txakur-zaunkäa be eztozak bat— esanda, barre egin eban gogoz Santi Latsibik eta bere erran Likanorak be barre.

Mutilkoa amaren altzoan burua ebalá, aspaldion lo zetzan.

Zapartada baten ta gogaldi txarreko yatsi zan Floren Andraka zalkurditik eta oiñez ibilten asi zan aldatz-gora atan. Emerandoko aldatza zan.

3

Txordo, itzal, illun ta isilik yoian zaltzain ogiduna. Likanorak belarrira zerbait esanda, Santik bere gogoko itaune auxe egin utsan: «Zezaz itz egiteko zara Meñakan?»

— Gei asko, *puntu* asko daukadaz, Santi. Nik lenengo lenengo erromarren buru, egiazko buru dan Begi zirikatuko neban; baia gure Epikok au bere arazoa dala ta nik izteko. Itzi egin bear nik. Ona, Santi, nire lenengo puntua: *liberal* izatea zer dan; bigarrena, *demócrata* izatea zetan dagoan; irugarrena, *incondisional* izateko zer bear dogun. Santi, guk kartagoarrok iru koloretako arimea dauka-gu: gorria, gorrimina ta gorri illuna. Gu politikaz báldakizu, Latsibi, zer garäan?

— Bai, Floren. Aita ta zu, urun-artekoak, zuri-zuriak. Arandui, txal ta bigantxa ilbarri-artekoa, gorri-gorria. Laraudo, zaldi-kortakoa, erdi ori, erdi baltzeran. Au eztakit zeatz ze kolore edo margotakoa dan.

— Esatea be! Gu politikaz liberalak gara, demokratak gara, inkondisionalak gara. Auxe da, Santi, gorri ta gorri min ta gorri illun izatea. Gure artean Busturi ez, orrezaz ostein guztiok gara liberalak, baia guztiok demokratak ez. Orra or Arangoiti, don Imno de Riego jenerala baiño gorriago, baia zer? Aristokrata andia datzu.

Inkondisionalik barriz gitxi da gure artean: aita ta neu. Laraudo hmm! eztakit. Maisua bai. Yaseko gizona da Ortiz de Treviño.

— Eta Gondramendi?

— Gondramendi arlote bat dozu.

— Floren, ez txartzat artu, baia nik liberal, liberal... entzun bai, entzun egin dot berbatxo ori; zer dan eztakit arean. Beste or esan dozuzan itz edo mitz, demorrioaren antzeko orrek...

— Ja-ja-ja! *Demokrata* ta *inkondisional*. Onetxek dira nire ustez liberaltasunaren *esentzia* ta *esperentzia*. (??)

— Isilik bazagoz be bardin dozu. Len bestean nago. Meñakan zuri, Floren, gauzok nok ulertu?

— Ez. Onelango diskurtsu sakonak bein entzunaz gure buruan eztabe lurrik artzen. Orretarako *El Eco de Vizcaya*-ren korrespon-tsala Epiko an egotea gura neuke. Nik an diñodana paperak biara-monean balekar, orduxean ederto.

— Gure Pedrantonek-eta, don Donatok emonda deritxat, *Eleko* edo *Meleko* ori bein irakurri eben, arako don Anbrusek eta Morros-kok Yataben berba egin eben urrengo egunean. Bai barre-zantzo andiak egin be. Ogean nentzan ni orduan.

— Santi, ez iñori esan, zuk be ez, Likanora, nik diñodanik bein-tzat. Don Anbrus orduan, zuon don Anbrus yatabetarra saguzar baten antzeko agertu ekigun. Alangorik!

— Neugaz eskolan ibilia da. Umetan etzan besterik ez langoa. Gero egin izango edodauz ikasteok. Orduan beintzat a...

— Gizona dan gizonak, ikusi ezarren, berez enda onekoa bada... Orra or gure ortuko okarana. Etxako sekularean satsik¹ egozten, ezarten, eta okaran-urte danean, eztau orririk agiri izaten, guztia ga-raua.

— Don Anbrusi zuen okaran orrena yazo izan alekion Yataben; diskurtsu-egun ezeban izango ta isilik egon balitz, oba.

— Ganera itsu-mustuan, geiagoko barik, aurretik ezer atondu be egin ezebala, yardun eban gure jauntxoak eta gizagaixoak a... zeuk esan dozuna, isilik egon balitz, oba. Nik ez, nik Meñakan berba egi-teko bideak ondo negurtuak daukadaz. Gura dozu, Santi, semeagaz ta besteren batzukaz Meñakara yo?

— Guk, Floren, zeuk ondo dakizuna, etsaldean arazoa beti dau-kagu; bateko, bedarra ebagi-bearra, besteko, azpigarria dala, txala beiarri ezartea dala, au dala ta ori dala...

— Domeka-egunean! Astegun buru-zuria balitz...

— Floren, oraintxe zeure berbaldi orren zerbait esaidazu, dome-kan entzun ezin banegi be.

— Berbaldia! Diskurtsua, gizona.

— Ea, ataltxo bat.

— Aurra bada! Entzun zuk be, Likanora. Mutilla eztozue iratza-rri gura, orrek be entzun dagian?

— Ez, Floren. Au, gizagaixo andi au, bideak abailduta, desak eginda daukagu. Lo egin dagiala onek.

— Gura dozuena. Zein da zuretzat, Santi, nire iru puntuetati ne-ketsuena, ulergaitzena? Liberaltasuna ala demokrazia ala inkondi-sionalkuntzea?

¹ (ongarririk)

—Liberalkeria orren barruko azurra iñoiz ikusi bâkoa nozu, baia izen ori buztantzat arturiko gizon asko ezagutu dodaz alkate izan naizan urtêtan ta, ea Floren! esaiguzu zeatz ta meatz. Zer da demokrazia?

Floren Andraka eztulka ta txapela barrurago sartzen ta esku bietan txu ta txu diarduanartean, irakurleari yakin-arazo dagiogun Bergarako batzar baten eibartar yakingura bati emon eutsen erantzuna. Orduko yardularia gorria, gorri miña, gorri illuna ta ganera gorri ubela be baeizan, *sozialista* amurratue zan-da. *Democracia* gora ta *democracia* bera erderaz ziarduala, entzule batek bere albo-ko bati (biak eiziran eibartarrak) «I, zer dok demokrazia?» itandu eutsan.

—Demokrazia? Abareai txapelik ez eraztea— erantzun eutsan adiskideak.

Meñakan yardun bear ebanak ezeban demokrazia onelan ulertzen. Entzun dagiguzan bere itzak.

—Santi, zeuri be badirautsut, Likanora, Mungian San Pedroetan ta San Lorentzoz Yataben ikusi izango dozuez mutil gazteak zantzoka ta iyutika neskatillen ondoan, arrazko-otsa¹ entzunda beste barik. Demokratak dira ôrrek. Baita mondxor ta auzolan-egunetan etse askotako gizakiak² katillu bateti guztiak banan banan ardaua edaten, ezta egia? Onek be demokratak dira.

—Floren, eta txakurrak baiño sarriago arpegia garbitu³ ezta-roen ungrianu ôrrek, ostatutzat gaztañadi bat, ogetzat lurra, legetzat txoriena dabela bizi diran kapelandi, ule-baltz, begi-zorrotz, kedarra-narrudun orrek be demokratak etedoguz?

—Orrek ijitanoak dira ta eroan dagiezala erromarrak euren baztarretara, gura badabe. Gure artean orrelangoak nortzuk diran igarteko ta yakiteko, ikusi egikezuez kale nai bide nai zidorretan gizonak, pipâa nai zigarroa izegi⁴ gura dabenean, posporo⁵ barria biztu bârik, alkarri zigarroa nai pipâa emoten. Egiatzko demokratak dira. Etzenduen Yataben ikusi, orain aste bi ta erdi, zuen don Anbrus aberats ori, Laraudoren lando ederra aintzat artu ez ta gure tibilixto onetantxe zeuon yaioturira yoaten? Don Anbrus Isasti be demokratâa da, demokratën eradua, *modelo de démocrates* domekan esango dodana.

¹ (panderu-soñua)

² (pertonak)

³ (ikuzi)

⁴ (biztu)

⁵ (arrast)



— Orduan, Floren, dakustanez, demokratäa ta arlotea or-or dabilz, bikiak dirudie, ama batek munduratuak.

— Oker zagoz, Santi. Arlotea arlote da ta demokratäa demokrata.

— Beste zerbait ganeratu gura neuke. Orainarte gizonak utsik aitatu dauskuzuz. Emakumeak zetarikoak dira?

— Orren artean be guztirik dago, Santi. Baserrietan geienok zare, Likanora, geure antzekoak, kartagoarren tayuko demokratak. Yai-arrastietan, atari askotan lau-sei atso batu ta briskan nai trukean nai ogeta amaikan astia emoten dozuenok demokratak zare. Uri andietan, ostera, aberats-usaiña darioela, ispillu-aurrean ikasiriko ibilkeräaz txantxangorria lez bizkor...

— Floren —esanaz, zorrotz atzeratu eutsan Likanorak bere itza Floreni—. Floren, uri andi nai txikietan, yaiegunez burua aizez beterik dabela dirutsu bailiran agertzen ñakuzan mutil babalastoak, elizbiretako santuak baizen lerdin, neskatilla-aurrean beti irri-barrera, gerizetako ikoak lez iñoiz zoltzen edo eltzen ez tiran kokolo buru-eritxi órrek zetarikoak dira, demorriozkoak ala... besterikoak?

— Likanora, orrelango mutillik eztago ez Mungian ez bere uriauzoetan.

— Ezetz? Bai ta ez gitxi. Izenak aitatzen asiko banintz, asi...

— Aurra, Likanora! Zagoze biok isilik. Floren, gizonen aurrean aguräa mína legortuarde aitatu dagikezu; baia emakume semedun baten belarrietan ezegizu atsoa agotan artu, bestela bizirik iruntsiko zauz.

— Aita, biotati zeñek etedauko olgetako gogo geiago?

— Floren, zoaz len bai len bigarren puntura.

— Bai, Santi. Zer da inkondisional? Datorrena datorrela, aurrera beti; auxe da inkondisional izatea. Botazino-aurregunetan euriari diñotsala? Binotso. Eguzkia beroegi ñatorkula? Betorkigu ta aurrera. Beste alderdikoak zaratatsu datozala ta botoak erosteko dirua oska darabilela? Ba betoz ta berabile ta aurrera beti. Abaderen batek, beinola Arrietakoak Mungian San Pedroz lez elizan bertan Erroma gora ta gora darabilenean, kartagoarra dan kartagoarrak «Gora Kartago» esan ta aurrera egin bear dau beti, nekatuarde, abailduarte, etenarte, lurra yoarte, illarte.

— Zure esakera onetati auxe agiri da, Floren, zuok, kotxedunok, guk baiño errazago dozuela ori, esan dozun ori izatea.

— E! Ta nik kotxerik ez burdirik aitatu ez!

— Zuok zeuon abere onei beti «Arre» esaten dautsezue. Guk barriz geure abelgorriai batean «Aida», bestean «Aurt». Guk, itzainok, beti aurrera ezin dagikegu, Floren, idi-beiai sarri musturrak ausiko litzakioez-ta. Onegaiti gu ezin izan gara, zelan esaten da?

— Inkondisional.

— Orixe. Gu ezin izan.

— «Ni— lenengo-lenengo eguneti, don Anbrus loba Morroskogaz ta Epikogaz agertu ekiguneko, *bolandera*-ots-arteana —yaunak —esan neutsen—, ni inkondisional». Ta arrezkero banabil, banabil, banabil beste batzuk neure antzekotu gurarik. Orainarte iru daukadaz, aita, Larauo ta Ortiz de Treviño. Larauo hmm! Ori bai, Meñakako diskurtsuaz eun bat inkondisional egitea uste dot.

— Floren, ori dakizula, zoaz, mutil, uriauzorik uriauzo batean Lemoniz ta Laukiniz, bestean Emerando ta Larrauri, bestean Morga diskurtsuz edo miskutsuz berotutera. Gorordoren batalloia baiño andiagoa batuko dozu.

— Amar egun barru, Epiko ta Begi Mungiako plazan¹ agertu daitezanean, Floren Andraka bere batalloiaz an izango da.

— Geu be orduan istarrok sor-sor ezpadaukaguz, Mungian izango gara.

— Ta Meñakan ez?

— Zatoz zeu gauren baten Yatabera ta ekin antxe.

— Orixe edo egin bear izango dogu.

— Floren, berbetan asi zaraneti daukat zerbait esateko, ta laster elduko gara ta eztoz geroko itxi gura.

— Betor.

— Botoaren alde dirua artzen dabenak «Datorrena datorrela, aurrera beti» egiten dabe. Onek be zure batalloi orretakoak etedira?

— Orrek? Orrek inkondisionalak? Orrek txarrikumetxo batzuk dira.

— Aitaita, aitaita, an dago Periko, don Donatoren zaldia— zinoan Manukok, lentxoago itzarri-ta.

Beste irurak, Manukoren itzok entzunda, burua yasoaz urruna begiratu eben. Egia zan mutilkoak ziñoana. Busturiren atean egoan Periko. Ezagun zan. Begi, zaldiaren yaubea, kutxazainaren alaba gaizduna ikustera igonda egoan.

— Eta nik Meñakan, Epikok au erabagi dabela-ta, Begi aitatu ez? Zati zati egingo dautsat izena.

Ezeutsen Floren Andrakak yatabearrai saritzat ezer artu gura izan eta Felipetxu tuntuna gerritik dingilizka ebalá, kalerik kale ebi-llela ikusirik, bere ondorik yoan zan, zaldiak eta zalkurdia arriben eskuetan itzita.

¹ (zabalean)



XVII. Epiko ta Jupiter ta erube ta sapaburuak

1. Epikoren metamorfosis.
2. Andra Isidora ta Epiko.
3. Morroskok Epikori.
4. Arangoitireneko bazkari bat.

1

Arlo neketsua izan eben, orain laureun bat urte, Europako izkera sortu-barri edo beintzat eratu-barri guztiak yakituriatzko lanak adierazoten. Orduko gizon argi geienak, euren umetako izkeräa etserako itxita, latinez agertzen ebezan euren asmo ta gogamenak. Arlo neketsua dau, ordu bai ordu, gure izkera zâr onek, orrelango lanak, euskaldunak ulertzeko ginoan beintzat, argitaratzea. Eta nik, belutxo yaio naizan onek, euskera utsez onelangoxe izaki sakon bat, *metamorfosis* bat (Epikok amalau ordutan izan eban aldakuntzea) azaldu gura neuke. Gura, gogoz beintzat, eztakit gura dodan; bear, bai.

Nok daki zein luzaro bizi izan zan Jupiter bere gizatasuna zezen biurtu ekionean, zezen izatetik egazti izatera eldu zanean, egaztikuntzatic urrezko euri aldatu zan arte? Ilebeta osoak bear izaten eidebez arrak eta erubeak, eurak egindako kuskuetan ilda lez egonda, txiribiri¹ eginik egaz ibiltan asteko. Umezaroan, mutilko gintzazan urte zoritsu aretan, sarri ikusten geuazan idoietan² sapaburuak, euren buru biribil andi baltza geldi eukela, buztan zi-zorrotza ezkereskuma pozez erabilten. Sapaburu arek ugarazio egiten zirala esan euskun mutil zartxoagoari «Eeene!» arrituta erantzun geutsan; eta bat edo batek, sinisgogortxoago zalako edo, esku biak zabal zabalik eta gora bégira uretan sartuta, sapaburu bat edo bi te⁽¹⁾ legorrera

¹ (mariposa)

² (pozuetan)

ateraten ebazan, pistitxiki arek sabel-barruan ankarik etêukan ikus-
teko.

Sapaburu batek illebeta luzêtan baizen aldakuntza andia ta eru-
beak txiribiri izateko langoxea egin eban Pedro Viñasek, Epiko gu-
reak, gabetik goizerakoan. Jauntxoa lagun ebal, Busturirenetik
Kartagora ta andik bakar ta makur Adonarenera yoanda, erube ba-
tek bere kuskuan baiño zirkin geiago ezeban gelan egin. Amalau
ordu baiño ezebazan bear izan, lengo txoriburutasuna artuta, ezer
yazo ezpailitzakion kaleratzeko. Zer esan ezekiala gelditu zan Ado-
na, Epiko etsean agertu ta lendanik dakiguzan itzok «Nire eske iñor
badator, eznaogoala» esanez etzanguan¹ sartu zanean. Ain ekarren
zurbil, ain ubel begi-bitartea! Juan Andresek eta Gumerrek bien ar-
tean makillatu eteben?

Yakin gurääk eta errukiak mediku gaztearen etsangu-ondora sa-
rritxo ta beatzen ganean eroan eben Adona; inkesa andiak eta asgo-
rapen ta arnasots luzea noizean bein, ezeban besterik luzaro entzun.
Burua zorabio andi batek artuta baileukan, sentzun bakoa zirudian
gizagaixoak lenengo ordu-laurenean.

Oiñetakoak eta burukoa bêra egotzita² soiñeko ta guzti zetzan
ogean, al bait isilen ta geldien. Alegin andiak eginarren, burutik ezin
kendu eban arratsaldeko yazoerää eta bere irudimenak gomutääri
batean Tete, bestean Valladolidko kale ta zokoren batzuk eskatua-
rren, Mungiako kale nagosiak, guztiai bultz eginda, Epikoren buru
osoa bete eban. Akordeon bat yotzailearen eskuetan dan baiño sei
bidar andiago egiten danez, Busturiren etsaria³ bat batera, elizea
langoxe andi ta zabal eginda gizon ikusguraz, batez be erromarrez,
bete bete egin ekion. Ainbeste gizoni garun-artean une bana egin
ezinik, minduta eukan burua. Gizamordo arek ezeben loarentzat
zoko bakar bat utsik itxi. Zurruka asi zan orduan errukarria, lo zo-
rroak artuta bailegoan, edo beintzat zurru-ots arek burutasunak
uxatu eutsazalakoan. Noizik noizera zurruai itxi ta bere buruagaz
autuan zoli asten zan: «Zergaitik eztok olagizon madarikatu ori za-
pustu ta irato?» Gogamen askoren artean batek eukazan besteak az-
piratuta: erriaren usteak, *la opinión pública*, berak ziñoanez. Euren
autua iruren artean baiño izan ezpalitz aurra! Yazo zana yazoarren,
autu ori berak edertu ta zurikatuko eban. Erri oso bat albotiko⁴ da-
nean, ostera, yazoera biloiz itsusiak ezin leitez ez yantzi, ez apaindu.
Nori sinistu-eragiteko? Berak eta jauntxoak Busturi oillotuta eukela

¹ (ogetokian)

² (botata)

³ (salää)

⁴ (testigu)

zabaldu gura izanarren, ezpanik belarri ebilen egia uri guztian, olagizonaren kukurrukuak entzun eragiten. Illêtatik tenka egonarren, burubide onik ezin atara izan eban euren azpitik; eta amurruzko intziri antzeko eztarri-ots iraupentsu luze bat eginaz, batean burruko-pean, bestean izara-arteana sartu eban burua.

Zauzkadarik andiena Busturiren begiak txinparturtika ikustea egin eutsan; eta bere ezpan artetik banan banan, letra ónek *Azpisugea neu, azpisugea?* urteten ikusi ebanean barriz, zetan ebilen ezekiala, buruz bera, begiak esku biakaz ondo estaldurik, ogean etzun zan. Lengo izki¹ suzkoak itzungi² edo il ta kêtû ziranean, beste onek aren atzetik Busturiren ezpan-artetik, garra erioela, urteten ikusi ebazan: *Emendik dago kalera bidea*. Begiai igurdi andi bat emon eutsen, euren ikusmena egiazkoa etezan yakiteko. Gero olagizonaren besoa balkoi-alderantz, betaurreko andi, teleskopio baten antzera, geroago ta luzeago, geroago ta zorrotzago, erraldoi³ baten beso luze-luze egiten ekusan. Amurrurik bitsezkoena ta lotsarik gorriena berak esaniko itzak, Viñasek berak bere agotik ataratakoak emon eutsen: *Parkeske nago*. Izarãari usigita⁴ deadarrez ta uluka, bere buruari «Viñas, Viñas —zirautsan—, zegaiti eztautsak erantzun *Kalera-bidea ori bada, kalera noa? Zegaitik, zerarren* (2) eztok balkoiti zapart egin nai mina sustrai-sustraitik erauzi⁵, itz apalgarri, oilo-itx orrek ezpanetaratu-orduko?»

Asgora ta asbera zaratatsu batzuk egin-ondoan, bere barruan gogoketan asi zan. «Zer etediño Tetek? Ezelitizate lotsatuko oilogizon baten ondoan, estalki zuripean, altara-aurrean egoten? Gaur emen yazo dana norbaitek belarriratu balekio, ezeteleuke andixek, altara-aurretik, iges egingo?»

Eta barriro amurruz intzirika ta izarãari aginka «Viñas, Viñas» deadar egiten eutsan bere buruari.

2

Adona, deadar onek entzunda, izu ta ikaraz, Arangoitiren etsera arrapaladan yoan zan «Don Pedro zoratu egin da» esatera. Bera lagun ebala ta etse-soinekoai besana⁶ bat baiño besterik ezer generatu

¹ (letra)

² (amatau)

³ (gigante)

⁴ (aginka)

⁵ (kendu)

⁶ (manto)

bagarik, Andra Isidorak Epikoganako bidea artu eban. Atea, kaxkaxk bagarik, ukabillez yo ebanean «Nor?» itandu eban Viñasek indarga ta motelik.

— Isidora naiz.

Zapartadan yagi, atorra-iduna lotu, txartesa ertsita¹, uleak ezkerraz legunduaz, atea zabaldu eutsanean, etsandreak ekarren argiari begiak zabaldu ezinik «Zek zakaz? zirauntsan.

— Zek nakarren? Gaur arratsaldean uriko astorik andienak, karlista saldu batek, ostikada batzuk emon dautsuzala yakin dot eta erdi-erritar ta adiskide ona zaitudan aldetik zeu ikustera nator.»

— Viñasek buruko astunez, zer esan ezekiala, begiratu eutsan. Ain adiguritsua² izanda, alan, ain otz ta motz andra uren bat artze-ko, ezagun eban bere izatea oso aldatuta eukana. «Jesarri gaitzean eta itz egin dagigun» esanaz, Arangoitiren emazteak, gelatik etsariratuta, iru aulki urreratu ebazan.

— Zuk, Pedro, apaldu egin bear zeuke. Orretarako erdu geurera. Gero urdurialdi³ ori ibitu daiten emagarri bat⁴ artu bear izango dozu ta gaur arratsaldekoa aiztu, gaur beintzat. Biarko, a! Biarko geuk, senarrak, maisuak eta neuk, emengo barri obeto dakigunok, asto andi orri zer egin bear dakon geuk erabagiko dogu.

— Eskerrik asko, andra Isidora. Emagarri ori, bai, ondo letorkit. Apaldu, ezin apaldu dagiket.

— Biar, ez gero ut esan ez utsik egin, biar geurean bazkalduko dozu maisuagaz batera. Orain logarri bat, *veronal* edo zeuk dakizu zein ondoen datorkizun, logarri indartsu bat artu egikezu. Idatzi zeuk logarri orren izena txartel baten eta doala Adona botikara. Berau lagun dodala yoango naiz ni etsera. Pedro —esan eutsan kalerako yagita—, koronel zangar⁵ baten odola eztabil alperrik nire zane-tan. Geuk oinazpiratuko dogu olagixon orren arrokeria. Ardura bagarik lo egin. Biarrarte.

— Biarrarte ta milla ta milla esker.

3

Adonak, andra Isidorari lagun eginda, botikan sartu zanean «Norentzakoa da?» enzun eban barrukoaren gotik.

¹ (estututa)

² (complaciente)

³ (nerviosidad)

⁴ (un calmante)

⁵ (bravo)

— Geure kaleko bat txaketendun, bururengo andiaz datza. Are-txentzakoa da gauza ori.

— Kalekoa ta ganera etsekoa, ezta egia, Adona?

Logarriari ta ganera valladolidtar emakume zangarrari esker, iru ordu garreanean, gaberdia ez eldu bai eldu egoala, loak artu eban sendalari gaztea.

Laster asi zan amesetan eta yazo bear ebana! Arratsaldeko ager-kizuna¹ buruan sartu ekion. Busturik, don Anbrusek eta berak izka lenengo, eztabaidan ta kezkan gero, atzenez apaxka ta egozketan edo bera botatea mutilak lez egin eben. Busturi sendoak jauntxo ta bera seinkolo edo yostailu batzuk bailitzazen esku banatan artu ta plaust! kalera yaurtigi ebazan. Kaleak bêtzat arkosko-ordez giza-buruak eukazan ta alangoxe buru bat yota artu eban mokorrotsak iratzarri eban. Ogel-egal batetik bestera itzul-mitzulka² luzaro ibili zan gero ta atsegin-alditxo bat guzurrezkoa baiña atsegiña beintzat, garun nekatu artean sortu ekion. «Nire itz *parkeske nago* eztau inok entzun al izan. Busturik baietz badiño, guzurti, aizun, maltzur³, zaldun txar, Kartagoko sakristaua esango dausat arpegira. Aserratzan bada, oba, Arangoiti ta Treviño albotiko artuta, *al terreno del honor* aup egingo dausat. Sakristaukume dalako edo dirudialako eztau ara yoan nai izango; ta ni ezeren arrisku bagarik len baiño zuriago ta dedutsuago agertuko naiz gizartean. Orregaitino — zerraion bere artean— Busturiren erantzuna *Parkeske zagozala dinozunezke-ro amaitu da emengo arloa* erriak entzun dau ta zer da egitea? Zer nik oni erantzun?»

Onetantxe buru austen ziarduala, kisketots gogor batzuk yota, Bilboko eskutitz bat ekarri eutsan Laraudok. Papertxo onetxek osotu eban Epikoren aldakuntza edo metamorfosis.

Kartagoarren batzar luze iru ordukoa amaitu zanean, don Anbrusek ezaban Mungian geratu gura izan. Aparia ta ogea batzuk eskiniarren, ezetz berak. Eta Laraudoren lando ederrean Bilbora yoan zan. Amarrak yota eldu zan Ibaizabal-bazterreko urira. Arrebearen etsera yoanda, Morroskok eta osabäak luzaro autuan ekin eben. Bildurrak estu ta larri eukan aldungei mamintsua. «Ezetedaku Periko Viñas lotsatu ta Mungiatik norabait yoango? — zinoan bere artean—. Ak iges egin badagi, agur nire diputaukuntzea, agur Gortalderen alaba bakar ta sakel betea, agur biar edo etzi Bizkaia guztiko jauntxo izatea.»

¹ (escena)

² (bira ta bira)

³ (faltu)(³)

Osabäari atariragino lagun eginda, Mungiara eskutitz bat eroan bear ebala ta ordu erdi barru etorteko esan eutsan Laraudori.

Luze ta ganora andi bagarik egina izan zan Morroskoren esku-titz Epikorentzakoa. «Aukeraldi onetan gure sendi¹ osoaren dedua² dago sartuta. Tete da etse onetan garaipen au gogozen gura dabena. Biotz-biotzetiko agur txeratsuak bidaltzen dautsuz Tetek berak nire bitartez». Onetxek izan ziran eskutitz aren itz yakingarrienak.

Epikok eskutitz au goizeko ordu bietan, Laraudok eroanda, ira-kurri ebanean, sapaburua ugarazio egiten asi zan, erubeari kuskubarruan txiribiri-egoak sortu ekiozan. Ego onen bitartez, ala eztaki-gu bere irudimenaren ego andiz, batean Bilbora, bestean Tetegaz ez-konduta Madrida, goizalde ta goizlen osoa, nekaturtxo bai, baia po-zik eta atsegin anditan igaro eban ogean zetzan Epiko gureak.

4

Eguerdiko kanpae edo dunbotsa (yolas-izketan lapiko-txilina deritxona) entzun ebenean, Treviñok bere etsetik eta Adonarenetik Epikok Arangoitiren atarira bateratsu yo eben. Betazpitsu³ ta zur-bil, baia irribarrekor, eldu zan kartagoarren gudalburua. Ordu lau-ren etsarian⁴ txirtxor igaro eben, Busturiren ezkerreko belarria be-roketan. Otseinak, oi baiño txukunago yantzita, ozta buruan sarturiko ikaskizun bat esaten lez, atea ots baten zabalduaz «Yau-nak, bazkaria gertu dago» esan eutsen.

Maia ondo ornidurik agiri zan. Izkirimiritan, azeituna ta bokart gordin ta estebete-zerratxoak⁵; edaritan Nava-ko ardaozuria, Toro-ko baltza ta etseko txakolina, Bakioko lurtean eukan mâsti bate-koa. Erraritan, ogi txiki zuriak, Madalenentzako opiltxo bat eta tre-mesa, au Arangoitik yateko. Atzetikorik⁶ asko agiri ziran: Olabek goiz atantxe berariz⁷ egindako *canutillo* ta txutxuak, lau sagar gor-din andi eder ta frantzes-galleta lasto-yakeradunak. Onek mai-bete-garri egozala esan daike. Apaingarritan lorontzi bi eukezan usain bageko loraz polito apaindurik eta euren bitartean portzelanazko

¹ (familia)

² (honorea)

³ (ojeroso)

⁴ (salan)

⁵ (rajas de embutido)

⁶ (postrerik)

⁷ (ex profeso)

elefante bi, bizkarrean indioen dardai¹ orde zotz batzuk (beste ize-
nez ortziriak, erderazko *mondadientes*) zulotxoetan sartuta.

Amar lagun nasai artu egikezan maia lauk euken eguerdi atan
besapean, ba umea, opilla eskuan ebala, Adona ta Petraren ondoan
gurago ebala ta suetera yoan zan bazkaltzera.

Yesarri zireanekoxe, Andra Isidorak tarrain² bati ots eraginda,
neskato papu-gorriak marrats baten ganean kêtan ekarren zuku-on-
tzia³. Zidarrezko zali⁴ eder bat eskuan artuta «Zeuretzat, Pedro»
esanaz, txalin⁵ sakon bat arrosez bete-bete egin eban etseko an-
dreak. Maisuak zeinbat egoan yakin ezarren «Ez orrenbeste» esan
etsan.

— Senar milika orri, zalikada bat ala bi?

— Artu zeuk, emazte yatun orrek, iru ta lau be, txalinok kokatu⁶
al badagizuz. Nik salda utsa, oi dodanez, neuk artuko dot.

Lapikokoak mairatu ebezanean, andra Isidorak «Artu, Viñas,
asko artu gero —esan etsan Epikori—. Urdaia aurtengoa da, urde
il barriarena. Ziztorra⁷ Mungiako bertokoa, emengo gauzarik one-
na. Gogorik eztaukazula? Gogoa yanez etorten da. Artu zuk be,
Treviño, platera betearte. Gero, jaunak, non bazkaldu dozuen esa-
tea zilegi da⁸, eztautsugu galerazoko; zelan artuak izan zaren ezegio-
zue iñori aitatu. Zuk, senar, ezalduzu bazkaldu gura? Epetxik bere
badago au baiño yatunagorik. Arroza, u ortik! Osterantzeko zuku-
rik gura ez. Lapikokorik ezta ikusi be. Txarrikiak gaitz egiten dau-
tsala. Euskaldun guztiak gure ugazabaren antzekoak balitzakiguz,
ezleukê eukiko dauken yatun-entzutea.»

— Elduko da, emaztetxo, nire ordua. Angularik badago, orain-
goxea iruntzietara egin dagikegu orduan; nik yan ta zuek txio egin.

— Lotsabâko!

Bazkaldar aren lautasuna irakurleak zelan azaldu ezpadaki,
auxe yakin begi: Mai atako arrotz biak eta etseko andra zirzartada-
koak, uriko mediku zar bat lagun ebala, eguenez ta yaian-yaian *Tre-
silloan* yokatzen eben. Etseko ziran guztiak.

Arangoitik bere emaztearen iraun⁹ azalezkoari yaramon бага

¹ (flecha)

² (timbre)

³ (la sopera)

⁴ (kutxaroi)

⁵ (plater)

⁶ (kabidu)

⁷ (lukainkää)

⁸ (os permito)

⁹ (insultos)

«Gizonak —zerraion—, iruntsi zuek orain aza ta porru ta indiarrok; yanak edozer merketu oi dabela esatea da. Belarriok zurt eukizue, orregaitiño, aukeraldi onetako zador bat¹ yakin gura badozue: don Anbrus Isasti, Europa guztiko gizonik zikotzena dala; diru-urtika ibiltea, *Ecco il problema*. Ezkutuki² onen aldean aremuen sarea, urretxindorren eztarria ta erle maratzen yauregiak utsa dira. Moise-sek zartadatxo bi naikoa izan ebazan atxari ura emon eragiteko. Aginbakori peseta zâr bat sakeleti erauzteko³ eun makillada ezebazan naikoa izango.»

Maisuak eta etsandereak gogoz barre gin eben. Epikok irribarre-txo artain bat.

— Senar barritsu, okela egosia samur-samur dago.

— Oba, yan maite, yan zeuk oparo.

— Izpi-izpitxo bat, zelangoa dan esateko be.

— Ez Isidora, nik gero. Gura dozue, gizonak, yakin nor izan dan gure jauntxogei arlote oni eskua zabalarazo dautsan Moises barria? Morrosko, bere loba papu-eder Tomas. Iru illebeta onetan Gortalde meadunaren katanarru-kusan⁴ dabil. Alperrik nire ustez, baia bada-rraio berak. Eta eztautso osaba Aginbakori sinistarazo katanarru orren yaubegeia, Gortalderen alaba bakarra, beretzat, Morrosko-rentzat izango dala? Gizonak, aukeraldietan norbait diru-urtika gi-zon-erosten dakutsuenean, ziurtzat eukizue, galgarau bat galburu ekarteko lez, diru ori diru geiago ekarri dagian ereiten dala; edo bes-tela, goiarin txotxolo burubako batzuk dira diputadu-izena diruen diruz erosten dabenak.

— Baia, gizonak eneak, Morroskoren aldekoa ala Bekosolotarra dogu gizon barritsu ta yankar au?

— Nik badakizu, Isidora, eun bidar entzunda, Bekosolo maite dodala; karlista itsua dalako aurkari⁵ dot, bestegaitik ez.

— Autu ónek itxi dagiguzan beste egun baterako. Gaurkoa ezto-gu politika-eguna. Pedro, Valladolidik-tik urtenezkero yan dozu tri-pakirik?

— Bein, andrea, baia ez an lez onduta.

— Ai! Iñok badaki, badakie Frantziatik etorri datorkiguzan bia-janteak⁶ zein dan yaki onuratsua ta zein eztan. Valladoliden *Hotel del Norten* bidezti órrek, eguneroko yan-txarteletan agiri ezarren, beti eskatu oi dabez tripakiak.

¹ (sekretu bat)

² (misterio)

³ (atarateko)

⁴ (boltsa-usainean)

⁵ (kontrario)

⁶ (salerospeneko bideztiak)

— Frantzesez *gras double* dabe izena—esan eutsan Epikok Treviñori.

— Eta eurak zelan yan? Ogi mamiña eskuan artuta, yo mutillak, lur-erratillua¹ txirimizkau egiten dabe. Nok igarri gero erratilu atan zer egon dan?

— Gizonak, nik, Oka-bazterreko baserritar naizan onek, Valladolidko *Campo grande* ta *Paseo de Zorrilla* ta beste ikusgarri enparauak bertako semea bainintzan goratuko dautsuedaz, baia izena be eurai dagokiena dauken zer orrek, *tripacallos* orrek? Ut. Euron pilpilada² ilun lodian ogia bazitu ta txirimizkau daroen frantzesok, Bilboko *Amparo*-ra baletoz ta Bizkai-makallao ederra aurkeztu balegioe, sinistu neuri, gizonak, belauniko, sits ta bits yango leukê.

Bigarren barrealdia izan eben beste iru maikideak. Etsandereak, Viñas argitzen asi zalako pozarren, «Oraintxe ikusiko dogu» esanda tarrainari ots luze bat eragin eutsan. Petra bazkalgina³ erratilu andi bat eskuan ebala etse guztia piper gorri ta erinotz-sundaz beteten agertu zanean «E, bizkaitar ago-bero —zirautsan Arangoitiri emazteak—, ementxe daukagu, ez gure *Campo grande*-gaz ez zuen *Campo Volantin*-txo orregaz zer ikusi eztaukan gizon bat, Treviño. Bizkai-makaillorik asko yan izango dau emen bizi dan urteotan. Esan dagiala beronek, au yan ta gero, zein dan biotati yaki onuratsuen, zalegarriena, gozoena, yan-naizukoena. Orra zeuri lenengo, maisu jaun orri.»

— Yan dozu gero zeuk inoiz, Treviño, bizkaierazko makaillaurik, gibelirik?

— Bai, bein baiño sarriago.

— Yan orain tripaki piper-erinotzez atsituok. Yaki au ohea dala badiñozu, eztagidala aurtan nire emazteak angularik beintxo be erosi.

Arangoiti, itz onek ebagita, bein batari ta bein besteari adi egoan, aurrera ekarri eutsezan arrautza biak yaten ziarduanartean. Andra Isidorak, agoa tripakiz beterik eukala, burua bat-batera goratuta «Hmmm?» itandu eutsan maisuari. Onek, agoa tripakiz betebeterik eukala, beronen buruari goitik bêra eraginez, «Hmmm» erantzun eban. Valladolidarrak senarrari «Hmmm» esan eutsan, begiak argi-argi ebazala. Tripaki-yale ta zale ziranok agoa ustu ebanean, Arangoitik Treviñori «Hmmm erantzutea errez da —esan eutsan—. Non yan dozu zeuk bizkaieraz atonduriko makaillao entzutetsu, *bacalao a la bizkaina?* Non?»

— Bilboko yatetse baten, goienkalen, *Calle Someran*.

¹ (fuenta)

² (saltsa)

³ (kozineräa)

—Zelan gertu eutsuen ba, zer ori?

—Oriotan erreta.

Arangoiti senar-emazteak, au entzueran, barren barrez arkuai oratzen, esan oi danez, zezindu-bearrik egozan. Viñasi orduantxe bere goibelaldia barre-zantzo gozo batek aitzu eragin eutsan. Maisuak platereko bazia lez eukan arpegia, gorri min. Mai-yaubeak, esku bat gerrian eta besteaz begietako negar gozoa kentzen ziarduala «Viñas —ziñoan—, zeuk esan. *Hotel del Norte*-ko *gras double*-zaleak emen balegoz, zer esango eteleukê?»

Viñas isilik egoala «Tableau» erantzun eban koronelaren alaba andra Isidorak; eta maisua len baiño be gorriago gelditu zan ta besteak ara be gogozago kar-kar-kar ziarduen.

Angulak eta oillaskoak yan ta gero, onkiz edo atzetikoz samara-giño betetakoa, kafea maitik yagi bagarik artu eben. Etsandereak, bere erdi-erritarra osoro poztu nairik, aurreguneko yazoera ospe-tsua aitatu eban, senarrari itaune auxe eginaz:

—Zer esaten izan dautsut nik aspaldion olagizon astotzar orrezaz?

Arangoitik adiskide eban Busturi ta bere biozketak zurikatuz¹ «Dana danez esan bear da —erantzun eban—. Viñas berau be gogortxo egon ekion. A bigun asi zan ta gogor amaitu; au barriz asieran gogor, amaieran biguntxoegi.»

—Non azia da bera arrotz bat alan etsean artzeko?

—*Parkeske nago* esatea izan zan, nire ustez, onentzat txarrena.

Epikok, beste irurak konkortuta, arrituta, entzuela «Zer —zi-rautsen—, nire ezpanak itz orrek ebagi dabezala! Nok diño? Ni, damu badot be, yo eznebalako garbatuta nago, baia isilik egon nintzan. Gizonari emon dagikeon erantzumenik mingarriena isiltasuna da, ta nik auxe otz-otzik emon neutsan Busturi orri.»

Arangoiti, bere mendu gogorra ta bizia gora bêra, egizale utsa zan. Emaztea, bere lekutik yagi ta zinuka, pariztaka² asi ezpalitzakio, erantzun garratzen bat emongo eutsan sendalari buru-arinari.

—Ez damu izan, Pedro. Ondo egin zenduan ez erantzuteaz. Zelan da arako esakuna zarra: *otsoak otsokirik eztau yaten?* Arek, don Anbrus ta Busturi, biak dira enda batekoak. Zuk Busturi belarrondoan yo bazendu, Isastik erritarraren alde egingo eban ta barregarri erabiliko zenduezan zu.

Pariztak barriri egin bear izan eutsazan senarrari, isilik egon eragiteko.

—Zuk orain, Pedro, izkaldirako zeure yarduna ondo atondu ta

¹ (disimulando sus sentimientos)

² (haciendo muecas)

orraztu ta gero apurtu Begi, Bekosolo, Busturi, botikario non -ze barri ta lokabetasunaren¹ arerio guztiok; apurtu, birrindu, austu, ezereztu.

Arangoitik otz ta motz, bere emazteari autua etenda «Zuek orain tresilloan yokatu gura izango dozue —esan eutsen—. Maðalen lagun dodala, eguzkia artzera noa ni ta bide batez ots egingo dautsat, baderitxazue, mediku zarrari.»

— Biar dogu yoko —eguna— erantzun eutsan emazteak.

— Bardin da, banoa ni.

Legegizon zorrotza kaleratu zan-ondoan baparrri biparrri² gelditu ziran beste irurak. Andra Isidora berak be, Epikoren guzurak iguinduta, lengo autua aldatuaz, lenen bururatu ekion autugeia agotan artu eban.

— Biar Lejarzegi gure tresillo-laguna agertu daiteanean, ez gero botorik ez diputadurik aitatu. Sututa eidago. Amaika *porreta* esan dau onezkero! Bere betiko leloa, nik dazaudanik ona beintzat, auxe izan da: abadeak elizan, abogauak auzitara, maisuak eskolara, medikuak gaizdunakana, arotzak arotziara, errementariak sutegira, lugiñak lurrera... «Ori orrelan dala, nor izango litzakizu politiku?» —itandu neutsan nik bein. — Politiku? Alperrak izan daitezala, beste ezetarako gauza eztiranak —erantzun eustan—. Sututa eidago, amurruarren, aukeraldi onetan sendalari bi aukeratzailen buru diralako. Onegaiti bigarrenez dirautsuet: ez aitatu Lejarzegiri ez karta-goarrik ez erromarrik.

Gero sendalari zarraren bitxikeria³ batzuk edatsirik⁴, ordu bien drangadan egabanatu ziran; Treviño bere umeakana, Viñas de Andrés etsera. Artekalen zear, andoil⁵ ederra ezpanetan ebala, yoian au bizkor ta gogamentsu, baia surpekoaren⁶ ertzak zorrozketan, bazkalaurrean baiño be betargi ta pozkortsuago, birbizturik. Aldakuntzää⁷ oso-osorik agiri eban beronen arpegi ta ibilkeran.

Oharrak:

(1) Ez dirudi zentzu handirik daukanik. Gipuzkerazko bertsioan «beste».

(2) Bizkaierazko orijinalean «zerraren» dator; gipuzkerazkoan, berriz, «zerarren». Bizkaierazkoan, beraz, inprenta hutsa dagoala esan leiteke.

(3) Orij. «faltsa».

¹ (libertadearen)

² Mundakako esakera zâr onek autuan, konbertsazinoan asi zirala esan gura dau.

³ (rarezas)

⁴ (refiriendo)

⁵ (puro)

⁶ (bigotearen)

⁷ (metamórfosis)



XVIII. Felipetxu aldarrika¹

1. Felipetxu nor zan.
2. Izurria zabalago.
3. *¿Dove e il vostro cuore?*

1

Atxinako Grezian, Plutarkok Teseoren egitétan diñoanez, uri guztietan aldarrilariak itz onetxek entzun eragiten ebezan aldarrisieratzat: *Akuete*, *Leos* «Entzuizue erriak». Mungiaokoak laburrago, «Uritarrak» esanaz, asten ebazan bere aldarri guztiak.

Galantasunean nai zama² yasoten eta auzkaka nai zantzoka Felipetxuri irabaziko al eutsen bere lankide atxinako aldarrilari greziarrak, geienak beintzat! Urentasunean³ ez. Felipetxu kapitan izan zan, zer geiago izan etezan Ulises bera, Homeroren Ulises ospetsua? Gorordoren batalloeko euntari⁴, karlisten bigarren gudian.

Onezaz ganera beste egikizun bi eukazan Felipetxuk Mungian: bigarren errizain⁵ ta illerriko zulatzaile⁶. Ezebillen aldi atan txarto. Batez beste, egunean birritan iragarten ebazan, erromarren nai kartagoarren aginduz, uri nai auzoetako barriak; eta aldarri bakoitzeko erreal bi izaten eban saria.

Casus belli yazo zan gabeen ez, ez aldarririk agindu, ez itzaldirik edo yardunik ezeben egin kartagoarrak. Gogoia illegi euken, onelango zeretan asteko. Urrengo egunean bai.

Floren Andraka, Bakiotik latsibitarrakaz etorrela, eurak Mun-

¹ *Aldarri* erderazko *grito* ta ganera *pregón*-en zentzunaz erabili oi dabe bermeotarrak; *aldarrika*, pregonando; *aldarrilari*, pregonero be bai.

² (karga)

³ (en nobleza)

⁴ (centurión)

⁵ (alguacil)

⁶ (enterrador)

gian sartzen ta Felipetxu *tanparlan-tanparlan* tuntuna yo ta deadarez ebilen.

— Uritarrak —zinoan—, gaur arratsean zortzi-zortziretan *diskurtsu* bi egingo dabez uri-barruan, Ortiz de Treviño maisuak *Café de la Unión*en erderaz, Arandui karnazeruak Belaunderen bodegan euskeraz. Biak zortziren drangadan asiko dirala ta biak dirala dubakoak. Diskurtsu onen geia: *La lucha electoral*, batarena, *Politika lokala*, bestearena. Zortzi zortziretan.

Irugarrenez aldarrí au egin ebanean, Floren Andrakak, dirua erakutsita «Iragarrizu, Felipe, datorren domekan neuk Meñakan diskurtsu bi daukadazala, erderaz ta euskeraz.»

— Orain ez orrelangorik, Floren. Zer esango leuskede Epikok eta? Zapatu-arrastian, azoka-bitartean, Mungiako zabala, bêko plaza, baserritarrez txil txil beteta dagoanean, orduantxe iragarriko doat ori.

Floren, peseta andia aurretiaz emonda, pozik yoan zan bere zaldi ta zalkurdia egozan tokira.

Gero unean-unean ta aldian-aldian tuntun-ots batzuk eta «Uritarrak» entzun eben uriko kaletxoetan. Felipetxu, mundu onetara ezkintzazan betiko etorri-ta, bein edo bein ilgo da. Nok orduan aren iru utsuneak berak lez bete al izango etedauz?

2

Egun áretan mungiarrak ezerabilen ez beste usterik buruan ez osterantzeko auturik alkarren artean, izlariak eta yardunak baiño. Bekosolo ta Morroskoren izenik entzun be etzan egiten. Arandui orretarako kontxoles! mutilla zala, Belaunde etzala arean gitxiago, Floren Andrakak bere zaldiai batzuetan «Jaunak» esaten eutsela, Laraudok Larrauriko zelaian eginiko diskurtsua erdiz erdizean itxi ebala zabal zan Mungian. Geienen ustez, au ezeizan yazo zer esan ezeukalako, bere arako izeko plentziar Urbanäa, asto-ganean karlistak erabili ebena, aitatuta, biotza samurtu ekiolako baiño. Eskola-mutillak, txirikillak eta tronpak baztertuta, izlarika¹ olgetan eben. Izlari-baltzuan lagun barriak sartu ta sartu egiten ziran. Guztien batzar bat izan bear ebela ta atarako Kartago naikoa etzalako, udaletsea eskatu eutsen alkateari. Sortu barria zan Bermeoko zoroetsea. Arangoitik, bene benetan gauzáa artuta, ango adiskide bati etse andi ak zeinbatentzako tokia etêukan itandu eutsan.

Ainbeste itzaldi entzunda, erria ezetezan gogaituta egongo

¹ (a oradores)

urrengo domekan Mungiaiko zabalera, bêko plazara, izkaldira yoa-teko? Onetxen arduratan bizi zan Epiko; eta auxe zala-ta ezaban aintzat artu Arangoitiren asmo, izlari-baltzu bat sortzeko asmoa. Maipuruko egin ezpalebe, *El Eco de Vizcayan* zerbait esango eban asmo ta baltzu ônen aurka. Zorionean utsak ziran Viñas de Andresen ardura ta bildurra. Erriak, bai uri ta bai uriauzoetakoak, izlari asibarrien lan ziztrintxoak entzunda, Begi ta Epikoren izkaldirako geroago ta gurari sutsuago erakusan. Yazoera axe zala ta etzala, Goi Amerikan lez temak¹ be egin ziran. Ona emen Arandui izlari ezagunak egin eban erdi-tema, erdi-aupadâa: «Begik ordu-erdian izka badiardu, Epikok bost minutu luzaroago ekin baietz; bost ogerleko edonori egingo dautsadaz.» Ona emen beste tema bat: «Euria odeiak inotsita egotziala bada be, Mungiaiko zabala domekan gizonez bete baietz; gura dabenari iru ogerleko.» Laraudo zan aupada onen yaube. Iñok ezeutsan yaso.

Beste asmo askoren artean bat sortu zan izlari-baltzuan, ez Afrikako Kartagon ez Italiako Erroman antzekorik izan ezebana; asmo sakona, bakarra «Izlariak banan banan izkatu-bearrean *disputau* —esan eban sortzaileak— pelotaka egiten danez, alde bateti iru edo lau, iru edo lau beste aldeti dirala, ezlitzateke ikuskizun ederragoa izango? Erromarrai onelango aupada bat yaurtigiteari egoki baderitxazue, neu izango naiz kartagoarren aldeko izlari bat.» Eztago asmo au nok erakutsi eban esan-bearrik. Irakurleak igarri aldau. Floren Andrakak.

Egun aretan Epikoren izena gora ta gora erabilen alderdi bateko zein bestekoak. Teviñok esan ebala ta gorespen² andiak zabaldu ziran; Arangoitik esan ebala ta andiagoak. Andra Isidorak Valladolidko teatru baten izketan entzun eutsala ta au ta ori ta bestea. Arangoitiren emazte Isidora Hayedok ezaban Epiko, Mungian ikusiarte, ezagutu; baia erri bat norbait goratzen asten danean, egiak eztau ez esirik ez mugarik izaten.

3

Ainbeste agoberoren artean erromar geienak euren gudalburu Begi azpiratua izango zala uste eben. Don Biribillek, Gatikako parroku don Blas Mendiolak, arrasti bi edo irutan, beti bardintsu «Gizonak —esan eutsen lagunai—, izkaldi-arazoetan erdaldunai baketan itxi. Gu A-B-C-D-ra eldu-orduko, orrek X-Y-Z ikasita dauke.

¹ (apostak)

² (elogio)

Zein zan arako Bizkaiko jaun «Sagarrez aberatsa, itzez landerra¹» zala esaten eutsena?² Gu euskaldunok salerospenean, itxasoak austen, mendiak zulatu ta burdinbideak egiten bai. Ikasle-arazoetan be ez kara atzerenak. Onelango egiñenetan bai, baia barriketan, itzaldi ta izkaldietan, dabenari dabena: *suum cuique*; erdaldunari baketan itxi. Yatabeko indianuak, Maurik, guztizko isilla izanarren, lagunen gogo abailduak zutunduta ikustearren edo, auxe esan eutsen: «Nire ustez, Epiko agertu be ezta egingo. Domeka-arrastian bêko plazaa bete bete eginda gero, an ikusiko doguz tribunan alka-tea, Ereñozti ta gure Arraitz. Epiko, buruko miña nai beste orrelan-go zerbait aikomaikotzat ipiñita, zeuok ikusiko dozue, ezta agertu-ko. Erri guztiaren belarrietan ak Busturiren agoti entzun ebazanak entzun eta agertu?»

—Txakur txikar baten lotsarik badau, ezta agertuko —ziñoan Anton Imazek—. Nik barriz agertzea gurago, askozaz gurago. Zuek eztozue gure Arraitz nik lez ikusi, lenengo gauean estu, bigarrenean nasaitxoago, irugarrenean zigarrotxo bat be, itzaldi-bitartean, erre al izan eban. Irugarreneti aurrera atsegina izan da, zoragarria berari entzutea. Ta zelan itz egin! Mundu guztia barreka, ito-bearrik, eta bera *beintisinco* baiño *serioago*, ezeren ardura bagarik, geure artean bailegoan, bere buruaren yaube *asoluto* ikusten neban. Arandui dendarik denda eidabil bost ogerleko tema egin gurarik: gure izlariak ordu erdian badiardu, euren Epikotxo orrek bost minutu geia-gotan yardun baietz. Nik dirua ugari baneu drapa! oratu ta bost txalen begiok sakelera. Gura badozue, zeuek baderitxazue, batak bi, besteak lau, besteak amar peseta artuta, guztion artean Arandui berbati oratu lekio.

—Hmm!— don Blasek.

—Zuek eztakizue gure Arraitzek bere arillean zeinbat ari daukan. Erdu gaur iluntzean Markaidara. Entzun zeuok berari ta gero ni isilik egongo naiz. Zeuok esan iztun ta izlari ona dan ala eztan, garaituko daben ala eztaben. Ni lenera beti; Epiko izkaldian ager baledi, oba. Osterantzean Laraudori ta Andraka zarrari nok ezpatetatik au kendu? «Agertu balitz, geure kolkoan egoan orain txoria.» Erromarrak, ez arduratan egon, ez bildur izan, ez larritu. ¿*Dove é il vostro cuore?*³ Geurea da garaipena.

Itz onen urren Alto-la edo *Yalto-la* abestu eutsen Anton Imazek.

¹ (pobrea)

² Nastetxo bat egin eban don Blasek. «Sagarrez ugarria, gariz urria» esan eutsen.

³ Non da zuon biotza?



XIX. Epikoren eskutitzak

1. Aginbako, Morrosko ta Teteri.
2. Eskutitz onen atzea.

1

Arangoitirenetik eskolaragino Treviñori lagun eginda, etsera yoan zan izlarien izlaria, Viñas de Andrés. Adonari beste sarritan be⁽¹⁾ «Iñor nire billa badator, eznagoala etsean» esanda, bere gelan sartu zan, burua ostu eban.

Iru eskutitz egin ebazan Epikok arratsalde atan: bata jauntxoari, bestea aldungeiari, bere emaztegeitzakoari irugarrena. Labur-laburtxorik erakutsi daioguzan irakurri gura dabazanari. Don Anbrusi, bigarren aita ebala esandakoan, auxe zirautsan:

«Berori emen izandako egunean barri ónek emotea buruti yoan ekidan. Arangoiti jaunaren asmoz izlari-baltzu andi bat sortu dogu. Baltzukide guztien gogoz ni, berton bizi naizalako edo, baltzuko nagosi izentau nabe, ta berori, don Anbrus, guztien gogo beroz ta txalo-artean deduzko maipuruko¹.

Lenengo batzar-bitartean isileko yarrialdi bat izan genduan. Leraudok paper batzuk aterata, berorren mendeko *La Concordia Cívica* orregandik artzeko daukan dirua zenbat zan irakurri euskun. Berorri lengo gabeen erakutsi eieutsazan; eta berorrek sorbaldak goratuta itzik ez mitzik erantzun ezebalako minduta dago.

Datorren igandean, gure izkaldia amaituta gero, Begik lotsarren, patari batek arzuloan lez, bere burua Erromako sendailu-ontzi artean ostendu dagianean, kartagoar garailariok udaletsean batuko gara. Gure izlari-baltzuak, berori maipuruan dogula, agizko batzarr² ospatuko dau. Ondo litzate berorrek orduko itzaldi eder bat atonduta ekartea ta dirua ugaritxo be bai.

¹ (presidente de honor)

² (junta general)

Bultzia¹ Mungiaira eldu daitenean asiko dogu gure izkaldi² entzutetsua. Bermeo ta Gernikati lagun asko eidoz. Gelunera Arangoiti ta kartagoar agirienak yoango dira, euren maipuruko ta aldungei ta andere Tete bear danez artzeko. Agur, iganderarte».

Bigarren eskutitza, Morroskorentzakoa, laburrago zan. Bere itzik yakingarrienak onetxek dira: «Zuek emen agertzea nora eze-koa da. Aukeraldia obeto dakust, batez be baltzu barria, izlari baltzua, sortu dogunezkeroko egun ónetan. Iñok eztau domekako izkaldia baiño besterik gogoan. Ezpazatoze kartagoarrok, agirienok beintzat, arpegi arpegian zaplada bana emon dautsezuela uste izango dabe. Badakizu, adiskide maite orrek, deduzko izki-mizki onetan Arangoiti nor dogun. Neure magaldunari, neure bigarren aita don Anbrusi egin dautsadan eskutitzean idoro dagikezuz zeatasun geiago. Zuretzako au ementxe amaitu bear dot, geure Teteri itz egiteko astia izan dagidan. Iganderarte».

Teteri, a! o! emaztenai ta geitzat eukan Tete ederrari eskutitz luze, laban, eztizko bat idatzi eutsan gero.

«Uztak³ ez igartu bai igartu dakusazan lugiñak euria itxaroten dabenez, itsas zabaletik bere senar aspaldion ikusi bagakoa noiz legorreratuko, izpazterrean⁴, zapi zuri bat gora ta bêra erabiliaz, egoten dan emaztearen era berberean, egon naiz ni neuk maite dodanaren erantzuna noiz elduko.

Nire lenengo ta bigarren eskutitzai zuk ez erantzun izatea biotzak diraust zerarren izan dan. Idaztortza⁵ ezta sortu azalpen batzuk egiteko, biotza barrutik atarateko, ez; begi ta ezpanetako egikizuna da au. Nondi dakidan? Orain berrogei ta zortzi ordu zure neba, amar egun barru aldun⁶ izango dogun neba Tomasi *Perikori goraintzi andiak* esan zeutsanean, ene zoria!! orduantxe zabaldu, orduantxe argitu ekidan aspaldiko zeru illun goibela. Itz orretanxe nekusan nire eskutitz orainarteko bien erantzuna. Iru perla orrek, zure ezpan nakarrezko orrei yaulki ðakezan iru itz ilezin orrek, santu baten erlikia⁷ lez pitean pitean ezpanetara daroadaz.

Zure osaba ospetsuari ta neba aldungeiari iganderako, emengo izlari-baltzuaren izenean, dei egin dautset. Zatoz zeu eurakaz. Zeu izango zauguz egun orretan Mungiaiko erregiña, zeu, neure Kleopa-

¹ (trena)

² (kontrobertsia)

³ (las mieses)

⁴ (kostan)

⁵ (lumea)

⁶ (diputadu)

⁷ (soinkina)

tra eder ori. Zu an tribuna-aurrean zakustazala, ez Begi lango basazlari bat (*un rústico orador* zinoan berak), Demostenes bera aurkari baneu, laster oinperatuko neuke.»

Ta onelantxe bigun ta legunik iru paper bete ebazan Epiko buruzorrotzak irugarren eskutitz onetan. Birridazki¹ bat atarata, korreora yoan zan lenengo, andik Berinoleagara Ereñoztiren billa.

2

Iru eskutitz onen atzea, nor nor dan yakinezkerok, erraz igarri daiteke. Morroskok, beretzakoa irakurri ebaneko, jauntxoaren etsera bidea artu eban.

— Perikoren barririk, osaba?

— Ortxe daukak bere eskutitz eldu-barria. Irakurri egik, gura badok.

— Orduan igandean Mungiara —esan eban irakurrita gero.

— Ni! Zetara? Oa eu nire ordez.

— Zer esango dau Arangoitik? Kartagoar guztiai zaplada bana emon dautsegula uste izango dau. Ementxe diraust.

— Nok diñok ori?

— Perikok, neuri egin daustan eskutitzean.

— Ta ik ori, kirten orrek, sinistu! Puertorriqueñoen barri ondo dakiat nik. Ori baiño andiagoak asmateko etxok orrek iñor bear.

— Eta Larauo ta beste artzekodunak?

— Zer dautset nik zor? Zordunik baldin bađagok, *El Rásimo* dok zordun, ez ni.

— Berori da, osaba, *La Concordia Cívica* orren maipuruko ta berorri dei egin dautse.

— Sentellas! Niri bai, baia ez *El Rásimoko* nagosi nazan aldeti, izlari-baltzuko buru egin nabelako baiño.

— Erritarren artera yoateko nakar!

— Araiñegun Mungiara, biar edo etzi Mungiara. Zer uste dok ik eta zer uste dok Pericok? Bizkaiko liberal guztien maipurukoa txarrazain bat dala, egun birik baten ara-ostera ibilteko?

— Dubarik daukagu ibiltea. Ondo begiratuezkero, ara yoatea emen egotea baiño merkeago dau. Lagun urezandikoakaz² Deustu-aldera ibiltera badoa, oiñetakotan kalte geiago.

— Ori be egia dok, baia ezneioak. Dirua ugaritxo eroateko! Len emon nebazanak gitxi bailitzzan!

¹ (kopia)

² (indianuakaz)

— Perikok berak eztau oraindiño bere lan andien saritzat zuriko bat artu. Asarratuko litzakigu ezpaginoaz; ta olangorik balitz, txulut! Agur nire diputadukuntzea.

— Eznoala.

— Aukeraldia galdua dakust. Kartagoarrak euren iskillioak lurrera yaurtigi ta erromarrakaz bat egingo dabe ta agur gu.

— Bost milla ogerleko andi emotea ezalda naikoa?

— Arako bost millak? Uretara yaurtigiak izango geukez, aukeraldia galdu badagigu. Irabaziezkerro barriz, beste amar, beste ogei, beste eun...

— Beste zireun⁽²⁾. *Iñusente, más que ñusente!* Illeti ezo ta bustiaz kea lez egiten aldok dirua? Berakotan?

— Ni aldun izan ezik, Gortalderen katanarrua, dirutza andia, beste batentzat izango da; ta *Iñusente* eztiran askok katanarru atan eun ezeze irureun milla ogerleko badirala uste dabe.

— Gortalderen alaba bakarra euretza izango doala ziur alago?

— Aldungei azpiratu bat nok gura dau senartzat? Diputadu jaun bat, beste aldeti, ikaste andiduna ta itxurakoa bada, zeñek eztau gura?

— Ori olan dala...

— Osaba, orren gauza gatxa alda ara yoan, Perikori entzun, izlari-baltzuko maipuruan yarri, Arangoitiri atsegin emon eta artzeko-dunai «Ekarri paperok, *La Concordia Cívica*-ra neuk eroateko»; au egitea orren neketsu, zail, egin-ezina eteda?

— Gero niri peseta bakar bat eskatu balegide...

— Ezetz, bein esanezkero, ezetz. Goazan orain Tetegana ea zuri-tzen dogun.

Tetek ain zuzen be eskuartean erabilten Epikoren eskutitz luze, laban, eztizkoa. Osaba ta nebäa ikuseran ez *egun on ez kaixio* esan be egin bagarik, asarrez «Guzurti — esan eutsan nebäari—. Noiz esan dautsut nik zuri itz bakar, soil, uts bat zuen Periko buru-arin orrentzat? *Perikori goraintzi andiak!* Ezalzara lotsa, neskatilla baten izen ona, arrebä batena ostikopean erabilten? Eta neugana zatoz, guzurti, aizun, maltzur, lotsabagako, neba txar ori! Neugana! U ortik!»

— Baia zer yazo da emen?— ziñoan don Anbrusek.

— Zer? Irakurri au.

Jauntxoak irakurten ziarduan artean, nebarrebak isilik eta alkarri begiratu be bagarik egozan.

— Esan ta esanda be ederto idazten dau gero! Berlin baiño burutsuago da (Merlin-en ordezkoa zan jauntxoaren Berlin ori.) Izlari-baltzua be sortu! Dirua, orixe eztaukala, ze osterantzean senargeizat eta neure lobageitzat ezkenduke Periko txarra izango.

— Berori be bai? —esan eutsan Tetek, ots baten paperak eskuti kendu ta amurruz zati zati eginda—. Bat au ta beste ori alkarren antzekoak zare. Izlari-baltzua! Izlariak, asunak lez, edozein zokondotan ernetan bailiran! Ori aintzat artu badozue, gangar batzuk zare, gangar, fepako, ganora bako, burubako, zentzun baktzar batzuk. Ara bazoaze, zuen Viñas txoriburu orri esan neure izenean, gutiesteko¹ be eztautsadala erantzun gura, ta bere eskutitza onelanxe artu dodala.

Au esaeran zati-zati egin ebazan eztizko iru paperak, auxe ganeratuaz: «Eztot nik aregaz ezer gura ta zugaz be ez, Tomas, guzurti, aizun, maltzur, neskatilla baten izen ona ostikopean darabiltzun orregaz».

Itz gogor onen beizentzat² bere gelako ateari ots andi bat emon eutsan Tetek eta barrutik ertsituta³ bakartu zan, osaba-lobak ago bete aginez itxirik.

Oharrak:

(¹) *lez, legez* zentzuan; gipuzkerazko bertsioan «bezela».

(²) Gipuzkerazko bertsioan be «zireun» dator.

¹ (despreziatako)

² (firmatza)

³ (zarratuta)



XX. Epiko ta adierazlea

1. Itz ebakeräa.
2. Atz-begiak.
3. Eskuketäa.
4. Berotasuna.
5. Adierazlearen arazoa. (1)

1

Tetek bere eskutitza edu atan¹ artu ebanik ezaban Epikok uste Berinoleagatik urtenda Mungiako kale nagosian Ereñozti lagun ebalá sartu zanean.

Sarri ikusi ebezan alkarregaz aurreko egunetan, izlaria beti esku-ketan ta zerbait esaten, adierazlea beti isilik, eskuak sakeletan sartuta, irakasleari beti adi.

— Zer etedirausso? Gizon orren argia! Orren ezpanen etorria! Nok ori garaitu?

Onelangoxeak izaten ziran erriak, eurak ikusita, egiten ebazan iruskinak². Egun atarakoak, orregaitiño, entzun al izan baleuz, ezeutsezan Epikori belarriak asko gozatuko. «Zelango zera da gizontxo ori? Arainegun-arratsaldean orrek emen izan eban lotsari andiaz barriro dator berori egun argitan, ezer yazo ezpailitzakion?»

— Ezneuke berori seme izan gura — zinoan beste batek.

— Seme! Nik ezta ostatuko be. Erruki dot Adona, erruki. Ordaindu³ etedautso gero berorrek orainarteko ostatua?

— Onelangoxeak izaten dira geien geien geienetan Santa Leguati etorten dakuzan gizontxoak. Miiña labana ta kitu besterik.

Erriaren esamesanok itxita, Epikoren autuari garraikiozan. Domekako izkaldia izaten zan beti euren arteko autua. Viñasek ikaski-

¹ (modu atan)

² (komentarioak)

³ (pagau)



zun aretan bere adierazleari¹ emondako itun edo burubideak² labur labur ta albait argiroen erakutsiko doguz emen.

Bostzuk ziran burubide onek. Euretan beste ainbeste izaki³ azaldu eutsazan albokoari: itz-ebakerea⁴, azbegiak⁵, eskuketäa⁶, berotasuna ta adierazle baten arazoa.

I. *Itz-ebakerea*. Izlari batek, bere itzak ganora bagarik, agin ar-tean, motel, alkarren ganeraturik nai larrapastaka ebagiezkero⁽²⁾, eztau inor berotzen; ta inor berotzen eztaben itzaldia⁷ alperrekoa da. Zelan ebagi⁸ bear dira itzak zirriada ona⁹ egingo badabe? Azarri, garbi, astiro ta zoli. *Azarri*. Onek zer esan gura dau? *Con expedición*, itzek ezpanetatik belarrietarako bidean sailean ta bata bestearen ondorik ibili bear dabela. *Garbi*. Zer esan gura dau onek? B b esan bearko dogula, ez *eme* -ren antzera. *Bilboko babak* eztogula *Milmoko mamak* esan bear. Onelantxe atara bear doguz agots guztiak, oso-osorik eta garbi garbi. *Geuk esango dogu*-ren orde *geuk esaaau* entzuteak il egiten dau, il, Ereñozi, erri baten gogo-berotasuna¹⁰. *Astiro*, baia ez astiroegi. Diskurtsu bat buruz ikasita daroenak, irutatik bitan, umeak *Dios te Salve* ta *Creo en Dios Padre* lez batean arrapataka, ondoegi dakienean, bestean kili-kolo itz egiten dabe. *Zoli*. Yardulari baten itzak ondo entzunak ezpadira, oba leuke gizagaixoak isilik egon. Datorren domekan zeinbat entzule euki-ko doguz? Zeinbatentzako tokia dauko Mungia-ko zabalak? Iru millarentzako? Ba iru milla ta bosteun egongo dakuz adi. Gure esanenak, ez au aiztu, gure esakizunak iru milla ta bosteungarren orrek entzun ta ulertu ezpadagiez, gure yarduna akasduna¹¹ izango da. Azarri ta garbi ta astiro ta zoli ebagi dagiguzan beraz gure itzak.

2

Azbegiak (erderaz *las facciones*). Izlari batek, izlari andi batek beintzat, azbegi ederretakoa izan bear dau.

¹ (interpreteari)

² (kontzejuak)

³ (gauza)

⁴ (la pronunciación)

⁵ (las facciones)

⁶ (los ademanes)

⁷ (diskurtsua)

⁸ (pronunciar)

⁹ (zauzkada ona, inpresino ona)

¹⁰ (entusiasmoa)

¹¹ (imperfecto)

Itsusia bada, isilik egotea eun bidar oba. Gizona bere kabuz¹, izakerako etsigitasunez² gura eztabela be, egiaren ta ontasunaren ta edertasunaren eske gurari andiz bizi da, yatorrizko gutarrez³. Azbegiz ederra eztan izlari batek zelan lotuko dau entzulên gogoa bere gogoaz? Ezin. Aren naia, borondatea, zelan beragandu? Ezin. Izlari ori itsusi-samarra⁴ izanarren, ortzargia⁵ danean, bere moztasuna gorabêra, zauzk eragitera eldu daite. Ciceronen sùrreko geritz esker-gäa⁶ ta Mirabeauren arpegi pekazkoa dira nire eritxi onen irargiak⁷. Begi, gure aurkari Begi Demostenes balitz be, gure izkaldian lur yoko leuke. Zegaitik? Nire itz eta gogamenen etorri ugariak eraginda? Eztiñot ezetz. Baia ni isilik egonarren, berorren itsusitasun, moztasun, ezaintasun, itxurgatasun, berorren mamutasun izugarriak lupetzatik musker bat baiño gorago yagiten eztautso itxiko.

Ortzargia ta maitagarria balitz, kortaurreko iruletan sasturik egon dagozan kakarraldoak be badakie, musuko artaziak zabalik, eguratsean⁸ ibilten; baia ori, u! ortzillun iguingarri, sendalgoaren⁹ lotsagarri ori, u!

3

Eskuketäa. A! Itzaldi baterako zein egokia dan eskuketa sona¹⁰, negurriko ta adiuntzazkoa¹¹! Andere¹² galant baten garrialdea ugel bitxidunak be⁽³⁾ edertu oi dau itzaldi bat onelan eskuak erabilteak. Eskuketa bagako izlari andirik banakaren bat ezagutu eida. Ez gero, Ereñozi, katuak bere erpeak lez, zuk atzamarrak banatuta edo berezirik erakutsi, baturik baiño; onelantxe. —Ta au esanda, Epikok, dendari asko begira egokiozala, eskumäa goraturik luzarotxo euki eban—. Atz erakuslea gora begira dala itz egitea prailezarren oitura itxusi bat da. Sarrien eskoia¹³ erabili bear dogu, ezkerria

¹ (por propia iniciativa)

² (por natural proporción)

³ (con ansia originaria)

⁴ (ezaintxo)

⁵ (simpático)

⁶ (enorme)

⁷ (pruebak)

⁸ (aidean)

⁹ (Medizinearen)

¹⁰ (graciosa)

¹¹ (oportuna)

¹² (señorita)

¹³ (eskumäa)

gitxitan; noizean bein biak batera. Guztiz itxusi da eskua goian nai zabalik daukagula izketan astea. Yokoa eta maian, bazkal-apal-orduetan, izaten eida norbaiten azieraa¹ ezagunen. Nik yoko ta maiari izlarien eskuketaa generatuko neuskio. Etzintzazan bart Kartagon izan? Olabek, eztakit noren manez, alderdiko agiriendi dei egin euskun. Gozogintxo² orrek kartagoarrean aukerazain ta gudalburu nor dan yakin bear leuke. Dana dala, zeu ta besteren bat ezpazan, besteok, garantzok, an gintzazan. Arangoitik esandako zerbaitek geien arritu nenduan ni. Legegizona dala, burutsua dala, asko ikasia dala! Onetan eztirudi. Gizona, Arangoitiren ustez, berez ta menduz ta izatez eida izlari. Barre egin dagigun, barre.

4

Berotasuna. Entzuleak berotu gura badoguz, geu esaleok, izlariok, bero egon bear dogu. Oztasuna eriotzea da; berotasuna, bizia. Dakarrela Mungiako zabalera Demostenes ta bere aurkari-tzat³ ager bedi nor? Autortegian lez dirautsut au. Bere orde z agertu dakigula Isasti, Aginbako ezyakiña. Demostenes, bere yakituria sakona ta eleantze⁴ arrigarria gora-bêra, otz balego ta don Anbrus bero, Greziako izlari andiak baiño zirriada⁵ andiagoa, zauzkada sakonagoa egingo leuke gure astokillok. Au ez aztu, Agustin. Neuk yardungo dodanez, zuk yardun bear izango dozu, bero-bero. Diñogun erdirik, laurenik, zortzirenik ulertu ezarren, buru ilun gelditu leitekez, baia biotz-bero; ta itzaldi ta izkaldi geien-geienetan yardulariak entzulên biotza ta txaloak baiño besterik eztau gura izaten, batez be entzuleak astotzar-taldea diranean. Begik gogo-berotasun au bai, badauko, ezin ukatu daite. Baia generako baldintasun⁶ guztietan urri dabil, motz dago. Lapiko uts batek, su ta gar-artean luzaro egonarren, alperrekoa izaten dau berotasuna. Begiren burua lapiko uts bat da. Zer daki orrek? Eta berotasuna zetarako dau?

¹ (edukazinoa)

² (konfiterutxo)

³ (kontrinkantetzat)

⁴ (elokuentzia)

⁵ (inpresino)

⁶ (kondizino)

Adierazlearen arazoa. Eznaiz, Ereñozi, esaten aspertuko: askok uste daben baino neketsuago, gaitzago, zaillago da biurtzaile ta adierazlearen arazoa entzulên burua argitu gura dabenean. Len esan dot, Agustin, domekako izkaldian biotza baiño eztodala gura. Orregaitino, mungiar buruillun onen errukiz, euren garun-artearen egiaren txinpartak, lokabetasunaren su argia be izegi¹ gura neuke. Biurtzailea² ta adierazlea³ eztira bardin, bana dira. Eztaukat orain astirik euron banatasuna azaltzeko. Nai dala biurtzailea nai dala adierazlea, bata zein bestea antzelariaren⁴ peko bat⁵ dira, biurlanetan esan gura dot. Ez mindu, etzaitetz musturtu, Ereñozi, eztot beste zentzuetan esan. Izlariaren gogamenak itzez itz ezagutu eragin bear dauz biurtzaileak. Adierazleak egoki izango leuke eskuketäa be izlariarena erabiltea. Nik erderaz mungiarrai belarri batetik sartuko dautse-dan guzti-guzti-guztia, irakatsiko dautse-dan dan-dan-dan-dan, zuk euskeraz beste belarritik oso-ososorik barruratu bear izango dautsezu, zeatz-zeatz. Zeatzasun bageko biurpenak kalte andiak ekarri dagikez. Beste antze⁶ batzuetan laburpenak egoki izan oi dira nozbait; eleantzean, *eleantze* arte de la palabra da, izlarion antze andi onetan ez. Gizonik andienen erretratuak⁷ arra betekoak izaten dira geienak, arra-erdikoak ez gitxi. Eta izantz örretan, txiki kazkarrak izanarren, gizona osorik agertzen da. Gure arazo andi onetan laburtzea ta bizia kentzea sarri bat izaten dira. Egin dagigun, Ereñozi, datorren domekako izkaldi orretan nire ezpan erdaldun ónek bost minutuko esaldi bat⁸ emoten daustela, zoli, mamintsu, zirzartekoa, asieran oiñak eta amaieran⁽⁴⁾ burua daukazan esaldi entzungarri ederra. Zuk, esate bat baiño ezta, Arangoitiren betiko leloari yarraigirik, nire esaldi ori, zolitasuna kenduta, mamiña ikolduta, zirzartadäa ilunduta, oiñak eta burua moztuta laburtuko bazeust, o neure Puertorrico ederra!! Garramaztu andi batek nire ezterrri au ots bage itxi ta eskillasokumeak lez krrrrr baiño besterik ez atara al izatea gurago neuke. Bai, lagun, bai. Edozeini barriro ta barriro esango neuskio nik «Biurtzailea zara, zeatza izan zaitez».

¹ (biztu)

² (traductor)

³ (intérprete)

⁴ (artistearen)

⁵ (esklabo bat)

⁶ (arte)

⁷ (izantzak)

⁸ (parrafu bat)

—Aparitara yoan bear dot belu da-ta.

—Azken-oartxo au entzuizu yoan-orduko. Domekako lana zezaz ordainduko datzu, Ereñozi? Zer emon dagikezugu zure laguntasunaren alderako? Isastik eta emongo daben dirua gitxi izango dala uste dot. Agiriko lanak agiriko saria bear dau. Egunen baten ni Gernika-aldeko *Diputado a Cortes* izatera eldu banendi, etzenduke zuk ezer galduko. Floren Andraka astokillo orrek birritan aitatu daust Mungiako alkatekuntzea. Orain daukazuen alkate au, batetik arotza dala, bestetik luzaroegi dagoala ta... «Egin nagizu neu Mungiako alkate» zearka-mearka auxe esan gura izan daust kokolo andiak. Busturik, Kartagoko sakristau orrek be, izan gura leukeala uste dot. Ez bat, ez bestea. Zeure arlo domekakoa ondo bete badagizu, Viñas de Andresen itza, Agustin Ereñozi izango da Mungiako alkate. Eta orain zerbait yakin-arazo gura dautsut. Gure izkaldirako, beste gizon andi batzun artean, don Anbrus Torrealdea, gure aldugeia ta Gernika-Bermeoetatik be asko ta asko eidoz. Isasti ta lobäagaz euren etseko beste norbait be etorriko ñaku ta ardura andiz ta zeaztasun osoz biortu, Ereñozi, nire esaldiak.

Geiagoko bârik, adierazleari eskua luzatuta, bestela baitakoan, ezker-eskuma iñor adi etêukan begiratu eban Epiko gureak.

—Gizon orren barritsua!— ziñoen, zortzigarren bidarrean gixienez, dendari astitsu ikusgura batzuk.

Ereñoztik «Barritsu, eskilasokume ori» esanda, etsera-bidea artu eban.

Oharrak:

(1) Orijinalean XX. kapitulu honen atalen izenburuak idatzita eta tatxatuta ageri dira.

(2) Orijinalean ez da argi ikusten «ebagiazkero» ala «ebagiezker» ipintzen daben. *a* eta *e* bokalak bata bestearen gainean idatzita ikusten dira baina ez dago argi gainean dagoana zein dan. *e* ren tintak gogorxeago dagoala dirudi eta horregatik erabagi dogu «egabiezker» ipintea.

(3) Ikus XIX. kapituluko⁽¹⁾ oharra.

(4) Orijinalean ez da argi ikusten «amaieran» ala «amaierean» ipintzen dauen baina hemen «amaierean» ipiniko baleu, zergaitik ez hiru hitz lehena go «asierean»?



XXI. Izkaldi-aurrean

1. Izlariak euren albotikoakaz udaletsean.
2. A zan gizontza bat!.
3. Jauntxoa ta Morrosko izkaldira.

1

Motz, goibel, belun ta euriantzeko zabaldu zan irailaren 25 garrren eguna. Etorkizunean izan bear eban entzuteari ezegokion, urretan be, ekarren taiua. Lenengoz inguru aretara eldurikok ezin igarri egikean eguzkiak ogera-bidea non eban, ezta zein mendiren sorbal-dan yagi oi zan be, ala Yata, ala Taillu, ala Obargane, ala Sollubere-nean.

Tontorrik tontor odei lodi, egaztien papar-antzeko ertz bâko ta egal -biribilak, euren barruan arriabarra ezkutuan baileroen, astiro astiro yoazan, ur-tanta bakar bat ezerioela. Itxastxoriak, egoak zabal-zabalik, egabide guztietara yota, odei gilbor- andiak algandu ta marratu nairik ebilzala zirudian, bêtik gora, goitik bêra, eslaika, ezker-eskuma ta zearretara. Odeitzar arek batetik bestera igaro ta zulatzen etzan bat be azartu.

Zortzirak-inguruan, Yatak burua laño narrasez estali ebanean, bere barren-inguruetako auzoetan, alderdi bateko ta besteko gizonak betillun ta larri egozan, mendigane biribillari begira; larrien kartagoarrak, arratsaldeko garaipena txapelean eukela uste ebelako.

Goiz beranduan odeiak ezeuken goiz erdian baiño argi geiago. Eguerdi-inguruan alan be Laukariz-ganeko odei murru batzuk barruak argitxoago erakusezan⁽¹⁾. Amabietako txilinak ots egin-aurretxoan, odei-murru aren artetik eguzkiak bero bageko guar¹ luze luze batzuk, egun atako lenengoak, erakutsi ebazan; eta, batean agertu, bestean ostendu, kuika ebilzanartean, Mungiaiko udaletseko

¹ (errañu)

armailletan gora sei gizon, lerro biñatan yoazan. Mutil tirlo¹ andi bat orpoz orpo sei gizonoi zerraien armaillak yoarte. Nortzuk ziran gizonok? Arratsaldeko izlariak, bakotzak albotikotzat lagun bi eba-zala, aurreko irurak Epiko, Arangoiti ta Treviño ziran; atzekoak Begi, Larrinoa ta Zabaleta.

Alkatea ta zadorlaria², orduko, udaletsean ziran, beste seirak noiz elduko begira. Zadorlariak (gutzizko gerri ta ezpan-biguna zan sekretarioa) Epikori «Viñas de Andrés jauna ezagutzea dedu andit-zat deukat» esan eutsan; eta beste onelango esakera gozo ta txikol batzun ondoren, Arangoitik bere adiskide ta erdi-mendeko alkateari itz ónek zuzendu eutsazan:

— Endore, egizak oraintxe guztion aurrean niri goizeon egin daustazan itarantzunak³.

— Nik diñot eze (sic) —zirautsen alkateak—, nire belarrietan atzo goizeti asita onakoan, zurrumurru bat, etenaldi gitxiko zurrumurru andia, ñabiljala. Baldin nik entzun dodana sinisgarri bada, Mungian ta bere uri-auzoetan ta inguruko basauritxoetan ezta gaur arrastian izkaldira etorri bagako gizon bakar bat be geratuko. Ta nik diñodana auxe da: euririk balitz, ta euri-antz andia dago, izkaldia non? Zabaleko tribuna ori alperrik eregi dogula uste dot. Emen-txe izan bearko; eta, dakutsuenez, udaletse txiki onetan eun gizon baiño geiago alkarren ganean ipini ezik-i... kuidao!

Begik: Eun gizon emen! Berrogeta amarretik gora baete? Izkaldi au goizeko seiretan balitz, entzule guztiak baru barurik dagozanean! Baia arratsaldeko lau ta erdietan? Ugalde, eztok uste bakoitzak, bere gilborrean⁴ ondo gordeta killotxo biñagaz etorriko dakiguzala? Ta gilbotzar puzgotu arek nok ikoldu? Berrogeta amar be...

Itoarteko barre-zantzoak egin ebezanean, Ugalde zadorlariak onelantxe gozo-gozorik yarraitu eban: «Zer da egitea? Izlari ta albotiko zarênok zeuok erabagi. Euria bada, eguenerako epetu edo luzatuko aldogu izkaldia?»

Epikok. Eguenean be euria izan daite ta euria dalako gure izkaldi au barriri epetu bear badogu, txulut! Ganera eguenean euria izan ezarren, nok solotik atara Txorierriko baserritarra, astegun buruzurian? Gomuta dot, ni ona etorri-barritan, Yatabe ta Gatika ta Laukariza eldutxo bat egin geuan. Don Ambrosio Isasti andi-andirik, itzaldi bat egitera...

¹ (mortxaka)

² (sekretarioa)

³ (indikazinoak)

⁴ (en la panza)



Arangoitik. Viñas, entzun au: «Don Anbrosio» ta «izlaria» ta «andi-andirik» eta olako jaboi-purrustillak arrastirako itzi badagizuz, oba. Emen, nor dan badakigu-ta, *petit comité* onetan astokillo ori aitatu nai badozu, «don Anbrus Aginbako» esaizu. Orduko izlari-txangoa¹ gomutaratu nai badauskuzu, zetarako diñozu «itzaldi»? «Arrantzaldi» esatea ezetelitzate zeatzago izango?

Viñasek ez, beste guztiak luze ta gozaro barre egin eben.

Alkateak. Eta zuk, Arraitz, zer diñozu?

Begik. Nik? Neuk be, Viñas de Andresek lez, nai euri, nai aterri, egin bear dana gaur bear dala uste dot. Emen ez gero, emen ez, zabal orretan baiño.

Zabaletak. Euria bada, eztozue uste, gizonak, batzuk garramaztua, beste batzuk eztula, beste batzuk alborengoa...?

Begik.... beste batzuk *cólico miserere* izango dabela? Baserritarra nor dan eztakizue. Baserritarra, gure baserritar au, eztau ez eurik busti, ez aizek oztu, ez eguzkik berotuten. Txakurrak lez soiñari ta soiñekoai dri-dra! astiñalditxo bat emonezkero, euririk ezpailtzan legor-legor gelditzen da.

Alkateak.(Barrea naikoa eginda) Zuen bion gogoia bada, aurre-ra. Orain beste zertxo bat. Zein luzaro ekin gura dautsazue, izlariok, zeuen lanari?

Epikok. Bakoitzarentzat ordu bete bear da.

Begiren albotikoak arri ta larri geratu ziran. Euren izlaria ordu bete izketan luzatu zegikeanik ezeben uste.

Alkateak. Don Donatok zer diño?

Begik. Bakotxak ordu-erdi asko dogula uste dot nik, geigarritzat, besteari erantzuteko, amar bat minutu generatuezkero.

Epikok. Amar minutu orrek naikoa eztirala badakusku, erriari beste ogei bat minututan ekiteko eskubidea eskatu dagikeo.

Guztiok au, eztabaida baten urren, ontzat artu ebanean, alkateak «Eta adierazlearentzat?» itandu eban.

Epikok. Beste ainbeste.

Eskakizun au lartzat euken beste guztiak. Epikok, ostera, arren bai arren, noraezekoa zala ta biurkuntza onik gitxiagotan ezin dala, ta au zala ta ori zala, eragon ebanean, iñok ezeutsan eragozpenik erakutsi.

Ordurarte txit bat atara bagerik egoan zadorlariak, buruari orretarako makurraldi bi edo iru eraginaz, «Jaunak —esan eban—, noren lepotik eregi dogu zabaleko tribuna² ori?»

¹ (espedizinoa)

² (yardungu)

Begik. Izlari biok erdi bana ordaindu dagigun. Ezalderitxazue ondo?

— Nik ezteritxot ondo, ondoegi baiño. Irazketa¹ orrek alderdi bien generakoak izan beitez.

Arangoitiren uste au guztien eritxiz aintzat artua izan zanean, sekretariok (*sic*) beste makurraldi bi buruari eraginaz, «Eta zein izlari asiko da lenen?» itandu eban.

Zabaletak. (Irri-barrez) Nire ustez alderdi batak zein besteak etserako ta etseko oilarrarentzat gura edodau omen ori. Zein lenen ta zein bigarren zozketan erabagitea ezal-litzate egokiena izango?

Arangoitik. Zabaletagaz nago. Artu dagiguzan luze-laburrean bana diran zotz bi.

Zadorlariak, bizkor-bizkor sala²-osteko papertegitxora yoanda, zotz baiño ezkarda-izena egokiago eukên zozpaltxo bi ekarri eban.

«Mutilak —esan eban Arangoitik eurak ikusitakoan—, esku bat gitxi dogu orrek estaltzeko. Viñas, zu gaztêna zara ta egon begira dagiguzanartean. Andiena yaurri³ dakionak lenengo itzaldia egin dagiala.»

— Nai bigarrena —ziñoan Viñasek—. Nik, egia esan, neu asi baiño lêngo, aurkaria entzungurago neuke. Izlari baten lana obeto nabarmentzen da, askozaz obeto ikusten da, beste izlariaren itzak neurtu, aurkariaren yita...⁴

— Bai, bai, bai... ulertu dogu. Aurra bada, Periko! Itzuli⁵ beste aldera, Ugalde zadorlariak eta nik zozpal-zati orrek estaltzen doguzan bitartean.

Epikok, ormara begira egoala, surpekoa⁶ zorroztuta itzuli zanean «Au neuretzat» esanaz andiena aukeratu eban. «Nire aurkari Arraitz jauna izan beite itz egiten lenengoa» generatu eban.

Isil-misilka ta larri asi ziran Begiren albotiko Larrinoa ta Zabaleta alkarri zerbait esaten. Euren ardurapekoak, bigarren itz egin bear izan baleu be, bardin uste dot egingo ebela. Geroago bildurrago ziran.

Alkateak. Ni non yesarriko naizan, izlariak non eta non adierazlea dakuskun orain, yardungura bertara yoanda.

Arangoitik. Pello, tribunara bagoaz, Mungia guztian barria zabalduko da ta bazkaria mai-ganean itxita, euliak eznetara lez, orra-

¹ (gastu)

² (hari)

³ (korrespondidu)

⁴ (yokerea, etsigitasuna)

⁵ (bira)

⁶ (bigotca)

xe etorriko datzuz zure ardurapeko guztiak. Berton gagozala oba dogu erabagi. I non yesarriko aizan? Orrek etxaukak zeri eragin. Uri bateko arazoetan alkatea erdi-erdian beti. Ire eskumaldean zarrrena, Arraitz yarri dedila, ezkerrean Viñas. Adierazlea, egingo dabentxoagaiti, beronen oiñetan balaiegok be...

Alkateak. Eta izlarientzat ura, ala ardaoa, ala zelango edaria?

Geienak. Ura.

Begik. Benetakoa ala olgetakoa izan dogu, Pello, itaunetxo ori? Barre beste guztiak.

Alkateak. Zuok gaizdunai urik gitxitan arrarazoten dautsezue ta nik be...

Begik. Il-aginik¹ gagozala ezaldozu uste?

Epikok. Zeinbatetan gara asteko? Ze ordutan?

Arangoitik. Arraioa, Viñas! Ta zeuk esan neure aurrean atzo goizean Felipetxuri «Felipetxu, lau-lauretan asiko dala iragarri egizu»? Etzenduan gero entzun «Uritarrak, biar arrastiko lau-lauretan...»?

Epikok. Bilboti datozanak astia izan dagien, izkaldia lau ta erdietan ezin asi al dagikegu?

Zabaletak. Erri bat yostaillutzat artu ta orrelan erabiltea ezta zillegi, ezta lege.

Begik isilean «Itxiok, oba ñoagu-ta» esan eutsanean, «Baia, gizonak, nigaiti... Zuek Viñas de Andrés jaunari ontzat artu gura badautsazue...»

Arangoitik. Felipetxuri beste aldarri bat yo eragin bear.

Alkateak. Orregaiti etxaku asarratuko. Pozik dabil aspaldion gure aldarrilaria.

Lentxoago Begi, toxa zabalduta, zigarrotxo bana guztiai eskinten asi zan. Zadorlariak isiltxotik Epikori «Ezalzara emen inoiz izan? Etsari² au lenengo elizgizonentzako garaia³ zan, amarrenak gordeteko goianengoa. Onen bêan sakristeia dago. Udaletse au umildea⁴ zan ta zan lakoxea geratu da barriztauarren. Ardi txikia beti bildots ta ogetxikia beti oako... Errege ta erreginaren erretratuak⁵ beste uritan emen baiño lenago ezarriak izan etediran eztakit. Eskoaldean daukagun au Elordigoitia da, Mungiako seme ta ongille andia, luzaro Argentinan egona, bertan aberastua. Lengo baten il da.

— Ezkerraldean dakustan au, nor da? Bere anairen bat?

— Ez, Elordigoitia bera, Argentinara eroan eban txapela ta txa-

¹ (noiz ilgo)

² (sala)

³ (horreo)

⁴ (apala)

⁵ (izantzak)

marrotea aldean dabezala. Gaisotegi-egitamua¹ eztozu ikusi? Ementxe daukagu.

Zadorlariak Epiko zokorik bazter erabilenartean, Zabaletak bere anaitzako² Larrinoari bere barruko bildur ta sarrakioa³ erakutsi eutsazan. Eta elkarrizkeria, inok entzun bagako zerbaite, esanda «Izlari jaunak —zirautsen Zabaletak Arraitz ta Viñas de Andresi—, iru-lau milla gizon euritan eukiteak, zelango atzea ekarri dagiken badakizue? Zuok, erri onen osasuna zeuon ardurapean dozue-nok, ori egingo etedozue?»

Epikok. Albotiko jaunak, ori erabagita dago. Euria balitz, entzun gura eztabena bego bere etsean.

Arangoitik. Emen, Floren Andrakak Meñakan esan eidabena yazoko da. «Zer da demokrata inkondisional? Datorrena datorrella, aurrera beti egiten dabena.» Amaika onelango gaur arrastian...!

Lagunen barre-zantzoak ezeutsen amaitzen itxi.

Begik. Mungiako notarioa⁴ euriaren örren bildur bada, doala parroku jaunarenera ta auzkarako oilar biontzat sotana bana eskatu dagiola, ganeko zuri ta guzti. Gero sermoiak egitera, bai Viñas ta bai ni, elizara bertara yoango gara ta an, Zabaleta, an inör ezta bustiko.

Beste barrealdi baten urren.

Arangoitik. Zabaleta, parrokuaganik ori ezin lortu badozu, aldarrilaria auzorik auzo bidaldu daite ta oi dabezana inünün-otsak yota gero, auxe gitxi gora-bêra iragarri dagiala: «Auzotarrak, Mungiako alkate jaunak osasuna ta bakea ta ganera auxe dirautsue: “Gaur arrastian euri arradan, odeiak egotziala euri, izango da ta Mungiako izkaldira eztaiteala inör etorri, inör be ez gero”».

—Orduantxe geiago etorriko litzatez —erantzun eutsan Zabaletak.

Erantzun au ezaban inok entzun. Guztiak barren barrez ito-agnik⁵ egozala zirudian. Isildu ziranean «E, Viñas —ziñoan Arangoitik—, arratsaldean indardun agertu al izateko, len bai len bazkal-tzea on izango da. Goazan.»

Kartagoar ta erromarrak, bein kalera nai azokara nai gelunera elduezkero, otso ta otso agertu bear eben. Auxe egin eben eguerdi atan be. Atea, kalerako atea zabaldu baiño lenago, adiskide mamiñak bailitzazan kar-kar-kar; atea zabalik ikusi ebeneko, ixxxxo! irunaka ta txordo⁶ azaldu ziran udaletseko armailletan. Puertorri-

¹ (plano del hospital)

² (koñatu)

³ (el pavor)

⁴ (barataria)

⁵ (ito-bearrrik)

⁶ (serio)

koar izlaria, bere albotikoak lagun ebazala, aurretik; txorierritar izlaria bere biakaz atzeratxoago. Mordo batekoak bestekoai ez itzik ez mitzik zuzendu bage, mailletan bêra yatsi, azoka luzea igaro ta bakotxak bere etsera bidea artu eban. Itzik alkarri egin ezarren, mailladi-ganean ziraneke, burua yaso ta Yata-aldera begiratu ezebanik etzan bat izan. Sartu ziranean baiño urdin-une geiago ikusirik «Neuk iragarri dodana — esan eban Begik—, zemaika¹ ta illun-millunka, baia euri bagarik gautuko da gaurko egun au. Euriori badiñotso, eliztxori baten egarria ilteko beste tanta ikusiko dogu; andik gora gauza andirik ez.»

2

Mungiako ardantegi, ostatu ta kafetxeak ezeben aspaldietan izan egun etorritsuagorik, yale-edalez ain ugaririk. Iru labaldiren orde ez sei egin ebezan ogidunak. Arakinak iru zekorri eratsi eutsen narrua. Oillasko-oillanda, arrautza ta txarrikien domua², errekaize epeletan termometroa³ lez bat-batera goratu zan. Bermeoko arraindunak, ekarrena saltzeko ezeben Bilboratu bear izan.

Irurak baiño lenagotik zabalerantz yoten asi ziran gizonak. Ordu ta erdi igarotxotan, euritêtan aintzira batera, ganez eragin bage, ibai ta ibaitxo, lats ta laskume, erreka ta errekatzo, areka [ta ubideak ura ekarten daben antzera, auzo]⁽²⁾ ta aldauritxo guztietatik mordo andietan etozan yardunzaleak. Laurak yo ebenean, eze-goan zabal guztian⁴ arra beteko utsunerik. Kartagoar agirienak, ikusgarriena Floren Andraka zala, sail baten egozan, yardungu ondoan. Beste alderdiko gizon entzutetsuenak, Anton Imaz, Zabaleta, Larrinoa, Mauri, Yatabe ta beste batzuk, atzerago mordotu ziran. Batzuk zein besteak zantzolari bana euken euren artean: Larraurikoa, kartagoarrak; erromarrak, Markaidako Andres, euren ustez, eguzkiaren azpiko ta bedarraren ganeko zantzolaririk zoli ta arnasa-luze ta bular-sendoena. Arangoiti ta Busturi, gernikar adiskide batzuk lagun ebazala, yardunguaren ezkerretako etse baten egozan. Euren goiko aldean, tellape bardinean, uriko ta aldaurietako elizgizonik geienak batu ta kê-artean agiri ziran.

¹ (amenazando)

² (balioa)

³ (eguraztia)

⁴ (azoka osoan)

Laurak ots eginarren, yardungua¹ utsik ikusita, Felipetxuren aldarri barriaren ezaguera bakoak euren epebakotasuna eztulka erakusten. Floren Andrakak sei bidar gitxienez, alde guztietara begira, zoli-zoli esan eban:

«Gizonak, lau ta erdietan asiko da izkaldia. Don Pedrok esan daust.»

Elizgizonen artean, batean don Blas Gatikako, bestean Meñakako parrokoa (gizon txiki ortzargia zan au) sapaillora² urtenaz, ezker-eskumara adi egon ziran, gaztaña otsorpoen garauak baizen estu egozan gizonai begira. Eztabaidatxo bat erakori zan euren artean: don Blasek, lau milla gizon baegozala baturik; Meñakakoak, iru millatik gora zetz.

Urrengo etsearen irugarren bizitzan, sapaillu luze-luze baten, eskuz taiaturik be ez politoago, errenkada biten agiri ziran buruak; lenengo errenkadan ule luzeak, andrazkoenak; gorengoan, ule motzak, gizonezkoenak. Etzan leio bakar bat erdi utsik agiri. Azokarako³ uneak, begiragu⁴, sapaillu⁵, leio ta leiotilla, guztiak egozan bete-beterik, ikuslez yosita. Iletadun⁶ etse apal, egun batzuk lenago alargunduriko emakume batenean, alboetako leioak itxita egozan, zabalik erdiko sapaillua baiño besterik ezeukela. Antxe, izkalarriak euren arloa asi bear eben aurretxoan, emakume gure ezagun andi bat, andra Isidora Hayedo Arangoitirena, zabal-zabal ta berera⁷, alboan iñor bagerik yezarri zan.

— An dago nire sakristaua —esan eban pozik Meñakako parrokuak—. A egon, onelango yokeretan agertu barik?

—Aup! —entzun eben onetan elizgizonak. Anton Imazen deardarra zan. Sotanadun guztiak, erromar agirienen mordoa ikusteko, iduna luzatu eben.

—Non dira latsibitarrak? Santi Latsibi ta Pedranton non diran!

Mauri indianuak itaune au ezin entzunda, ezkerreko belarri-ondoan eskua zabaldu eban.

— Zuen alkatea ta bere aita non diraaaaan!

Soinak⁸ goratuta, burua makur ta begiak itxiaz erantzun eban Maurik. Nok an ezer ulertu? Iturri baten txurrupean bete aginik dagoan bonbil baten samatik lez, ondo beteriko azoka atan geroago ta burrundada andiagoa entzuten zan, itzak?, banakarik be ez.

¹ (la tribuna)

² (balkoira)

³ (Zabalerako)

⁴ (miradorak)

⁵ (balkoiak)

⁶ (lutodun)

⁷ (cómodamente)

⁸ (sorbaldak)

Jauntxoak eta Morroskok, Bilbotik eldueran, Treviño baiño besterik ezekusen gelunean¹. Ganerako kartagoar ezagunenak, izkaldiko ezer ez galtzarren, lekua artuta egozan. Labarto gelunezaiña ta Treviño maisuaren erdian sartu ziran osaba-lobak Mungian. Gizon bakar bat aurkitu eben kale nagosian, Lejarzegi mediku zarra. Morroskok, nor zan yakin ezarren, kapeläa eskuan ebala, agur egin eutsan. Aukera-egunetan aldungei guztiak gizabidetsu ta txeratsu² izan doaz, irribarrekor, «Agur ta kaixio» ezpanetan bêra, arnasäaz bateratsu, erabiltekoak.

Zaletasun⁽³⁾ bat eta detu³ bi eukazan Lejarzegik. Tresilloa zan bere zaletasuna. Detuak: politikäa agotan artuta txakurrenak esatea, bata; bestea, laranja-azalak makilläaz espaloitik⁴ kale-erdira egoztea. Bilbotik etorri-barri arek ostendu-orduko, atzetik eurai begira ta bularraren indar guztiaz auxe esan eban:

«Sendabidea, besterik ezarren, azkordinak zelan kendu, nai burengoa zelan ibitu⁵ darakutsuenean, erdu gizonok mediku barritsu onek entzutera, artean ez. Ai euri eder bat!»

Amaika onelango esan eban sendalari urtetsu ta dedutsuak, izkaldiak zirauen arte luzean. Iñok ezeutsan erantzun. Ezin erantzun al zeikean guztiak zabalean, *Plaza de los Fueros*-en, egozan-ta. Lejarzegi aserratuta ikusteko laranja-azalak espaloietara egozten⁶ ebezan mutillik bakar bat etzan agiri Mungian kalêtan.

Jauntxoa ta Morrosko andra Isidora egoan etsera eroan ebazan Treviñok. Alkarri esku-emote andiak eginda gero, osaba-lobak yesarreran, euren artean artu eben andra Isidora. Jauntxoak burua gixitan agertu eban. Aldungeia ta maisua alde guztietara begira egon ziran.

— Onenbeste emakume eder ikusterik ez neban uste —ziñoan Morroskok—. Nortzuk dira yardunguaren ganeko aldean agiri diran lau neskatilla arek?

— Las Andrakas—erantzun eban maisuak.

— Orrenbeste abade dozue Mungian?

— Aldaurietakoak dira geienak.

— Urrengo sapaillio atan agiri diran gizonak?

¹ (estaziñoan)

² (caballerosos y cariñosos)

³ (mania)

⁴ (oinbidetik, azeratik)

⁵ (calmar)

⁶ (botaten)

— Arrotzak dira. Euren zarataa entzun ta bizitasuna ikusita bermeotarrak dirudie.

— Eta arako beste gizonak? Zapi zuria dauko batek paparrean.

— Bekosolo da erdikoa. Besteok Bermeo ta Gernikako aldungei bere lagunak dira aurki¹.

Lau ta erdiak yota isilaldi bat egin zan ta yardungu -ondoko gizonak ozta-ozta, estutzeko lerrenak eginda, izlari ta adierazle ta alkateari ibilpea zabaldu eutsen.

Oharrak:

(¹) Orijinalean hasieran «erakusezan» egoan idatzita baina z ren gainean tintaz beste zerbait idatzi ebala dirudi, r agian. Dena den, testuinguruan «erakusezan» behar litzake. Gipuzkerazko bertasioak be «zerakustezan» dakar.

(²) Orijinalean esaldiaren zati bat falta dala nabari nabaria da. Gipuzkerazko bertasioa oinarriztat harturik osatu egin dogu geuk esaldia.

(³) Orij. «Zabaltasun», baina hurrengo esaldian «Tresilloa zan bere zaletasuna» dino eta gipuzkerazko bertasioan be «Zaletasun bat» ipintzen dau. «Zabaltasun» hitzak ez dauka inongo zentzurik testuinguru honetan.

¹ (bear bada)



XXII. Izkaldia

1. Alderdi bietako agirienak.
2. Zantzolariak eta alkatea.
3. Begiren itzaldia.
4. Etenaldiak¹

1

Epiko agertu zan aurren; bere ondorik, Ereñozi adierazlea; Begi, urrengo; guztien atzetik alkatea. Zurmailletan gora igonda, yardunguratu² zanean, kaltzerpeko paperak mai-ganean itxita gero, ezker-eskuma ta goietara begiratu eban luzaro ta begi argiz sendalari gazteak, batez be andra Isidora egoan etsera. Tete antxe egoala uste eban. Iru mai ta lau aulki egozan bertan atondurik; irurak, eskuzala egoanez, miesa gorriz estalduta. Kartagoarrak alegin andia egin eben, Epiko gora eldu zanean, txaloak yo eragiteko; ezeben asko aurreratu. Lotsazkoak zirudien entzun ziran apurrak.

Goitiko txalo batzuk illeta-etsera begira, andra Isidora ta egozainera, ipiñi ebezan lagun asko. Andra Isidorak gizatzar batenak lan-goxe txaloak atara ebazan bere eskuetatik, zoli-zoliak, gogo berozkoak eta ugari. Txaloak zelan yo ikasita etorrela zirudian. Bere senar ta lagunak be alegintxoaa egin eben, baia atze andi bagarik. Arangoitik orduan alboko lagunai «Baserritarren eskuak —zirautsen—, eztakie txalorik yoten. Atxurra eztarabilenean, pipäa darabille, eztakie besterik.»

2

Larrauriko zantzolariak, Floren Andrakak zirikatuta, ujuju ederra, luzea yo eban. Markaidakoa, erromarrena, agoa zabalik egoan erantzuteko.

¹ (interrupciones)

² (tribunarratu)

— Gerotxoago, Andres, gerotxoago, geurea agertu dadinean—
esan eutsan Zabaletak.

Begi yardunguan¹ agertu zanean, a zan txalo yotea! Inok ezaban uste, ez aldekok ez aurkarik, alango arrera beroa izango ebanik. Maitetasunak erabilzan eskuak alkar yoten, aldekotasunak baiño luzaroago ta geiagorenak.

—Asiera txarra —esan eutsan Busturik Arangoitiri—. Baserritar-
rrak eztakiela txalorik yoten? Orra or.

Ango abarrotsa ibitu zanean, alkateak, txilin bati ots eragin ta zutunik «Gizonak —esan eban—, Mungiako erri onen izenean eske-
rrak erbeste ta uri auzoetati gure artera etorri zarenoi. Zeuon ontasuneti itxaroten dot izlari yaunai eztautsezuela egoki eztan erakus-
terik egingo, ez deadarrik, ez txisturik, ara be gitxiago iraunik ez eupadarik. Txaloak yoteko, ondo egingo dozue esaldiak² amaitu-
arte itxarotea. Guzti-guztiok izkaldi onen gomuta on bat eroan da-
gizuela.»

Txaloak alkateari yesarri zanean. Zabaletak orduan lagunai
«Orainarte alderdi bagako daukagu morroi au.»

Alkateak barriro, txilinkada biren ganerako ta zutundu bagarik,
itz onek esan ebazan: «Donato Arraitz Sagasti yaunak beronen yar-
duna asteko eskubidea dauko.»

Begi, txartes-zarpa batetik paper txiki bat atara ta mai-ganean
itziatz, eskuzal-ondora urreratu zan. Taupaka asi ekion biotza, arte-
ga egoan, arik eta Markaidako zantzolariak ujuju luze zoliz artetu
ebanarte. «Ori dok, Andres, bularra, ori eztarria!» esanda, txera bat
egin eutsan agura pozkorrari.

—Zantzorik ez, Andres, izkaldia amaituarte— esan eutsan alka-
teak, txilinari birritan ots eraginda gero.

3

— Izlariak —esan eutsan erriari Begik. Askok gogoz barre egin
eben au entzueran, Arangoitik eta Busturik ez gitxien—, agiri zaren
guztioi ta ostenik³ dagozan batzuri be —erromar askok andra Isi-
dora egoan etsera begiratu eben— zuzendu gura neuskioe neure dei
au. Orregaitiño, zuen artean izlari⁴ eztanik inor balego, esan dagida-
la, orri be neure len-agurra egin dagiodan — Barre askok—. Bane-

¹ (tribunan)

² (parrafuak)

³ (ezkutuan)

⁴ (oradore)

kian, guztiok zare izlari. Ogei urte da zuen artean bizi naizala, mundu onetara etorri zarenoi laguntzen ta bestera yoan ekiguzanak, atzeta ten eta ten eginaz, emen luzarago euki gurarik —Entzule askok barre, batzuk txalo—. Iñoiz otu etedatzue zeuon sendalari Arraitz emen, estu ta larri, totel-motel, izmizka ikustea? Ez neuri be. Ezkara, ez nire gogaideak¹, ez ni, izkaldi onen asmatzaile izan. Jose Andres Bekosolo jauna diputaugeitzat agertzeko ezta ez yardunik ez barriketarik bear; berorren egitsari onak, lau urte onetan aldundian bete dabezan lan andiak, dirauskue nor izan dakun, nor dan ta nor izango dogun —Txalo andiak—. Aldungei agertzeko, eginek eztaukelako, barriketea ta txotxolokeria bear dabena bururatu dake gaurko ikuskizun au; ni, izlari izateko yaio eznaizan au, toki onetara ekarte. Kartagon eidora izlariok. Euron *Presidente de honor* asi zan arlo onetan, bere erritarren artean asi be, Yataben.

Eta zelan itz egin? *Orador patriarcal* eida ta Abrahamek lez ederto egin bear, Isastik. «Gizonak —esan eutsen bere uritarrai—, bada-kizue *El Rásimo* zer dan, *El Rásimo*? *El Rásimo*ko presidente egin nabe ni Bilboko aberatsenak. Gu osaba-lobok, gu arbolak gara, zuek barriz, zuek satsa zarê, geuri indarra emoteko satsa.» —Barre-zantzo andiak goibêtan—. *Orador patriarcal*-ek esan ebazan itz eder ilezlan ónek. Gero, yakiña! euren buruaren atzeta, berak baizen ondo ezarren, or dabilz kartagoar izlariok, bat emen, bestea an, gure atxurlariai barre eragiten. Gure alderdian be badira batzuk euren ikastez ta doez gizatalde-aurrean itz ederto egiten dakienak. Zegaiti ezetedaute onei aup egin? Bildurrarren? Ta zerarren niri? Neu lotsatzearren izan eteda? Onelan bada ta Bekosoloren izena goratzeko neure orainarteko lan ta alegin ta lurrenak, neure gau galtze ta buruko miñak naikoa ezpadira, geigarri izan dagiela ona ekarriaz emon gura izan dausten lotsaria— Goietan txalo andiak. Bêan baserritar askok ezeben ondo ulertu al izan lotsaritasun au; baia, txaloak entzueran, eurak be zoli ta gogoz eskuai zarata eragin eutsen. Andra Isidorak *feo*² esan eban. Epikok, adierazleari zerbait itanduta, ak erantzundakoa paperean idatzi eban—. Or, mai orretan dagoan gizon orrek —zerraion Begik— amaren etsetik etorririkotxo orrek— Barre baserritarrak. Epikok adierazleari: «*Qué dice?*³» Adierazleak: «*Que viene usted de casa de la madre*⁴». Epikok erdeinuz irribarre ta idatzi—izketan oturik dago ta garailari izango dalakoan aup egin daust; baia nire itzak motelik ots eginarren, gure aldungeiaren andi-

¹ (alderdikoak)

² Itxusi ori.

³ Zer diño?

⁴ Amaren etseti zatozala.

tasunak berak aurkari guztiak, erdalduntxo au aurrerengo dala, zapalduko dauz.

Txalo gorgarriak goi ta bê. Adierazleak zerbait Epikori belarri-
ra. Onek idatzi ta idatzi. Andra Isidorak don Anbrusek eta entzute-
ko eran *Feote*¹.

4

— Zer bik arritzen nabe — zîñoan izlariak —, gixon onen oparot-
tasunak eta Isasti jaunaren antzerik² ezak — Begik *gixon* esaeran x
ori luze-luze egin eban, Epikoren kazkartasuna obeto erazagutzea-
rren edo —. Santa Leguati dator, esan oi danez, nora datorren ezta-
kiala, nor nor dan ezta-kiala, zer bear dogun ezta-kiala, erritarren
izkuntzan murtik egiten ezta-kiala; ta oni bultz, orri atzeta ziri, bateri
lepoa igortzi, besteari zaplanda, or daukazue iñok baiño geiago
agintzen dabela, bere ukabiltxoaren barruan mungiar gizon asko
daukazala — Txaloak eta barreak —. Ezetedauko berorren errial-
dean zereginik? Ezaldago an nor sendatu?

Arangoitik. (Azoka guztia beteko orroiaz.) *Ahi duele*³.

Begik. (Alkateari) Ta txilin ori, maipuruko jauna, txilintxo
orrek ezaldauko minik? (Erri guztiari) Belarri minberadun orrei bi-
garrenez itandu bear dautset. Ezaldago an Puertorrico-aldean nor
sendatu?

Floren Andrakak. *Protesto*⁴.

Zabaletak eta mordo atako erromarrak barre-zantzo andiak.

Begik. Ni arri ta zur naukan bigarren yazoera Isasti jaun orren
yasik eza, fepakotasuna⁵ da. Amar milla ogerleko oraingotxe dau-
kaz eralgita. Gaur zortzirako, emongo ezpadauz be, agindu bein-
tzat, beste ogei mila egin bearke. Ta, gizonak, milla peseta katanar-
ruan artuta, Valladolid-aldeko uriren batera, gizon au bizi izan dan
aldera, baleioa, lau diputadu atara al izango leukez: katanarruduna,
bat; loba morroskoa, bi; erdalduntxo au, iru; ta laugarren bat bear
izanezkeroko, Otxorio geurea — Entzulerik geienak, Arangoiti ta be
bai, barre-zantzoka, asko txaloka.

Epikok musturturik idatzi eban Ereñoztik egin eutsan biurkun-
tzea. Andres Markaidak ujuju luzea. Alkateak txilina yota: «An-

¹ Itsusitzar ori!

² (yasik)

³ Or dago pupua.

⁴ Aurka nago.

⁵ (moldakaiztasuna)

dres, isilik egoteko, bestela Felipetxuk kartzelara¹ eroango zauz.»

Begik. An milla pesetatxo zabaldua lau aldun, lau diputadu; emen ogeta amar milla ogerleko eralgi edo beintzat aginduarren bat ezin.

Barre zantzoak eta txaloak barriro. Andra Isidorak iguin-arpegiaz: *Macaco*².

Arangoitik Busturiri: «Etzagoz arrituta? Bâlzekian itsusi au izlari ónen etorrítsua zanik?»

— Nik ez; Begik beronek be ezetz uste dot.

Begik. Gizonak, noiz edo bein, dakutsuena ta dantzuzuena egia ala amesa etedan igarri ezinik aurkitu izango zarê. Ni egun onetan onelantxe nago. Orain urte bi, organu barri bat bear genduala ta iru edo lau joan gintzakiozan don Anbrus Isastiri. Eztakizue zer erantzun euskun? Bera etzala musikalaria — Barre askok —. Gaisotegia³ barriraztu bearreko egoala ta banoa, gaur bere alderdian dagozan gizon bi lagun nebazala, banoa beragana; ta katanarrua aitatu geutsaneko, gure eskakizuna ondo amaitu bagarik «Etseetan ezalduke ogerik non il?» erantzun euskun *Orador Patriarcalek*. Beste bein, Yatabeko elizan arako tximista gaizto batek txerrenkeria⁴ gogorrek egin ebazanean, bertako parrokoa ta alkatea Bilbora yoan ziran dirutan. Lenengo euren erritar aberats orregana ta elizea aitatu eutse-nean, «Ori elizgizonak egin dagiela» erantzunda, katanarrua osorik beti — Barre andiak goi ta be—. Orduan ain esku-estu, ain zikotz; orain onen eskuzabal, ónen emokor! Gizonak, soloak laiatuta gero, txorkoak eginda, galgaraua purran ereiten dozuenean, gari ereite ori lurraren onerako ala zeuen onerako egiten dozue? — Adurretan egozan baserritarrak entzuten—. Isasti, *El Rásimoko* maipuruko ori, berrogei milla diru eder purran erein edo agindu-orduan, lurraren onerako ala bere onerako, bategaz amar egiteko, dabil? Amar orrek nondik urten bear dabe? Erantzuna argiegia danean, zetarako erantzun? Nik ezkerrean lukainka bat baneuko ta eskoan odoloste bat, ezneuskezue esango «Au lukainkea da, au odoloste da.» Ikustea naikoa danean, begoz itzok barruan. (1) — Txalo ta barre-zantzo andiak.

Anton Imazek. (Zarata onek baiño zoliago) Ezneutsuen nik esaten zer yazoko zan?

Laraudok. Gure oilarrak be badaki gero kukurruku egiten.

¹ (baitegira)

² Matxango ori!

³ (ospitala)

⁴ (deabrukeria)

Anton Imazek. Arandui, or aldaukazak lengo eguneko bost ogerlekoak? Gura dok oraintxe tema egin?

Aranduik. Etsean itxi doadazak.

Begik. Atxinakoak dira Euskalerrian azokak, eriak. Bizkaian entzutetsuenak Basurto ta Mungia ta Gernikakoak doguz. Gure egun onetan lau urterik lau urtera gitxienez ta nongura bestelango azoka batzuk egiten dira, giza-azokak. Idi ta asto ta urde-ordez gizonak eurak egon doaz eria onetan salgei; aukeraldia edo *elezinoak* dabe azoka onek izena. Askozaz zeatzago izentauko geukez giza-azokak esanda. Onelangoxe eria bat ikusiko dogu gaur zortzi gure zertan¹ onetan. Iru alde andi daukaz, zeuok ondo dakizuen, zertan onek: Bermeo ta uri inguruak, Gernika ta bere aldauriak, Mungia beronen uri-auzoakaz. Beste alde bi orretan izan daite salerospen andia ezagutzea... Gure onetan baete? —Orainarteko itzok, giza-eriazko itz orrek, irri-barreka ebagi ebazan. Urren datozanok agotik atarateko, betartea sututa, bene benetan entzun eragin ebazan ta zauzkada andia eragin eben—. Gure artean be bai? Zeuen buruak saldu gura izateko, ezetzarê lotsa izango? Edozein lauoinenekok, esan dagidan bere izenez, edozein txarrik gaur sei arroara ezker ogeta amar bat ogerleko bereak dauz. Lau, bost ogerleko... andik gora botodun gizon bakotxari eztautsez emongo Kartagoko giza-erosle orrek —Floren Andrakak txistu egin eban; bai laster isildu be! Belarrendokoren batzuk artuko ebazan bestela—. Eta zer, txarri baten dirua emonarren? Ezalozue zeuen burua txarritxo batena baiño geiago estimetan?² Gizon deduzko baten izena lurbira guztiko diruak baiño gorago dago—Txalo gortugarriak alde guztietan. Andra Isidorak, eskuetako artzeñoaz³ errege bastoa edo onelango zeren bat zirudiala «*Calla, cara de vino*»⁴ esan eban—. Atxinako euskaldunai, erromar ta godo ta mauruak azpiratu ebezan euskaldunai, baita lengo mendeikoai⁵ be, politika-igarle batek etorkizuna aurre-san baleutse, euren ondorengoak peseta batzuren aldera burua salduko ebela sinistarazo baleutse, lotsaz mendiok itxi ta beste alderen batera bizitoki-billa yoango ziran—Itz onek entzueran gizon, emakume ta elizgizon, zutundu ta luzaro txaloka ekin eutsen—. Gure aurkariok diru bagarik—birritan esan bear izan ebazan itz onek, entzulên zarateagaitik—gure aurkari beste alderdiko orrek-diru bagarik, geu gatozan antzera, baletoz, eun bototatik amar ezleuskeguez

¹ (barruti, distrito)

² (esten)

³ (abanikoaz)

⁴ Isilik ago, ardao-arpegidun ori.

⁵ (siglokoai)

eurenduko eta euretatik geien geienak maister gaixoenak, ezetz ezin esan dagikênak.

Orduan Begik entzuniko txalo ta «Ori, ori! Gora Arraitz!» eta beste oles batzuk bildur-ondakin guztiak kenduaz ganera, lagun-artean erabili oi eban izketa barregarri ta adinonegia ezpanetaratu eutsen. *El Rásimo*, *El Eco de Vizcaya* ta *Andresen Mastiak* irri-mirrika nastau ebazan. Isasti aitatuta barregei onetxek ots egin eben: «Ondo yan ezin daben batek... bere buruaren usaina artuta, edonor ezyakintzat daukan ori... Len Aginbako, orain Aginbarri...»

Arangoitik. (Zutunik eta suturik) *Fuera ese lenguaje chabacano!*—¹ deadar egin eban.

Begik. (Minduta) Maipuruko jauna, nok dauko emen aginpi-dea, Mungiako alkateak ala an goian arrantzaka diarduan arek?

Kartagoarrek *arrantzaka* ori entzueran atara eben abarrotsa ezta erraz zeaztekoa.

—Alkate jauna —zirautsan Begik—, txilintxo orreri miña mutu-
tu egin alđako?

Nekeak deadarti guztiak isildu ebazanean, izlariak bere izkerea ezagunean printzeldurik, onelantxe yarraigi eban: «Len yazorikoa gerokoaren zantzu bat² bada, gomuta izan dagigun orain lau urte ementxe yazo zana. Gero zeuek zeuen barruan esan eta aste bete barru atabaka-barruan³ erakutsiko dozue garaipena noren aldera yaurriko dan. Orain lau urte gure aurka uriko seme bat, burua langoxe biotz andia daben mungiar bat, gaur eztarrrian gili-gilia daukan zaldun bat, aldungeizat agertu ekigun— Isiltasun andia zabal⁴ guztian—. Erriari dautsan maitetasuna, erriari gitxitu bagarik, elizeari baleutso, iñor be ezkintzazan bere aurka⁵ yagiko. Masal masal, beti lez egizale, agertu zan aukeraldian, botorik bakar bat erosi baiño garaitua izatea gurago ebala. Zori onean. Mungialdeko buruerak eta auterestiak⁶, politika ta erlijino-arazoetan beintzat, Arangoiti jaunarenak eztiralako, garaitu egin geuan. Au eztiñot ez berari min, ez geure pozari ziri eragitearren, ez. Au, edozein mungiarrek beronen zalduntasun ta gizabide ta errikoitasunagaiti maite daben gizon au, barriro aldundirako⁷ bidean agertu eztanean, zek dakar gure artera, mamin ederrak eta osabäaren katanarrua baiño besterik eza-
gutzen etxakon mutil ori? —Txalo andiak alde guztietan eta barre

¹ Ken, ken izkera ziztrin ori.

² (ezaugarri bat)

³ (urnan)

⁴ (plaza)

⁵ (bere kontra)

⁶ (gurariak)

⁷ (diputazinorako)

gozaro—. Au gure aurkariak guk baizen ondo dakie. Ona emen zegaiti euren diputauegi edo diputaunai oni, aratusteak etorriarte itxaron bagerik, arpegian mozorroa¹ ezarri dautsen. Orain amabost egun *Candidatura liberal* zana, azpisugea eztan baten eskakizunez, *Candidatura independiente* da gaur. Marmo, nor zarään badakigu. Mozorro orren ganeti beste bat yantzita, *Candidatura apostólica* zaräala badiñozu be, marmo, ezagutzen zauguz.»

A zan txalo egitea! Gatikako sakristauak, lilluraturik, begiak negarrez ta agoa barreka eukazala, txapela gora-goraka yaurtigita «Gora gure gizona!» esan eban. Unean unean nai mordoetan nai egabanaturik egozan kartagoarrak, ostera, lotsaz euren aldekoen leioetara ezeben begiratu be egiten. Andra Isidorak urduri² ta artega³ ta amurruz irakiten, txirritxirriak⁴ euren ego soñulariak baizen sarri ta zarratu erabilen bere artzeñoa⁵.

— Gizonak —zerraion izlariak—,belutxo da ta gure aldun jaunaren sarigei⁶ andiak geigarritzat daukagun ordu laurenean azalduko dautsuedaz. Orain, mungiar ta uriauzotar maitagarriok, eztaukat auxe baiño beste esatekorik: gurasoak emon dautsuen izen ona zeuon ondorengoai garbi garbi emon gura badautsezue, toki onetantxe zapatu guztietan eta batez be Santu larriz ta San Antontxo-egunean salgei ikusten dozuezan abelgorri ta zurda-abereak baiño zeuen burua geiagotzat badaukazue, eta Matxin Trobikarraren odol-tantak zanetan darabilzuezan euskaldun biotz andiok, aupa! gizerosleai ukabilla erakutsi ta atabakara⁷ guztiok, euskaldun izen ona loitu ta lotsagarritu gurarik dabilzanok garaitu, azpiratu ta auspean sartu-arte.

Atzenengo itz au iñok ezeban entzun al izan. Iru bidar zutundu eragin eutsen izlari etorritsu ta adoretuari. Goietako entzule guztiak, kartagoarrak ez, zutunik, eta bēkoak beatzen ganean egozala, zapi ta txapel ta kapelak erabiliaz, izan lediten erakusmen txeratsu ta beroena egin eutsen. Andres Markaidak laugarrenez ta orduantxe luze ta zolien irrintza egin eban. Auzo bateko oilarrari beste askotakoak kukurrukuka lez, Markaida zarrari beredin⁸ ujujularik bateratsu erantzun eutsen, al ebanak al ebanez.

Zer egin ezekiela egozan Epiko ta adierazlea. Alkatea etzan

¹ (karatuläa)

² (nerviosa)

³ (inquieta)

⁴ (girloak)

⁵ (abanikoa)

⁶ (meritu)

⁷ (urnara)

⁸ (asko)

azartu zantzulariai txiliña yoten. Andra Isidorak, barruko irakiñez, eztanda egiteko bildurrez edo, yagi, barruratu ta jauntxo ta lagunai sutan esan eutsen: «Gizonak, ori ezta itz egitea, zaunka egitea da ori, txakur itsusi, motz, itxurga bat da-ta.»

Don Anbrusi ogei bidar damutu alekion an agertu izatea.



Oharrak:

(¹) Orij. «burruan». Bi gauza izan leiteke, «buruan» eta «barruan». Gipuzkerazko bertsioan «barruan» dagoanez, guk be horixe aukeratu dogu.



XXIII. Izkaldiaren yarraipena

1. Epiko izlari ta Ereñozti adierazle.
2. Arangoitiren etenaldia.
3. *Un combate épico* -ren atzeak.

1

Epiko, gizatalde zaratatsua isildu-orduko, yagi ta eskuzal-ondora urreratuaz, alkondara-eskuturrai ateraldi bana emonda, *Basta señores*, esaten asi zan⁽¹⁾, *basta*. Begi, bere yarduna berak uste eban baiño askozaz etorritsuago ta atze andikoago izanarren, estutxo egoan. Bere naikideaz, bere aurkariaz, iñor ez lango izlaria zala entzunda, uste edo eban onen *Sí Señor* bere *Bai jauna* baiño indartsuago zala. Ezin, bestela, yakin daite bere estutasuna zelan azaldu.

Alkateak, noiz edo bein erria erdi-isildu zanean, txilinari ots eraginda «Gizonak —esan eban—, Pedro Viñas ta Andres jaunak eta beronen adierazle Agustin Ereñoztik yarduna asi ta biurtzeko esku-bidea dauke.» Kartagoar batzuen esku-otsak bertan bêra isildu ziren. Viñasek itz onezaz ta polito asi eban bere arloa: *Señores, tengo a gran honor dirigir a los nobles hijos de Jaun Zuria un saludo en nombre de los que moran a orillas del Pisuerga.* (Floren Andrakak txalo). Ereñoztik yagita «Gizonak —esan eban—, Viñas de Andrés jaunak diño *ze* onore anditzat daukala bidaltzea saludo biotzeko bat Jaun zuriaren seme nobleai, doña Pisuerga Moraren izenean.»

Barre-zantzo ikaragarriak goietan, bêkoak be barre aren urren, baia ez ain zaratatsu.

Epikok. No nací, es verdad, en la hermosa Castilla. Soy hijo de la noble Antilla de Puerto Rico; pero en mi alma serán perdurables los recuerdos que llevo de la vieja corte de Felipe.

Adierazleak. Eztala yaio, diño, Castilla ederrean. Andra Antilla de Puertorricoren semea eida; ta bere ariman perdurable izango eidira Feliperen korta zarreko errekueroak.

Anton Imazek. (Zabaletak belarrira zerbait esanda gero) *Viva don Felipe Kortazar.* Askok barre eginarren, geienak ezekien zegaitik.

Epikok. *He notado, señores, que mi honorable colega, el Sr. Arraiz ha estado más de un tanto agresivo en su discurso y yo me propongo a mi vez darle un buen recorrido.*

«Bravo» Floren Andrakak. Bere inguruko kartagoarrak txalo. Arangoiti ta Busturi an goyan, biurkuntzearen bildurrez, begiak itxita buru-makur egozan.

Adierazleak. Viñas de Andrés jaunak...

Zabaletaren seme Krisantok. Eztok esaten Viñas de Andrés, Andresen mâstiak baiño.

Goi ta bêkoak barre gozaro.

— Viñas jaunak diño *ze* bere kolega Arraitz...

Zabaleta gazteak. *Honorablea* esan ñok.

— ... Arraitz jauna beronen diskurtsuan egon dala guztiz agresibo ta berak bere bidarrean emon bear dautsala errekorridu on bat.

Barre ta irrizko txaloak erromarren artean.

Viñasek. *Yo sé que con ello me expongo, yo sé que con ello me arriesgo; pero cuantos más riesgos se corren, más se goza de la vida, como ha dicho un ilustre escritor mozcovita de nuestros días*¹.

Txalo bêko erromarrak eta goiko andra bakartuak, arek zeri ezekiela, onek zeri ezeukala.

Ereñoztik. Viñas jaunak diño *ze* badakiala atan *esponietan* dala, badakiala atan arrisketan dala, baia zeinbat arrisku geiago *korrietan* dirään, ainbat geiago *gozetan* dala biziagaz; eta au esan eidau gure egunetako *eskritore ilustre* mozkorti batek.

Arratsalde atan edonoiz baiño obeto oartu egikean txaloak eta barrea be alderdikor sarri egiten dirala. Orregaitiño, *mozkorti* entzunda, alderdi bateko nai bestekoak, barre-zantzo galantak barru-barrutik atara ebezan. Goiko kartagoarrak isilik egozan, lotsor ta nakar zirudiela. Lotsaldia ibitu ekioenean, Arangoitik beso biai eraginda, zerbait esan eban deadarrez alkateari begira, baia nok an ezer entzun? Andra Isidorak, arpegia aizetuaz, bêko guztiak begietan sartu gura bailebazan, iru edo lau bidar *Imbéciles*² esan eban.

Epikok. *Muy grato me sería apropiarme a su cultivo en cuanto mis tareas profesionales me lo permitan.*

«*Bravísimo*» Floren Andrakak eta txalo, beragaz batera, bere lau arreba, yardungu³ aren goialdekoak.

¹ Máximo Gorki en su relación *Un compañero raro.*

² (astakaikuok)

³ (tribuna)

Adierazleak. Guztiz gustora *atrapako* leukeala Aitorren min ederra ta...

Goietakoen barre zantzoak ezeben geiago entzuten itxi.

Viñasek. *Entro desde luego en materia y digo que la candidatura del Sr. Torrealdea es candidatura de la libertad, del progreso y del derecho.*

Begi bera ta goi bêtako lagunik asko aurretiaz egozan aginak erakusten, Ereñoztzi yagi zanean.

Adierazleak. Gure mediku jaunak diño *ze* gerotxoago sartuko dala materian ta Torrealdea jaunaren kandidaturäa dala candidatura libertadearena, progresoarena ta derechoarena.

Zeindurik kar kar kar ziarduen barreka alde guztietan. Don Biribilek, otu oi ekiozan barregei apur ezerezai ezekian barruan useltzen izten; orduan be barregei anditzat eukan zerbait ezpanetatik atara eban, itz onek zoli-zoli Ereñoztzi adierazleari zuzenduaz: «Agustin, itandu egiok orri ea mozkorti ilustraren izena zein dan». Orduan etseko yaun abadeak sotanatik ten eginda «Guri, mutil—esan eutsan—, onelango tokietan entzun ta barre ta txalotxo batzuk bai, besterik egitea etxaku eder egiten.»

2

Arangoitik, sutu ta zutundu ta gorputz-erdia zabalera atarata, al eban zolien deadarrez «Que calle el intérprete¹» esan eban. Ereñoztzi, alderdiko gizonik andienak izenbakotu ebanean, amurruarren yagi ta iñori ezer esan bagarik, agertu zan bidêtan bêra, ostendu ta urrundu zan.

Begik bere artean: «Boto bat geiago guk.»

Yardunguaren ganealdeko emakume tirlu bat bizkor ta zarata-tsu ebilen: *Las Andrakas*. Euretariako zarrenak alboko etsean agiri ziran emakumeai begira «*Marselina, Marse*—esan eban—, *griteis que hable Floren Andraka; lo demás perder vamos a haser, seguro, seguro, perder*²».

—*Que hable Floren Andraka*— deadar egin eban Martzelinak lenengo, Florenen lau arrebak eta sapaillo³ atako emakume guztiak gero, bost edo sei bidar.

Floren Andrakak, beatzen ganean itzuli⁴ oso bat eginda, batean

¹ Isilik bego adierazlea.

² Marselina, Marse, deadar egizue «Que hable Floren Andraka», bestela galdu egingo dogu, zigur zigur.

³ (balkoi)

⁴ (bira)

Epikori, bestean andra Isidora egoan aldekoai, bestean Arangoitiri zurt begiratu eutsen, eskua paparrean zabaldua, itaune auxe egin gura baileban: *Nerau yoango alnais?* Baita yardungura urreratzen be asi zan, maillak igoten be bai. Arangoitik orduan, barriro zutunduta, len baizen deadar zoliz *No hace falta ningún intérprete*¹ esan eban.

Itz onek entzueran, mutil babalora ta babalasto ederrak, eguzkiak gure zeru goibeltsu onetan sarri egiten dabena egin eban, bere burua ostendu. «Gora Bekosolo» deadar egiteko ari-arian egon zan Floren Andraka, kale nagosira bidea artu ebanean. Euria tantaka yausten asita egoan. «Arradan yausi akigu, euri zirin, eta leio ta kolkoetan barruna sar aite. Albainu legor bagarik etxeratuko algara. Ereñozti bai ta ni ez!» zinoan bere barruan. Gero kalean Lejarzegi bakar-bakarrik ikusita, ak ze barri ebilen itandu ezegion, barriro zabalera yo ta onelantxe zerraion Florenek bere barruan «Zer? Lenengo-lenengotati in kondisional naizan oni, Meñakan ta Gatican agoa zabalik entzun dausten oni, au egin? Damutuko datzu, (2) Arangoiti. Zure maisterrak eztagizala inok botoa emotera lotu e? Ori zuk bai, badinozu, baia arek neuk gura dodana egingo dabe. Gora Torrealdea! Bera Arangoiti, Busturi ta azpisuge guztiak, bera!» Onek eta beste burutasun askok ezeutsen itxi Epikoren itzak belarrietatik buruan sartzen.

Epikok. Aunque yo haya venido de casa de mi madre, que honra es para todo hijo bien nacido, yo no malgasto el tiempo en degradar la Medicina, empleando, para recrear a zafios, términos como vicecolitis, vuruocolitis y guivelecolitis.

— ¡Bravo, amigo! - Arangoitik.

Epikok. Memorables fueron, señores, en el siglo XVI las disputas, las controversias entre católicos y protestantes, sobre todo las celebradas en Berna, Sus, Engadine, Metz y Locarno. Célebres son en el día las controversias de los políticos ingleses; y no dudo que disputas, como las que hoy celebramos en Munguía, refinarían las costumbres del País Vasco, como también del resto de España, si presidieran en ellas la cortesía, que era inseparable de las justas de los caballeros castellanos de la Edad Media².

¹ Eztogu bear adierazlerik.

² Gomutagarriak izan zirään, jaunak, amaseigarren mendeko izkaldiak, katoliku ta protestantën arteko eztabaidak, batez be Berna ta Sus ta Engadine ta Metz ta Locarno deritxen urietan izanak. Ospetsuak dira gaur eguncan Inglaterrako politikuen arteko izkaldiak; eta ezbaitzaka, Euskalerrian, Espaiñiako alde enparaueetan lez, gaur Mungian ospatzen dogun au lango eztabaidak ezagunean bigunduko leukéz erri-oikuntzak, baldin eurretan, Gaztelaldeko zaldunen artean Adin Artaineko yosta gduetan ikusi oi zanez, gizabidea maipuruan balego.

Arangoiti, Busturi ta euren lagun gernikarrak txaloka luzaro. Andra Isidorak alboetako jauntxo ta Torrealdeari barrez ta artzeñoa¹ altzoan ebala, eskuak alkar yoten gorri-gorri eginda, deada-rrez esan eban: *Aplaudid lo bueno, destripaterrones*². Laraudo bake-tsuak, Larrauriko zantzolariaren ondorik, ujuju egin eban, baia zer, kaponar baten kukurrukua ta kotxeruaren zantzoa or-or zirean-ta?

Begik alkateari, beronek izkaldi-asieran esaniko itzok barreka ta irrimirrika arpegiratu eutsazan: «Zantzorik ez, Andres, izkaldia amaituarte.»

*Epikok. Por desgracia mi contrincante ha olvidado esta virtud social. Mi contrincante el Sr. Arraiz ha tenido la infeliz ocurrencia de llamarme hombrecillo. ¿Qué diría él, si yo le llamara monstruo?*³

*Bien devuelto*⁴, andra Isidorak. Txalo ta barre kartagoarrak. Begik zerbait idatzi eban.

*Epikok. Más lejos de mí el aplicarle este ni otro denuesto, esta ni otra palabra mortificante, este ni otro vocablo que pudiera herir sus delicados oídos*⁵.

— *Viva don Pedro*⁶ deadar egin eben goietako emakume batzuk. Bêko askok, Andrakaren alabak ziralakoan, gora begiratu eben. Martzelinak eta lagunak artzeñoz⁷ ostendu eben arpegia. Lau Andrakak egon ziran sapaillora utsik egoan. Ileta-ezaugarritz yarrialdia goratu ta iges egin eben Florenen arrebak.

Epikok. Mi colega el Sr. Arraiz ha eludido, con un pretexto fútil, exponer los méritos de su ídolo el Sr. Bekosolo. Yo, a mi vez, me abstengo de hablar de su gestión hasta oír los supuestos méritos que ha contraído. Ha tenido, en cambio, para el ilustre caballero don Ambrosio Isasti (Arangoitik eta Busturik burua makurtu ta barre) frases amargas, cínicas, que han tenido el debido correctivo de parte de un no menos ilustre patricio vizcaíno. ¿Quién será osado a desconocer la alta estima de que goza un hombre que reúne estos títulos: Presidente del Ferrocarril de Munguia, Presidente de la Fábrica de Vidrios Berinoleaga, Presidente de la Concordia Cívica de Bilbao, Presidente ho-

¹ (abanikoa)

² Txalo egiozue gauza onari, sokil-ausleok.

³ Zoritxarrean nire naikideari gizarteko onbide au aitzu egin ñako. Nire naikide Arraitz jaunari etxako obarik otu nigaitik *gixona* esatea baiño. Zer esango leuke beronek nik berau *mamua* izentauko baneru?

⁴ Ederto erantzuna.

⁵ Ken bedi nigandik, baia, ez au ez beste iraunik, ez au ez beste itz mingarrik, ez au ez beste ele belarri minberak sakitu ta zauritu dakiozanik berari ezartea.

⁶ Gora don Pedro.

⁷ (abanikoz)

norario de la Sociedad de oradores de esta villa? ¡Ah, Señores! El Sr. Arraiz ha hecho aún más. Ha derramado su bilis, presagio de espantosa derrota, contra la elección que se verificará el próximo domingo, calificándola de feria de hombres.¹

— *Muy bien*² Arandui arakinak.

Andra Isidorak jauntxoari: «Mi enhorabuena. Esto es hablar.»³

Epikok. ¿Dónde, en qué país, en qué lengua son sinónimos gratitud y compra? Si yo, agradecido por un servicio, presto otro a quien me lo dispensa, ¿podrá el Sr. Arraiz, podrá nadie, sin calumniar mi nombre honrado, llamarme comprador de hombres?⁴

Txaloak bêaldeko kartagoarrak eta goietan andra Isidorak, Morroskok eta Treviñok. Don Anbrus isil ta illun egoan. Erromar asko euritakoa zabaltzen así ziran. Larauok «Ken, ken euritakoak.»

Epikok. ¡No, señor Arraiz, no! La elección del domingo no será una feria; la elección del domingo marcará un día glorioso en los anales de Munguia; la elección del domingo será, no lo dude V., una elección modelo⁵.

Andra Isidora gogo beroz zutunik egoan. Aranduik eta lagunak txapela eskuan euken, gora-gora yaurtigiteko.

— *Feria no, combate sí; pero un combate por la libertad, combate grande, combate glorioso, combate inmortal, combate de titanes, combate de gigantes, tirunfo épico.*

Tete ostenik, ezkutuan, egoalakoan, araxe begira yaurtigi eban zandulariak itz andi ónek. Andra Isidora abailduta yezarri zan. Arangoitik: *Tipejo, todo lo has echado a perder*⁶ esan eban.

¹ Nire lankide Arraitz jaunak aikomaiko labur batez bere jainkotzako Bekosolo jaunaren sarigeiak erakusteari lepoa emon dautso. Nik, neure aldetik, beragandu dabezan sarigeitzako orrek entzun arte eztoz bere egikerea aotan artuko. Ambrosio Isasti jaun ta zaldun argitsuarentzat, ostera, lotsabako esakera mingotsak entzun eragin daukuz. Bizkaitar andiki bestea baizen argitsu dan batek esakera onei zuzenbide bearra emon dautso. Nor azartuko da gizon bati dautsen lotsa ta begirune andia aintzat ez artzen, gizon orrek izen onek daukazanean: Mungiaiko burdinbideko nagosia, Berinoleagako buruzagia, Bilboko La Concordia Cívica, El Rásimoko maipurukoa, uri onetako Iztun-baltzuaren nagosi deduzkoa? A, jaunak! Arraitz onek geiago oraindiño egin dau. Ausiabartza ikaragarri batek eraginiko ur berdeak ok egin dauz, giza-azokaa, giza-eria izango dala esanda.

² Guztiz ederto.

³ Ordu onean, auxe da itz egitea!

⁴ Non, zein erritan, zein izkuntzatan dira zentzukide esker on ta erospena? Nik esker onez, laguntasun bat egin daustanari beste aibeste badagiot, izentau etenagike Arraitz jaunak, izentau etenagike iñok *gizeroslea* neure izen deduzkoa tonatu bärkit?

⁵ Ez, Arraitz jauna, ez; igande aukerea ezta eria bat izango, igande aukerea Mungiaiko urte-idazkietan egun omentsutat agertuko da; igandeko aukerea erakusmeneko aukerea.

⁶ Txakil orrek, guztia kakaraztu daukuk.

Arandui ta lagunak txapelak yantzita bêra begira gelditu ziran, lotsarren, isil-isilik. Erromar guztiak, ostera, euren yardularia buru ebela, barrerik gozo ta zabalgarrienaz itz bat ezpanetaratu ezinik eta ito-bearrik luzaro egon ziran. Zabaletak Gatikako *sakristauari* ⁽³⁾ «Anton Imaz, ea oraintxe *Alto-la*» esanda, batak goitik, besteak, Zabaletak, bêratxoagotik, bikondean¹ oiukatu² eben. Gatican geienak, itzak ezarren, musikâa buruz ekien ta isiltxorik lagundu eutsen arek be beste biai

(y) *Alto la: rumor di passi io sento,
Nell'ombra io non discerno
se molti sono e armati.
Voi, che di notte andate
che mai volete qui?*³

Yata-buruko odeiak egun guztian itxasotik goratu eben ur guztia, bae zulozabal baten irazita lez, tanta lodi biribilletan Legezar-azokara, Mungiako zabalera, esuroten asi ziran, iñosten. Euritakoak⁴, urdinak geienak, guztiak andiek, usoak egaz asitakoan egiten daben langoxe otsa eginda, zabal-zabalik egozan beredin yardunzaleren buru-ganean. Meñakako parrokuak, bere elizainagaz etxealdera yoateko asmoz, bêaldera begiratu eban. Bai! Nok an iñor ezagutu? Euritakoak ezeuken berarizko ezaugarririk eta ezin ezagutu zeikean zein zan erromarrena ta beste alderdikoren batena zein.

Ordu-lauren luzea bear izan eben bêkoak izkaldi-tokia utsik izteko. Geienak ardantegietan sartu ziran eta euretarik askok, otseiñak orretarako naikoa izan ez-ta, latuntzetatik esegita egozan pitxartxoak eskuan ebezala, zaragi-ondora ardao-billa yoan bear izan eben.

Jauntxoa illun ta musturtsu yagi ta illun ta musturtsu kaleratu zan, lobâa ta Treviño lagun ebazala.

— Orain udaletsera yoan gura izango dozue, izlari batzar beterra⁵.

— Ze izlari ta mizlari! Etsera⁶.

Ta etsera, jauntxoaren agindu au entzunda, etsera yoan bear izan eben. Beste batzuetan lez aurretiaz esan eutsan don Anbrusek

¹ (a dúo)

² (kantau)

³ 30 garren orrialdean ikusi daitezke itz onck cuskeratuta.

⁴ (guardasolak)

⁵ (a sesión plena de oradores)

⁶ Eztakit beste zelan biurtu jauntxoaren itz; *Qué oradores y coplas! ¡A casa!*

Labartori, eurak gelunera elduarte, trena Bilbora ezegiala bialdu.

Viñas de Andres, gizartetik bultzaka ta nekez urtenda Gondra-
mendiren lengusiñäaren etsera yoan zan, Tete ta an egozalakoan.

— Urtetea baiño eztabe egin — esan eutsan.

Gelunera eldu zanean, beste ainbeste esan eutsen Labartok eta
Treviñok.

— Tete ni ikusi bagarik Bilbora! Osabäak itxi ez edo?

— Tete! Etorri dan baldakizu?

— E! Orduan gaixo da, makalik datza.

— ...! — Itzez ezer esan bagarik pariztaz¹ erakutsi eutsan Treviñok bere eritxia.

— Torrealdeak neuri, oraindiño atzo, irurak etozala ta izkaldia entzuteko-leku on bat begiz yo negiala ziraustan.

— Gura dozu, Viñas, adiskide baten ituna, burubidea, entzun? Etzaitez egon ez Isasti ez Torrealdea ez Teteren pentzutan edo itxaropenean.

— Etsean daukadazan paper batzuk irakurri banegizuz!

Treviñok irribarre egin eban. Udaletsera yoazala, Epikok auxe itandu eutsen: «Eta zer diraustazu gurenda⁴ andi onezaz?»

— Gurenda onezaz! Garaipen onezaz! Noren garaipena? Geurea ala erromarrena? Itandu egiozu andra Isidorari, itandu jauntxoari berari, itandu erriari.

Gogamentsu sartu zan Epiko izlari-baltzuan, baia nok areri garrailari etzala sinistarazo?

Oharrak:

(¹) Orij. «ezan». Bi aukera dagoz, batetik «asi zan», bestetik «asi eizan» izatea. Guk lehenengoa aukeratu dogu, gipuzkerazko bertsioan be horixe ageri da eta.

(²) Normalean «datzu» idazten dau.

(³) Orijinalean «sakristauri» dator bizkaieraz, baina gipuzkerazko bertsioan «sakristauari».

¹ (zinuz)

² (garaipen)



XXIV. Izkaldi-ostean

1. Arangoitiren beste asmo bat.
2. Kartagoarren iruskinak.
3. Erriarenak.

1

Arangoiti ta Busturi, gernikar adiskideai agur eginda gero, udalseteko izlari-baltzura pozik yoan ziran. Arantz yoazala, legegizonak olagizonari «Bilbora ñoak biar, Juan Andres —esan eutsan—ango liburutegiren baten Greziako barri batzuk yakitera. Greziarren erara atondu gure ñeukek gure izlari-baltzu au. Sinistu neuri, Busturi, baltzu onek mungiar guztioi amar bana urte luzatu bear ñauskuk bizia. Ezaiz i oraindiño izan gure batzarretan? Urteokaz, euk ondo dakiana, bilbotar batzukaz udazkenean erbi ta basurdeizara Astudillora ta Burebara yoaten nintzoan. Aurrerantzean, eskopetäa ta txakurra salduta, Mungiati eznoñora yoango. Izlari-baltzua baiño olgeta atseginagorik, neure gogokoagorik etxagok ez eizarik ez kontzierturik. Gaurkoa izango ñoagu beste guztien azkarrri. Don Anbrusek andi-andirik, Epikok esango leukeanez, egingo eidauskuk azken-itzaldia. Dakarrela Gayarre *La Favorita* kantatera ta orduan bertan gure deduzko buruak bere itzaldia asi dagiala; ni, Juan Andres, Gayarre itxi ta Aginbakori entzutera. Munduan etxagok atsegin gozoagorik.»

—Estutasunak be izaten dira gero. Yataben entzun bazeutso! Larriarren okertuta neukan nik gorputza.

—Yataben egun atan izatearren, euneko gorria pozik emongo ñoan nik. Orain, Juan Andres, benatsu ta txordo¹ egon. Barre egin bear bada, barrurantz egin; izlari kokolo ónek zetan diardugun igarri eztagien.

¹ (formal ta serio)

— Izlari guztiotati lau ez besteok emen gara —esan eutsen Larraudok udaletsean sartu ziraneko.

— Nortzuk dira agiri eztiranok?

— Don Anbrus, bat; Epiko, bi; Treviño, iru; ta Floren Andraka; orra laurak —Belarrira esan eutsazan Larraudok Arangoitiri beste itz onek—: Minduta eidago mutil au, minduta be zelan?, adierazle izatea aintzat artu eztautselako.

— Ibituko dako aserre ori —Urrengo itzok zoliago ebagi ebazan, Andraka zarrak entzuteko eran—. Floren gauza andiangoetarako yaioa da. Gaur eguerdi aurrean Yataben egin daberen diskurtsu ederraz nekatuta gelditu dan izlariari, arratsaldean barriro lan eragin? Ez, Larraudo. Gizona ezta arrizkoa.

Pozik entzun ebazan Andraka zarrak itz ónek.

— Zer dirausku, Arangoiti, arratsaldeko izkaldiaz? Nor izan da izlaririk etorritsuena ta yasekoena? Epiko mutilla da gero!

— Bai ta Begi gizona. Eskerrak plentziarrak bidaldu dauskuen euriari, bestela erromarren oilarrak gurea zati-zati egingo eban. Begik amaitu dabenean, nire ondoko gernikar batek, Obietak, auxe itandu daust: «Zelan da Arraitzek Busturireneko yazoeräa, arako *parkeske nago* besteari arpegira ez yaurtigitea?» Ori —erantzun daustsat nik—, ori berariz, gurarik geroko itxi izango dau. Gizonak, eztozu (*sic*) Begi ikusi, Epikok *monstruo* esan dautsanean, urduri ta txinpart-urtika paperean zerbait idazten? Obieta —esan daustsat nik orduan gernikarrari—, begiratu areri. Eztautso gaur besteari azur osorik itxiko —Auxe esan daustsat eta auxe yazoko zan.

— Gau on —esanda sartu ziran Epiko ta Treviño izlaritegian. Besteak, yakiña! euren autuan ezin luzatu izan eben.

Larraudok. Eta don Anbrus ta lobäa?

Epikok. Eztatoz.

Larraudok. (Asarrez) Zelango eztatoz?

Epikok. Loba zarrena, Teresa, gaixorik dauke ta yoan egin bear izan dabe.

Larraudok. Au gizonari buruti bêra zerbait egitea da.

Beste itz bat esan eban Larraudok *zerbait* orren tokian. Papera atsitu eztagian, eztogu ezarri.

Epikok. Eztirautsut, bada, loba zarrena makalik deakela (*sic*) ta...

Larraudok. Makalik badauke, zelan etorri dira izkaldira?

Epikok. Izkaldia... izkaldia... beste gauza bat da.

Larraudok. Izkaldia e? Izkaldi ori dala ta eztala entzun dodana esango baneu, esan, arranoa!

Arangoitik. (Larri-larri) Laraudo, zu zarään gizon baketsu ori, zer dala-ta sutu zara?

Laraudok. Sutu? Txingartu be egingo gara gu, txingartu be. Badaki, Arangoiti, zer yazoten dan? Or Bilbo-aldean batzuk zerbait izan gura ta dirurik atara gura ez ta Peru Dubako aspaldion il zan ta gure zaldiak yan egin bear dabe ta geuk be yan egin bear. Iru bidar idatzi dautsat don Anbrusi milla errealeti gora daukadazala nik artzeko, Aranduik be asko, Belaundek be asko; ta zordunak, don Anbrus Aginbakok, guri murtik erantzun ez. Alango baten Viñasek esan euskun, ezalda, Viñas, egi-egia? «Izkaldira dator Isasti jauna loba biren erdian. Garaipenaren oskarrizat, para *selebración del triunfo* esan euskun beronek, izlari-baltzu betea udaletsean izango dogu. Azkenean argitu ta garbituko doguz orainarteko kontu orrek. Berak, Isasti jaunak berak esango deu *El discurso de Sierre.*» *El discurso* zer dan badakit; *de sierre* ori eztakigu zer dan, ez nik, ez Aranduik, ez Belaundek, irurok izlariak izanarren. Yatabekoa lango ganorabako zeren bat ezetezan izango *el discurso de sierre* ori?

Epikok. Laraudo, Laraudo; don Anbrosio de Isasti y Torrealdea izlari-baltzu onetako deduzko burua de (*sic*) ta lotsaz, begirune andiz aitatu bear zeuke bere izena.

Laraudok. Deduzkoa bada, zorrak ordaindu dagiguzala.

Epikok. Ezalduzu entzun zer yazo dan? Loba Teresa gaixorik daukelako...

Laraudo. Ori guzurra da, guzur andia.

Epikok. Len deduzko buruari, orain izatezko buruzagiari lotsaa galdu dautsazu.

Laraudok. Buruzagia! Ta arratsaldeko izkaldian besteak, Begik, buru-buruan yo?

Epikok. Laraudo! Laraudo jauna! Zarrago zaräalako...

Laraudok. Eta au nik eztiñot neurez. Neu ta zeu baiño be irakurriago ta yakitunago dan bati entzun dautsat nik au. «Eskerrak Plenziati etorri ñakun euriari, bestela erromarren oilarrak gurea zati zati egingo eban.»

Arangoitik. Gizonak, bakea. Erromarrak au balekie, zer esango eteleukê?

Laraudok. Erromarrak! Esan bârik ezin nagoke. Gaur bazkari-tan nagoala, emaztea ziri ta ziri egon ñat, milla errealeti gora doala zorra ta zor zarra zor txarra dala ta au ta ori ta bestea. Nik auxe erabagi dot: biar gabera-orduko *El Rásimok* zor daustan dirua emon ezipadagit, etzi erromar egingo naiz ta don Anbrusi ta Morroskori auzia ipiñiko dautset. Eta uste dodanez Arandui be erromar egingo da ta Belaunde be bai ta Olabe ta Floren Andraka be hmm!

Andraka zarrak. Floren gurea ez, *inkondisonala* da-ta.

Laraudok. Inkondisonala? Artzekoduna balitz, arrano gorria!

Arangoitik. Baretu ta baketu zaiteze, gizonak; artuizue epea, arnasa artuizue —Epiko ta Treviño iñori «Gau on» esan bage etsera yoan ziran—. Arazo batek Bilbora naroa ni biar. Alkarregaz yoango gara, baderitxazue, iru artzekodunok eta neu. Neure izen-txartela eskuetan dozuela yoan zaitez⁽¹⁾ irurok don Anbrusegana lenengo, *El Rásimora* gero. Orain, gizonak, gure izlari-baltzu andi onen batasuna zatitu zedaitean, guztiok zoli ta bero esan daigun: *Gora Kartago!*

Laraudok. Zer? Gora Kartago? Ori biar, dirua artu ta gero.

Arangoitiri azken itz ónek ondo buruan sartu ekiozan. Amaika aldiz ta amaika tokitan aitatuko ebazan ganerako urtetan! «Gora Kartago? Ori biar, dirua artu ta gero.»

Barrealdi ederra egindakoan zaltzain izlariari «Laraudo —esan utsal—, eztozu ondo egin, don Anbrus agominean artuta Aginbako dala esatea. Yatabeko diskurtsua ganorabakoa zala zabaltzea txarrago izan da.»

— An batu ziran guztiak eztiñoce besterik.

— Ezalzenduan, Laraudo, *El Eco de Vizcaya* irakurri?

— *El Eco de Vizcaya* ala *El Eco de Epiko* da gero paper ori?

— Ganorabakoa izan bazan be, guri etxagoku ori esatea. Buru dogu, aita dogula egin kontu. Badakizue, gizonak, gaur gure-artera zegaitik etorri izango eztan? *El discurso de sierra* ez egitearren. Bera baiño entzute gitxiagodun izlari bik entzuleztat lau milla gizon, eta berak ogei baiño ez!! Au etzan lege, au etzan ez bidezkoa ez deduzkoa. Biar goizean Bilbora ez eze bere etsera be alkarregaz yoango gara, laguntzat artu gura banozue. *El Rásimok* zuen artzekoak bere zortzat ezagutzeko don Anbrusen baietza bear izango da. Bere izena orretarako emon dagizuenean, eztot gatx izango bere itza datorren egunerako lortutea.

Gaur udaletse tutu onetan egin bear eban itzaldia egin dagiala datorren eguenean Mungiako plazan, legezar-zabalean.

Alkate jauna, yardungu¹ ori bego ortxe beste zortzi bat egunean, kalterik egin ezik. Gure zabal onen izenak ots egingo dau Bizkaiko Edestian² emendi seireun urtetan be. Eguastenean goiz ta arratsalde uriauzorik uriauzo erabiliko dogu Felipetxu, tuntuna yoaz entzule batzen. Ondo deritxazue? Entzutekoa izango da don Anbrusen *El discurso de sierra*.

¹ (tribuna)

² (Historian)

Guztiz siniskorra zan Laraudo. Itz onek entzueran, Busturiren irribarreak ikusita ezekian, orregaitiño, Arangoitiren asmo ori aintzat ta benetakoztat artu ala ez artu.

Eurak etserantz lokatu ziranean, Epikok eta maisuak Adonaren atarian izketan ziarduen:

—Zuk diñozunez, gure kokolo andi Isastik eztau uste ni garailari izan naizenik, erriak be ez. Nok yaramon erri burubako bati? Arangoiti, erriak kutsatuta edo, Busturik beraganduta edo... Ezeteda bera izan Laraudori Plenziako euria ta erromarren oillarra aitatu dautsazana? Zer da nik orain egin dagikedana, Treviño?

—Nik —erantzun eutsan maisuak—, nik, zure azalean banengo, aukeraldia ta sendalarikuntzea ostikoaz yota, Puertoricora bidea artuko neuke.

—Zure azalean banengo, neuk be bai.

Epikok bere azalpeko ezkutuki¹ andiak ezeutsazan lagunari agertu gura izan. Zeintzuk eteziran? Bere gelan sartu zanean, tindi baten gogoketan egonda «Azpirakuntzea dirudian izkaldi ori, zelan biurtuko dot garaipen? O Tete, neure Tete eder ori! Zeugaitik noa aurrera. Elazkoak itz egin begi (*Que hable la prensa*)» esanda *El Eco de Vizcayarako* zirriborro batzuk egiten asi zan.

3

Erriak, barrua ardantegi ta kafe-etseetan berotzen ziarduanartean, Epiko ta Begiren izenak txitean-pitean aitatu ebazan. Esale ta edale geienak Begi euken garailaritzat. Larrauritar askok, au gorabêra, euren izlari andi Laraudori «Epiko gurea mutilla da» ziñoen. Meñakar batzuk Floren Andrakari auxe eraso eutsen: «Ez bata ez bestea eztira izan iñor ez lango izlari andiak. Orren ikasteakaz edozein baserritarrek askozaz obeto egingo leuke.»

Erromak zoroetse bat zirudian. Nok an gau atan sendagaillurik² erosi? Anton Imaz ispillu baten aurrean bere buruagaz dantzan ibili zan. Mauri indianuari aste guztian baiño itz geiago emon eutsen gau atan bere ezpanak.

Guztiak egozan zerbait esan gurarik; guzti-guztiak ez orregaitino, Begi ez. Bere lagun ta gogaidên maitetasunak samurtuta, barre, ezaban besterik egiten. Bekosolok itz eragin eutsan. Bere gurenda³

¹ (misterio)

² (osagarririk)

³ (garaipen)

ots andiko aren goragarritzat apari eder bat guztientzat atondu gura ebala erakutsi ebanean, «Diputaukuntzea eskuratu dagigunean, bai; artean ez» esan eban izlari garailariak.

Uritik urtenda, bidebarriz bidebarri etse aldera yoazala, emeran-
doar batzuk urrundik ezagutu eben Meñakako sakristau zarra. Biz-
kor yoazan bere atzeti. Bidekurtzera eldu ziranean «Aup!» deadar
egin eutsen.

— Urak etzaroaz ta zagoz tinditxo baten, Martin.

— Zeuok zare?

— Bai, geu gara. Ze barri, Martin?

— Barririk ba, barririk-iii zeuok dakizuena ezpada, Meñakako
sakristaua urte bitik onakoan, aur goran¹, batez be euriari badino-
tso, oinez ikasten ibilli dabillega.

— Aur bêran ezta ba errez zeuri aurea artzea. Ta Mungian?

— Ezalaiz eu an izan, Markos?

— Bai, beste amar bidar balego be; baia orrelango zer orretan
maisua zara ta zeure eritxia yakin gura dogu.

— Auxe da ba, esakeräa danez «Zârrago, bearrago» izatea. Onei
esan dautset. Nire ustez, begirako ta belarrirako, erdalduna; buru-
rako ta biotzerako, geurea nagosi.

— Ze atze izango etedau izkaldi onek?

— Aurea baizen argia dauko atzea, nire eritxi laburrean. Arraitz
medikuari entzunda, botoagaiti dirua artu dagiana soka bat samati
lotuta «Aida!» esanaz, bêko plazara bertara Santularri- egunean
eroan bear leukegu (*sic*).

— Epikok be txalo asko izan dau ta zerbaitean egon bear izan
dabelakoa diñoe batzuk.

— Miña dauko ak labana ta itzak bigunak, larrapaskorrak, la-
rra-paskortxoegiak. Azkenaldean bere burua ezin geiago goratu
dau. Erromar agirien izenik aitatu be egin bagarik, bere izena,
Epiko, goren goren ipiñi dau. Berak, Epikok, triunfauko dabela.

— Eta ori zer da?

— Baa... garailari bera, Epiko, izango dala. Gizonari etxako au
eder egiten. Beste aldeti ezaban gaur protestanterik aitatu bear, ez-
kara ta.

— Damutu be orduan-aaa, damutu be ezeteđako egingo?

— Bai, Markos. Orixe esanak galdu eragingo dautsaz, nire ustez,
euren boto-apurrak.

— Zeuek, Martin-iiii, illunaren bildurrez edo, gautu-orduko
zoaze etsera.

¹ (aldatzgoran)

— Ezalduzu iñoiz entzun arako

*Goiztxotik oilloak otara,
Goiztxoti gu zârrok lotara?*

Bein zârtuezkero, Yainkoaren argia baiño besterik eztau gizonak bear. Zuzi ta illenti ta kurtzelu ta beste asmo barriko argiok gazte zoroentzat oba dira.

— Leia¹ dozue etserako ta agur ba, Martin ta lagunok.

— Zoaze ondo, Markos.

Oharrak:

(¹) Zentzu pluralean erabilia. Beste batzutan «zaiteze» erabili izan dau.

¹ (priesa)



XXV. Izkaldi-osteragoan

1. Mungiako eskutitza.
2. Anton Imazen yarduna.
3. Begi Bilbon.
4. Begi ta Arangoiti.

1

Labarto gelunezainari astelen gabeen Adona agertu ekion, kuxelu¹ auxe ezpanetan ebala: «Julian, biar goizerengo trenean *El Eco de Vizcaya* ugari Bilbotik elduko dala diño don Pedro gureak eta zuk mutilkoren batzuk aurretiaz estazinoan² euki dagizuzala; eta mutilko orrek papera iragarkeran zoli-zoli auxe esan dagiela: «*El Eco de Vizcaya con la carta de Munguia*.»

Urrengo goizerdian ezegoan *El Eco*-rik salgei; ordu erdi garreneko saltzaile biak esku-utsean gelditu ziran. Epiko berrikari³ zaneti Erroman beti erosten eben bat. Goiz atan alderdi bateko ta besteak arrituta irakurri eben Mungiako eskutitza. Erosi al izan ezeben askok iruskin⁴ bila bakotxa bere iturrira yo eben: kartagoarrak Olabegana, erromarrak Larrinoarenera. Larrinoak gitxi bat goitik bêtik, auxe esan eutsen barri-zaleai: «Onelango mutilik ezta gure artean ezagutu. Nor dan ezpalekigu! Baia katurik ezta Mungian *El Eco*-ren berrikaria nor dan eztakianik. Eta zertzuk esan Epikok bere burua goratzeko! Egi bakar bat diño bere eskutitz luzean: izkaldi-azkenean euria izan zala. Esaten asiezkero andiak esan bear dira. *Izlari bardin bakoa... Puertorricoko seme argitsua... Zirzarteko garaipena... Ingles-politikoan antzera itz egin dau, barregei zakar baga-*

¹ (isileko mandatu)

² (geluncan)

³ (korrespontsal)

⁴ (komentario)

rik, iñori iraunik¹ arpegiratu bagarik... Yakituriaz beteriko yardun sakona... Itz egikera sarkorra, eskuketa masal²... Tamala!³ diño gero, egun guztian zemaika egon dakun euriak egabanatu dauz entzuleak... Gizon irakurriak, arriturik, iruskin ederrak, goragarriak egiten igaro dabe arratsa. Eta bere aurkaria aitatuta diñoana! Erromarren aurrelari gizon bi dabilz; bata, Bekosolo, aldungei legegizona, itz egiten ez-takian legegizona; bestea, Arraitz. Berau ikusita ezin kendu izaten dot neure buruti Quevedok gizon surrandi batez esan ebana: «Erase un hombre a una nariz pegado.» Arraitz ezagutu baleu «Erase un par de ojos de besugo pegados a un hablador» esango eben (sic) madriltar idazle irrilari andiak. Sendalaria eida berau, barriketan baiño besterik ez-takian sendalaria. Itzaldia asi dabenetik erriak bere naieza adiarazo dautso. Egia esateko, bere taiuak Demostenesi berari Filipikarik ederrera alperrik galduko eutsan. Donato Arraitz, erromarren izlariau, bene-benetan ezta Adonisen ondorengoa. Diñoenez, Viñas de Andres jaunak bere naikideari⁴ dedu geiegi egiñaz, beste izkaldi baterako aup egin dautso.»

— Non dogu bera? — ziñoan Zabaletak —. Anton Imaz, zuk be ezetedakizu gure Arraitzen barririk?

— Bere emazteagaz egon naiz. Laukarizako deia izan dau.

— Zelan da arako «Deabrua aiatatu ta deabrua atean»? Zer da, gizonak, onen goiz batuta egoteko? Kaleak betean dago gaur mungiar-taldea ta guztiak neuri agora begira. Zer da?

— Luze eritxita gengoan, Donato, zeure etorreräari. Ez aldozu irakurri *El Eco*? Orra or Epiko guzurti buru-arin ozkil orren eskutitza.

— Ekazu ona, Zabaleta.

Begik, itz ónek esanda, beste guztiak isilik eta bere arpegian begiak ebezala egozanartean, adi-adi irakurri eban Mungiaiko eskutitza. Alegin andia egin eban artetsu⁵ egoteko; baia noizik noizera musuak parizta⁶ bat edo bestez barruko asunak salatzen eutsazan. Ona Begiren iruskin bakarrak:

«Onelango zerbait etorriko zala uste izanarren, onen beste ezneban itxaroten, urretan be. Emen diñoan au, beste izkaldi baterako aup egin daustala, egia da; bart ekarri eustan Adonak bere eskutitz bat. Ai erantzun ezpaneutso!»

— Zuk zer esan zeutsan?

¹ (insulturik)

² (nobles ademanas)

³ (lastimää!)

⁴ (a su rival)

⁵ (tranquilo)

⁶ (zinu)

—Zer gura zenduan nik erantzutea, Larrinoa? Ezetz. Berak, ain zuzen be Epikok berak, albotiko guztien aurrean erabagi ebala izkaldia domekan egitea, astegunean baserritarra solotik ezin atara daiteala ta. Ai erantzun ezpaneutso! Orain baietz esan ta yardungura igonda batera «Jaunak —esango neutsan erriari—, zer egiten dautse askok gaulenean zazpi kukurruko yoten dabezan oillarrari? Etsean inor il eztaitean samaa biortu ezta? Auxe egin bear dautsat emen kikirrikika daukagun oillasko ozkil guzurti epel koipe oni.» Ta Epikotxo irato egingo neuke.

Zabaletak. Arte, gizonak, arte artuizue. Ez artegatu.

Anton Imazek. Gizonak, nik, neuk dakidala, eztot bein be inora yo; baia ozkil arraio ori uritik atarateko ukabilik bear bada, emen daukazue neurea.

Zabaletak. Arte, gizonak, arte.

Larrinoak. Ze arte ta marte? Au onelan itzi badagigu, gonak yantzita yosten ikastera norabait yoan bear izango dogu.

Zabaletak. Artu dagigun arnasa, epea, egoarria, artea.

Begik. Lejarzegi etsean etedago? Ezin galdu dagikegu ordurik be, garailari urten gura izanezkeru. Anton Imaz, oa gerotxoago gurera ta Mikaelari esan egiok biar gaberarte edo etzi eguerdirarte Bilbon izango nabela. Zabaleta, zoaz zeu, arren, Lejarzegigana ta, Erromarik ez Kartagorik aitatu bagerik, eznagoala ondo ta neure orde z nire gaizdunak ikustera bera doala. Oraintxe egingo dot zerranda¹ bat.

Idazten asi zan gero Begi. Isilik egozan erromarrak bitartean.

—Biar edo etziarte agur, gudakide maiteak.

—Nora, Donato?— itandu eutsan Larrinoak.

—Laukinizko bertsolariagana orain; gero Perikok narroan tokira, Bilbora aurki. Egia esan dozu, Larrinoa. Au onelan, bertan bera, itxi badagigu, gonak soineratu ta yostun izan bearko. Anton Imaz, biar-etzietako tren guztietara agertu adi, nik zerbait bidaltzea izan leite-ta.

Erromatik urtenda, zaldi-ganera igoeran «Gora Bekosolo, gora Erroma, gora Mungia!» deadar egin eban Begik.

Anton Imazek gogo beroz ta zoli-zoli «Gora don Donato Arraitz Sagasti, Txorierriko gizonik andiena!» erantzun eutsan.

—Gora!— beste guztiak.

¹ (lista)

Erromarrak gudaiburu¹ bage gelditu ziranean, barriro euren batzokiratuta, Epikori zankatzenak yaten iardun eben. Larrinoak apur baten gogoketan batera ta bestera ibilita, besteai euren autua etenaz «Gizonak —esan eutsen—, a lanean ta gu besoak auma doguzala alperrerian egotea ezta bidezkoa. Eztagigun zama² guztia sorbalda batera yausten itxi. Anton Imaz, onetarako ukabilla eztauskuzu opa? Ona emen bat, ederra gero».

— Eztagigun, gizonak, astakeriarik egin. Zer deritxazue bat-batera buruak emon daustan uste oni? Gaur arratsaldean, zabalean bertan, yardungura doala Anton Imaz ta erri guztiaren aurrean su emon dagiola *El Eco de Vizcaya*-ri.

Anton Imazek. (Pieta Signore-ren zatitxo au abestuz) «nel fuoco eterno dal tuo rigor, dal tuo rigor».

Larrinoak. Baia guk orretarako alkatearen baimena bear ta ak emongo ez.

Zabaletak. Itzalditxo bat egitea eztau galarazoko. Lau lerro neuk zirriborrotuko daustadaz gure *Nel fuoco eterno*-ri (Anton Imazi) ta eurak esanda Epikoren eskutizari su emon dagiola.

Anton Imazek. Gero ni buru-gogorra naiz, ikasteko asti luzea bear dot eta lasterko egin zirriborro ori.

Larrinoak. Zeuk orretan diarduzun artean neuk beteko dodaz Donatok emon dautsuezan mezu³ biak. Lejarzegirentzako papera non da? Mikaelari biar gaberarte edo etzi eguerdirarte ez tala etorriko. Ganera Felipetxuri be esan bearko daustagu tanparlan tanparlan asi daiteala. Ze ordutan izango da *Auto de fe* ori? Lauretan?

Anton Imazek. Baina nik emendi lauretara zer ikasteko? Eslavaren *Señor omnipotente* edo beste onen antzeko zer bait bai, besterik zer nik?

Zabaletak. Yardun laburtxo bat idatziko dot. Ganera gaur; zure italianoak albo baten itxi ta, ingelesen antzera *lunch* bat artuko dogu, gauza arin-arintxo bat eguerdian, gabaz apari eder bat egiteko. Bai, lauretan. Alkateari be esan gero.

Au entzunda Larrinoa pozik yoan zan, dendan anaitzakoa⁴ ta Anton Imaz itxita. Zabaletak papertxo bat, zelan amaitu, alan emoten eutsan izlari barriari, buruz ikasteko. Arik lastertxora asi zan Felipetxu kalerik kale tanparlan tanparlan tuntunari ots eragiten.

¹ (caudillo)

² (karga)

³ (mandatu)

⁴ (koñatua)

Ona emen bere aldarria: «Uritarrak, gaur arrastiko lau-lauretan Anton Imazek bêko plazan diskurtsu bat egingo dabela, diskurtsu orren geia Mungiako kartâa izango dala ta yoateko. Lau-lauretan Anton Imazek.»

Zazpi bidar beste ainbeste kale-musturretan erakutsi eban aldarriariak yazoera pozgarri au. Anton Imazek, mutilkoak eskolan lez, Zabaletaren lerroak zoli-zoli bost edo sei bidar irakurrita gero, begiak itxita buruz esan gura izaten ebazan, baia zer? Irugarren papera ikasten asi zanean, lenengo biak burutik iges egin eutsen ta gizagai-xoa geroago ta larriago. Eguerdi-inguruan Erromako atzealdetik aurrekora sendailuak¹ saltzeko tokira etorrita, «Zabaleta —esan eban—, alperrekoak izan dira zure alegiñak. Nik eztarria ta bularra ta, len esan dodana, ukabilla be onak daukadaz. Bururik? Izan zara iñoiz Urdulizko atxetan, Santa Marina-egunean edo? Ango atxak eta nire buru au or-or dabilz. Bat ikasten niarduan artean aurrekoak aztu; orain eztakit txitik ez murtik. Orra zure lana.»

— Felipetxuk Mungia guztian ta uriauzo batzuetan ya[jia] (¹) iragarrita gero, atzeratuko etezakiguz? Zeure buruari kalte andia ta andi-agoa alderdiari, Erromari.

— Nik ezin dot ba-ta...

— Auxe ñoagu ona! Badakizu zer egin daiten? Irakurri, leidu.

— Baia txiztuka asiko ñataz kartagoarrak, eta Arangoitik ezete-leuke balkoiren batetik *a la carsel* esango?

— Ona zuk irakurten asi-orduko esan dagikezuna. «Gizonak, ni, zeuok ondo dakizuena, erbestean luzaro ibilia naiz eta angoxe oitura ta izkune batzuk erraietaragino sartuta daukadaz. Erroman, Mungiakoan ez, Italiako Erroman ta Venecian ta Milan-en izlari askok, ni baiño andiago ta yakitunago izanarren, irakurri egiten dabez euren diskurtsuak. Nik neurea zagaitik ez?» Onelangoxe zerbait esanda gero irakurten asi ta kitu. Azkanean, badakizu, len esan doguna, *El Eco de Vizcaya* eskuetan artu, petroleoz busti ta su ta gar.

— Baia, gizona, irakurteko be yasa bear da. Edonok eztaki ganoraz irakurten.

— Neuk esango dautsut zelan egin. Goazan orain geurera, *lunch* artzera.

Ordua eldu zanean, gizonak asteguneko soiñekoakaz agertu ziralara, bestela San Pedro-eguna nai beste orrelangoxe yai andi bat zirudian: denda guztiak itxita, yardungu² inguruak gizonez yosirik, zabaleko sapaillioak³ utsune bat bagarik, urrekoak beintzat; kale

¹ (botikak)

² (tribuna)

³ (balkoiak)

nagosian Lejarzegi ta txakur bat edo bat, beste bizidunik etzan agiri. Mediki zâr onek, entzule bakar bat agertu ezarren, iru edo lau bidar deadarrez esan eban:

— Zer entzutera zoaze? Astokillo orrek zer esango dautsue? Zein eteda bertan kirtenago, berori ala zeuek?

Lau-lauretan yardungu-ganean lerdan ta txairo agertu zan Anton Imaz, eskuetan paper askotxo eukazala. Bere ondorik, alkatearen eskubide guztiakaz ornidu ta yaieguneko yantzita, tuntun bagarik, Felipetxuk bere burua agertu eban, eskuman bastoi eder bat ebala. Txalo andiak egin eutsezan, bai erromar bai kartagoarrak. Minutu batgarreneko Zabaletaren seme zarrentxo goratu zan, esku banatan bonbil¹ bat ebala; batean Antonentzako ura eroian, bestean petroleoa. Kartagoarrak ezeutsen góra andirik emon mutilko bat an ikusteari. Zetara yoian yakin balebe, bai edo. Izlariak buruz esateko itzak bere atzetxotik irakurri egizan bidali eben erromarrak Krisantotxo ara.

Felipetxuk, alkatearen aulkian yezarrita egoala, itz bakar bat agotik ataratzaka, eskuetako makilleari gorakadatxo bat eragiñaz, Anton Imazi yarduna asteko eskubide osoa emon eutsan. Ganora andi bage, baia atzeko itz-emoleari² eskerrak, zelanbait azaldu eban izlariak erbestean bizi izanikoa zala ta ango oitura ta ekanduak erraietan sartuta eukazala... ta abar.

Txistu andiak egin eutsezan kartagoarrak Zabaletaren paperak irakurten asi zanean; beste alderdikoak txalo.

Bere bular ta eztarri ta bildurrik ezari eskerrak ezeutsan txarto urten bere arloak. Epikoren paperari su emon eutsanean, asieran baiño bere txistu ta txalo zaratatsuagoak izan ebazan Gatikako sakristauak.

Kokolo andiak nondik edo andik beti burua erakutsi bear izaten dabe; ta orduan be gure Floren Andrakak bere burua ezin euki izan eban gorderik. Txistu ta txaloak makaltzen asi ziraneko, yardungu-ondoko sapaillio batetik «Anton kaiku —deadar egin eutsan—, zapatu-gabera orduko neuk orraztuko zaitut zu.»

Gernikako arbola yasean abestu eban gero Anton Imazek eta gogaldi oneko erromar batzuk, zezenkariren bategaz noizean bein egiten dana egin eben beragaz: lauk sorbalda-ganean artu ta, santu bailitzan, goiko kalean barruna Erromara eroan eben.

¹ (botella)

² (apuntadoreari)

Begik bitartean ezaban Laukinizko bertsolariaren burutik berak gura eban lango bertso zorrotz ta gazdunik atara al izan; ta Perikori arrapalada barriak artu eraginda, amabiak ingururako Bilbora eldu zan.

Euskera utsezko albistari bat¹ agertzen zan urte aretan Bilbon, *Eukalzale*. Zein kale ta etsetan zan ondo ekian Arraitzek. Ara eldu zanean, ateko kisketa gogor yota, zuzentzailea bera agertu ekion ta aren agotik «Zer atsegin?» entzueran, barrez itz ónek zuzendu eutsazan: «Adonis-en ondorengoa ezpanaiz be, euskaldun naizana arpegi itxusi onetan ezagutu dozu, orregaitiño, abade jaun osasuntsu orrek.»

Gizon eldu barriaren on eta masaltasunak zauskada ona egin eutsan elizgizon areri. Ordutixek, Arraitz sendalaria il zanarte, adiskide onak izan ziran biak.

— Zer gura dozu ta nor zara?

— Ni zeuon irakurle ta eusle² bat naiz, Donato Arraitz Sagasti, (e)ezizenez Begi.

— Ezizenaren barri eznekian, baia izen ori daben sendalari bat Mungiakoa deritxat...

— *Eccomi*, neu nozu.

Itz onen ganean Epikoren izatea zee zee erakutsi ta euren izkal-diaren edesti³ osoa yakin eragin eutsan.

— Auxe da, zuzentzaile jauna, nire guraria: biar eguerdi-ostean Mungiaara musika ta guzti bertso batzuk elaztuta⁴ eroan gura neukez, goizerengo trenean al bada, ainbat obeto.

— Astirik eztogu izango edo, gaur-biarretan olerki⁵ bat egin, musikaa ezarri ta musika-olerkiok argitaratzeko. Gure asteroko onetan ikusi izango dozu Bermeoko *Terzadun batek* egindako olerkitxo bat, musika ta guztikoa. Erriarena da kantatxo ori, erreza, edonok dakiana. Eztau, egia esan, lauzuriko zâr bat balio, euskaldun-kutsurik be eztauko, baia aurra! Itaunetxo bat orain. Noraezekoa eteda aitatu daustazuzan gizaki guzti orrei ziri egitea? Zeintzuk dira erriarentzako galgarrienak?

— Galgarrienak Aginbako, Epiko, Morrosko ta *El Rásimo*. Felipe-txu, Laraudo ta besteok uriaren edergarri doguz, erri-galgarri ez.

¹ (asteroko paper bat)

² (suskritore)

³ (historia)

⁴ (inprimidurik)

⁵ (poesia)

— Erdu zeu iluntzean bertora ta gure bertsolariak bat eta beste puska bat bion artean eginda, oillasko nai oillanda, zerbait yaiokoda. Zeuk baderitxazu, *Aiko* izan bedi olerki orren egillea ta inok eztagiala nor dan yakin.

— *Benissimo*. Musikatxo ori eskuz idatzita emon gura bazeust...

— Bai, gizona.

— Musikalari bat daukagu an, Italian-ta izanikoa, Anton Imaz. Onetxek irakatsiko leuskioe mutilko batzuri. Berari ikasita dakidaznik italiarren esakeratxo orrek.

— Pozik atonduko dautsut.

Esker andiak emonaz agur egin utsan Begik zuzentzaileari. Ain zuzen be etseak berak zaldi-korta andi bat eukar. Periko antxe itxita, plaza barriko ostatu batera yoan zan sendalaria.

4

Bazkaltegian¹ sartu zanean, ogei bat mai txiki zuriz yantzita ikusi ebazan, bonbillez ta edontziz, lauortzez ta txaliz² ta zamauz ondo orniduta guztiak. Batzuk launa bazkaldarrez, beste batzuk utsik, lagun bi ta irunaz beste batzuk. Mai bat beretzat ebala, ezagun andi, arerio bildurgarri bat ikusi eban sartu barriak: Arangoiti. Beragana-tu gurarik eta azartu ezinik, zer egin ezekiala, eztul egin eban Begik. Besteak, burua yasota, ezagutu ebanean «Izlari, izlari ospetsu, erdu óna» esan utsan.

Pozik yoan zan erromarren gudaiburua kartagoar izen andikoa-ren maikide³ izatera. Egunak gudu-egun ziran. Tokia etzan gudu-toki. Mungiatik bi iru orduko bidean urrunduezkero (lendanik dakie au irakurleak) bildots ta bildots izaten ziran erromar ta kartagoarrak. Euren euskerazko autu bizia entzunda «Nortzuk etedira orrek? —zirautsan zokondoko batek lagunari—. Bizar ta kapeladunak ezpalitzaz, kontratistaren batzuk dirala esango neuke.»

— Zer dakazu edo zek zakaz Bilbora, Arraitz?

— Agustin Ereñoztik esango leukean *kaso konplikadu batek* nar-kar. Jardines-kaleko lankide bategana izan naiz *konsulta*-billa.

— Nik Bilbo zerbaitean dazagut. Eztakit, orregaitiño, kale orretan zein sendalari ots andiko bizi dan.

— Eta zeu, Arangoiti?

— Ni neure aspaldi luzeko egunik gozoenetan bizi naiz. Izlari-

¹ (komedorean)

² (tenedor koillaraz)

³ (mailagun)

baltzu bat sortu doguna badakizu. Heleneraz¹ atondu gura neuke baltzu ori. Orretarakoxe *Sociedad Bilbaina*-ko liburu batzuk aratuten diardut, yo bai yo. Lenengo-lenengo gure izlari guztientzat Atenas-aldeko izlari batzun izenak batu dodaz. Ona zerrendatxo² au. (Sakeleko paper bat irakurriaz).

| | | | |
|---------------------|---------------------|-----------------------|-----------------------------|
| Don Anbrus | <i>Perikles</i> | Treviño | <i>Demetrius de Phalere</i> |
| Pedro Viñas | <i>Demostenes</i> | Olabe | <i>Eskinus</i> |
| Laraudo | <i>Phocion</i> | Labarto | <i>Isokrates</i> |
| Belaunde | <i>Kallistratos</i> | Floren Andraka . | <i>Ariston de Chio</i> |
| | | Busturi ta ni | <i>Alkidamas ta Pytheas</i> |

— Eta Gondramendi noizko izten doze?

— Gondramendi! Ja, ja, ja, ja. Ezaldakizu zer yazo ñakon? Epi-ko ta buru-orde³ biak, Laraudo ta Andraka zarra dira ónek, gau baten onetarakoxe Kartagon batu ta Gondramendi gizaixoa ezeben aintzat artu. Axe da Kartago guztian izlari eztogun lagun bakarra.

Aren barre gozoak entzunda, zorotzat artu ebezan ostatuko otseñak.

— Arangoiti, ez txartzat artu nire oar au. Izlari-baltzu orrek entzuleai barre, orpoetatik be barre eraginda, osasuna zabalduko dau ta guretzat, sendalari garanontzat, kaltegarri izango da. Au gora-bêra, neuk barre egiteko be, izlaridi ori luzaro bizi izatea gura neuke, baia laster ilgo dala uste dot. Ezer eztakien batzuk zelan gura dozu luzaro izlari izatea?

— Entzun, Arraitz. Plutarcoren liburu eder bat, frantzes abade batek bigurtua darabilt esku-arte: *Les vies des hommes illustres*. Ortxe irakurri dot Demostenesi Atenasko auzitegian birritan erriak txistu egin eutsala. Apal-apal, burua estalirik etsera yoala, Satyrus eritxon adiskide batek bere atzetik etsean sartuta «Zer dozu, gizona?» itandu eutsan. Izlari andiak bere zoritxarra erakusteko «Neu naiz —erantzun eutsan— izlari guztien artean lanik andiena onetarako artu dabena, eleantzerako⁴ neure burua atonduteko erdi indarga gelditu naiz eta au gora-bêra erria ezin neugandu dot.» Entzun au ondo, Arraitz. Zuk frantzes baedodakizu?

— Irakurriaz erdi-ulertzeko bestetxo.

— Ona emen Demostenesen itz ónek⁵: *Des matelots ignorants et*

¹ (*a la griega*)

² (listatxo)

³ (vicepresidente)

⁴ (elokuentziarako)

⁵ *Les vies des hommes illustres*. Tom. IV, pág. 6.

*crapuleux occupent la tribune et sont écoutés, et moi je suis rejeté avec mépris.*¹ Esaidazu orain, Arraitz. Gure Laraudok, Belaundek eta lagunak ezetedakie Atenasko itxasgizon ezyakin ordi zantar arek ekien beste?

— Demostenesen azurrakaitik parkatu begide Mungiako izlari andiok nire susmoa. Gero, Arangoiti, nik entzutea daukadanez, Larau do ta besteren batzuk erromartu gurarik eidagoz. Au egia bada, txulut!

— Ori berdantzat³ bai; orain Amilcar ta Asdrubal baizen karta goar zintzoak dira. Bazkaria oztuko ñaku. Gero edatsiko dautsut Larau do ta lagun en elkizun⁴ bat, zeure bizitzan entzun al dozun ya zoera politena. Nik lengo gabean, zuen izkaldi-ostean, Larau dori *Gora Kartago* deadar eragin gura neutsan; «Gora Kartago? Ori gero, ori dirua artu ta gero» erantzun eustan berak. Arraitz, zure lankide Jardines-kaleko orreri ta ezagutu dagizuzan beste sendalari guztiai esan egiezu *hipocondriaco* sendaezinik badauke, Mungia ra bidali dagiela, antxe barrên barrez bizkortuko dala-ta. Atzo goizean neuk lagun egin neutsen Larau dori-ta, Perikles-en etsera lenengo, don Anbrus andiagana; gero *El Rásimo*-ra. Don Anbrusenean sartu gintzazane ko, otseña «Oraintxe dei egingo dautsat» esanda, badao gu ateondoan itxirik. Egon ta egon gu. Alangoren baten, Arraitz, oratu ondo gerriari, eztanda egin eztagizun, «Eztagoala etsean diño» esan euskun otseñiak. Larau dori *cataplasma* batek urten eutsan agotik. Nik otseñaren *eztagoala* entzun nebanean, zokondo txo batera, giltz ta guztiko zokondo batera, yoan bear izan neban, bear etzan lekuan «zerbait» ez egiteko. Loditu egin naizala esan dauste goizeon. Loditu bear, aspaldion barrezka bizi naiz-ta. Bagoaz gero *El Rásimo*-ra. Larau dok, Belaundek eta Aranduik eskue tan eroezan euren paperak. Bildur nintzan ni Larau do gureak, izla rien buruordea da ta, alango itzaldi gogorregiren bat egin ezegian, ta bakoitzak zeinbat artzeko eukan yakinda, neu asi nintzan izke tan. Ardaorik gozoenak garrastu ta ozpintzen edonoiz ikusten doguz. Ozpina gozatzen eztot orduxerarte ikusi. Larau dok, bere es kuetan bi milla ta bosteun peseta ikusi ebazanean, Malagako ardao rik eztitsuenta zirudian. Bere liberaltasuna noiztikoa ta noragiñokoa zan adierazoteko, arako bere izeko Urbana, karlistak orain berrogei bat urte asto-ganean erabili ebanaren (*sic*) edestia⁵ erakutsi euskun.

¹ (Itxasgizon ezyakin zakarrak yardungura doaz eta entzun egiten ñake, eta niri erdeinuz² ut egiten dauste.)

² (desprezioz)

³ (arainegun gabean)

⁴ (aventura)

⁵ (historia)

Edestitxo au nik berrogei bidar gitxienez entzun dausat. Diru aren ordain-agiria¹ neuk egin neban ta damu dot; euren ardurapean itzi bear neban arazotxo au. Viñasgandik ikasita, labur-labur beizendu² eben: Laraudo, Belaunde, Arandui, izen bagarik. Neure esanez euren birrizenaren ondoan, batak *Vicepresidente* ipiñi eban, beste biak *orador*. Idazku³ atako nagosia, Arganda etederitxon nago, adarra yoten ezta atzerena. Polito-polito itandu eutsen gizonoi izlari-baltzua zer zan, noiz ta zetarako sortu eben... ta azkenean arren bai arren eskatu eutsen, berari be, itzaldi-zalea zala-ta, lenengo bantzarrera dei egin dagioela. Kalerako yagi ta agurka⁽²⁾ aterantz ginoazala, *El Rásimo*-ko diruzainak bigun-bigunik itandu eutsen:

— Izlari jaunak, nik emon dodan diru orretan zeuena baiño geitxoago ezetedaukazue?

— Erdia enparaten da —erantzun eban Laraudok—; baia, bada-kizu, egun onetantxe bear izaten dozuez iñoiz baiño zalkurdi ta oke-la ta ardao geiago, ezta egia? Ta gero buruauste gitxiago izan dagizuen, diru au Kartagon bertan egongo da gordailutzat⁴. Nik eztaikit, Arraitz, *inspector* euskeraz zelan esan ta Laraudoren azken-itzak berak esan ebazanez aitaturko dodaz: *El Señor Arangoiti será inspector*.

— Bene-benetako atsegingarriak dira barri onek —esan eban Begik barrez zezindu ta gero—. Len aitatu dozuzan *Perikles* ta lagun-nen artean bat itxi dozue sartu bagarik, nire don Anbrusen urrengo izan bear leukean bat: bere loba Morrosko. Aztu edo?

— Aztu, ostera? Greziarrak Pfinx eritxon mendi batera yoaten ziran noizik noizera itxasoaren aurrez aur euren itzaldiak egitera. Geu be, ilean beintxo, alantxe yoango gara. Gure Pfinx Yata izango da. Ordukoxe ta arakoxe daukat gure Morrosko gordeta, Mungia-ko Apolo izan dakigun. Greziakoak txirula⁵ yoten eiekian. Ikasiko dau gureak be. Ak bederatzi musa eieukazan: Melpomene, Klio, Euterpe... ta abar. Bat gitxiago eztau izango, ni bizi banaiz, gure Morroskok: Floren Andrakaren lau arrebak eta Adona ta Basili, orra sei. Beste irurak, Lejarzegi zuritu al bagendu, bere iru alaba Kristeta, Krisanta ta Kríspula izango geukez.

— Lejarzegiren aldetik baiño Eleizäarenetik ezetedozue eragozpen andiago izango?

— Nik dakustala ez, Arraitz.

¹ (erreziboa)

² (firmadu)

³ (eskritorio)

⁴ (*en depósito*)

⁵ (flautea)

— Pfinx barri ori, Yata mendia, Gatikako lurtean balego, gure don Biribillen eskuetarakoa balitz, ak begi onez ikusiko leuskezue. Baia Yatabeko parrokuak, hmm! Akelarre barri bat sortu gura dozuela ta egunen baten ixopoa eskuetan dabela agertuko litzakizue.

— Bere baimen ta guzti egingo dogu. Onkote bat, gizagaixo biotz andiko bat da don Emeterio.

Mungiar zaldun bi arek ain txeratsu, ain maiterik autuan ikusita, nok igarri egun bi aurrerago otso ta otso izan zirala eta egun batzuk geroago an, euren errian, beste ainbeste izan bear ebela?

Zutunduta Arangoitik lagunari «Beste gauzatxo bat daukat, Arraitz, politta gero —esan eutsan—. Atzo banator bazkalorduan *Sociedad Bilbainatik* eta bidean emengo adiskide zârategaz topez tope egin neban. «Arangoiti —itandu eustan berak—, zer da egun ónetan emen sarri entzun daroagun Mungiaiko *El Rásimo* ori?» Barreak urten eustan erantzun orduko. «Zuok emen *La Piña* daukatzue, liberal jauntxoan baltzua. An Mungian, *eztakigu* euskeraz *Pino* ta *Piña* zelan esan¹ eta *Mordoa* esaten dogu, erderaz *El Racimo*. Baiña zeuon artean daukazue Mungia-ondoko baserritar Puerto Rico aberasturiko bat, don Anbrus. Eta onek, kirten andi onek, ezta ki bestela esaten, *El Rásimo* baiño; ta orain guztiok an *El Rásimo* gora ta *El Rásimo* bêra darabilgu. *Mordoa* entzun be ezta egiten. Piñan sartu dabe zuen jauntxuok berau.»

Barre andiak egin ta alkarrak eskuak txeratsu emonda urten ziran kalera mungiar biok.

Oharrak:

(¹) Orijinalean «batzuetan» hitzaren gainekaldean zerbait ikusten da idatzita baina ez dago bape argi; lehen bi hizkiak nahiko argi dagoz, «ya», baina ondorengoak ez. Pare bat hizki baino ezin leiteke izan, mantxa txikia da ta; «yaia» izan leiteke?

(²) Orijinalean hitzaren azken bi hizkiak ez dagoz bape argi.

¹ Erronkarin pino «*lerra*» da, piña «*ler-sagarra*». Orain Euskalerrri guztian, gitxi edo gei, ezagunak dira itz polit biok.



XXVI. Kartagoarren makurraldia

1. Begiren erantzuna ta Aikoren *Gora Bekosolo*.
2. Apatxaldia.
3. Jauntxoa ta Morrosko Mungiarara.

1

Eguen goizean goitzxo Jardines-kaleko elaztegitik¹ paper sendor andia ta eskutitz bat eroan ebezan Mungiarako trenaren gelunera. Eskutitzak azalean itz onetxek eukazan ezarrita:

«Anton Imaz ta Ezkurdia
Natural de Mendata»

eta barruko aldean beste ónek:

«Gora gorputz baldar ori,
ibil-ordua da-ta.»

«Lagun zarra —zirautsan gero Begik bere adiskide maite sakristau Gatikakoari—, ikasik ondo musikatxo ori, bertso eder orrek egoki sartuta. Irakatsi gero Zabaletaren seme ta beste mutilko bizkor batzuri. Arlo onetan Zabaletak berak lagun egingo daust. Amaiak ingururako gor eztiran mungiar guztiak entzun dagiela olerki² ori. Epikok zeinbat *El Eco* irakurri eragin etêbazan arainegun? Eun baete? Laureun paper orrek zabaldu zuek. Baserrietarako geiago bear balitz, eredu³ osorik dago ta beste laureun ordu betean atara daikez. Txakur txiki banan saldu egizuez ta diru orrezaz lauretako eder bat egin dagiela abeslariak, eu, Anton, lagun auela. Lenen-

¹ (inprentatik)

² (poesia)

³ (modelua)

go lau birridazkiak¹ Mikaela nire emazteari bidali. Geroarte, Begi.»
Ona emen Begik Epikori emoniko erantzuna, musika ta guzti.

Mungiako berrikari guzurtiari.

«Itzaldi sakona... Izlari bardin bagakoa... Puertoricoko seme argitsua... Zirzarteko gurenda...»

Epikok bere buruagaitik areanegungo *El Eco de Vizcayan*.

Erantzuna²

I

Bilboko alkargotzar *El Rásimo*
mendean artu daben bat
giza eroatera etorri daku
loba Morroskoarentzat.
Illeko sari milla errealtxo
oparo aginduz dau lagun
gaizdun bagako medikutxu ta
matsik bagako mastidun.

II

Bizkaiko *Orador patriarcal* nor dan
Epiko txikik darakus,
negreru baten loba baltz-zale
El Rásimo-ren don Anbrus.
Berak aitaren eraz Yataben
«Osaba-lobok arbola gara,
botodunok gure satsa.»

III

Oillar agertu dakun Epikok
oillaskotxo bat dirudi,
olajaunari dirautsanean
«Parkeske nago, Busturi.»
Illik egozan jauntxo ta otseña
ikusit gurez bizturik,
barregarrizko izlaridi bat
sortu dauskue emen guri.

¹ (kopiak)

² *Andre Madalen* herri kantuaren doinuarekin.

IV

Aldarrilari dan Felipetxuk,
yo ta yoz tuntun apala,
iragarten dau Urlia izlarik
konferenzia daukala.
Libertadea ta progresoa
nai *politika lokala*
geitzat artuta gabero dabilz
barre eragiten einala.

V

Gure Mungia au Atenas txiki
norbaitek gura dau egin,
baldin Laraudok eta lagunak
egin badagie alegin.
Don Anbrus bera Perikles daite
ta Demostenes Epiko,
Yata-mendia izango dogu
Txorierriko Olimpo.

VI

Pisuergako Andres Itzontzik
goratu guraz jauntxoa,
aup, aup eginik beko plazara
Donato Arraitz daroa.
Izkaldi ori entzun gurarik
gure eguzkia an zan barrez,
Gaztel-odeiak goibel goibelik
agertu ziran negarrez.

VII

Etzan Sevillan bizi gau atan
ezpan berotan guzur bat,
guztiak onantz gogozko egoetan
etozan Epikorentzat.
Alkazar eta Giralda bera
ikusi gura badozak,
orra merketxo Masti-n papera,
guzur-yantziz or daukazak.

VIII

Gizerosleok txanpon-urtika
boto gurarik badatoz,
«Lokabea naiz, euskalduna naiz»
esanda, yaurti zak orpoz.
Mozorroz agertu arren, beti
da mozoloa mozolo.
Aup! Gizonak, oiu gogotik
Gora gure Bekosolo!

Egileak ezizen auxe ezarri eban atzenan: *Aiko*.

Sakristau musikalariairen eskuetara olerki au eldu ta ordu betegarrenean, kalerik kale ebilzan, berak onetarako atonduta, zazpi mutilko oiuka¹ ta paper saltzen. Erromar nai kartagoar, batak baiño besteak gurago, alkarren leian ziarduen erosten, irakurten ta barreka; ez gitxi oiuka agopean. Mutilko oiulari edo kantari onetatik gure ezagunenak Zabaletaren seme Krisanto, alkatearen loba Teles ta Josetxu Larrinoa ziran.

2

Edozein uri nai basauritan mutilkotxo adinide auzkalari bi, indar bardintsukoak badira, alkarri oratuta egozka edo bêra botateka diarduenean, euren apatxaldia bost minutukoa bada, orain goian dagoana gero bêa yoten lau bidar gitxienez ikusten dogu, txil eraginate, erri batzuetan *geiago aiz* esanarte. Mungiako kartago ta erromarrok adinide ta indar bardintsuko ta auzkalari dirana lendanik daki irakurleak. Egun onetako apatxaldian, batean Erroma dakusku goian, bestean Kartago. Epikok Begiri aupadäa yaurtigita urrengo egun batzuetan Kartago zan goi. Izkaldi-arratsaldean Erromak ots andiz bere arerioari lur yo eragin eutsan. Mungiako eskutitza agertu zan goizean ta ganerako berrogeta zortzi bat ordutan barriro artu eben goia Epikok eta lagunak. Aiko ta Begiren olerki musikaduna kalerik kale entzun ebenean, ostera, autsar-tean bêratuta etzazan kartagoarrak.

Onelango estualdi geienetan Olabe gozogiña izaten zan lagunai adorea emoteko arduraduna. Kartagoren yaube zalako? Bere menduz, izatez, odolez asmotsua⁽¹⁾ zalako? Eztakigu zegaitik. Goiz atako estu ta larrialdian be bera izan zan aurea artu ebana. «Basili

¹ (kantetan)

—esan eutsan emazteari—, zoaz lagunakana ta, dagoana dagoan lekuan itxita, etorteko.»

Epiko, Arangoiti ta Busturi ez (gau atantxe elduko zan Bilbotik Arangoiti), beste guztiak, Gondramendi bera barruan zala, egoana egoan lekuan itxita, zintzo ta kirmen ta ordutsu agertu ziran Kartagon. Andraka zârrak semea bidali eban bere orde. Guztien eritxiz urrengo egunean, bariku-arrastirian, itzaldi bat, izkaldirik, *controversiarik* ez, egin bear zala erabagi eben. Non? Yakiña, Mungiaiko zabalean. Nok? Antxe egoan untzea. Laraudok yardun ori berari egokiola uste eban, zarrena zalako, bere izena kalerik kale ta agorik ago ebillelako, izlarien lenengo buruordea¹ bera zalako.

Floren Andrakak, iru zio² onei beste ainbeste pzzzz eginda «Neuri dagokit biar arrastian diskurtsu ori egitea —esan eban—. Batetik Anton Imazi areanegun aup egin neutsalako; bestetik, ez neuk esatearren baia, edonok diño Mungian ta uriauzoetan, Viñan-essen urrengo izlari onena...»

— Eu aizala?

— Neu naizala.

Gogorrak esan eutsezan alkarri: arroa, batatak; dirukoia, besteak; babalasto ta kirten, buru-eritxi ta fepakoa³. *Iñorantea* Andraka gazteak bere naikideari arpegira yaurtigi eutsanean «Ona emen *Sabio Salomon* —erantzun eutsan Laraudok—. Eskoletatik ik eta nik aterra doagun yakituria arenbatekoa dok. Zaldi-artean bizi gozak biok. Ik eure gurdiari lotuta deroazan bideztiak mutu dozak eta eztauek zer andirik irakatsiko. Nik, ire ogien orde, gizonak erabilten doadazak, sarri yakitunak be bai eta onekandik beti zerbait ikasi ñagi-geguk. *Iñorantea!* Bere buruari usain artu ñautsak ala?»

— Eta areanegun, izkaldi-ostean, erromartuko zintzazala esan zenduanean? Zu baiño kartagoar zintzoago beti izan naiz ni, Laraudo.

— Eta zertzuk esan euazan euk, kokolo orrek, Ereñoztiren ordezkotzat erriak gura ez ta iges egin euanean?

Eta barriro lengo letaiña iraunezkoa asi eben: babalasto, kirten, buru-eritxi... Arro berezi be entzun eban Floren Andrakak.

Ozta ta nekez bakeak eginda, Arandui arakinaren uste auxe aintzat artu eben besteak: biak izan eitezala izlari; lenengo, Laraudo, euskeraz; gero erderaz, Floren. «Baia —generatu eban Arandui— buruzagiaren baimen bagerik ezta lege ezetan astea. Felipe-txuri dei egin-orduko, zoaze biok Epikogana ta bere erantzunaz

¹ (vicepresidente)

² (motivo)

³ Mungia-aldean *fepakoa* (feto-bagakoa) beste alde askotako *ganora bakoa* da.



onaxe etorri. Katuaren erpe-arteko sagua baizen estu egongo gara gu zeuok ikusiarte.»

Izlari biak Epikogaz egon ziran arte laburrean estutasun andirik ezeben erakutsi kartagoarrak, Aranduiaren esana gorabèra; Ortiz de Treviñok bere alabatxo Amaliaren izena matsorri ta kabelina-artean paper baten taiatzen ziarduan; Gondramendi, ukondoa maian ebala, erdi-lo; Arandui bera, kartak eskuetan artuta, *solitarioak* ataraten. Beste enparauak isilik eta geldi.

Epikok Adonak esaten eutsana idazten ziarduan (Aikoren olerki *Gora Bekosolo* erderaz ipinten) besteak agertu ekiozanean. Izlari-baltzuaren erabagi bikotxa entzunda, «Zuk Larauo, zezaz itz egingo zenduke?» itandu eutsan Viñasek, txordo ta musturtsu begiraturik.

— Nik ba, nik-iiii, emendik biarrera ordu askotxo be badagoz ta gogoratuko dot. Au bai, itzaldiaren azkenean Begiren paperari su emongo neuskio.

— Eta zuk?

— Nik —ziñoan Floren Andrakak— iru ataldun itzaldia egingo dot; lenengoan liberal izatea zer dan, demokrata izatea zer dan, bigarrenean; irugarrenean, incondisi...

— A, bai! Meñaka ta Yatabeko astakeriak.

— ... eta gero Begiren paperari su neuk be.

— Kaiku, burubakotzarrok! Anton Imazek egin dabena zuok egingezkero, etxatzue otu su emote orrek onik baiño kalterik geiago egingo leuskegula? U ortik! Asti gitxiegi daukat ganorabako erabagiak aintzat artzeko.

Ezeben iñoiz Epiko ain pipermindurik ikusi. Buru makur ta erre-muska kaleratu ziran izlari andi biak.

Kartagora-bidean iñon ziranak esan ebezan Epiko zala ta etzala; ozkil, ume, buruarin, ipurloka, triperre, ugerdo¹. Kartagora eldu ziranean, sua ta bat ziran bien arpegiak.

Aranduik. Gorri zatoze mutillok. Epikok amaiketakoa emon aldautsue?

Floren Andrakak. Protesto.

Larauodok. Amaiketakoa? Kaiku burubakotzarrak garala guztiok! Belarrondoko bat emon eztautsadanean memeloari alangoari!

Floren Andrakak. *Hay que haser un curso de apelasiòn.*

Aranduik. Mutil, euskeraz itz egik. Patilla andiok itxi doazanetik lengo aldean baiño be puztuago abil.

Meñaka ta Yatabeko itzaldi-bitartean matrailla-erdiraginoko bizarra erabilen Florenek. *Hay que entablar recurso de apelasiòn-en*

¹ Bizkaiko erri askotako *koipezto*, *saskel* ta *txarri*-ren antzeko ta zentzunekoa da Txorierri osoan entzuten dan iraun au: *ugerdo* erderazko *mugriento*.

ordezkoak alziran bere itz len aitatuak. Ezin esan *Gorabidea artu bear dogu?* Ori esan baleu, batzarreko guztiak ulertuko eutsen bere gogamena, baia zoritxarrean arroa izan ta erderaz egin bear. Amai-ka Floren Andraka bizi dira gure artean or-emenka! Eztogu iñoiz ezagutu euskaldun buru-eritxi bat, erderaz apur bat badaki, erderara zaiki-epaiki yoten eztabenik.

Luzaro yardun eben gure kartagoarrak eztabaidan. Gero ta gero be buruordearen asmo bat aintzat artuta, bazkalostean iru izlari, Laraudo bera, Arandui ta Floren, jauntxo ta aldungeiaren billa yoa-tea erabagi eben. Laraudoren lando ederrean yoan be egin ziran. Dakuskunez, iñoiz baiño gorago egoan Erroma. Kartago barriz «txil» esateko ari arian.

3

Jauntxoaren atean ots egin ebenean, nortzuk ziran ta zetara yoa-zan esan bear izan eutsen otseinari. Orduantxe egon zan etxean don Anbrus. Izlari zarrenak euren barrua euskeraz erakutsiarren, Floren Andrakak *apelación* gora ta *apelación* bêra ziarduan, don Anbrus bera gogaitarazo-arte. Isasti jauntxoak, beste jauntxo garau bat aspaldion izan ezтана, euskalzaletxo zirudian. Ona zegaitik. Zalditizat *caballoa* ta txartelzat *billetea* esanarren, gure egunotan iñor ezta lotsatzen, ez esale ez entzulerik; baia *costudera*, nai *semos*, nai *eslegir*, nai *alkordar* ta *sospresa* nai *méndigo* entzunda, don Anbrusi irribarre egiten eutsen ta gurago izaten eban euskeraz yardun. Larau-dok estalki bagarik agertu ebazan bere gogamenak: «Aurrelari on bat bear dogu Mungialdean, bestela galduak gara. Bibote utsak ez-tau mutilla gizon egiten. Epiko beti Epiko izango da. Betoz eurok, osaba-lobok, geure artera. *Hotel Terminusik* an eztaukagu, baia ostatu politta dauko Lamiaranek. Oge zuri ederrak, guztia garbi; yan be eztabe txarto yango, geli ta ogi egunekoak, ortuaria non obea? Conde de Montellano ezagututen etedau berorrek, don Anbrus? Egun ta erdian euki eban Lamiaranek ostatur. Neuk ekarri neban gero Bilbora ta pozik etorren gizona.»

Onetan, osabäak atarakoxe dei eginda, Morrosko agertu zan euren artean. Oni be luzaro ta minduta erakutsi eutsazan Larau-dok Viñasen Epikokeriak. Itz bigunez ta zurrez ibitu eutsan aldungeiak bere bizitasuna. «Ezta asko, Laraudo, ezta arrigarria minduta da-goan gizon bat asarre izatea, nakar aurkitzea, garratz agertzea. Begiren bertso lotsabakoak nor mindu ez? Bestela, guztiok ondo da-kizuenta, Viñas baiño mutil adikorrakorik, bigunagorik, txeratsua-gorik gitxi.»

Floren izan zan lenengo ibitu ta baketu zana. Mungian egun aretan egoteari egoki eritxon Torrealdeak, aspaldion egoan gurarik eta osabäa zuritu ezinik lor andiak izan ebazan. Bere atzerapiderik andiena auxe zan: «Ni an, trenaren txistua eskuan eztodala gau ta egun banago, oraindanixek dakit yazoko dana, yazo bear ezleukeana, *a la inglesa* asi gintzazan-ta. «Don Anbrus, dirua; don Anbrus eskuarte; don Anbrus, ezkurra; don Anbrus, txintxin bear dogu emen; bestela eztago ama etsean, gureak egin dau, au yoan zan.» Eta, gizonak, amaika buruauste mingots!»

— Betiko leloa—bere artean Morroskok. Onek urrengo itzokaz legundu eutsan osabäari bere atzerapide ta nakartasuna: «Osaba, ostatua ordaintzeko bestetxo eroan bei, duin-duin, ez diru geiago. Eta gero don Anbruska ta txintxin-eske datozanai auxe esan begioe: eskuartean eztaukala, diruetserako astirik eztagoala, gero emongo dabela ta...»

— *Corriente*. Goazan orduan—erantzun eban jauntxoak.

Arik ordu betera jaurunerako¹ bidea artu eben. Floren Andrakak, lando ederra Zabalbiden gora asi zanean «Ortxe goitxoan saltzen dira *bolanderak*² —esan eban—. Erosiko etedodaz?»

— Ederto gogoratua—esateko egon zan Tomas Morrosko, baia osabäaren bildurrez ezaban murtik egin. Don Anbrusek ez entzun egin eban.

Goratxoago, Zabalbideko pelotatokiaren aurrez aur ozta eldu ziranean, «Ementxe saltzen dira» esan eban Florenek.

—Ezkontzera oa ala?— itandu eutsan jauntxoak.

Autu auxe, kazkarra zala, izan zan Mungiarra elduarte erabili ebenik goratsuena.

Oharrak:

(¹) Orijinalean ez da argi ikusten «asmatsua» ala «asmotsua» ipintzen dauen.

¹ (feudorako) *Jauregi* (lugar del Señor, palacio) lez, *jaurune* (comarca del Señor, feudo) dala dirudi.

² (suziriak)



XXVII. Irakiten erria, su bagarik

1. Anton Imaz ta oiulari batzuk txakalakortan.
2. Zabaleta eta Larrinoa udaletsean.
3. Lamiaranen ostatuko batzarra.
4. Ingenieru barri bitzuk.

1

Kartagok barriro goratzeko egin ebazan lerren andienak Epikorenak izan ziran. Bera zan mutilko oiulariak¹ isildu eragin ebazana. Orretarako Adona urizain nagosiagana bialdu eban. Aren atzetxotik Epiko bera yoan zan.

— Don Pedrok etorteko—esan eutsan Adonak.

— Zein don Pedrok, alkateak?

— Ez, geureak, don Pedro Viñasek.

— Zu zara abuazil² nagosia?—esan eutsan gero Viñasek an sartu zaneko.

— Bai, jauna.

— Zeinbat urizain zarê?

— Bi; obeto esateko, bat eta erdi, Felipetxu ta neu.

— Zoaze biok, arin bai arin, kantetan diarduen mutilokgana ta guztiok baitegian³ sartu egizuez.

— Alkateak agindu balegit...

— Mungiako alkatea burutik beatzetara, oso ta zintzo, karta-goarra da. Ezalzekian? Kartagoarren buru neu naiz.

— Jauna, berorrek baderitxo, uriko etsera yoango naiz lenengo. Alkatea goizean goizean, amarrak... amar ta erdiak ezkeron an ego-ten da. Oraingo Yesus! aitzuta be an dago Arruza.

¹ (kantariak)

² (urizain)

³ (txakalakortan, kartzelan)

Epikok orduan min-min eginda «Nor naizan badakizu —erantzun eutsan—; nire aginduaren barri be bai. Caracalla!! Lau egun barru zeure burua kale gogorrean, zer yan eztaukazula, ikusi gura badozu...»

—Banoa, gizona, banoa.

Bost minutu barru, Felipetxu alde batetik, bera bestetik zala, zazpi abeslaritxoak kale nagosian inguratuta eukezan. Lauk iges egin eutsen. Baituriko mutilkoak geure ezagun andien semeak ziran: bat, Krisanto, Jose Zabaleta eskribauaren seme zarrentxoa, Anton Imazi egun bi eurrerago bere arazoan lagun egin eutsana; bigarrena, alkatearen loba Teles ta irugarrena, oiulari guztien artean gaztêna berau, erriak Josetxu Botikako esaten eutsana, Larrinoaren seme Joxepe.

Mailladian gora, oillasko-oillandak eskintokira lez, baitegira eroezala, Anton Imaz arnasoska agertu zan. Atan errurik baegoan, errudun bera zala ta «Umeak nora, bera ara» yoala ganeratuta, mutiltxo ta urizain biakaz goiak gora tipi-tapa yoan zan sakristau gibel-andia.

Mungiako baitegia etse apaltxo baten goianengoan¹ egoan, gaurko alondika-etsearen teillapean. Ezeukan ez giltzik ez zerrailarik. Maratillatxo bat zan baitegiko atea ertsirik edo itxita eukana. Josetxuk an bere burua ikusi ebanean emon eutsan negarrari!! Nok a isildu? Anton Imazek mutilkoa besartean artuta, mosu andiak emon eutsazan, Milango barri be bai, banaka batzuk beintzat.

—Italiarrak, Josetxu, etxoek, guk lez, Milan esaten, Milano baiño. Katedralagaitik be etxoek esaten *la katedrale, il Duomo* beti. An, *il Duomo* aretan, Mungiako elizäa langoak ogei nasai-nasai sartu dagikez. An bizi dan beste musikalari ta pintore! Geienak ule luzea erabiltan ðoek. Neuk be kartxetatxoak, luze-luzeak ez baia, garondoan bêra erabilten naioazan. Kafetse bat badago Milanen, kafetse bat! Mungiako zabala, nik Epikoren paperari sua emon neutsan lekua badakizue?, axe baiño be kafetse zabalagoa, egunaren ta gauaren ordurik geienetan bete bete, beeeeteta. Mutillak, *estatu*a zer dan badakizue? Arrizko gizona da *estatu*a. Bi milla onelangoxe daukaz Milango katedralak kanpotik. Barruan zer daukan, Yainkoa lagun! Josetxu, ik eztakik Mungiako ibaikume onek izena zelan daben? Eztok iñoiz Oka entzun? Bada onek Oka lez, Milango ibaiak Olona ðok izena.

Larrinoa txiki, au gora-bêra, negar baten egoan; ta sakristau biotz-bigunak yagita «Josetxu, eu isilik eta pozik eukitearren, *Pieta Signore* kantauko ðoat. Gauza ederra, mutilak; Italiakoa au be.

¹ (ganbaran)

— *Alto la ezalda oba izango?*
 — Ez, Krisanto; ori egun andietan, orain ez.
 Zerura edo goiburura¹ begira ta eskua bularrean ebala *Pie-tá*,
Signore asi zan Gatikako baritonoa oiuka.

Pieta Si-gno re di medo-len-te

Signor pieta,- se a te giun ge il mi-o pre-

gar, non mi pu-nis-ca il tu-o ri-gor

Erruki, Jauna, mindun onezaz; Jauna, izan zaitetz erruki, nire eskari au zukanagiño eldu badagi; zure gogortasunak eznagiala zigortu.

Kanta larri au entzun ta kantaria ain itzal, ain larri ikusirik, len baiño be negar samiñagoak egin ebazan Josetxuk. Bere lagunak, barriz, bataren malkoai ta bestearen pariztai barre-zantzoka erantzuten eutsen. Benetako *komedia* zan a.

2

Bitartean Zabaleta eskribaua ta Larrinoa botikarioa, euren semeak baituran egozala yakieran, arrapaladan yoan ziran udaletsera.

— Alkate jauna, onelango gizonkada asko egin badagizuz, zure zuzen-entzutea laster da galdu.

¹ (al techo)

— Ze gizonkada diñozue?

— Anton Imazi ta mutiltxo batzuri ezaldautsezu zeuk kalerik kale oiuka ibilteko baimena emon?

— Bai.

— Ta gero txakalakortan¹ sartu! Ori eztau egiten biozdun gizonak. Ondo deritxazu orri?

— Gizonak, entzun. Onaxe etorri dataz kantarion baimen billa. Baietz nik. Ordutik ona, sekretarioa lagun dodala ementxe egon nago ni, ta iñor ezta ezetarako sartu ta eztaikit kaleko barririk arean.

— Igarri nik, Jose —ziñoan Larrinoak— «Emen Epiko dabil, Epikotxo dabil emen» esaten izan dauat nik; eta orra or.

— Ugalde —alkateak sekretarioari—, zoaz arren urizainagana ta yakizu agindu ori nok emon daben. Viñas izan bada, etzaitetz bera bagarik etorri.

Mungia, orretarako bertan lurra naikoa izanarren, gizonez beintzat oraindino ezta Londres. Batetik besterakoa laster egiten da Mungian. Nor non dabillen yakin, erraz yakiten da. Alkateak sekretarioa bidali ebanetik Epiko beragaz agertuarte Zabaletak eta koñatuak ezeben zigarrotxo bana osorik erre al izan. Eldubarriak udal-tsean sartuta batera asi zan alkatea Epikori arpegi artzen, goragoraka bagarik orregaitiño:

— Don Pedro, zuk agindu etedo zu gaur norbait baitegian sartu dagiela?

— Bai, jauna, neuk agindu dot. Argi-argi nekusan nik erriak papper-saltzailleari burua ausi bear eutsela ta negargarririk ez ikustearren...

— Noren manez emon dozu agindu ori?

— Noren manez, noren manez? Kartagoarren buruaren manez, neure manez, gure alderdiko nagosi neu naiz-ta.

— Eta alkatea, zeu ala neu gara?

— Kartagoarra ezalzara zu?

— Pedro Arruza kartagoartzat dauke. Mungiako alkatea ezta ez kartagoar ez erromar; mungiarra da.

Alkate askok, itz onek ebakeran, kristalari dardart eragingo eutsen, Mungiakoak ez. Egutaizea euskaldun gitxik dakie zer dan: erdaldunen *zéfiro*, zeruko arnasea, aize bigun-bigun, ez argirik itzungi, ez bularririk garramaztuten eztaben egurats² astitsua. One-lantxe, egutaize antzera, ots egiten eban beti, entzulên belarrietan, Arruza alkatearen eztarriak.

¹ (kartzelan)

² (aire)

— Viñas jauna, orrelango gauzetan, nai norbait txakalakortan sartzea dala, nai kantateko baimena emotea dala, orrelango zeretan erdu alkateagana. Bidezkoa dan gauzarik eztautsu ukatuko, batez be zuri.

Viñas auzkarako etorren. Begiak amurruz gorri ta ezpanak gorrotoz zuri ekazan. Berak ezekiala, kirioen¹ bizitasunez, eskuak ikoldu² ta ukabildu egiten ekiozan. Alkateak ain bigun, ain legun artu ebanean, zer esan ta egin ezekiala gelditu zan. Orregaitiño, bere burua erromar biren begietan ain apalatuta ikusirik, asarre barriak bere odolari su emonda «Uri tutu sakristautsu onetan ezin bizi daitte» esanda, ateari ots eraginez zabaleratu³ zan Epiko.

— Txotxo —esan eutsan leiotik Larrinoak—, uri tutu sakristautsu onetatik len bai len ta betiko bazoaz iiiiiiñok eztau emen negar egingo. Gero, txotxo, etsandrea ordaindu bagarik ez alde egin e?

Epikok amurruarren erantzun eutsana aizeak eroan eban.

— Ori esango eutsan ik gizonari, Jose?

— Esan? Alkateak beronen biguntasunez nire besoak bêratu ezpa-leustaz, yo be egingo neban nik ori, yo be, txakil tximiño ziztrin eru-be zital ori.

Viñasen atzetxotik kaleratu ziran alkate ta koñatu erromarrak. Alondikara elduta, mailladian gora yoazala, Anton Imazek *Pieta Signore*-ren bigarren atala, lenengoaren itzez, oiuka ziarduan.

— Pedro, zeugaz dau sakristauak. Aren *Signore* Mungiaiko alkatea da; aren *Pietà* zeure errukia.

Alkateak maratillatxoari ikututa, barrukoak bultzada bat ateari emon eutsenean, autsez beterik, beste batzuk zirudiela, argitaratu ziran kale-abelsariak. Bitartean berrogei bat yakingura batu ziran baitegi-aurrean. Lenengo lokabetuak⁴, Krisanto ta Teles, kaleratu ziranean, txalo andi ugari ta zaratatsuak yo eutsezan. Anton Imaz, antzelariz⁵ yaten baiño be pozago izaten zan txaloak, beretzako txaloak, entzuten. Erriak mutilko biai yoak entzunda, Milango operatse andi *La Scala*-n *La Tebaldini* ta *Tamagno*-ri zuzenduriko txaloak eta abeslari andi bi onen agerkeräa gomuta izan ebazan. Autsak berari alkateak erdi kendu eutsazanean *Mille grazie, signore* esan eban. «Alkate jauna, gauza batek arritu nau ni emen. Arritze-koa ezalda, gizonak, kanta bakar batek Josetxuri negar ta beste mutilko biai barre eragitea?»

¹ (nerbioen)

² (contraerse)

³ (plazaratu)

⁴ (jara eginak)

⁵ (artista-modura)

Mungiarren aurrera agertu zanean, a izan zan esku-zaratea! Anton Imazek orduan, txapela erantzita, *La Scala*-ko bere ezagunak lez eskumaldekoai lenengo, gero ezkerraldekoai ta erdi-ingurukoai urren, burua makur makur ebala *mille grazie... mille grazie... mille grazie* esan eutsen. Nok igarri, gizon ain bigun, ain abegikoi ta giza-bidetsu bat Mendatako auntz ta aker-artean amazortzi urte anditan bizi izan zala?

3

Laraudoren lando ederra Lamiaranen ostatura eldu zaneke, Mungiaiko etseak barriro gizonen ustu ziran ta kale nagosia barriro ikusguraz bete.

— Don Anbrus, Kartago txikartxo izango da egun onetako batzarrak egiteko. Berorrek baderitxo, ementxe batu gaitekez. Neuk esango dausat Basiliri doala etserik etse kartagoar geienai onakoxe dei egitera.

Arandui burutsuarena izan zan asmo au. Basilik ezaban ate-oska ibili bear izan; kalean egozan batzar ta baltzukide guztiak. Arrosko sartu ziran jauntxoagana Olabe, Andraka zarra, Simon Ganguren, alkatea ta Belaunde. Gondramendi be an zan. Arangoiti, maisua, Busturi ta Epiko gerotxoago agertu ziran. Guztitara amabost ziran batuak. Morrosko asi zan izketan.

— Jaunak, lokabetasuna¹ arrisku andian eidago Mungian ta gu beronen alde gatoz. Onetarako, garailari izateko, zer da egin bear doguna?

Laraudok. Emen diru andia bear da; bestela galduak gara.

Don Anbrusek. Dirua? Aukeraldi au *a la inglesa* izango zala ta dirua! Diskurtsuak egitea ezalda oba izango?

Floren Andrakak. Diskurtsuak erderaz ta euskeraz egin gura izan doguz ta kaiku burubakoak garala esan dausku batek.

Morroskok. Ori yoan zan. Gizona dan gizonak eztau atzera begiratu bear.

Don Anbrusek. Aurrean iru egun daukaguz; gaur barikua, biar zapatua, etzi domekää. Biarkoa baiño eztaukagu diskurtsuak egiteko.

Laraudok. *Pido la palabra.*

Don Anbrusek. *Ze pido ta mido!* Demokratak gara emen.

¹ (libertadca)

Laraudok. Ez asarratu orregaitik. Nik diñodana auxe da: diskurtsu ta bertsoak egiten gu baiño geiago dira erromarrak; gu dirutan arek baiño geiago, neu ez, baia badakizue esan gura dodana zer dan; ta garailari izan gura badogu, dirua emon bear izango da.

Morroskok. Belu da orretarako ta ezta belu. Au Bilbon yakin bagendu, yakin, ekarriko genduan diru ori, zeinbat gura; baia orain dirua dirutan ezin ekarri daite; belu da.

Laraudok. Ni lenera beti, dirua, dirua ta dirua; bestela txulut.

Morroskok. Eztala belu be esan dot. Diru-txartelak egin daiguzan orain; ta astelenetik aurrera *vale* orrek dirututeko an izango gara Bilbon. Non bizi garan badakizue.

Geien geienak begiak itxi ta ezpanak musturtu ebezan. Arangoitik eskuaz agoa estali ta barre, isilleko barrea.

—Ortiz de Treviño— zerraion Morroskok—, egizu eredu bat.

Maisuak idazten ziarduan artean, Gondramendi ta Epiko ez, beste guztiak biñan ta irunaka autuan asi ziran.

VALE
VEINTICINCO PESETAS
pagaderas en Bilbao
dentro del corriente mes
MUNGUIA A 2 DE OCTUBRE DE 1890

Treviñok. (Don Anbrusi) Gero berorrek beizendu¹ bear izango dauz diru-txartel onek.

Jauntxoak. Idazkera ona, Treviño; baya, bada-ezpada, or *VEINTICINCO*-ren ordez ipiñizu *DIES*.

Morroskok. Ze ardura dautso berorri au gora-bêra? Mungian, uri ta uriauzo, zeinbat boto dira? Seireun bai?

Laraudok. Yatabe ta Laukiniz ta Bakio kenduezkero, Mungia-ko alkatearen zigorpeko botoak bosteundik gora eztira, nire ustez.

Morroskok. Bosteun yo daiguzan. Bakotxa bost ogerleko egin-da, *cinco por cinco veinticinco* ta *cero* bi, orra or non diräan bi milla ta bosteun ogerleko.

¹ (firmadu)

Jauntxoak. Cataplasma! Len amar milla ogerleko andi ta bi milla ta bosteun ganera...

Morrokok. (Osabaa ukondoan yota) Berorrentzat zer da ori, osaba?

Arangoitik. (Aulkitik yagita) Don Anbrus, lenengo-lenengo egunean, arako *El Rásimok* bidaldu ta gurera eldu zintzazenean, dirurik emotea bazan, ni etsean lotuko nintzala esan neutsuen. Ganera (irrimirrika ziñoan au) eztozue uste gure izlari-baltzu andi onentzat lotsagarria izango litzateala *a la inglesa* aukeraldi au ez egitea? Txalak erian lez gizona diruz erostea bada...

Morrokok. Dirurik eztozue emongo, papera, diru-txarteltxo bat.

Arangoitik. Ainbat okerrago. Dirua dirutan, urre nai zidarretan emotea bada, erospen lotsagarri bat izango da gure aukeraldia, giza-azoka bat. Diru ori txartel uts, balio bakoetan eskurik esku badarabiltzue, alde batetik erospena ta bestetik lapurreta loi bat. Don Anbrus, zeuri batez be ta zure loba aldungeiari zuzendu gura dautsuedaz neure itz onek. Gure arlo au deduz¹ aurrera badaroazue, Busturi ta ni gertu gagoz biar noranai, Viñasek dirauskun lekura, itz egitera yoateko; etzi edozein maitan, uriko nai uriauzokoetan, egoteko be bai. *No vale* orrek aintzat artu gura badozuez barriz, gu ezkara orretan sartuko. Gizona gizon da, ezta andrakilla², beragaz yostatu³ gura izateko. Erabagi dagigun, don Anbrus, aukera au *a la inglesa* ala *a la bilbaina* izango da?

Alkateak. Don Juan, bilbotarrak guzur diru-paperik eztabe emoten. Au ezlitzate *a la bilbaina* izango.

Arangoitik. Egia, Pello, au *a la gitanesca* zeunkee. Zer diñozue, gizonak?

Kartagoarrak zurrumurru luzarotxo. Erantzun argirik, Larau-dok itz eginarte, ezaban Arangoitik entzun.

— Ni beti lenera —esan eban zaldidunak— dirua, dirua ta dirua; dirua lodi, bestela gureak egin dau.

Morrokok. Lokabetasunagaitik⁴ aurrera egin bear dogu.

Don Anbrusek. Diru-txartel orrek emon ezik, galduta algagoz?

Larau-dok eta batzuk. Bai, galduta gagoz.

Don Anbrusek. Eta diru-txartel orrek emonezkero, irabazi ala galdu?

¹ (con honra)

² (andrako, seinkolo... erderaz *muñeco*)

³ (olgau)

⁴ (por la libertad)

Lengoak. Irabazi. \

Don Anbrusek. Arangoiti, *a la inglesa* baiño gurago dot olantxe, zelan esango dot? Hmm *a la...*

Laraudok. *A la txartel.*

Don Anbrusek. *A la txartel* gurago dot. Gizonak, aurrera.

Arangoitik. (Zutunik) Zuok bai, aurrera. Gu, nire adiskide Juan Andres Urizar ta ni, etsera goaz.

Busturi ta Arangoiti zutundu ziranean, don Anbrusek bere agin barri ederrak erakutsita, zoli-zoli, «Arrrrrrraioa! —ziñoan—, gero Berinoleagako buru nor dan ez aztu, Busturi».

Ordurarte Arangoitik irrimirrika yardun eban. Jauntxoaren itz garratz onek entzueran, txinpartak eriozan begietatik; eta ukabilla yasota «Don Anbrus —esan eban—, Busturi Berinoleagako bal-tzuak eroan eban ta baltzuaren baimen bagarik iñok eztau andik atarako. Gizonak, mungiarrak, zeuon buruen yaube ala Mayaguez-ko baltzen antzera peko edo esklabo zaree?»

Iñok ezeutsan Arangoitiri erantzun. Arek urtendakoan, Epikok, artean itz bat ebagi izan ezarren, «pzzzz» esanda, itaune auxe egin eban:

— Azpisugeak dira ala eztira azpisugeak?

— Ederto, adiskide —esanda, eskua emon eutsan Morroskok.

Orduan Pedro Arruza alkateak txapela yantzita, Epikoren arpe-gian bere begiak ebazala «Errez da, don Pedro Viñas, norbaitgaiti *azpisugea* urrundik esatea. Azartuko etezintzazan or doan zaldun andi, Mungiako gizonik andiena dogun don Juan Arangoitiri, aurrez aur azpisugea dala esaten, azartuko etezintzazan? Zuk eta don Tomasek batagaiti ta bestengaiti esan dozuen itz lotsagarri *azpisuge*¹, ementxe guztion aurrean, ez esanikotzat atzeratu gura ezpa-do-zue, neu be, gizonak, neure etsera yoango naiz⁽¹⁾; eta yakin begie, don Anbrus, *La Concordia*-koak alkate-zigorra kenduarren eztaustala ardurarik izango».

Morroskok. Baia, alkate jauna, emen yazo dana olgeta bat izan da, broma bat. Nik olgetan esan dot *azpisuge* ori ta Viñasek be olgetan. Eztozue, gizonak, gure Viñas de Andrés pzzzz egiten ikusi? Olgetan beintzat. Ezta egia, Perico?

Irribarre egin eutsan bere adiskideak, ezer erantzun bagarik.

— Alkate jauna —esan eutsan gero Morroskok Arruzari—, zeuk dakutsunez, emen yazo dana utsa izan da. Yoanak yoan. Mordotu gaizan. Gure alderdi onen igartatza edo sinboloa mordoa da, *El Rá-*

¹ (traidor)

simo. Laraudo, mordo onen izenean mesede txikitxo bat, adiskide-usaineko laguntzatxo bat, eskatu gura dautsut; gure izlari-baltzu onetako nagosi Viñas jaunari eskua emon dagiozula —Laraudok, biotz-biguna zan ta amen amen egin eban—. Emon zuk be Floren Andraka—. Andraka zarrari, samurtuta, len arerio ziranak adiskide ikusirik, negarra mara-mara erion. Orduan Floren bere semeak, oi ebanez sutsu «Gora geu ta geutarrak!» deadar egin eban.

—Gora!— erantzun eben beste guztiak. Batek ez, Arruza alkateak ezeban txitik egin. Morrosko alderdiko garau banatuak batu ta mordotuten asi zanean, alkateak iñori agurrik egin bage kalera bidea artu eban.

—Gura dozue, gizonak —esan eban orduan Floren Andrakak—, neu Arangoitiren maister guztiakana agertu ta berak agindu dabela ta botoa emon eragitea? Bestela etsea itxi bearko dabela gaineratuko dautset. Zer deritxo oni gure aldungeiak?

—Lokabetasunaren¹ izenean edozer egin dagike —erantzun eutsan Morroskok—. Treviño, artu egikezuz orain zeure eskolako amar mutilko aurreratuenak eta bosteun bat diru-txartel atondu guztion artean, ogeta bost peseta nai geiagonakoak, zeuk gura dozun bestenakoak.

Gero lagun bakoxtari bere eskuera² izendatu eutsen: don Anbrusi Yatabe; Floren Andrakari Meñaka; Laraudori Larrauri... eta abar. Epiko barriro guztien buru ta zuzentzaile egin eben.

4

Kartagoarrak kalerako yagita egozala, Bermeoko mandatari bat agertu zan euren artean. Eskuetan ekarren eskutitzak Tomás Torrealdearen izena eukan azalean eta bêko aldetxoan itz onek:

*En su ausencia a D. Pedro Viñas de Andrés. Urgente.
Munguia.*

—Gizonak, Bermeon ze barri dan yakiteko, yesarri gaitezcan barriro. —Eskutitza irakurrita gero— Barri onak —ziñoan Morroskok—, barri onak eta esetsi-egitamu bat³ bidaltzen dausku ango aldungei Bidagurenek. Iru egun, goiz ta arratsalde, komentu-ostean

¹ (libertadearen)

² (jurisdicción)

³ (un plan de batalla)

asita bidebarri-ondoko soloetan neurriak artzen eidiardue gure alderdiko gizon batzuk. Aukera-ondoan *La Concordia Cívica* diputazioagaz batera burdinbide bat egiten asiko dala zabaldu dabe errian. Beste alderdikoak, bildurrak yota, uretan neurriak artzen asi dira. Bermeok lengoa baiño kai edo portu zabalagoa bear dabela ta yo ta su neurketan eidiardue gure arerioak. Onek Mungia-inguruan portu egiteko asmorik eztabe artuko. Asi zeuok —diño gero Bida-gurenek—, asi burdinbide-neurriak artzen.

—Egitamu ori neuk Yataben neure diskurtsuan erakutsi neban —esan eutsen don Anbrusek—. Perico —zirautsan gero Viñasi—, ezalozue iñor neurriak artzen erabili?

—Dirurik ezeutsen bidali-ta...

—Arrrrraioa! Dirua naikoa ta geiegi be emonda gagoz ta orain au entzun bear!

—Ea gizonak —ziñoan Morroskok—, biar goiz ta arratsalde Yataben neurriak artu bearko doguz, nire osaba don Anbrusen asmo eder ori len bai len bete dagigun. Onetarako nortzuk deritxazue izango geukezala egokienak?

Floren Andrakak bere aulkitik yagita «Batzordearen agindupean¹» esan eban. Bere ondorik, ezer esan ezarren, beste iru edo lau zutundu ziran. Aranduik orduan, bere aulkian zirkiñik egin bagarik, «Jaunak —esan eutsen osaba-lobai—, ain zuzen be biarko eguna da izlarienzat arazo andikoen. Florenek Bakion diskurtsua egin bear dabela esan dau. Orretan lotu gara. Beste guztiok be non edo an egin ta ekin bearko. Neurketa orretarako oradorerik ezin bidali ginaike. Gizon bi dagoz gure artean izlari eztiranak, Labarto ta Gondramendi. Gure tren au Bilbotik ekarri euskuenetik onakoan, Labarto geluneko nagosi daukagu. Onezkero injenieru batek gaiña badaki ak burdinbide-arazoetan. Gondramendi lagun dabela, maki-lla ta soka batzuk eskuetan artuta, onetxek ondoen artu dagikez neurri orrek».

Jauntxoagandik asita Epiko ta Morrosko¹ ta entzule guztiak aintzat artu eben Arandui arakin burutsuaren eritxi eder mamintsu au.

—Gondramendi —esan eban orduan jauntxoak—, zoaz apaloste-
tean Labartogana. Biok erdu gero onaxe. Emen emongo datzuez orretarako zuzenbidea ta argitasuna.

Pozik yagi ziran onenbestegaz kartagoarrak.

Urrengo egunean goiz asi eben euren lana injenieru barri Labar-
tok eta Gondramendik. Geluneko nagositat Labartoren emaztea

¹ (a las órdenes de la Comisión)

gelditu zan. Yataberako bide-zati andi bat neurtu eben goizean. Bazkalostean aurreko arazoa luzatuten asi ta batera beste ingeneriu barri bi euren aurrez aur sortu ziran: Krisanto Zabaleta ta Teles, lau egun urreragoko kale-kantariak. Larrinoa botikarioak bidali eban zuzen bideragoko onak, kartagoan injenieruak adarra yoteko esanda. Noizik noizera Krisantok Labartori iteune batzuk egiten eutsazan; batean «Gure trenua zuena baiño bizkorrago izan baietz», bestean, «Aizerik ezta urtean amaituko dozue?», bestean «Yatabeko estazioa be zeuok bion artean eregitakoa alda? Buruz dakizue orainarteko neurriak? Non dozue paperak? Zeinbat kilometru dira orainartekoak?» Labartok iru bidar yarraitu eutsen mutil irrizaleai, makilla ta sokak Gondramendiren ardurapean itxita. Aren amurrua! Bai! Nok mutilko arek atxitu?¹ Bizkorregiak ziran.

Arratsalderdian Larrinoak andere² batzuk botika-aurrean ikusita, Yatabe-alderantz egurastutera eteyoazan itanduta gero «Gizon bi ikusiko dozue Yatabe-ondoan izerdi larri ta yoran³ anditan so-loen neurriak artzen. Itandu egiozue zer egiteko asmoa dauken.»

Ezekien andere onak ezereen barri. Badoaz ta badoaz ta «An dagoz gizonak» esanda, eurakana urreratu ziranean, «Julian, zer egiteko ustea darabiltzue?» itandu eutsan Labartori.

— Kaka-mokor...⁴ zar bana — erantzun eutsen Labartok.

Eguzkia lotara bere etzangura yatsi baiño askozaz lenago, euren arazoa bertan bêra itzita, musturtsu ta illun yoan zan Labarto bere gelunera.

Oharrak:

(1) Orijinalean «yoango iz» besterik ez da ikusten, bigarren hitzaren hasiera tinta mantxa batez estalita dago eta. Gainera, hitz bien tartean ez dirudi bi hizki idazteko lekurik dagoanik baina, zer beste izan leiteke testuinguru honetan?

¹ (atrapau)

² (señorita)

³ (entusiasmo)

⁴ Guido d'Arezzo-ren Ut-re mi fa sol, zegaitik eldu etezan gure artean *Do-remifasol* izatera?



XXVIII. Aukera-eguna

1. Yata-ganera.
2. Aukerako barri batzuk.
3. Etorkizunerako asmoak.

1

Bestetan baiño goizago yagi ziran egun atan Arangoiti ta bere adiskide Busturi. Lejarzegi medikuak egunik geienetan goitzo izten eban ogea, eguzkiak mendi-bizkarra argitu-orduko. Domeka atan be nagitasun bagarik batu zan beste biakaz elizpean zazpiretako meza-aurretxoan. Ordu-erdi geroago elizatik urtenda sendalari zarrara, Arangoitiren eskiniari yaramon бага, bere etsera yoan zan barua austera. Bere lagunak alkarregaz mairatuta zerbait artzen ziar-duela, Ereñozi agertu zan.

— Egun on daukela ta on dagioela.

— Barua ausi al dozu, Agustin?

— Ez, jauna, baia laster noa etsera ta...

— Ementxe geugaz batera egingo dozu. Yarri or ta txapel ori burura, Ereñozi. Bart esan neutsunaren ganera beste zerbait daukat esateko. Amarrak ingururarte batu egikezuz kalean albait barririk geien; gero gosari-billa onaxe etorriko zara. Mandoz zoaz gero emendik Yatabera ta an beste onenbeste egin, elezinoko barriak batu. Gero mando ta gosari ta barri zeugaz dozuzala, gora len bai len, Yata-burura.

— Mādalen neugaz eroango etedot?

— Ta-ta-ta! Isilik eukitearren agindu neutsan umeari mandoz eroatea. Etzagizala, orregaitiño, berak zeu ikusi, negarrez urtu ezta-din. Guk, goizerdian artzeko, zerbait sakeletan daroagu, baia mendiak gosea berea dau ta bizkor-bizkor zu ibili, ordu batak-inguruan Yata-ganera eltzeko alegiñak egin. Ondo etedakizu gero zeuk arako bide zidorren barri?

— Jauna, amar urte bete bagarik morroi ibili nintzan ni Inubasoko artegiak¹ larrara eroaten.

— Gureztat zein da biderik onena?

— Lauena, zelaiena, neuk eroango dodana: emendik Yatabera, Yataben zear Elortegi ta Latsibiren barruna Inubasora; baia luzetxoa da. Artezena gura badabe, yo begie lenengo Birlera; andik, Gondraondo atzean itzita, Markaidara; Markaidati len esan dodan auzora. An, Inubason, ondo izango dabe biderakusle bat artzea. Onen goiz zetarako doaz? Bederatzi ta erdietan emen urten ta be, Jesús!

— Izerdi gitxiago atarako dogu.

— Lejarzegi ezaldea eurokaz?

— Bidez goazala batuko ñaku. Onezkero, epebakoa da-ta, leioan zain aldaukagu.

— Bart berorrek bidalita beraganatu nintzaneko emon neutsan berorren agindua ta egin neutsazan aleginak gora-bêra, ezetz, mandoz ezetz, ezebala mando-ganean yoan gura. «Besteak mandoz doaz? Mandoz neu be. Oinez besteak? Tikitaka ni.» Onelantxe esan be egin eustan. Urteak atzera-biderik eztakiala, geldirik egoten be ezetz esan neutsanean, «Edozein kaletar gazte baizen azkar ta zoli nago ni» berak; eta au zala ta ori zala, ak berea aurrera, beti lez, pirriago da, pirriago!!

— Pirria? Dekortxoa, amore emon bear, *Amen Amen* esan bear. Gero edozer egin daite Lejarzegigaz.

Onenbeste alkarri esanda kaleratu ziran Arangoiti ta Busturi makilla andi bana eskuan, buruan txapela ta untzedun oski² lodiak oinetan ebezala. Ereñozti bere etsera yoan zan. Gumer, Busturiren emazte Gumer, senarra ta senarraren lagun zalduna noiz ikusiko, leioan egoan. Arangoitik, bera ezagututa, txapela oso osorik erantziaz agur egin eutsan. Ezeukan Gumerrek bere poza saltzeko, senarra Arangoiti lango gizon baten adiskide ta bidaide zala ikusita. Lejarzegi, Arangoitik igarri, Lejarzegi leio baten euken adi, eurak noiz elduko, barua ausita, mendirako yantzirik, surretatik tabako-kea eriola ta epebako³ ta urduri⁴ surpekoa zorrozten ziarduala. Lagunak ikusita «Bein edo bein» esanaz, atarira yasten asi zan.

Bere alaba zarren Kristetak (Kristeta, Krisanta ta Krispula ziran Lejarzegiren iru alabak), aitaren ostenka ta isilik, Arangoitiri «Don

¹ *Artegi* da Inubasoko berbetan beste errietako *artalde*.

² (bota)

³ (impaciente)

⁴ (nervioso)

Juan —esan eutsan—, Jaungoikoarren, onantzean mandoz betor gure aita. Oraindexek nago ni bildurrak yota. Irurogeita amabi urte daukaz».

—Ez arduratan egon, Kristeta. Egizu kontu zuen aitak gaur, bere inguruan, alaben ordez semeak daukazala. Guraso bat lez yagongo dogu.

—Eskerrik asko, don Juan. O nire aizten poza, berorren itz onek edatsi dagioedazanean! Arratsalde - erdian iru aitzok Birlera yoango gara, eurok zelan datoza ikusteko.

Iru mendigoizaleak lokatu ziranean, aukera-maia atonduten ziarduenai begiratu be egin bagarik yoazan kalean zear. Eurak ikusita, bai erromar ta bai kartagoarrak, adi-adi so egin eutsen, batzuk «Nora etedoaz» esanaz.

Gogaldi¹ oneko yoazan irurak, batez be Arangoiti; ta bidean, bide zelaian beintzat, bizkor be bai. Zarrak gazte zala sinistarazo gura etêban? Itzik eta elerik asko egin eutsen alkarri. Irakurlêntzako egokienak baiño besterik eztat artu gura izan.

Gondraondon gora yoazala, markaidar batzuk aurkitu ebezan bidean. Batari «Zoaz ondo», besteari «Bai zeuri be», besteari «Bai, bagoaz» esanda,ATEGAZ, Markaidako zantzolariagaz, geratu ziran autuan.

—Eta Andres, markaidarrok noren alde zagoze?

—Jaunak, esaten lotsa izan leite. Neu naiz bakar-bakarrik norbaiten alde doana. Bekosoloren alde ni, bakotxak bere eritxia. Besteok eztoaz *norbaiten* alde, *zerbaiten* alde baiño. Dirutara doaz orrek. Sinistu be ikusi barik-ii! Bart zabal ebillen emen Aginbakok boto bakotxeko ogeta bost peseta emongo dabezala. Epiko etorri ekigun esatera. Egia eteda?

—Lagunai esan egiezu, Andres, ikusi dagiela ondo, diru ori dirutan ala paper usteletan emongo daben ondo ikusteko. Txarteletan bada, urratu dagiela. Dirutan² bada, yaurtigi, lauoinekoak eztirata.

—Nire esana ta txakur-zaunkäa...

—Andres —esan eutsan Lejarzegik aspaldion boto-autua eten gurarik egonda—, gantxo onetati Markaidako uriauzo osoa agiri danezkero, yakin cragiguzu etse bakotxaren izena, leiaz ezpazoaz. Nik, yakin, banekizan izenok...

—Bai ta pozik. Orra or Gortazarre ta Gortazarreko errota. Arene, Goiti, Markaida. Uriauzo guzti oneri zabaldu ðako gero izen au.

¹ (umore)

² (zidarretan)

Bengoetse, Andikoetse, Elizalde, Etsebarri, Arria, Alegri¹, Barandika goiti, Barandika erdiko ta Barandika bêko, Erdizubi, Markaida ta Larrauri-artekoa da au, Andiko Etsebarri, Izko goiko ta Izko bêko. Beste etserik ezta Markaidan. Tontorrak iru dira: Kaputxino-gane, Astogane ta Urtegane. Yata-egalean dago au; aiko an. Gorago, Yatan bertan, Mendi-kukuts; emendik ezta agiri.

— Ea, orain, Andres, zantzo bat.

— Erdi barurik nago, don Juan. Zantzoak, barrua berotu ezik, eztau ondo urteten. Gero, Bekosolo garailari bada, orduantxe egingo doguz zeinbatgura. Bakotxak bere ustea. Eurok Aginbakorenak dira ta parkatu.

— Nok esan dau? — zirautsan Lejarzegik—. Eu izan adi, gura badok, Aginbakorena nai Agindunaren menpekoa, ugerdo ori. Ni gaztañadi orretan txioka dabilzan txoriak eta artotza orretako eskilasoak baizen lokabe ta neure buruaren yaube nok.

— Parkatu, jauna, eznekian nik ori.

— Aginbakorenak Busturi ta neu gintzazan —esan eutsan isiltxorik Arangoitik—. Orain ezkara geu be, gizonak erosten asi da ta.

— Bakotxak bere ustea.

— Bai, Andres. Mungiar guztiok zu langoak bagintzaz, beste txorik txio egingo leuskegu; obeto legokez orduan gure uri ta erria. Zuk biotzak dirautsunari emon botoa ta zantzo gero ta ujuju. Agur.

Iñubaso (edo Unibaso) goikoan atsedean andi bat artu ta biderakuslea eskatu eben.

— Orko barri aizeak berak eztaki onek baiño obeto— esanda, etseko semerik gaztêna, Nemesio, emon eutsen atarako.

— Eurok-oooo Yata-ganean ostaturen bat dagoala uste edodabe. Esku-utsean doaz? An bedarra, arria, aizea, ura ta Jaungoikoa-ren grazia, besterik eztago.

— Mungiatik doakigu bat bazkari ta guzti.

— Bestela, zelango edo alango, bertan gertuko geuskio gosarixto bat.

— Eskerrik asko, Iñubaso.

— Besterik ezarren txakoliña bai, igazko txakolin emengoxea artu bear dabe. Mutillak eroango dautse bolingoi² bete. Etxake damutuko artua, ederra da ta.

— Guk beste zerbait ori baiño gurago geuke. Egon bein, bear dabenari baimena eskatu dagiodan. Lejarzegi, seme bat aitagana lez

¹ Au bere noizbait *Alderregi* izan etezan? Orioko Alegri bai beintzat.

² (garrafôn)

zerbaiten eske nator ni berorregana. Emendik gora zamariz, abere-ganean, yoan bear dau berorrek.

— Eta zeuek oiñez?

— Gu gazteak gara.

— Ezalozu uste, Juaniko Arangoiti, ni nekên nekez eiota, amaituta, abailduta nagoala edo?

— Nik ori! Ta gu baizen bizkor datorrela ikusi? Ezta orregaitik. Aiko, gizona, orti gora izerdi lodia atarako dau. Mendi-egaletan beti ibilli oi da aizea, ta oztuko balitzakigu?

— Ta zeuek oztuezkero?

— Neure ederrarren egin begi, Lejarzegi. Begiratu aldatz orri, auntzentzat egiña dirudi. Asi orain zamariz ibil¹ n. Ganaldera elduta, azpikorik ezabela bear? Oiñez asi. E, etsagun, zelango zamaria daukazue? Zaldia, mandoa ala astoa?

— Zaldia emen! Mandoa! Txorierrin ezta mandorik, arean. Txorierrri txori ta asto-erri da.

Lejarzégik. Batez be gaurkoa lango egunetan.

Lagunak gozaro barre egin eben.

— Astoa bai, galanta daukagu, gaztelastoa, mandoko bat baizen indartsua. Eurok ikusiko dabe.

Iñubaso gaztelasto-billa kortaratu zanean, Arangoitik Lejarzegiri «Don... —esan eutsan— gomuta dau berorrek oraintsu emen il ñakun Izpazterko seme Atxabal?»

— Bai ondo be.

— Ba Atxabal etorri barri zala, San Antontxu egun baten badoa azokara ta inguruetako kalêtara. Ain esan eutsezan gauza andiak!! Eta, zeinbat asto uste dau berorrek banan banan kopuratu ebazala? Seireun, seireun gitxienez ikusiko leukez eta guztiak —atz erakaslea¹ gora begira eukala esan ebazan Lejarzégik itz onek — guztiak anka binakoak.

Len baiño be barre-zantzo andi ta luzeagoak egin ebezan egun atako mendigoizaleak.

Ordu bete ta erdi inguru bear izan ebezan gorengo tontorrera igoteko. Ara elduta, begiak eta agoa zabal-zabalik ebazala, alde guztietara begira ebilen Busturi.

— Au da ikuskizuna!! Ufa! Esan ta esan ta be, onen ederra!! Ezneban uste. Onelangorik!!

— Ezalzara emen gaurrarte inoiz izan?

— Gaur lenengoz, Lejarzegi.

— Mungiako semea izan ta Yatara bagarik, zelan bizi al izan

¹ (dedo índice)

zara? Aurra! Etzan edo etzun or. Neuk azalduko dautsudaz begi-barruan daukaguzan ikuskiok. Gure oinpean dakutsun basauritxo meatz polit ori Bakio da. Aratxoago itxasondoan agiri dan aitz zorrotz, elizaduna, Gaztelugatx. Matxaku, erderaz Machichaco, deritxon muturra datza an urrunxoago. Goiko mendi zabal ori Sollube dala bâldakizu?

— Baetedaki berorrek, Lejarzegi, mendi orrek, Sollubek, burua Yatak baiño zeinbat zerren¹ gorago daukan? (¹)

— Goibegitxoago daukala bai, zeinbat garaiago dan eztakit, Arangoiti.

— 570 zerren eidakaz Yatak, Sollubek 684; eun ta amalau geiago Bermeokoak.

— Zein da an aratxoago agiri dan mendi biribil, itxasoan garri-ragiño sartuta dakuskuna?

— Ogoño. Aren ta Matxaku-muturraren bitartean uri bi, ugar-te² bat eta ibaia dagoz, emendik eztira agiri: Bermeo, Mundaka, Izaro ta Laida. Ogoñoren andiko aldean Elantxobe bere elantxobetarrakaz, mendebala zer dan eztakiela, bizi da. Aurreragoko mendi erdi billoiza Otoio da, Lekeitio-ganeko mendia. Legor-alderago Nabarrizko mendia agiri da, galanta gero; bere izenik eztakit. Mutil, Nemesio, zelan ñok izena Nabarrizko mendiak?

— Baaaa... Nabarrizko mendia, jauna.

— Ator, mutil, onatxoago. Ken txapel ori puska baten. Ule baltz eder yaube aiz. Uste naioan, ba, oraingotan soil soil gelditu bear euala. Nabarrizko mendia e? Yatabeko alkate be izango aiz i, oraindiño, alkate be.

— Lejarzegi, Donostia an, arantzengo mutur-muturrean eteda-tza?

— Ez. Iger dau izena arako muturrak. Aren barruko aldean Ondarribia ta Irun datzaz, ibaiaren emendiko aldean; andiko aldean, Endaya.

— Or dator Ereñozi. Atauñ³ baiño onatxoago, eztakuse mando bat, gizona ondoan dabela? Bera da. Gu etorri garan baiño bizkorrago dator berori. Yatabetik ermitan gora artu dau.


— Busturi, adi orain ezker-aldera. Santanderko (²) itxasaldea ederto agiri da. Castro ortxe daukazu berberton. Bilboko kai zabal-tzen diarduena eztakutsu an?

— Algortako kaiaren ondoan?

¹ (metro)

² (isla)

³ Lemoniz aldeko ctsc bat.



— Aitatzekoa etedogu Algortakoa bestearen ondoan, ur bedein-
katu-ontzia langotxoa dan ori? Onantzago agiri diran kai bi orrek,
bat ori Plenziakoa; beste ori, Armintza dira.

— Ta onantzago dagon au?

— Nemesio, zelan ñok izena or bêan agiri dan kaitxo orrek?

— Lenengo orrek? Etsebâko orrek? Barasorda-portu.

— Iñor bizi etedok bertan?

— Karabiñeruak.

— Or be bizi! Beste mundurik goragokorik ezpalitz, or gizon
baiño Bilbon txakur izatea oba litzate.

— Orra ba —ziñoan Nemesiok—, gauzak zelan diran. Kara-
biñeruak Barasordaportun pozik bizi izaten dira ta eztabe ortik
iñora alde egin gura izaten.

— Or zer ñaukek bada?

— Arraiña, atx-arraiña ugari ta —eskua ago-ondoan ebala, isil-
misilka esan eutsen au— txitean-pitean kontrabandua.

— Arin dator ta barri onen batzuk edo. Egingo neuke Bekosolo
Morroskoren ganetik dabillela. Ezlitzate bestela Ereñoztzi onen biz-
kor etorriko.

— Gizonak —ziñoan Lejarzegik—, mesede bat. Bazkalduarte
ezegizue elezinorik aitatu, arren! Ni biaoa egitera norabait yoango
naiz ta orduantxe ekin zuek.

2

Eta bazkaldu ta Lejarzegi aitz baten gerizan atsedetera yoan za-
narte, Ereñoztik ezaban aukera-barririk aitatu. Bilbo-ondoko Ga-
nekogorta mendiari begira, bedartzan auzpaz, ukondo biak arpegia-
ren tenteltzat lurrean ebezala, etzazan¹ Arangoiti ta Busturi,
Ereñoztiri entzuten.

— Txarto dabilz kartagoarrok. Gernika-Bermeoetan asko geia-
go atara ezpadabe, lur yoko dabe Morroskok eta lagunak. Amarrak
ingururako Mungian eginda egoan egitekoa. Botodunak goizean,
lenengo orduan, diru-txartela artzen izan dabe. Gero ikusi be gura
ez. Begi sendalariari otuko litzakio! Gizonari burura etorri be egi-
tea! Zortzi ta erdiak inguruan, eztaikit nori erosita, iru diru txartel
eskuan dabezala etorri da, neu egon naizan aukera-leku ondora.
«Gizonak —deadar egiten izan dau—, ogerleko baten orde z bost,
ogrerleko baten orde z bost, nok gura dauz?»

¹ (etzanda egozan)

Alango baten markaidar bat, Elizaldeko Txokolo ezizenduna, agertu dako erromarren gudaiburuari.

—Zelangoa da zer ori, don Donato? Berorrek bost ogerleko ta neuk ogerleko bat truk egitea? Buruz buru, neuk obaritzat ezer emon bagerik?

— Bai, Txokolo. Bost neuk eta zeuk bat, buruz buru.

Alboko ardantegia utsik gelditu zan orduan.

— «Ea ikusi diru ori» esan eutsan markaidarrak.

Txokolok, begiak txillotuta, diru txartela azpi ta gan ondo iker-tu dabenean, buruari atz eginda «Txo —esan dautso urren eukan mutillari—, nik esku-idatzia, batez be erderazkoa, etxakiat ondo irakurten. Ator ona, mutil. Irakurrik emen diñoana, astiro ta ya-sean.»

Mutillak, atzerakuntza bagarik, diru-txartel bat eskuan artuta, beretzat ondo irakurrita gero, auxe esan dau: «Ogeta bost pesetaren domua dauko paper onek. Bilbon il onetantxe artu leite balio ori, Isasti jaunaren etsean.»

— Nok diñok ori?

— Beizentzat¹ Ambrosio de Isasti dauko. Don Anbrusek, Agin-bakok, diño bere etsean emongo dabezala.

— Ori bat. Irakurri orain diru zuri onek daukazan itzak.

Eta ogerleko bat emon dautso eskura mutil urtentxoari.

— «*Alfonso XII por la G. de Dios, Rey constitucional de España. 5 pesetas.*»

— Orrenbeste erdera, itz bat edo beste kenduezkero, neuk be ba-đakiat. Diru orrek or diñoenez, bost pesetaren domua đaukak; bei-zentzat Errege baten izena đaroak. Ezaldok egia? Ta ganera zidarra dok. Gizonak-aaaa... Errege baten izenpean bost baiño ez. Jauntxo baten izenaren azpian ogeta bost. Geitxo eztirudi? Domu gitxitxo-a-go baleuko... izan leite nik truk egitea, baia hmmm! bada ezpada ekardak ona ogerleko eder ori. Barre-zantzoka, ortz² biak agirian luzaro doguzela egon gara albotiko³ guztiok. Ordurik aurrera diru-txartelik eztabe gura izan botodun buru-saltzaileak; zidarra ta, zida-rra ezpazan, diruetseko papera. Morroskok, osabäaren izenean, kartagoar agirienai dirua eskatu dautse, baia zer? Barre egingo dabe eurok aren erantzuna yakin dagienean.

— Ereñozti, mando-ganean ekarri dauskuzun bazkaria guztizko

¹ (firmatzat)

² Bizkaian *ortz* ezta «diente», «dentadura» da. Goiko ortza ta bêko ortza.

³ (testigu)

ederra izanarren barri onek onuratsuago ta gozoagotzat daukadaz. Ezalda egia, Arangoiti jauna?

— Baietz nago. Aurrera, Ereñozi.

— Andraka zarra ta Laraudo ta Arandui ta Mauri izan dira Morroskok dirua eskaturikoak. Eztakit Maurik zelango aikomaikoak agertu dautsazan dirurik ez emoteko, erromarra dala, aurki. Andrakak, urunak iru egun aurrerago ordaindu dabezala ta parkatzeko. Laraudok, giltza, kuxtako giltza eztakiala non daben, bestela bera, edozeinek dakiana, Mungia-inguruetakoa liberalik zintzoena dala ta daukana aurreratuko ebala, pozarren aurreratu be! Aranduiren erantzuna daukat nik barregarrientzat. Epiko agertu ñako oni. «Don Pedro —erantzun eidauto—, ni onetan Arangoitiarra naiz. Aukerak *a la inglesa* egin bear dabe. Diskurtsuak zeinbatgura egingo dautsuedaz, nai Meñakan dala, nai Larraurin, nai Arrietan dala, zeuok esaidazue nora ta ni ara yoango naiz. Dirurik txal bat erosteko-edo balitz, bai; baia botoak batzeko, gizonak erosteko, u ortik! Gizonak arakintzetan il ta narrutu ta zatitu ta saltzeko oituraa bageuko, orduan bai. Ni aukera-arazoetan ingelesa naiz, don Pedro.»

— Zelan yarraitu dautse arloari diru bagarik?

— Zenon Aspegana yo dabe osaba-lobak. Berinoleaga egin zanean *kontratista* Zenon izan zan, zeuok dakizuena. Yataben udarako etse bat egiteko asmoa daukala esan dautso don Anbrusek, Zenon berau izango dala egiunedun¹ ta bi milla peseta, zortzi egun barru artzekoan, atara dautsez. Aurrerantzean ezeidautse Zenon Asperi Erroman sartzen itxiko. Diru au Yataben ta Gatikan aitearen egin-orduko eralgi eidade.

— Orretaraezkero, Pedranton Latsibiren alegiñak gorabêra, Yataben botorik geienak Morroskorentzakoak aldira?

— Bai, Begi bere lukikeriz tartean sartu ezpaltiz. Zenon Aspe etsean dirutan danartean, Begik Mauri elizpera eroanda, belarrira zerbait esan dautso. Isil-agindu ori laster agiri izan da. Zigarro bat irazegiteko arrasta² bear dabela ta urreratu ñako Mauri Andraka zarrari. Gerotxoago itz onek zuzendu eidautsaz: «Sebastian, andia da au! Beste guztiak tabernan okela erre ta piper andiz barua austen eta guk emen arrausika aizez barua ausi bear!! Goazan gu be barrura. Neure lepotik zure gosaria.» Gizonok asi dira zurrut eta grausk, grausk eta zurrut. Andraka zarra txolindu da, birberotu da; ta Zenon Asperen dirua ekarri dautsenean, Bekosolotar batek sakelean eukazan boto-txartelak ostu ta beste batzuk sartu dautsaz euren le-

¹ (kontratista)

² (posporua)

kuan. Oillo loka bat, bere egapeko arrautza batzuetatik txiten ordeztaragoak¹ urteten ikuseran ezta arritzen ordu bi barru Yatabeko kartagoarrak arrituko diran baiño geiago. Oilokumeak agertu-bearrean atakumeak atabakatik² burua erakutsi dagienean, ikustekoa izango da Yatabeko loka don Anbrusen arpegia.

— Eta Aginbako bera? Maurik txolinduta katu-erdiaz bitartean egon alda ori be?

— Ez. Diru-txartelak, bat ikusi dot neuk, onelango paper utsak zabaltzeak eztautso min emoten izan; baia egiazko dirua, Zenon Aspek aurreratua, zabaltzen ikusi baleu, txut esango eban; ta orrexegaitik, banbuzko makilla lodia eskuetan dabela, baselizan gora Ataun-aldea³ ikustera yoan eida.

— Asto! Basati! Eta orrelango mazkelotzar bat jauntxo izango etedogu?

— Eztakie eurok goizeon zer egin daben. Don Anbrus, elizäak inoiz yausiko balitz ezleuke azpian artuko. Gaur, orregaitiño, goizerengo mezäa, zazpiretakoa, entzun dau; eta egikizun au Mungian bete bearrean, iru ordu laureneko bidea oiñez eginda, Yatabeko elizan agertu da. Eztakit esango dodan au erromarren batek asmadua ezetedan. Epikok meza-arazo orrezaz ganera Yataben autortzeko⁴ asmoa erakutsi eieutsan. Orrenbesteraginoko zituskian⁵ eztau beintzat jauntxoak sartu gura izan.

— Yatabearrak ezтира lakirioan yausi e? Anton Imaz emen balego, *Evviva Yatabe* deadar egingo leuke.

— Beste barri txikartxo bat ekarri dot. Floren *Patillas* bart Meñakan etserik etse bototan ibili eida, berorren izenean, Arangoiti jauna.

— Nire izenean! Nor da Patillas ori? Floren Andraka eteda?

— Orixe berberori. Izlari buru eginda dabilenetik matrailla-bizarrira itxi dabelako, Floren *Patillas* baiño beste izenik eztauko askoren artean.

— Nire izenean dabilela! Ta txikartzat daukak, Agustin, barri au?

— «Botoa Morroskori emoteko, bestela etsea kenduko dautsue»

¹ (antzarkumeak)

² (urnatik)

³ Gipuzkoako Ataun-ez lekora, Bizkaian badira iru: etse bat Berriatu-ganean; Yatabetik Lemoniza-bidean beste bat, mendi-aldean au be. Iru *Ataun* orrek eztedira *Ategueren*-en semeak? Lekeitioko artxibuan uriaren mugak noraginokoak ziran aitauean, Berriatuko gaurko Ataunek *Ategueren* dau izena.

⁴ (konfesetako)

⁵ Yataben *zituski* erderazko «pantano» da.

maisterrik maister berorrenakana, auxe ezpanetan dabela, ibilli eida.

— Astokillo andia oin-barruan artuko baneu emongo neuskeon ipertxuntxurrekoa!

— Orregaitik ez erre, don Juan. Iñok ezeidautso sinistu.

— Gizonak —zinoan Busturik—, gu emen aukeran gagoz, ez-titan, begia ikuskizun ederrez bete-beterik daukagu; belarriak barri politez Ereñozti gureak gozatu dauskuz. Geu geutara, beste iñor bagarik, etorri bagintzaz, aurra! Baia or daukagu Lejarzegi, onezkero gogait eginda, etsera gura leukeala.

— Egia dok. Aup, Lejarzegi! Oraindiño be lo etegatzaz?

— Zeuok zeuon lapiko txiki orrek ezalozuez barri ziztrinez oraindiño bete? Goazan etsera.

— Eztot nik esan? Aspertuta. Ezetedako gizagaixo orri etorria damutu?— ziñoan Busturik.

3

Beragana urreratuta Arangoitik sorbaldan eskua ezarrita «Asmo bikoitz bat darabilt aspaldion buruan —esan eutsan zarrari—. Ea berorrek zer deritxon. Yata, oinpean daukagun Yata eder au, Txorierriko Olimpo izatea gura neuke ta Yudego mendia Bizkaiko *Parthenon*. Ementxe egingo doguz Olinpocketak¹, izlariketak² an.»

— Anton Imaz ta or darabiltzuezan kokolo zentzunbako orrek izlari dirala benetan badiarduzu, Arangoiti, laster zara, errukarri ori, Bermeoko zoroetse barri orretan. Zure asmo bikoitz ori alegiazkoa³ bada, ortiko kalterik txikarrena auxe izango da, Juaniko: gizon goiarin orrek arrotu, lanerako nagitu ta bizi diran arte guztian ugerdo batzuk izatea. Eta onetarako ekarri nozue ni ona? Au yakin baneu, yakin!

Arangoitiri biotz-barruragiño sartu ekiozan azken itz onek. Alperrekoak izan ziran mediku zarra gogaldi onera ekarteko esan ta egin ebazanak. Apolo barri ta bere musak nortzuk izango ziran aita-tuarren, besteak ez-entzun egiten eban. Lau bideztiok luzaro isillik ibillita, Markaidatik Gondraondo-aldera yoazala, agura musturtuari itaune auxe egitea otu ekion.

¹ (juegos olímpicos)

² (*certámenes oratorios*)

³ (olgetakoa)

- Lejarzegi, tresilloan galdu ala irabazi egiten dau aspaldion?
- Ez galdu ez irabazi. Viñas umekeri orretan sartu danetik kartarik ikusi be ez guk.
- Neu laugarren izatea gura badau...
- Bein edo bein gizon-asmu bat ezpan orretan erne danean! Bein edo bein!

Len baino be adiskideago sartu ziran urian Lejarzegi ta Arangoiti. Erregebidera eldu ziranean, bizarrakaitik ezaban aguräak mandoz ibili gura izan.

Oharrak:

(¹) Orij. «daukazan». Testuinguru honetan «daukan» behar da eta gipuzkerazko bertsioan be «duen» ageri da. Despistea dirudi.

(²) Orijinalean «Santardeko». Gipuzkerazkoan, ostera, «Santanderko».



XXIX. Erromarren garaipena

1. Epikoren zemaia.
2. Garailarien asmoak.
3. Azpiratuenak.
4. Tete ta Epiko.
5. Morroskoren eskutitz bat.

1

Yataben arratsaldeko lauren drangadan, oi danez, atabakatik paperak atara ebezanean, arriturik geratu ziran kartagoarrak, ekusena sinistu gura ezebela. Morroskoren izena zortzi paperek euken; beste enparauak, larogeta lau, Jose Andres Bekosolorentzakoak ziran. Zoritxardun yokalariak kartakaz egiten dabena —orrastu ta laban-laban ipiniarte nastau— egin eban batek paper arekaz: iru bidar eskuetan artu ta banan banan zeinbatu. Iruretan bardin: 8 eta 84.

Bostak inguruan agertu zan Epiko. Gure itxasotxo au neguan sarri izan oidana zan Epikoren arpegia barri au emon eutsenean: bits utsa. Ango aukerazain Andraka zarra eskolara eroanda, bata bestearen ganean itaune bi onetxek zuzendu eutsazan:

— Zeinbat maister daukaz Isastik Yataben? Zeinbat diru, egiazko diru, emon dozu zeuk berton?

— Maisterrak, baaa, maisterrak-aaa amar dira. Dirua berrogeta amar gizoni emon dautset nik, bakotxari ogeta bost peseta, egiazko dirua.

— Amar ta berrogeta amar irurogei. Irurogei boto atabakan sartu ta atabakatik zortzi atara; berrogeta amabi ostu dauskuez. Ekarri ona nire berrogeta amabiok, bestela baitegira¹ doaz guztiak, auke-

¹ (kartzelara)

ra-maian egon diran diranak; eta zeu, Andraka, etzara atzeren izango. Au ezta Txorierri, au Lapurrerri da.

Beste onenbeste esan eutsan Epikok Pedranton alkateari.

— Gu ezkara lapurrak —erantzun eutsan onek—. Deduzko gizona¹ da Yatabeko semea.

— Ta lapurrik andiena zeu zara, Pedranton.

Andraka zarra arteratu ezpalitzakioe, zati-zati egingo eban Pedranton Latsibik Epiko mîn-luze.

2

Erroman, seirak aurretxoan, zertan² guztiko barriak eukezan: Bermeo ta Gernika-aldekoak telegrafuz, bideztien bitartez Mungia-ingurukoak. Larrinoak burruko-azala gainako paper andi baten eta erpurua langoxe izkira³ andiz onelantxe iragarri eban aukera-atzea⁴:

GARAIPENA

| | |
|-----------------------------|-------|
| Bekosolok eta lagunak | 4.359 |
| Besteak | 4.318 |

GORA ERROMA

Paper au etse-arresian⁵ FARMACIA DE LARRINOA-ren beeko aldetxoan itsasten ziarduenartean, Anton Imazek, Begik, Zabaletak eta erromar agirienak, kalearen erdi-erdian euren ereserkia⁶ abestu eben:

*Bilboko alkargotzar el Rásimo
mendean artu daben bat
giza-erostera etorri ñaku
loba Morroskoarentzat.*

Mauri indianua ta Zabaleta Bekosologana garaipenaren barri emotera yoan ziran eta adiskide guztien artean Begiri apari bat emotea erabagi eben. Non ta noiz ta zelangoa? Irurak Erromaratuta,

¹ (gizon ondradua)

² (distritu)

³ (letra)

⁴ (*resultado de la elección*)

⁵ (kanpoko orman)

⁶ (himnoa)

besteakaz batera, aukeratu ebezan iru zertzeladok. Non? Gatikako Abadenen. Noiz? Urrengo gabeen. Zelangoa? Inoizko zautarik¹ ederrena.

3

Kartagoarrak isil, apal ta sor ebilzan. Aurrerengoak, don Anbrusek, Morroskok eta Epikok, zazpirak inguruan Bilbora-bidea artu eben. Besteak ezeben, beste sarri lez, Basili etserik etse erabili bear izan; ziranak² euren kabuz yo eben euren batzokira. Auturik erabiliena auxe izan eben: *Zegaitik izan gara azpiratuak*. Arandui burutsuaren ustez Epikoren buruarintasunak emon eutsan Erromari garaipena. Laraudoren eritxian, dirurik ezak. Andraka zarraren aburuz, izlarien lan urriak. «Itzaldi geitxoago egin bagendu, txapelean geukan diputadukuntzea» zinoan Florenen aitak.

Jauntxoa ta lagunak artez-arte *El Rásimora* yoan ziran. Betebeterik egoan orduko *Santa Maria*-kaleko idazku³ entzutetsua. Erabagi andi bat, Napoleon-en betekoa, artu eben gau atan: «*Datorrela garailari izan bear dogu*. Onetarako aukereldiko agiri bat nai geiago aizundu⁴ bear badira, aizundu dagiguzan; erre bear badira, erre.» *El Rásimo*-koak dakuskunez, Floren Andraka baizen inkondisionalak ziran: arek euren buruen inkondisional; Floren, don Anbrusena. Beste goi-be⁵ andirik ezeuken. Idazku atako nagosia onelango arazoetan aztura⁶ andiko politikoa zan ta bere itz añenti ta durunditsua izaten zan beti epaidun ango batzarretan. *Presidente de la Concordia Cívica* izenez don Anbrus zan, lendanik dakigu au; baia izatez don Tito Olabarri. Onek, erabagi ori artu ebenean, otz-otzik, arpegiari zirkin andirik eragin baga «Gizonak —esan eutsen—, Argandak diraustanez, errazen aizundu daiten agiria Yatabekoa da.»

—Bai, gizonak —ziñoan idaz-mutilen buru Argandak—. 8 ta 84 agirikoak 68 ta 24 izan bear dabe. 8-ri aurretik 6 ezartea lan erraza da. 84-ren ordez 24 erakustea ezta gauza gatxa. Viñasen eskuak, bisturi zorrotza sarritxo erabili daben esku bigun zoli orrek, aizto⁷ zo-

¹ (yan-edanik)

² (guztiak)

³ (eskritorio)

⁴ (falsifikadu)

⁵ (diferentzia)

⁶ (esperientzia)

⁷ (kutxilo)

rrotz batez 8 orreri karrak-karrak-karrak erdi-inguruko marratxoa kenduta, bi edo iru minutu baiño lenago, 2-ren taiua emongo dau-tse. Ezalda egia, Viñas?

— Aizundu nik?

— Aizundu ez, ordezkotu¹— erantzun eutsan Argandak.

— *Caraculiambro!* —esan eban don Titok Viñasi begira—. Monjatxoen ingirak² aukera-egunetan! Yatabeko autarki batzaille ni izan banintz, neu izango nintzan zer ori egitekoa. Bitartekoentzat dirua bear izango da ta erruki bagarik emon.

— Jaunak —ganeratu eban Viñasek—, dirua emon! Nondik? Illebete ta geitxoago da zeuen izenean sendalari ta autarki-batzaille Mungian nagoala, ta erreal bat ikusteko nago!

— *Cartulina!* —deadar egin eban idazku-yaubeak don Anbrusi asarez begira—. Zeinbat izango zan Viñasen sari ilekoa?

— Milla erreal.

— Milla ta milla... au zer da gizon batentzat?— Eta sakeletik diru-paper bat atara ta «Guztion izenean artuizuz, Viñas, milla pe-seta onek» esan eban don Titok.

— Eskerrik asko.

— Eguenean agiri guztiak epailearen eskuetara Gernikara yo bear dabe. Bein araezkero, galduak gara. Orduko egin bear da egiki-zuntxo ori, Yataben bertan.

— Jaunak, nire bisturi zorrotzak aragi ta azur ebaten badaki, pa-perik eztau iñoiz ez urratu ez karrakatu.

— *Caracoles!* Azurrak bai ta papera ez! Arrizkoak aldira base-rritarren aukera-agiriak? Ori erabagita dago. *La Concordian* eraba-giten dana bete egiten da, ak gura ezpadau be.

Itz onek ebakeran gora begiratu eban idazku-yaube añentiak. Eta geiagoko bagarik zutunduta «Orain *El Antigo*-ra —esan eban—. Aparitan gero meatokiak aitatu, besterik ez.»

Yatetxera yoazala, Morroskok Epikori, eskua besapean sartuta, itaune au egin eutsan:

— Ezaldok don Titogaz gaurrarte itz egin? Au da gizona! One-lango bategaz mundu barri bat menpetu daite. Colon ta Hernan Cortés ónen samar etziran.

Epikok ezeutsan ezer erantzun. Apalartean ezaban itz bat atara, yan be gitxi. Morroskori, Epiko birbirtuko bazan, arrebäaren bitar-tekotasuna bear zala otu ekion eta don Anbrusi belarrian itz one-txek sartu eutsazan:

¹ (*falsificar no, substituir*)

² (eskrupuluak)

— Osaba, gure Tetek andra Isidorarentzat mandatutxo bat dauko. Aspaldion egon da bidaltzeko. Izkaldi-egunean ondoeztxo bat izan ebala ta besteren baten beragaz arratsalde bat igarótera yoango dala. Gero beragana yoan bear izango dogu, Perikok mandatu ori Mungiaara eroan dagian.

Apalduta gero, alkarri agur eginda, don Titok Epikori eskua estutuaz «Viñas —esan eutsan—, Tito Olabarri ezta adiskideakaz aztuten.»

4

Torrealdearen alargun Juana Isastiren etsera yoan ziran gero-txoago bere neba don Anbrus, seme Morrosko ta suin-nai Viñas, Morrosko beste biak baiño lénago. Berandu izanarren, ogeratu bagarik egozan etsekoak aukera-barriak yakitearren.

— Irabaztez geuk irabazi dogu —esan eutsen Tomasek ama ta arrebäari—, baia Begi deabruak egin dauskun okerreri-atxo bat zuzendu bear izango dogu. Tete arreba maitea, zeure eskuetan dago ni diputadu izatea ta ez izatea.

— Nire eskuetan!

— Periko Viñasi emon dautso don Titok arazo ori ta nakartxo ta gogo bagarik dakust gure adiskidea. Zeuk berari iztxo bat esatea naikoa da Begiren amarrua¹ ta irusakua² ezereztuteko. Esaiozu auxe: «Periko, goraintziak andra Isidorari. Eztot aztuko zuk Tomasen alde egin dagizuna.» Oraintxe ñatorku bera, osaba lagun dabela.

— Esaiozu zeuk, esan begio osabak, esan begio amak, esan dagiola gura dabenak. Nik eztautsat itzik zuzenduko.

— Tete! Tete! Oraintxe datorrela. Besterik ezpada, dei egin dagi-zugunean, eskua emoiozu, arpegia txordoegitu bagarik. Auxe, besterik ezarren; bestela galduak gara-ta.

Oiñ-otsak geroago ta urrago, geroago ta zoliago ziran. Tete, gogaldi txarreko, arpegia sutan ebala, bere gelara yoan zan. Jauntxoa ta Epiko sartuta etsarira³ yoan ziraneko, Morroskok osabäari «Bane-kian nik —esan eutsan—. Tetek Mungiarako mandatu bat dauko ta Periko gogo onez izango alda bere mandatari. Bere billa noa.»

Gitxienez iru minutu igaro ziran neskatilla ederra agertu-orduko. Ezeban ezetara Viñasgana etorri gura. Tomasek beste ezelan zu-

¹ (malicia)

² (tranpa)

³ (salara)



ritu ezin ebanean, ukabil biak ezpanen ondoratuta gogor zemaitu eban «Zital ori» esanda. Neskatillaa isilik eta dekor¹. Azkenez be-launiko bere aurrean yarrita «Tete — esan eutsan nebäak—, zeure aitari zeutsan maitetasunagaitik erdu ta eskua emon egiozu. Itz bat egingo ezpadozu be, erdu. Zeure esku emote orretantxe datzaz nire diputadukuntzää ta senikera osoaren izen ona ta dedua.»

Billa osaba etorri ezpalitzakio, ezaban a iñok bere ezetzetik atarako. Agertu zanean, Morroskok bere biozketak irribarrez zurikatuta², «Neskatilla batzuk bai lotsorrak izan! Ezta monja zarratuak balitzaz be, diran baiño lotsorrago. Goizeon esan dozuna, Tete, andra Isidorari goraintziak emon ta laster bera ikustera yoango zarala esatea, Perico Viñas gure adiskide zintzo onek pozik beteko dau.»

Neskatillaa isilik eta geldi.

— Gero biar edo etzi ementxe geure artean bazkalduko dau Perikok, gure onerako egin dabezan lanak onenbeste bear dabe ta.

Tete soiña ta gogoa³ lotsäak lotuta baileukatsazan, zirkinga, zurzkoa zirudiala, egoan.

— Zer gomutara niri etorriko, ta gure aita zanari bein baiño sarrriago entzun neutsan, gure ama izango zana lenengoz ikusi ebanean, ezeutsala andere Juana Isastik lotsaz itz bat egin, biotzez maitte izanarren.

Len baiño askozaz gorriago Tete.

— Aurra, gazteak! Berandu da, batez be Mungiara yoateko da-goan onentzat eta ondo izango da, lotsaketatxo orrek aizeari emonda, alkarri agur egitea. Aurra, Tete! Emon Perikori esku ori.

Negar tanta andi bi eriozala, luzatu eutsan Tetek (luzatu ez, ozta erakutsi) bere esku zuri mardo.

Epikok malko arek ikusita, biotza, argizaia sutondoan lez, bigun bigun ebala, esker andiakaz artu eutsan eskua Teteri.

— Negar-arpulu orrek zorizko mundu barri bat, zerua baizen ederra, erdi-ikusita eragin dauste— esan eutsan Epikok Morroskori, onek mailladian bêra lagun egin eutsanean.

Morroskok arrituta itandu eutsan «Orretaraezkero pozik zagoz?»

— Pozik ez, zororik.

— Gertu zagoz orain, Periko, *El Rásimon* esan dautsuen ordezketa ori egiteko?

— Nik, neure Tete maitearen ederrarren, edozer egingo neuke;

¹ (terca)

² (disimulando)

³ (gorputza ta arimäa)

paper bat ez, eun; ordezkotu nai aizundu, zatitu nai erre, gura dozuena.

— Ezetan asi orduko, egin zaitetz biar goizean goitzxo gure adiskide ta gogaide Ortiz de Treviñogaz.

5

Gaberdi-inguruan eldu zan Epiko etsera. Bere kisketotsak entzunda, Adona atarira yatsi zanean, milla pesetako papera eskuan ipiñita, itz onek esan eutsazan Viñasek:

— Biar goizean diru au zêtu egikezu ta lengo illeko saria ta asi dogun onetakoa biak artu. Iñor izan alda nire bila?

— Basili birritan, beste iñor ez.

Esku-zabala zan Perico Viñas. Sakel-betea izan balitz, Adona ta bere alabatxoa etziran txarto izango. Loak ezaban gau atan artu ta etxakon gatx izan zazpiretan ogea iztea. Barua⁽¹⁾ austen egoala, Gernikako zalkurdi¹ bat eldu zan bere atarira, barruan iñor bagarik.

Eskutitz andi bat ekarren zaltzainak. Azalean itz onetxek agiri ebazan:

Urgentísimo.

Al Lic. D. Pedro Viñas de Andrés.

Torrealdea, diputado electo.

Barrua be erderazkoa zan. Euskeraz emongo dautsagu irakurleari.

— Adiskide mamiña, neure adiskiderik onena. Bart Bilbon erabagirikoa aldatu egin bear izan dogu. Ordezketäa, zeuk zeure eskuz egin bagarik, oba izango da beste batek egitea. Zuk eskua sartuezkerro, ezagun izango eilitzate ta kaltegarri. Autagiria² idatzi daben eskuak berak ezarri bear dau 8-ren aurrean 6.

Latsibiko aitasemeak, alkatea ta aita, Gernikara erakarteko auxe esan egiezu: «Don Anbrus Isasti zalduna da. Bein emoniko itza eztau betetzaka izten. Latsibi zeuei saltzea eskini eban. Eroaizue zeuekaz etse-dirua ta gaur iluntzean angoxe baratari³ baten aurrean egingo zare etse-yaube.» Bide batez bekar Pedrantoniek autagiria, juezari emoteko. Ementze egingo dogu al dana, bear dana, gura doguna. Gizaburuagako paperaz Lekeition egin ebena zegaitik eztoгу

¹ (coche)

² (acta electoral)

³ (notario)

egingo Gernikan Yatabekoaz? Kirtenetik oratuta daukagu sarta-
giña¹ ta aurrera.

Uste eztozun okerraldi bat balitz, txarren txarrena zer izango
etelitzate? Baserritar kokoloren bat baituran luzarotxo egotea. Sa-
tsa, lurrerako bakarrik ez, baitegiatarako be ona da. Iluntzean urten
ortik, alkatea ta aita lagun dozuzala, ta Soduperen ostatu onetaraxe
etorri.

Osaba-lobok emen izango gara. Zeu zara, Perico, nire ta gure
gorde-ol bakarra. Anaigei bategandik guztia itxaron dagiket.

Zeure besartean. Gernikatik goizaldeko iruretan.

Tomas Torrealdea Isasti.

Eskutitz au karpeta-barruan ebalatzen Treviñogana yoan zan Epiko.
Arriturik entzun eutsazan ak beronen lazka-asmo onek.

— Zer diraustazu, Treviño?

— Uste izan egizu, Viñas, orma il bategaz itz egin dozula. Nik
eztausat inori orrezaz ezer aitatuko, emazteari be ez. Nire gomua-
tāk okada baten yaurtigi dauz barri orrek, artu ta batera. Orain
eztakit arean tautik.

— Ezalozu onetan lagun izan gura?

— Zetan?

— Yatabeko autagiria ordezkotu bear dogu ta...

— Nik eztaikit ezertxo be. Oso-osorik aztu datala, gizona, oso-
osorik.

— Barriro esango dautsut.

— Zetarako? Eztot astirik, eskolarako ordua dot.

— Nik uste neban, Treviño, egiazko adiskide ta gogaidea zendu-
guzala.

— Mungian ni maisu naiz, eznaiz besterik ezer.

— Ezalzara liberala?

— Liberala banintz, lotsa izango nintzate aztu datazan gauza
orrek egiten.

Gosal-aurrean Gernikatik etorririko lorgailluan² Yatabera yoan
zan Epiko. Treviño bere umeakana. Yatabera eldu zanean, Epikok
agindu auxe emon eutsan zaltzainari: «Zoaz iluntzerarte Mungiara
nai beste edozein tokitara. Iluntzean erdu barriro onaxe. Gizon bi-
gaz yatsiko naiz ni».

Oharrak:

(¹) Orijinalak «Burua» dakar baina zentzuz «Barua» behar da; gipuz-
kerazko bertsioan «Barua» dino.

¹ (paderāa)

² *vehiculoan*



XXX. Apari bat

1. Laukinizko bertsolaria.
2. Gure baserritarra ta pintore batzuk.
3. Edatitzak.
4. Bigarren Perico.
5. *Voi che di notte andaaate.*

1

Zortzi ta erdiak igarotxo zirala, Gatikako don Blas Mendiola parrokuaren maian erromar garailari agirienak batu ziran: Bekosolo ta Begi, Larrinoa ta Zabaleta, Anton Imaz ta Mauri, don Blas bera ta Azkarreta kapellaua. Zenon Aspe-ri, kartagoarrak giza-erosteko diruz ornidu ebalako, ezeutsen ots egin. Yatabeko zadorlariak¹ bete eban aren lekua. Bekosolo aldun aukeratuarentzat, etseko jaunaren aginduz, maipuruan besodun kadira bat eriñotz-orritz ta kimaz apaindu ta arkolau eben. Ezetara ezeutsen an yesarri eragin al izan.

—Nik diputadu, bear bada zeuon zorigaitzerako, egin nozue; baia ni eznaiz garailaria; garailari geure adiskide maite Donato dogu. Beronentzat izan bedi eriñotzez apaindutako yarleku ori.

Eta iruk edo lauk, besoetatik oratuta, maipuruko ipini eben Begi. Beronek, apaltzen asi ta lastertxo, errezela²-artetik agiri zan ilargiari begira, «Mutillak —esan eutsen—, Mungiatik onantza gatzozala iru bidar otu dat auxe egitea. Maurik beronen betiko txirri-txorroaz eztaust len egiten itxi.»

Mauri indianua isili-isila zan ta barre egin eben, atan berak! Begiren txirri-txorro entzunda.

—Ezteritxazue, gizonak —yarraitu eban Begik—, ilargiak gaur

¹ (sekretarioak)

² (kortiña)

papu bakar orrezaz bestetan biakaz baiño argi geiago egiten dauskula?

—Aginbakoren betaurrekoz begiratu bageio, ilun uste dot eritxiko geuskiola.

—Ederto, Mauri. Onek itz gitxi, baya ezpanak banatuezkero, beti egokiak.

Dendun onetakoxea zan guztien gogaldia¹ apalarte osoan. Aukeraldiko yazoera batzuk Begik edaskeran, yan be ezin eben bere mai-lagunak barrên barrez.

—Donato, edatsizuz orain Laukinizko ta Bilboko gorabêrak, martitzen gabekoak.

Begik, egi bat esan, gau atako barriak emoteko gogotxo baeban; baia, obeto bearrean, bere kabuz ezaban asi gura. Larrinoak zirikatu ebaneko, esku batean lauortza² ta bestean aiztoa³ ebazala, onelantxe zeaztu⁴ eban bere gau-txangoa:

—Epikotxoren guzur-mordoa irakurri nebanean, zetarako da ezetz esatea?, sutan nengoan, baita beraganatu ta musturrak austeko gogoa be etorri ekidan; baia bat-batera, eztakit zelan otuta, «Begi —esan neutsan neure buruari—, oa Laukinizko bertsolariagana.»

Pozen pozez batek baiño geiagok eskua eskuaz igortzi eben.

—Zuen artetik, lenengo, Gatikara yo neban ta beingo baten andik Laukinizko basauritxora, eskerrak neure Perico gaixoaren anka zoliai.

Bere zaldiaren izena aitatz artu eban zauskadâak begiak malkoz itsutu eutsazan edasleari; ta biozketa samur au zurikatzearren, itaunetxo au egin eutsen maikideai:

—Zelan eban izena Alejandro andiaren zaldiak?

—Babieca, uste doat —zinoan Larrinoak.

—Ez. Babieca, oker ezpanago, Cid-en zaldia zan. Alejandrorena, Bukéfalo.

Bekosolorenak ziran itz onek. Begiren liburuetan etzan zaldi-izenik irakurten.

—Izenez be, *nobili signori*, izenez be geurea politena, Perico.

Eztago itz onek norenak ziran esan bearrik.

—Aurrera, maipuruko, aurrera; etzara bestela Bilbora elduko.

—Bai, Zabaleta. Zuek Erroman iru «Gora» arek aldarrikatuta gero, ibili ta ibili bertsolariaren etsera eldu nintzan. Amarrak ziran.

¹ (umorea)

² (tenedora)

³ (gañibetea)

⁴ (describir)

Solotik etorri eraginda «Eustakio, —esan neutsan—, bertso batzuk, eguno egin doazan ederrenak egin bear daustazak oraintxe berbe-reon.»

— Jauna, nik barre gangarrak eragitekoak baiño eztakit egiten.

— Orixe nai doat nik, Olimpo-ko txotxolokeriarik ez.

— Baia garri-aldea barrutik berotu bagarik-iiii...

— Su be emongo dautsagu garri-alde orri, gura badok.

— Eta ganera nik, bertsoetan asteko, aurrean ogeta amar bat gizon ikusi bear, neu langoxe nekazaleak guztiak. Medikurik eta elizgizonik eta olangorik ez; bestela nik ezin ezer egin dot.

— Ogeta amar gizon nok orain batu? Aurra, Eustakio! Bion artean zertxobait egingo doagu-ta. Pozgarritzat txaloak bear badozak, lapiko-estalki bi eskuetan dodazala neuk atarako doat ogeta amar atxurlariren abarrotsa. Ekin, mutil.

Alperrik ekin geutsan arloari. Neuk geia emonarren, orain Aginbakoren banbuzko taketa, gero Morroskoren arpegi zabalkotea, gero Epikoren surpeko zorrotza, guztia alperrik. Asi bai, asten zan, birigarro batena langoxe basa-soñu bat artuta. Erdiz erdizean begiak itxi, burua makurtu ta giza gaixoak toton egiten eban. «Zer dok Eustakio?» «Ni otz naiz» ezeustan ba erantzun? Neuk ekin ta zirikatirik iru âpaldi¹ amaitu ebazan, baia zelangoak? Gatzik gatzxo gitxi, ta erdalkeritan! Jesus! Apurtxo baten burua austen ekinda, garri-aldea domekan berotu al izateko zerbait emon neutsan; ta ta ni, «Aida Periko!» Bilbora.

2

— Bilbon yazo ekidana lendanik dakizue. Mutillak, gura dozue yakin nik aspaldion ezagaturiko gizonik zurrena, buru zorrotzena nor dan? Markaidar bat: Txokolo. Filosofo andiagorik! Balmes baete? Aren «Hmm!» baiño erabagi egokiagorik, zurragorik! Zabaleta, zeure seme zarrentxoari, lenengo Aginbakoren *Vale* ta gero ogerleko baten *Rey constitucional* irakurrarazota, entzun bazeutse, entzun! «Domu gitxiago baleu bai, izan leite nik truk egitea, baia, hmmm! ekardak, mutil, ona, bada-ezpada, ekardak ogerleko eder ori.»

Lagunen barre-zantzoa erdi-isildu zanean, onelantxe zerraion Begik:

«Bilboko margolari² batzuk gure baserritarra beti astokillo ba-

¹ (estrofa)

² (pintore)

ten antzera erakusten dauskue. Baserria ta baserritarra antzelari¹ orrek baiño askozaz obeto ezagutu ta bear danez maite doguzanok, orrelango lan bat ikusita, badakizue zer egin bear geukean? Bost edo seiren artean erosi ta gero kale zabalean ri- ra, ri- ra urratu ta yaurtigi «Au ezta gure baserritarra» esanda.»

— Ederto, Donato.

— Ta urrengo egunean barri ori egunerokoak zabaldu dagiela. Denganiñaua! Datozala Bilbora, nai ingeles nai aleman, gizonik yakitunenak ta erderaz ondo eztakiela asi daitezala pintoretxo orrekaz erderaz izketan. Ezeteleukê gizon orrek astokillo batzuk irudi izango? Datozala eurok, uri andietako gizonok, datozala geure artera ta asi daitezala euskeraz izketan. Salomonen antzekoak izango etelitzatez? Kirolzale² badira, erosi begie matxangotxo bana, baia ezpegie yostailutzat artu Euskalerriko gizonik yatorrena, euskaldunena: baserritarra.

— Ori, ori, Arraitz!

— Baia yan egizu, gizona.

3

Esatea da itz gitxi egiten dabek gizonak oker gitxi egiten dabela. Orregaitiño bederatzi apaldarren arteko isilenak, Anton Imazek, zauta-bitartean birritan soil-soilik itz eginarren, asarratzeko ariarian ipiñi eban maipurukoa. Ezeutsan ba geiagoko bagarik itandu Periko zezentokiren baterako saltzea uste etêban?

— Karatxezko biotza, suarrizko barrua bear dau gizonak, maiterik al dabek laguntasuna emoniko zaldia, zaldia dan abere masal maitagarria, lanik ezin dabenean, zezen baten adarretara eroateko. Mungia-inguruan bedarrik bigunena ta gozoena dagoan basetse baten igaroko dauz Pericok bere azken-egunak eta aldian-aldian neu yoango nakio bizkarra maiterik igortzera. Badakik, Anton Imaz, nik zaldi azurrustuak zezentokira daroezanai zer egingo neuskioen?⁽¹⁾ Eurari *pikadore* izan eragin, baia gero berunezko zankozorro bagarik.

Maikideak estu egozala igarri eban Begik eta betiko gogaldiz, barrezka «Gizonak —esan eutsen—, zer otu datala?»

Zer zan igarri bagarik guztiak asi ziran aurretiaz irri-barreka, Gatikako sakristaua be bai.

— Orrelango zezenketa baten *monos sabios* izateko, nortzuk uste

¹ (artista)

² (olagaura)

— Gizonak, zeuek zeuon lerrenez, neke andiz, ez nire izenak ezetari-ko erakargarririk daukalako, lortu dozuen garaipen eder, ots andiko onen ostean, pozik artzen dot eskini ta eskuratu daustazuen diputadukuntzea; baia⁽²⁾ onetarako, baldintasun bat eskatzea noraezekoa dot. Bigarrenez aldun izango nozue, emendik lau urtera gure adiskide, buru ta biotz andiko Donato Arraitz diputadu izatekotan.

Itz masal uren ónek entzueran, Usolaraginoko guztiak txalo andiak yo ebezan. Begi bera, lotsarren, burua makurrik egoan.

— Eta orduan —zerraion Bekosolok— berau Bekosolotu daittean aukeraldi atan, neu Arraitzuko nakio. Buru-belarri¹ beronen alde lan egitea oraindik agintzen dot (Txalo andiak barriro). Ni onen aldean izlari ezereza naiz; eznaiz ni olerkari, ez ona ez ziztriña; baia al daben guztia egingo daben gizonari geiago ezin eskatu dagi-keo.

4

Maipuruko entzuleari negarra ezebilkon urrun eta irudimenean sortu ekion zerbaitek barre eraginda, itz egiten asi zan zutundu bagarik «Ezetedozue, lagunak, uri andiren bateko kalêtan ikusi base-rritxakur bat, ugazaba galduta, belarriak apal-apal dabezala, buz-tana bildurak okerturik, beste txakurrik agertu ezkeroko agiñak erakutsi ta begiak gorri-gorri dabezala? Iruditu, gizonak, Begi dipu-tadua ikusi dozuela. Ni ara, arrizko etsetzar atara! Orain lau urte, Bekosolo izentau eben egunean, antxe nintzan neu be; ta, nire arpegi eder oni galantegi eritxita aurki, nornai egon ekidan burutik beatze-tara begira. Bilboko kalêtan gari-artotzak eta larrak ikusi dagizue-zanean, Ibaizabal-bazterreko teatru-ondoan errota-txalapatak klin klan eta idi-bei baratz sor astunak murrusaka dabilzala dakizue-nean, orduan bai, neure Txorierri eder au itxita, orduantxe yoango naiz neu be aldun izatera.»

— Arraitz —erantzun eutsan Bekosolok—, gura eznebala ta ez-todala eroan nenduzuen ta naraozue; gura eztozula atarako zauguz. —Eta guztiai begira— Gizonak —yarraitu eban—, eztot amaitu neure edatitz au. Eskerrak emoeran ezneuke aztu gura bene-beneta-ko laguntasun andiak egin dauskuzan bat, gugandik bere ondoezak urrundu dauskun bat.

¹ (indar guztiakaz)

Bekosolok kafe-zurrutada bat artzen ziarduala, besteak «Nor etedogu lagun ori? —zinoen—. Busturi eteda? Arangoiti edo?»

—Orren laster aztu datzue gaur aste bete, gure artean, beti lez on egiten ebilen au? Berau baiño ezagunagorik nor, Lemoniztik Errigoitira, Laukariztik Bakiora-bitarteko uri, basauri ta uriauzoetan? Ezagun da gomutäaren argiak zauta-ondoan burutik doakuzana. Perico, Arraitzen zaldi Perico dogu lagun ori.

Irri-barre egin eban Arraitzek, begiak bustirik ebazala.

—Gizonak —yarraitu eban Bekosolok—, Mungialdean nok ezeban ta nok eztau Perico maite? Lengo goizean Bilbon etenik gelditu zala ta geiago etzala gauza izango yakin nebanean, naiez andi bat artu neban; eta gero azturadun¹ baten bitartez ekarrita or daukat alboko kortan, beste zaldi bat, Perico bigarrena izatea gura neukean zalditxo bat. Ikusi gura aldozue?

Guztiak pozarren yagi ziran zaldi barria ezagutzera, Usola ta suete-laguna be bai; onek urruntxotik. Zaldi barria ikusita etseratu ziranean, Begik emoleari esker andiak erakutsi eutsazan.

—Mutilak, orain, baderitxazue —esan eban Arraitzek— *Gora Bekosolo* abestu dagigun, zozdun² neu naizala. Ondo aditu neuri ta ez barrerik egin. Barre egin dagianak isuntzat³ bonbil bete ardao gozo emon dagiala, datorren eguenean aldunaren⁴ izenean beste yan-edan bat egingo dogu-ta.

Asmo bi onek aintzat artuak izan ziraneke, batutadunak abeslariak izentau ebazan, goitik nok eta nok bêtik ekin bear eben itarantzunaz⁵. «Zu, *Pater*, goitik; astiroegi ez gero e? Zu be goitik, Zabaleta. *Boticario mayor*, zu baritono zara ta bêtik. Kapellantxo, nai bêtik nai goitik, etxak iri asko entzungo ta gura doana. Anton Imaz y Ezkurdia, *Natural de Mendata*, ik goikoa ta bêkoa biak batera. (Barre andiak, suete-ondoan be). Aldun jauna, zu musikalaria zara ta zeure aukeran daukazuz goi-beak. Mauri, ik eztakik onelango zeren barri ta neure *atril* izango aiz i. Ator ona, lagun zâr, adiskide zintzo, ator neure ondotoxora. Gizonak, nik *akonpañamentua*».

Mauri zutundu ta mai-ganean eskuak ebazala makurturik yarrizan, Begiren *atril* izateko. Begik, don Biribilen zarta bat eskuratuta, indianuaren bizkarrean zamaua musika-papera bailitzan zabalduaz «Gizonak —zirautsen—, lenengo *compas* biak *akonpañamentuare*

¹ (perito)

² (batutadun)

³ (multatzat)

⁴ (diputadunaren)

⁵ (indicando)

nak dira, neureak, eta zuok, bitartean, isilik, barrerik egin bagarik. Aurra! Bat, bi, iru: *Vum ta ta, vum ta ta, vum ta ta, vum ta ta...* Sar-tu zaiteze, mutillok, *compas* biak yoan dakuz-ta. Guztiok bonbil bana emon bear izango dozue. Ea barrero.» Usola ta laguna, buru erdia agiri ebela, begiz ta belarriz egozan adi. Maikiderik geienak agoa zabalik eta ito-bearrik luze-luze ikusi ebezan; entzun barriz *Vun ta tak* eta barre zantzoak, besterik ezeben entzun.

5

Gaberdi-inguruan yagi ziran gizonok, bakotxa bere abiara yoa-teko asmoz. Mungiaokoak Maurigandik berezteko¹ egozala, Yatabe-aldeko deadar zoli luze bat ozta-ozta belarriratu daken. Norena ete-zan? Batzuk bilbotar goi-arinen bat zala uste eben; besteak Yatako artzain, ardiai deika ebilenen bat zala, besteak...

—Uveaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaa!— barrero zoli ta luze deadar egin eban lengoak.

—Anton Imaz —esan eban Begik—, erakutsiok deadar ta irrin-tza egiten erromarrok maisu garala.

Antonek orduan bere *Alto-la* entzutetsuaren azken-atal auxe deadarkatu eban:

Voi che di notte andaaaate, ¿che maaaai volete cuiii?²

—Irugarrenez entzun eben lengoaren ulua, urragotik orduan. Zana zala, bizkor etorren eurakanantz. Zabaleta notarioaren itaran-tzunez³ *Gli Hugonotti* operäaren zati entzutetsu bat, *Rataplan*, zortziren artean oiukatu⁴ eben. Anton Imazi eun bidar entzunda, zortzirak ekien buruz. Berak, sakristau ilezinak, *col suo temuto e formidabil brando...* zoli-zoli entzun erazoten eban artean, besteak apaltxoagorik eta bigun *rataplan, rataplan, rataplan plan plan* lagun-tzen eutsen. Amaitu-orduko laugarren deadarrak ots egin eban euren belarrietan, itz ta guzti laugarren onek:

—*Giizooonaaaak, galduak garaaaa... Epikok.*

Bitarteko itzak, *garaaa* ta *Epikok*-en artekoak, ezebezan ondo entzun.

—Yatabeko sekretarioaren agotsa dala egingo neuke —esan eban Maurik.

¹ (banatzeko)

² Zuek, gauaz zabilzenok, zer gura dozue emen?

³ (indikaziñoz)

⁴ (kantadu)

Zabaletak. Ze tximista egin etedausku Epikok? Autagiria¹ ostu edo?

Begik. Nire azpiko Perico barri au lengoaren biriduna bada, atzituko² dot Puertorriqueñotxo, baita purgatoriora badoa be. Ezkendu besterik bear auxe baiño.

Bekosolok. Etzaiteze, gizonak, su baga erre. Eriotzea! Orretzek eztauko norarik³. Beste edozek dauko sendabidea mundu onetan.

Arnasoska ta meaketan⁴ eskuak ebazala agertu ñaken irrintzalaria, abailduta.

—Jose Mari, zer da Epikok egin dauskun ori?

—Jauna, lukiak⁵ alangoak, Latsibiko aita-sembleak, alkatea ta aita, beragaz Gernikara eroan. Auxe egin dau. Gitxi alderitxo, don José Andres?

Begik. Ezkaitezen larritu. Santi ta Pedranton Latsibiren zintzotasuna andia da. Nok arek diruz erosi?

Bekosolok. Zelan yazo da ori?

Irrintzilariak. Iñok eztau ikusi Epiko Latsibira etorri danean. Eguerdi eguerdian, guztiok maian gengoanartean, sartu izango da an lukia. Illuntzean, aita-sembleak lagun dabezala, elizalderantza urtetan ikusi dabe; ori bai, ta Abadene-ondoan agertu bagarik, zidorrik zidor isil-ostuka lez, bêko bidebarrira yo eidau.

—Orixe txarrena, isil ostuka ibiltea. Gauza txarrera doazanen ezaugarria da ori— esan eban don Blas Mendiola epaituak⁶.

—Eta gero, Jose Mari?

—Isidrone bada kie zein etse dan? Antxe eiegoan, lentxoago elduta, bidebarrian, zalkurdi bat. Bertan irurak sartu ta drapa! Mungialdera. Andik nora? Zer egitera? Yaungoikoak daki. Mauri ta ni arratsalde-erdian Lemonizerantza yoaten ikusi ta Elortegiko gizon gaztea, Nicolas, geure billa etserik etse ibili eida Lemonizen, barri baltz auxe emon gurarik.

—Arek Gernikara yoan izango dira. Belarria egingo neuke.

—Laraudok akurauko⁷ eteleuskegu bere zalkurdi bat?

—Eztot uste. Goazan okin barriagana. Ak pozik emongo dausku bere ogi-gurditxo.

—Nortzuk yoango gara?

¹ (acta electoral)

² (atrapauko)

³ (erremediorik)

⁴ (moko-ganeko utsunçtan)

⁵ (azeriak)

⁶ (el sentencioso)

⁷ (alkilauko)

— Zeu, Bekosolo, bat. Zabaleta, lege-gizona da ta, bi. Irugarrentzat neu gura banozue...

— Esatea be! Bai, Donato.

— Geiago baginoaz, txarrago litzakigu aurki.

— Gizonak, ukabilik bear bada, badakizue gero non dagoan eder bat.

— Anton Imaz, an ukabilla baiño sôr ona bearrago ðoagu. Lau-roinka neu noa, gizonak, okin orregana. Zuek eldu-orduko zaldi ta guzti gertu eukiko dot gurditxo.



Oharrak:

(¹) Orijinalean hasieran «neuskioen» egoan idatzita baina badirudi azken *n* horren gainean marra bat dagoala ezabatzeko. Testuinguruan, berriz, beharrezkoa litzake eta gipuzkerazko bertsioan be «nioken» ageri da.

(²) Orij. «bai». Testuinguruak «baia» eskatzen dau eta gipuzkerazko bertsioan be «baina» dago.



XXXI. Latsibi latsibitarrena

1. Aginbako, Morrosko ta latsibitarrak eskribau batenean.
2. Onek eta Epiko ostatuan.
3. Autagiria aizunduta.
4. Treviñori Torrealdeak eskutitz bat.

1

Gernikako hotel baten, Soduperenean, iru bat ordu eroezan Morroskok eta bere osaba jauntxoak. Sei bidar, guzurrik esan bagarik, begiratu eban Morroskok ostatuko leio batetik bidebarrira, Mungiatiko bidailurik, zalkurdirik agiri etezan; eta seiretan, bere epebakotasuna pariztaren batez erakutsita «Eztira agiri... Etorriko etedakuz gero?... Igarri egin izango dabe ta...» edo beste onelangoxe zerbait ganeratu eban. Aginbakok ezeutsan yaramoten. Barruko kezka, garramura, gorroto ta amurruak bere gogoari atarabide guztiak itxita eukatsazan. Begiz ta belarriz, surrez ta miñez lez, beti zur izanarren, ordu atan itsu ta gor, usainbako ta mintzul¹ zirudian jauntxoak.

Zalkurdi ain luzêritxiaren arrantxo ta koskabiloen otsa urrago ta zoliago egin zanean, gogoa itzarriko baekion, besotik oratuta igurdausi bat² emon bear izan eutsan lobäak «Or dira» esanaz.

Txaloka dei egin eban gero Morroskok eta agertu zan otseinari «Zoaz, neskato —esan eutsan—, zoaz Derteano eskribauarenera ta datorrela len bai len arratsaldean, aitatu dautsaguzan yatabearrak emen dirala-ta.»

Eta osabäari belarrira itz onek zuzendu eutsazan: «Gero badaki, osaba, aukera-gauzarik aitatu be ez egin, arik eta Latsibi salduarte. Etsea saldutakoan, Pericok eta eurak egin dagiela egingoa. Berorrek eta nik aria emon ta len bai len alde egin, besterik ez».

¹ (mutu)

² (astinaldi bat)

— Emoteko ari ori, dirua alda?

— Ez, osaba. Gero ez aztu; arratz bete ozpinez baiño ezti-tanta bakarraz euli geiago...

Erremuskada batez isilarazo eban don Anbrusek lobäa, latsibitarren oinots andia lenengo bizitzara eldu zanean Epikoren atzetik otz ta motz sartu ziran gizonak gaizkin andiak bailitzazan eta jauntxoaren asarrezko begirakuna batek buru-makurrik ipiñi ebazan, begiak, betazalez estalirik, euren barruari¹ begira eukezala.

Osaba atzean itxita, Morrosko asi zan eldu-barriai izketan: «Gau on, gizonak. Guk goizago dei egingo geutsun baia eskribauak egunez arlo geiegi darabilela ta ordu auxe obeto datorkiola ta zuei barriz zeuena lortuezkero... Ezalda egia, Santi? Oraingotan Latsibi latsibitarrena izango da, e, Pedranton? Ea! Yesarri or. Gomuta dozu, Santi, noiz egin eutsun ots don Anbrusek? Ilebete ta erdi, ori geien yota. Orduantxe agindu eutsun oraintxe emongo dautsuna. Etzenduan zuk, Santi, uste izango, nok?, etsagun izateko zoria ónen goiz agertuko datzunik. Zeuek zarelako, ostean ezleuke osabak tellarik be salduko. Yesarri zaiteze, gizonak, yesarri. Lasterko izango da emen eskribaua. Etorteko zarena badaki. Zelan itxi dozuz, Pedranton, emazte ta seme-alabak?»

— Ondo.

— Zeinbat dira eurak?

— Iru; seme bat eta alaba bi.

— Izenak zelan dabez?

— Manuko, mutilak; neskatoak, Mari Kruz ta Ana Mari.

— Amaika ume bada Yataben! Eta guztiak dira babalorea lan-goxe ume ederrak.

Otseinak, eurakana sartuta, esan eutsen: «Bertara eurok yoateko diño don Antero eskribauak.»

— Goazan orduan. Ots! osaba, berori bagarik ezer ezkara ta. Gero, gizonak, nire lagun diputaduak ementxe dagoz ta osabak eta nik zuen artean ezin apaldu izango dogu, osterantzean pozik. Don Pedro Viñas izango dozue mailagun, ementxe.

— Gu, don Tomas, geuri dagokigun ardantegi- zulo baten gogozago ta erazago, geure erarago egoten gara. Viñas zuekana doala.

— Baia zerbait saldu-erosiezkero, alborokea beti bear izaten da ta...

— Amaika barriketa badarabilk gabeon, Tomas!

Jauntxoaren itz garratzok entzunda, isilik yoan ziran guztiak eskribauaren etsera. Aurretiaz eukan onek arazoa atonduta. Santi

¹ (kontzientziari)

zârrak eta don Anbrusek euren beizenak¹ ezarri ebezanean, «Latsibitarrak —esan eutsen eskribauak—, zeuena dozue Latsibi. Pozik egon zaitekeze.»

— Ni orain ilteko be pozik nago. Aita zanak eriotzako orduan neuri bégira bégira...

— Zeinbat da berorrena? — itandu eban Pedrantonek, aitari autua etenda.

— Jaun onena geuk geure lepotik egingo dogu — erantzun eban Morroskok.

— Eskerrik asko. Orain, eskribau jauna, mesedetxo bat egin gura baleust...

— Nik egin dagikedana bada...

— Jueza non bizi dan yakin gura neuke.

— Zer ba?

— Zerbait daukat juezari emoteko.

— Gabeko amar ta erdi orduetan juezagana yoango etezara?

— Ordu orrretantxe gagoz eskribauagaz-ta...

— Orainezkero lo dagotzue a.

— Dana dala, non bizi dan yakitea ondo letorkit eta...

— Orrenbeste laguntasun egiteko geu be emen gagoz. Neuk era-kutsiko dautsuet. Zatoze neugaz.

Eta au esanda Morroskok Soduperenera, lengo ostatura, ekarri ebazan latsibitarrak, Latsibi-yaubeak.

2

— Aita, goazan Yatabera — esan eban Pedrantonek etsea eurak-ganatu ebenean.

— Zoroak alzare, ezer artu bagarik etsera yoateko? Bâldakizue emendik ara zeinbat orduko bidea daukazuen? Ots, gizonak! Erdu gora, aparia maian daukazue-ta. Alboroke bâko salerospena noiz ikusi da baserritarren artean?

— Gura dabena beioa. Ni ez.

— Au da, Santi, semeari emon dautsazun azieräa? Zeuek guraria erakutsi zeutselako, don Anbrusek, zeri ezeukala, etsea zeuen eskue-tan ipiñi dautsue. Eskribauaren irazketak² berak yazo dauz. Alborokea zeuek, erosleok, atondu-bearrean, berak gertu dautsue. Zelango gizabidea da, Pedranton, zurea?

¹ (firmak)

² (gastuak)

— Pedranton, neuk apartia ordainduta be, mesede egin dauskun gizonari...

— Aita, lenengo ta bein goazan juezagana. Gero egingo doguz yanedanok.

— Orixe be egingo dogu —erantzun eutsan Morroskok—. Aurra Viñas! Zoaz zeu juezaren etsera. Yatabeko alkateak beragaz itz egin gura leukeala yakin eragiozu; ta bitatik bat, ala bera bertora etorriko dan, a la berau bertan agertuko dakon, berak esan dagiala. Bizkor ibili. Erantzuna izanarte, ezkara gu apaltzen asiko. Goian itxarongo dogu, emen egoteko oztxo be badago ta.

Viñas norabait yoan zan. Eztakigu nora. Juezagana? Ezekian ez nor zan ez non bizi zan, ta juezagana ez beintzat. Besteak gora, lenengo bizitzara, igan eben: Morrosko bizkor, Santi oboen-oboen, Pedranton astiro, susmotsu ta nakar. Bost minutu etziran igaro. Epiko arnasoska, arineketan ibili bailitzan, agertuaz «Gizonak, gaur agoa dogu neurri, aukeran⁽¹⁾, nai lez datorkiguz gauzak» esanda, yesarri zan.

— Juez jauna ain zuzen be apaltzen dago. Egun onetan eginen andiak eidarabiltz. Baserritar bat ikusi dot bertatik urteten. Alkate-ren bat alda. Eztabe artu etsean.

— Eta zer diño?

— Astiro ta gogoz apaldu dagigula; eta gero doala bertara Yatabeko alkatea, berorrek gura dabezan lagunakaz. Etzare, gizonak, egarri? Nik neure ormazak eta agokoroa buztarri-idea baizen legor daukadaz.

Bonbilletik lau edontzitara ardaoa egotzita, onelantxe zerraion Epikok: «Latsibitarrak, klink eragin dagiegun edontzioi. Zeuendu dozuen Latsibi orretan mâtsa ugari, txalak urteoro, beirik gaiña txal eta garia ta artoa kutxak eta garaiak¹ artuala izan dagizuen *topa*²» esanaz, bere edontzia garbi-garbi egin eban Viñas lazkariak. Pedrantonek bereari ikutu baiño ezeutsan egin.

Aparitan asi ziranean, Morroskok «Lendanik dakizue, gizonak, nire barri —esan eutsen—. Beste leku baten daukat apartia, bestela ni pozik izango nintzate emen zuekaz juezagana zoazanean. Pedranton, neuk lagun egitea gura badozu, uriko batzokian, *Sociedad Guerniquesa*-n, ots egin. Bakarrik yoatea gurago izanezkero, zeure buruaren yaube zeu zara. Orainarte zeuen ugazaba³ izan gara; aurrerantzean adiskide izan gaitezke.»

¹ (las arcas y los hórreos)

² (brindo)

³ *Ugazaba* esan oi dabe Bizkaiko baserritar maisterrak euren etxe-yaubea aitatzen dabenean. Euren buruakaitik eztabe orregaitiño *otseinak* esaten, *maisterrak* baiño; toki geienetan *errenteruak*.

— Eztan gizonak txarto berba egin —esan eban Latsibi zarrak, Morroskok alde egin ebanean.

— Txarto! —Eta emendik asi zan Epiko Tomás Torrealdea ta bere anai-arreba Teofilo ta Tete ta Tiburtziaren barri emoten—. Txarto ez, ondo, ezin obeto etorriko datzue onen adiskidetasuna.

Alkateak, gose baiño gosezto izanarren, txolarteko¹ artagauruari eliztxoriak legethez, oratu eroakon yatekoari, susmo andiz ta piltxika. Laster asi zan aitak langoxe gogoaz txaliña² txirimizkaten.

Santik, barrua ardao indartsuz (koñak egotzi eutsan Epikok, juezagandik etorrela esan ebanean, suetera yoanda, koñak ardao-bonbillari) ardao indartsuz barrua berotuta, «Seme —esan eutsan Pedranton—, ik be gaur, neure antzera, gosebedarraren ganean ipini edodok oiña. Ori dok gogoa!»

Semeak yanaz erantzun eutsan, murtik egin bagarik. Yatez asko yanarren, edariari orregaitiño ezpanakaz ikutu baiño ezeutsan egiten orduan. Apari-erdi inguruan asi zan zurrutada anditxoagoak barruan sartzen. Epikok itzetan egin eban, itzetan! Erdirik ulertu ezpaeutsen be, Mungiako zabalean astebete aurrerago esan bear ebazanak antxe entzun eragin eutsezan. Gura ebana gero ta gero be eskuratu eban: alkatea gogaldi oneko ta barritsu ikustea.

— Pedranton, entzutea daukadanez, oiularia³ eizara. Ezalozu gomuta euskerazko kanta zâr ederren bat?

Eta geiagoko bagarik Lekeitioko abade Aboitiz eritxon batek orain eun bat urte egindako kantatxo auxe oiukatu eban Pedrantonnek:

*Peru dubakok uste eban ze
etzala diru-bearrik,
makallau ona ekarritako
Bilboko Barrenkaletik.*

Noizik noizera, gomutâak uts emonda, aitak bururatu bear izan eutsazan âpaldi⁴ bat edo beste. Bitartean zurrut eta txurrut erabilen Epikok alkate oiularia.

— Zuk, Pedranton, idazten be ederto dakizu aurki.

—Cuidao!— esan eban orduan Santi zarrak. Ez semea dodalala-

¹ (trampako)

² (platera)

³ (kantaria)

⁴ (estrofa)

ko, baia beste baserritar bat, beste aldear bat¹ etedago inguruetan, Pedrantonek baiño yas obatan papera baltzituko dabenik?

— Atzo zeu ala sekretarioa izan zintzazen autagiria egitekoak?

— Sekretarioa, José Maria Elordigoiti, maisua da, izan; baia a gaiña banaiz ni onelango arazoetan.

— Sekretarioak idazkera² ederra eidauko ba.

— Nik ohea.

— Baete! Ea ikusi.

Eta Pedrantonek, goranzpetik³ autagiria atarata «Zeuk esan, Epiko, ederra dan ala eztan. Neuk egina da gero, neuk, ak ez, Jose Marik ez, neuk, neuk.»

— Egia diño aitak, Pedranton —esan eban Epikok—. Baserrietan bakarrik? Urietan be onelango idazlan gitxi egiten da. Baia zer? Arranoa! Deabrukeria bat egiten dautsu emen sekretario bekaiztiak. Zuk emen 68 idatzi zenduan ta ak 6 ori kenduta, lotsabakoak, 8 soil-soilik itxi dau.

3

Ordu-lauren baten eginda egoan egingoa. Epikoren laguntasunez, Pedranton gizagaixoak ordirik, Bilboko *El Rásimo*-n asmotan arturiko ordezketa Gernikan amaitu eben (*sic*). Len 8 ta 84 agertzen ziran lekuetan 68 ta 24 irakurri egikezan gero.

— Pedranton —esan eutsan Viñasek—, jueza daukagu bégira. Zuek astuntxo, sor zagoze; ta, ementxe lo zatzazartenan neuk eroango dautsat paper au juezari—esanda, kapelaa konerka yantzi-rik, erdi albo-alboka ta bêari oiñots andiak ataraten eutsazala, *Sociedad Guerniquesa*-ra yoan zan Epiko.

Don Anbrus ta iru diputaunaiai gutuntegian⁴, eurak euretara egotearren, atondu eutsen maia. Kafea artzen ziarduen Epiko eldu zanean. Ezta esatekoa lau gizon aren poza paper aizundu aren bitartez garailari zirala yakin ebenean. Gogoz besarkatu eben mastiatxurlaria⁵. Morroskok ganera «Anai maitea» esanda, mosu emon eutsan. Txanpaña sagardao eginbarri merkea baili-

¹ *Aldearrak* Amoro-ton elizaldean bizi eztiren baserritarrak dira. Benetako aldearrak ziran, beraz, Latsibiko aita-seme ta bizilagun arek.

² (letra)

³ (txalekupetik)

⁴ (bibliotekan)

⁵ (erreboluzionarioa)



tzan erabilen. Eta yakiña! Epiko, len txolin ta katu-erdiaz egoan Epikotxo, orduan latsibitar errukarriak baizen mozkorrik eta katudun gelditu zan.

4

Tomas Torrealdeak arantza bat eukan gau guztian biotzean sartuta. Viñasek Mungian oso-osorik karpeta-barruan eukan eskutitza, Morroskok berak ogei bat ordu lénago Gernikatik bidalirikoa, zan bere arantza zorrotza. Epiko mozkor andiaz egoalako etzan gauza Mungiaira yoan ta Tomasen biotzetik, karpeta-barrutik, mingarri a atarateko. Ezmezean luzarotxo egonda, aldungei papu-ederrak, nagiarren, bildurrarren ala eztakigu beste zerarren, paper a urratzera arantzaduna bera yoan bearrean, eskutitz labur auxe idatzi eban Ortiz de Treviño maisuarentzat:

— Neure adiskide ona, mesedetxo bat. Zoaz arren! eskutitz au artuta bat batera Viñasen etsera. Bere karpeta-barruan papertxo bat ediroko dozu, neuk geure adiskideari egindako eskutitz bat. *Urgentísimo* dauko azalean. Irakurri be egin bagarik zati-zati egikezu. Ezta bera ezer, garatz-papertxo bat¹ da. Zaltzain onetxegaz beronegaz itz baten auxe esaidazu: *Urratu dot*, besterik ez. Datorren domekan zauta² andi bat izango dogu garailariok Gernikan. Maikidetzat oraindexek zaukaguz begiz yota.

Biotz-biotzetiko adiskide dozu Gernikako aldun aukeraturiko

Tomas Torrealdea Isasti.

Gero Morroskok zalkurdidunari batzokira dei eginda, itaune auxe zuzendu eutsan:

— Bâldakizu Mungiako maisu Ortiz de Treviño zein etsetan bizi dan?

— Bizi danik be eztakit nik, jauna.

— Zoaz Soduperen ostatuan dagozan baserritar biakaz Mungiaira lenengo, Yatabera gero. Gizonak elizpean itzita, erdu barrira Mungiaira ta itandu norbaiti Ortiz de Treviño non bizi dan. Paper auxe emoiozu jaun orri ta berorrek eskuratuko dautsun erantzundakoa ekarri neuri len bai len. Jaun orren izena eskutitz azalean daukazu. Yatabera yoan orduko obeto izango da beragazkoa egitea. Eskupeko ona izango dozu. Bizkor ibili.

¹ (un papelillo de negocios)

² (yan-edan)

Sodupe ostatariak lagun eginarren, ozta sartu al izan ebazan zaldizainak Santi ta Pedranton bere lorgailuan¹ eta Muxikan barruna Mungiarako bidea artu eben.

Oharrak:

(¹) Orij. «aukerak». Azpian «aukeran» dago idatzita eta hori behar litzake testuinguru honetan. Gipuzkerazko bertsioan be «aukeran» dago.

¹ (beikuloan)



XXXII. Gau utsez

1. Begi Gondramenditurik.
2. Bei Epikoren paper artean.
3. Guzur-urtika.
4. Erromarren batzarra.
5. Gizaburuaga ta Yatabe.

1

Latsibitarrak Gernikati Mungiarako urten baiño ordu-erdi lenxoago artu eben Begik, Bekosolok eta Maurik Mungiatu Gernikarako bidea. Begi iñoizko isillen etorren. Luzaroko itz egille bakar, barritsu-usain bagakoa orduan be, Bekosolo izan zan. Bere epai laburrak ezeben lagunik izan.

—Gu ara orduko arek amaitu izango dabe euren arloa.

Beste bost bat minututan isilik.

—Zûr ibili bear izango dogu, zûr ta astia galdu bagarik.

Isilik irurak barrero.

—Aizunketa¹ orren oiñatz bat² lortu ezik erre kara goaz buruz bêra.

Begiren asgorapen³ zaratatsu bat izan eben epai onek erantzuntzat.

—Gizaburuagako autagiria gomuta dozue? Lekeitioko etse andi baten aizundu eben. Ango erromarrak azpi-yoko aren oiñatzik ezeben artu; ta erbiak, geuri egingo leuskeguna, iges egin eutsen.

Isilaldirik luzêna arrezkerokoa izan zan. Lo bagako lo-zurruak, etzan besterik ezer entzuten. Biderdi inguru egin ebenean, Begik bat batera soiña⁴ lerdenduaz, «Cohero —esan eutsan lorgailu-yaubeari—, adi egon bidean argirik etedan eta zaldien koskabillo-otsik ete-

¹ (falsifikazino)

² (arrastu bat)

³ (arnasa-goraldi)

⁴ (gorputza)

dantzuzun. Zalkurdi¹ bat ez bati ez itzi guri atzea artzen. Entzun, Fermin?»

— Bai, jauna.

— Eta urreratu daiteneko, zuk burditxo au zearretara ipinita, bide guztia artuko dozu. Adi egon gero.

— Bai, jauna. Lo egin ardura bagarik.

Zaldizainak, dakuskunez, barrukoak lo etozala uste eban.

Etsez baiño izenez luzeago dan basauri Meacaur de Morgara eldu-aurretxoan «An datoz» esan eban batek; eta lasterko, bidazti ta zaldizain, laurak zoli-zoli entzun eben Gernikaldetik eurakganantzta etorren kotxe-zaratâa. Orduantxe seneratu zan Begi; orduantxe erakutsi eban bere burua, oi zanez, urduri ta asmolari, egile ta eragile. Lagun biai, belarri bana alkar yoten ipiñita, euren artean ezpanak ebazala, onelantxe itz egin eutsen:

— Erromarrak garan erakutsirik ez emon, bestela zalditzainok, batak Mungian ta beste onek Gernikan, darabilgun arlo au zabaldu ta alperrik galdu egingo leuskegue. Epiko nai datorrela nai eztaturrela, ni eurokaz noa Mungiara. Badator, nik barruan daukan guztia atara eragingo dautsat; atara gura ezpadau, irato egingo dot, irato, kakarraldo tximizta ori.

Zaldizaiñak, agindu eutsena ederto beteta, Gernikatik etorren zalkurdiari, urreratu zaneko, bidea itsutu eutsan. Iru bideztiak beste zalkurdira yoanda arrast² bana irazegi³ eben. Santi ta Pedranton lastibitarrak arria lez lo ta etzunik ikusi ebezan.

— Lo egin dagiela— esan eutsen Begik lagunai. Eta zaldizainari «Mutil, eure ondoan naioak neu be, orrek kotxe osoa eurontzako bear ðoek-eta.»

— Betor, jauna— esanaz, bere alboan leku egin eutsan zaldizaiñak.

— Agur, mutillak —zirautesen gero Begik lagunai—. Betiko ostatura yoan. Goizaldean eguzkiak eta guk bateratsu Gernikara yoko dogu. Agur.

— Ze barri Gernikan?— itandu eutsan gero zaldizaiñari Mungiarantz igoten asi ziraneko.

— Gernikan? Erromarrak irabazi etedabelakoa... eztabelakoa... nori entzuten ðakan.

— Zelan dozu zeuk izena?

— Nik Juan Arbe. Berori nor da ba?

— Ni Gondramendi. Eztat yaten erromarren garaipen ori.

¹ (kotxe)

² (posporo)

³ (biztu)

— Nik neuk eztakit, jauna, zer esan. Naste andia badarabille beintzat.

— Nondik dakazuz gizonok?

— Yatabeti Soduperen ostatura ekarri dodaz. Andik eskribauaren etsera yoan eidora. Orrek barruratu dabe katua! Ezin zutunik egon, ez bata ez bestea... Guk izan dogu lorra, baserritarrok kotxean sartzen! Eurokaz Gernikara ekarri dodanak be beratzeko lagin batu dau.

— Nor izan da bera?

— Erdaldun bat, don Pedro izena daben bat. Eta Mungian ze barri?

— An-aaa, an bertan ondo. Yataben ederrak emon dauskuez. Zortzi boto baiño eztozuz izan guk, larogeta lau besteak. Don Pedro erdaldun ori Soduperenean etedago?

— Nik *Sociedadean* itxi dot, ónetxena baiño be mozkor andia-goaz.

— Nortzuk egozan bertan?

— Saloian lagun asko gaur. Besteak bibliotekan izan dabe aparia. bost ikusi dodaz nik: iru diputaduak, Bilboko agura betaurrekodun añenti bat eta len esan dodana, don Pedro. Mungian zaparrada andiak izan eidora aspaldion. Atzo zortzi an nintzan neu be. Zeinbat kotxeru batu gintzazala uste dau, diskurtsuak entzutera yoan ziran gizonakaz? Zazpi, Gernikakoak lau, Bermeokoak besteak. Bâldaki berorrek, Gondramendi jauna, Begi medikua nor dan?

— Apur bat badazagut — erantzun eban Begik.

— Mutilla eida ori. Orren diskurtsua, *seguru* be, entzutekoa izan eizan. Epiko ala Lapiko ala zelan zan bestea?

— Orixe da Gernikan ordirik ikusi dozun don Pedro.

— Orra or; nik ezneban Mungian ikusi ta! Guk, zazpi kotxeruok, mus ilustraduan ekin geutsan, erri guztia zabalean egoan arte guztian.

— Gure Epiko be mutilla da gero — ziñoan Begik.

— Baia bestea, Begi? Gaiztoago eida bera, gaiztoago!

— Zein? Begi? Zarata asko bai ak. A dabillen lekuan izango da abarrotsa ta musturrez aurrera ibiltea. Baia gaiztoa tzzzz! eztirudi.

— Ta esan begi, Gondramendi. Ezagutzen etedau berorrek Mungian... zelan deritxo berari?... Biztu begi posporo bat, izen ori esan dagiodan. Ona emen: *Don Higinio Ortiz de Treviño, maestro*. Ezagutzen aldau berorrek gizon au?

— Nok emon dautsu eskutitz ori?

— Kartagoarren diputaduak. Morrosko ala zelan da bera?

— Bai, Morrosko.

— Axek emon daust, Yatabera-orduko maisuari berari eskura eroateko esanda.

— Adiskide andi barru-barrukoak dodaz zein bata zein bestea. Zuk, Orbe, arpegian dozu ezagun, mandatu ori neuk egitea gura dozu-ta gauzáak dakarrena da. Orrenbeste laguntasun egingo dautsut, zeuk be neuri bestetxo bat egitekotan. Eroaizuz gizon onek Yatabera, elizaldera. Abadene¹ bâldakizu non dan? Elizearen ondo-on doan, bidea-bitarteko etse zabal, egin-barri, zuri-gorri, polit bat da Abadene. Yo egizu antxe kisketa. Abadeari Gondramendiren ize-
nean esaiozu gizon bi onek etsean euki dagizala goizalderarte. Zu an zaran bitartean nik neure adiskide Ortiz de Treviñogazkoa egingo dot.

— Gero erantzuna emon dagiala. *Sin falta* gero e?

— Ardura bagarik egon. Badago asti. Jesus milla bidar! Onelan zeuretzat be askoz obeto, biontzat obeto; goizago eldu al izango gara etsera ta lotara.

— Gernikara aldator berori?

— Ezalozu len entzun lagunai esan dautsedana? Gernikara noa ta saria emongo dautsut. Araxe ninoan ni; baia, gizonok onelan ikusita, errukiak yo nau, biotza ausita daukat. Etxatzu zuri txarto etorri izango. Treviño non bizi dan ezalozu yakin ta nori itandu be ez.

— Ezaldago serenorik Mungian?

— Bai, saguzarrak. Orretzek doguz emen sereno.

— Zaltzainaren barre-zantzoak amaitu ziranean, «Ganera, —ziñoan Begik— yatabearrok non itzi be ezaldakizu-ta...»

— Elizpean izteko esan daust Morrosko diputaduak.

— Otzak ilteko ala? Ez, obeto egongo dira Abadenen. —Apurtxo baten isilik, alkarri zer esan ezeukela edo, bide-zati bat igarota, zaldizaina asi zan izketan:

— Eurok, Gondramendi, gau utsez Gernikara etorteko alango zeren bat badarabile, buruauste andiren bat... arazo goratsuren bat...

— Mungiako semea beti dozu ibiltauntxo.

— Baia upea lango gau ilun baten, zer egiteko?

— Zer egiteko... zer egiteko! Alderdi batekoak dirudigunezkero, barrua zabal egingo dautsut. Erromarrak bart Gatican zauta² aundi bat egin dabe, garailari diralakoa, kokoloak! Suziriak³ *plita pla* erabili dabez. Eta guztia, zegaitik izan dala uste dozu? Geuri kartagoarroi lorik egiten ez iztearren. Nok an gaur begiak itxi? Ganera, inori ez esan baia, guk gaur Gernikan zerbait egingo dogu, aurreskuren bat, nai beste ots andiko zer edo zer.

¹ (Abatetxea)

² (yan-edan)

³ (bolanderak)

Ezeukan Begik poza saltzeko Treviñorentzako eskutitza barruratu ebanean. Zetan ziarduan ezekiala, Anton Imazen ereserkia¹ kantaten asi zan, *Alto-la*. Mungjara eldu ziranean ibai-ondoan geldiarazota «Zoaz, Arbe, zu aurrera, Yatabera —esan eutsan—. Zu zatozaneke, antxe bêko bide-kurtzean izango naiz ni.»

— Geroarte, Gondramendi jauna.

2

Bere etsera yoan zan, lenengo, Arraitz sendalaria, pozik gizona. Morroskoren eskutitz Treviñorentzako irakurrita, arrapaladan yoan zan andik Viñasen etsera ta kisketari² ots eragin eutsan. Arrituta gelditu zan Adona Arraitz ikusi ebanean. Goizeko ordu bi ta erdian! Bere ugazabaren areriorik andiena! Begi!

— Zer gura dau, don Donato?

— Don Pedro zuena Gernikan aldigaizto andi batek artu dau ta, arerioak izanarren, onenbeste on gizonari egin bear dakiola ta auxe esatera etorri naiz. Izan daite gaur, goizaldean edo, andik ona Viñas gaixoa kotxean ekartea. Lejarzegi zarraren billa asi etzaitezán, neuk idatziko dot sendailluaren³ izena. Onenbeste laguntasun gizonari...

— Bai, don Donato. Ai berorren biotza! Nik beti esan daroat au.

— Paper ta tintarik eztaukazu eskueran Adona?

— Bai, jauna. Betor bere gelara. Ta ilteko zorian etedago errukarria?

— Ilteko zorian eztiñot, baia niri esan daustena badauko, ilda lez, dangiño, sei-zortzi bat ordutan egon bear izango dau. Gero iru bat egunetan, sendatuta gero be, etsetik urten bagarik balego, oba.

— Ori baiño ezpalitz!

— Ekarridazu arren! ura, egarri naiz-ta.

— Bai, jauna, pozik. Edariaz gura aldau?

— Eskueran badozu, tantatxo bi bada be... Nik emen *errezeta* ori egiten diardudala, zuk, Adona, ur ori ortxe, etsariko⁴ mai-ganean itxi.

— Minutu bat barru or dau.

¹ (himnoa)

² (aldabääri)

³ (botikearen)

⁴ (salako)

— Egon bein, Adona. Oztitu egin naiz neu be ta tea egin gura bazeust katillu bete te, arazo larregi ezpalitz...

— Esatea be!... Bai zera! Laster egingo dot sua. Orduan urik ez, e? Ala ura be bai?

— Ez, Adona, teak, te utsak obeto artuko nau.

Ezekian Begik zer asmau Adona urrun eukiteko. Adona su egi-ten zan artean, berak Morroskoren eskutitz arako *Urgentisimo*-duna ediro, irakurri, erdi buruz ikasi ta sakolkoan gorde eban. Gero sendailu¹ irrigarri baten izena papertxo baten idatzita, Treviñoren izenean Morroskori eskutitz bat egin eutsan.

— Oraintxe naiagok ona —zirautsan bere buruari—. Etxoat Treviñoren paperik eskuetan iñoiz artu. Ze idazkera eteđaukak?

Maisuak, geien-geienak beintzat, *Letra española* izenduna eukela ta alangoxearen antzera, labur labur, alik eskutiz laburrena egin eban Begik. Azalean *Al Sr. Torrealdea Diputado*, eta barruan *La rasgué* ta azpiko aldean *O.*, besterik ez. Suetera yoan zan gero, bere poza sinetsi-ezinik.

— Adona, nik be buruausteak badakartsudaz ba.

— Buruausteak diño? Ta berorrek andiagoak geugaiti artu! Jaungoiko andiak zeruetan sartu dagiala.

— Nor? Ni? Ni zeruan sartu gura banozu, gerotxoago izan dai-teala. Seme-alaba gaztetxoak daukadaz ta ori gerotxoago.

Barre Adonak.

— Zer dau gureak, don Donato? Biotzeko mina ala zer bendeziño dau? Ilda lez orrenbeste ordutan egoteko gatxa gatx andia izan bear. Biotzekoa etedau?

— Iñori ez zuk esan. *Amilicolitis* dau don Pedroren gatx orrek izena. Ta au yakin dodanean, arerioa izanarren, gizona da, lankidea dot eta ni onaxe etorri naiz.

— Ai berorren biotza! Batzuk au ta ori ta bestea esanarren, biotz ona berorrek. Gurea be orrelangoxea da. Batzuk arina dala, mina labantxoa dabela, baia ona da gizagaixoa, esku-zabala da, eskuarterik daukanean beintzat.

— Ez ibili tea ara eroaten. Berton artuko dot.

Adonak ezetara ezeutsan eskupekorik artu gura izan. Alkarri esker andiak emonda banatu² ziran.

¹ (erremedio)

² (berezi)

3

Yataberako bidekurtzean ezaban Begik luzaro itxaron bear izan. Laster ots egin eben bere belarrietan txilintxoak.

—Barruan ala nire ondoan?— itandu eutsen (*sic*) kotxedunak.

—Zeure ondoan gurago nik— erantzun eutsan Begik. Ibilten asi ziranean «Zer diño maisuak?» itandu eban Juan Arbek.

—Gogaldi txarreko, umore gaiztoaz yagi da. Erriojanua ezleuke izan bear! Maisua izanarren, luzaro ekin dautso eskutitz au egiten.

—Lan andiren bat edo!

—Buruari azka be ikusten izan dot, idazten ziarduanartean. Neuk neure barrurako «Ezetedautso Morroskok *eskrutinio*-egunerako diskurtsuren bat eskatu? Morroskok berak Gernikan egiteko-ren bat?» Gorde ondo, Arbe, maisuaren lan au barrurengo sakelean ta galdu bagarik eroan egiozu diputadu Morroskori len bai len.

—Maisu jaun ori ezaldat asarratuko, beretzako karta ori neuk neurez eroan eztautsadalako.

—Ez, Arbe. Asko poztu da ni ikusi nabenean. Adiskide gara ta! Lenengotan, orregaitiño, txordo-samar¹ agertu da. Bere lenengo itzak «Qué traes, Gondramendi?» astunago esan daustaz ta illunago, ñe!

Eta orrelantxe bide guztia, isilaldi luze bagarik, igaro eben zaltzain ta aukerazain arek, batak esan ta besteak entzun, entzun ta barre sarri.

—Berori, Gondramendi, kontratistää ala zer da?

—Urezandikoa ni, indianua.

Eta ganeko ordu bete inguruan, Gernikara elduarte, Ameriketako barri andiak emon eutsazan Begik lagunari. Julio Verne-ren gerturidiren² batzuetakoak al ziran barri arek.

Urrengo egunetan Arbe zaltzainak kafean bere lagun bati baiño geiagori esan eutsan: «Mungiako Gondramendi baiño gizon selebreagorik etxoat iñoiz ezagutu. Ilari be barre eragingo leuskio ak. Alangorik!»

4

Gondramenditzakoak, Arraitzek, ostatura eldu zaneokoxe, ogetik yagi eragin eutsen lagunai. Euren aldeko aldungei Badiolaren etsean izan eben lenengo batzarra. Sei ziran batuak: Badiola, Ber-

¹ (seriotxo)

² (novela)

meoko aldungei Antzora, Bekosolo, Begi, Mauri ta Ozamiz eritxon legegizon bat. Luzaro autuan ekin-ondoan, goizaldean Ozamizek itz gitxitan laburtu eban bere eritxia.

«Gizonak —ziñoan—, etziko boto-azterketäa ezta izango lau ta lau zortzi, zortzi ta zortzi amasei esanda, Urlia ta Berendia ta Zandiari diputadu-izena emotea. Ez. Gizonak bagara, iru asmo onetxek lortu bear izango doguz: 1.a Yatabeko auteskundea ezereztu; 2.a Viñas, Torrealdea ta Yatabeko alkate gaixoa baitegian¹ sartu; 3.a Yataben bertan datorren domekan auteskundea barriro eragin.»

—Ekazu bosteko ori, Ozamiz —esan eutsan Begik—. Zelangoa dogu Gernikako epaile jauna?

—*Juez* artzagarorik iñor ez. Don Froilan Yañez-i bidebagako epai bat diruen diruz ezin atara dagikeo. Berau balitz epaia emotekoa! Bilbotik magistraduren bat izan daite onetarako etortea.

—Mutillak, gauza bat —zinoan Zabaletak— kutxelupean, isil gogorrean gorde dagiguzan gure asmo etziko onek.

—Zin² egin dagigun, gizonak —Begirenak ziran itz edo berba onek—. Orma orretakoxe kurutzearen izenean zin egin dagigun eztautsagula inori emen erabagirikoz ezer yakin eragingo.

—Nik —esan eban Ozamizek—, nik bati zerbait esan bear izango dausat: don Froilan zuzenari. Eguasten-arratsaldean beragana agertuta, auxe eskatuko dausat: biaramon goizaldean bidali dagiala norbait Yatabera Pedranton Latsibiren billa. Eztagiala orregaitiño gizagaixoa gudari yantzidunek ekarri.

—Morrosko ta Epiko, benetako errudunak dira-ta, Yañezek erakarri dagizala orrek be, guardia *sibil* artean orrek.

—Hmm, Badiola —zerantzun Begik—, txarrago izango litzakigu juezak orrei dei egitea. Susmotan sartuta ezetelitzatez norabait igesi yoango? Betoz euron kabuz, garailari-uste osoaz, euren gaiztakeriaren barri iñok ezpailekian. Betoz ikusguraz ze barri dan yakitera. Orduan bai, iru aizuntzaileak an, lakirio-barruan, ikusi dagiguzanean, gizonak, adurra darit ezpanetan bêra, gogoratuta beste bagarik, emendik baitegira zuzen zuzen yoango dira, obeto esateko, zuzen-zuzen eroango dabez.

—Baia onetarako zin egin dagigun gure asmo onek iñori ez yakin eragitea.

Beste bostak, Begiren itz onek entzunda, zin egin ebenean, sendalari buru-zorrotzak onelan yarraigi eban:

—Gu arrotzok emen egon bearrean, ezeteda oba izango bakoitzta bere tellapera yoatea? Bestela arpegian igarriko leuskegue es-

¹ (kartzelan)

² (yuramentu)

kuartean darabilguna zer dan. Neure bizi guztian eztot nik agotik atara gaur goizaldean Soduperen morroi zaldizainari esan dautsadan beste guzur, asko ta biribillak guztiak. Beti ezledi ondo urten. Belarria ta begia zurt erabili zuok, Badiola ta Ozamiz, emen bizi zarên biok.

Bazkalostean Antzora Bermeora ta iru mungiarrrak euren urira yoan ziran.

5

Beste aldekoak ilargia laba-ganean euken. Aren poza azbegi guztiak zerakusen: arpegian, begi ta ezpan ta matraillak; soîñean¹, belaun ta istarrak; ibilkeran zartâa; erabilkeran, eskuak; beso ta sorbaldak zirkinen txairotasunean. Euren zerua urdin-urdina zan, odaitxo bat baiño ezeban agiri. Begiz zur ziranak odaitxo a ikusiarren, lanbroak² ezekusen eta lanbro etziran batzuk ikusita be ezeben aintzat artu.

— Aizunketea³ ordi baten eskuetan ipintea! Baserritarrari, barurik egoala, eragin bear zeutsen, diruen diruz irabazita baiño ezpazan be. Itsuki batek ezagutu al izango dau mozkorrik egoanak egindako lana, itsuki batek.

— Eta zer? —erantzun eutsan Bermeoko aldungei Anakabek—. Diputadu izentau gagiezala. Nok gu andik atara? Orain urte batzuk Markinako distrituan auxe berau, berberau, yazo zan. Autagiri bat aizundu eben. Aizunketa orri esker, garailariak azpi ta azpiratuak garailari izan ziran. Edozeinek ekian yazo zanaren barri, oraintxe yazo dana. Euren arteko banatasun⁴ bakarra auxe da: orduko Gizaburuaga orain Yatabe dala; orduko Lekeitio, orain Gernika; Landaburu, andra Landabururen eta don Brunoren yauregiaren ordezi ipini dagigin Soduperen ostatua; beste guztia, Bermeoko *Vista de Aduana* andaluzak esaten dauskuna, *pata quié desir igual, lo mesmo*. Zuek badakizue nire barri. Nik gauza bat ogia bada, eztot esango (¹) «Au koipatsua da», ardaoa bada, eztot oriotzat erakutsiko. Orduan iru morroi, iru lotsabâko andi, autagiri aizundu bat⁵ sakelean ebela, etse andira yoan ziran eta iñok ezebazan andik atara. Orain beste iru morroi, beste iru lotsabagako, bata baiño bestea andiagok, an-

¹ (gorputzean)

² (ikuste laburrekoak)

³ (falsifikazioa)

⁴ (goi-be edo *diferencia*)

⁵ (*una acta falsificada*)

diena neu naizala, beste paper guzurrezko bat sakelean dogula, ara yoango gara, diputazinoko etse andira. Gu nok andik atara?

Itz biloiz onek iguinez entzun ebezan bere lagunak, baia ezeban batek be erantzunik emon.

Egun bi aretan gizon gitxi izan ziran Gernikan Soduperen ostatu-ondotik igarota gora luzarotxo bégira egon etzanik. Ordurarte Yatabe ta Gizaburuaga ezalziran iñoiz belarri baten alkarregaz sartu; egun áretan, edozein gernikarren belarrietan, ogei bidar bai, gitxienez. Au gora bêra kartagoarrak azpiratuak izan leikezanik iñok ezeban uste, zin egin eben sei gizonak izan ezik.

Oharrak:

(¹) Orij. «esangoa».



XXXIII. Auteskundearen atzea

1. Gernikako udaletsean.
2. Legegizon entzutetsu baten burubidea. Epiko axe entzun nairik.
3. Pedranton Latsibigana erromar bi Yatabera.
4. Pedrantonen baitegi-laguna.

1

Urrengo egunean Gernikako udaletsean erakutsi bear eban bazarreko nagosiak, Bilboko magistradu batek, aukeraldiaren atzea. Bete-beterik egoan etsari¹ ederra. Mungiar ta Mungialdeko gizon utsetan bermeotar ta gernikarrak bat eginda baiño geiago agiri ziran. Bai Kartagok eta bai Erromak, bakoitzak bere alderdiko lagun agirienak an eukazan. Aurrerengo ezker-aldean Aginbako, Morrosko, Epiko ta besteren bat; eskuma-aldean Bekosolo, Begi, Larrinoa ta Zabaleta. Atzeratxoago Floren, Laraudo, Olabe... alde batetik; bestetik Anton Imaz, Ereñozi... eta zutunik Mungia-erdia.

Pedranton Latsibi, alkate izanarren, etzan Yatabetik etorri. «Gaixorik etedago?» zinoen askok.

Goizeko amarren drangadan, *Yaunak*, esan eban maipurukoak, *óna emen aukeraldiaren atzea* «He aquí el resultado de la elección» izan ziran bere itzak. Au entzunda, mai-ertzeko gizon gazte bat, lau artekari edo *interventorerik* gaztêna, zutundu ta papera ta papera ta papera irakurten asi zan. «Bermeo-aldeko autarkiak² onenbeste. Gernika-aldekoak onenbeste.» Mungia-aldekoak irakurten asi zanean, entzule guztiak, obeto entzutearren edo, bakoitzak bere arna-saa irunsi ebala esan zegikean. Alango isiltasunik! Batez be Maruri aitatu ebanean (Maruri Yataberen birrizena da), askok agoa be zabaldu eben. «Don Tomas Torrealdea Isasti, 68. Don José Andrés

¹ (sala)

² (botoak)

Bekosolo Aguirre, 24...» Entzule geien-geienak, Mungia-aldekoak beintzat, barruan eukezan arnasakaz batera deadar andiak atarau ebezan: Florenek eta lagunak txalo-artean *Bravo*; Anton Imazek eta bere aldekoak *Guzurra, lapurretäa...* ta txistu be egin eben. Morroskok orduan, egoan lekutik yagi, maipurura urreratu ta irakurleari biguntxorik zerbait aitatu ta Yatabeko papera eskuan artuz erriari begira itz onek irakurri ebazan: *Don Tomas Torrealdea Isasti, 68; Don Jose Andres Bekosolo Aguirre, 24; del alcalde*, eta bêrago alka-tearen beizena datza, *Pedro Antonio Latsibi Unibaso*.

Maipurukoak ez, beste yesarrita egozan guztiak zutundu ta dea-darrez ta garraisika luzaro ziarduen. Nok an ezer ulertu! *Ladrón*¹, *malvado*², gitxienez sei bidar urten eben itz onek Arraitz sendalariaren, Begiren, agotik. Ordu-lauren bat igarota maipuruko zan magistraduak «Jaunak —esan eutsen batzarkideai—, legearen arauz gora yoteko eskubidea daukazue aukeraldi au zuzentzat eztaukazuenok. Eta nik orain, neure egikizuna beteteko, aldun autatuak nortzuk diran esango dautsuet: Felipe Bidaguren Izpizua, Antonio Obieta Arana, Tomas Torre...»

Ezeutsen amaitzen itzi. Barriri lengo zarata ikaragarriak. Uriko kalezain biakaz batera foralak sartu bear izan eben etsarian³ dea-darti guztiak kaleratuteko. Kartagoar agirienak, Aginbako ta lagunak, bildurrez edo, besteak baiño askozaz beranduago urten eben udaletsetik eta euretariko batzuk arriturik gelditu ziran, bêko aldean.

2

Bilboko legegizon entzutetsu bat, Goldaraz, erromarren artean ikusita,

—Zetara etorri eteda?— zinoan Morroskok.

—Begik dei egin etedautso?— Epikok.

—I, Periko, ator ona —esanda, au besteakandik alderatu eban aldun autatuak—. Orrek, begia legetxez, alkarregaz bazkaltzera ðoazak. Urrundik yarraitu egioek ik eta eurok doazan ostatura oa eu be ta eurokaz batera bazkaldu egik, zelango masti-atxurretan dabilzan yakin dagigun.

—Eu oakioe. Nik⁽¹⁾ etxoat ezer arazo onetan. Eure arazoa dok au. Eu yoan adi.

¹ (lapur ori)

² (gaizkin ori)

³ (salan)

— Baiña ni legegizon orrek ezagutu egiten naiok, i barriz ez.

— Bai ni be Mungiako erromarrak.

— Periko, ik ondo dakik gora-bêra onetan neu baiño be sartua-go dagoala nire arreba, ire emaztegai Tete. Nigaitik egin gura ezpadok, Teteren ederrarren egik, Tete, Teteren izenean.

— Ostatu baten? Laba biztuan sartuko nintzatek ni Tete maiteari atsegin emotearren. Euren atzetik naioak— esanda, ibilten asi zan gure Pedro Viñas de Andrés.

Begik lagunai esanda, ostaturik onenera bagarik, ardantegi bateko lenengo oinera¹ eroan eben bilbotar legegizona. Begik berak eskatu eutsan txiriboginari² bostentzako bazkari on bat, baiña goian.

Bazkaltzen asita egozala, *Que aproveche*³ esanda, etxaken ba sartu Epiko? Eskerrak Bekosolo ta bilbotarrari, bestela zati-zati egingo eban besteak Mayaguezko seme, Mungiako sendalari dubakoa. Ostikoka andik kaleratu eben.

Eurak euretara gelditu ziranean, erromarrak arazo atarako argitasuna eskatu eutsen legegizonari. Batak au, besteak ori esanda gero, bi edo iru bidar, itzak arduraz ebagita, eritxi auxe erakutsi eban bilbotarrak: «Pedranton Latsibik bere eskuz Yatabeko autagiria aizundu dabenezkero⁴, baitegira⁵ luzaroko ez, baia baitegira yoan bear izango dau. Eztago norarik⁶.»

— Pedranton gizagaixoa baitegira! —esan eban Bekosolok—. Gurago dot neure alduntasuna⁷ betiko galdu, ori baiño askozaz gurago.

— Entzun, Bekosolo; zu eskumako aldungei bakarra bazintzaz, orduan be... Baia iru zaree ta zure lagunak ezleuskizue ez ontzat ez aintzat artuko zure atzerakuntza ori. Arraitz, aldean daukazu len aiatu dauskuzun eskutitza?

Berealaxe Begik kolkotik narruzko kartera bat atara ta pozik emon eban eskatu eutsen papera⁸. Isil isilik egozan lau erromarrak, legegizonak beretzat irakurten ziarduan artean.

— Mamin andikoa da emen dakarren zer au —esanda, eskutitzaren zatitxo bat, auxe, irakurri eutsen—: *Autagiria*⁹ idatzi daben

¹ (bizitzara)

² (taberneruari)

³ (on dagizuela)

⁴ (*Ya que ha falsificado el acta*)

⁵ (kartzelara)

⁶ (*No hay remedio*)

⁷ (diputadukuntzäa)

⁸ Liburu onetxen 257/258 garren orrialdean datzaz bere itz guztiak.

⁹ (acta electoral)

eskuak berak —diplomatiko andia da au asmau dabena— *eskuak berak ezarri bear dau 8-ren aurrean* 6. Esan egidazue, gizonak. Eskutitz au Morroskok emen izan dakun gixontxoari bidali eutsala dinezue.

—Azalean¹ agiri dau. Begiratu *Al Lic. D. Pedro Viñas de Andrés* eta bêko aldean *Torrealdea, diputado electo*. I, Beko —esan eutsan gero Begik Bekosolori—, gorde egik euk paper baliotsu au, bear dan lekuan norbaiti erakusteko.

—Torrealdea bera eteda azerikeri zorrotz ori asmau dabena?

—Bai, jauna —erantzun eutsan Begik—. Ori egin dabean eskua berea da, baiña asmau dabean burua *El Rásimokoren* batena, don Tito edo Arganda edo... ezabil urrun.

—Egon zaiteze alkate orregaz gaur gabera-orduko, biar billa yoango dakioez-da. Eta esan eztaukala ez Jaungoikoaren ez Legearen aurrean ezetariko errurik, baiña au gora-bêra, lau-bost bat egunetan luzeen dala bere solo ta kortako nekeak beste batzuen lepoan itxita, Bilboko etse, Latsibi baiño etse andiago baten, egun orrek zabal-zabal igaroko dauzala. Ez baitegirik² aitatu. Ni emen izan dan magistraduagana noa oraintxe. Zuek aren gogoerak zelangoak diran dakizuezanen, Yataberako bidea artu bear dozue.

—Ni? Ni be Yatabera, latsibitarrai barri txar ori emotera? —itandu eban Begik—. Nik orretarako eztaukat biotzik. Negarrak urtengo leuskit niri.

—Gaur zortzi bigarren aukeraldia, aukeraldi barria Yataben izan dagizuen, etzi ezereztu bear izango dogu gaur aintzat artua izan dan autagiri ori.

—Ozamiz gernikar legegizonak bart eta bilbotar entzutetsu onek gaur eritxi bardin-bardiña emon dauskue— esan eutsen alkarri Mungiako erromarrak, Goldaraz kaleratu zanean.

—Ze izen dau beronek?— itandu eutsan Bekosolori Begik.

—Goldaraz. Entzute andikoa da ta argia ta ardatza langoxe zuzen zuzena, dabeneri dabena emotekoa.

Onelantxe, baparri-biparri, ordu-lauren inguruan yardun eben mungiarrek bilbotarra barriro agertuarte.

—Eta ze barri?— itandu eutsan Bekosolori urreratu ekioenean.

—Uste geuan barria, barri ona. Besteakandik alde eginda, biak biotara gauzari ekin dautsagu. *El Rásimoko* jauntxoak, zetara yoan etenaizan yakin gurarik edo, bégira-bégira ta adi-adi egon dakuz. Magistraduari nik «Ez gero bati be nire arazo onen barri emon gero!» esan dausat eta ez orren arduratan egon, gizonak.

¹ (sobreen)

² (kartzelarik)

- Ta zer diño berak arazo onezaz?
- Eritxi batekoak gara biok.
- Morroskoren eskutitza eztautsazu aitatu izango.
- Ez, Bekosolo, ezta bizi danik be.
- Zuen eritxi ori zein dogu?— itandu eutsan Begik.

— Yatabeko alkate erru bageko orren billa biar goizean bidaliko dau berak norbait. Zuek zoaze len bai len beragana ta nik lentxoago aitatu dautsuedana esan egiozue ez Jaungoikoaren ez Legearen aurrean erru tintil-tintilik be eztaukala. Len Epikotxo orrek burua galdu ta eginiko utsa orain, bere buruaren yaube dalarik, bete ta osotu dabela ta gizuren bat lez¹ eta legez² gizuren bat izango dogula.

Gero, bere kapela zuria erantzita, banan banan guztiai esku emonaz «Badakizue, gizonak —esan eutsan— (*sic*), Bekosolok badaki beintzat, nire etsearen barri: Andres Goldaraz, Santa Maria, 5. Aurrerantzean laurok zeuon adiskide bat an izango dozue.»

Onek, kartagoarrak ikusi ezegiezan edo, ardantegiko ataritik urten bage sartu ziran laurak zalkurdian. Bidez yoazala ezeutsen alkarrri belarririk ez gortu ez mindu. Lauren artean isilena, beste edo-noizko berbaldunena izan zan: Begi.

3

Mungiaira eldu ziraneko, Larrinoa ta berau, bakoitza bere etsean itxita, beingoan artu eben Bekosolok eta Zabaletak Yataberako bidea. Ara elduta, Latsibi bide barritik urruntxo be baegoala ta, ganera bere etsekoak ezer ez susmatearren, udaletsera dei egin eutsen alkateari.

Gizagaixoa lur yota, zer esan ezekiala, gelditu ñaken Goldarazek bururatu eutsan arako ez Jaungoikoaren ez Legearen aurrean uts-tintil tintilik ezeukala esanarren.

Mintzul³ zirudian alkate gaixoak.

— Pedranton, nora ta zetara zaroezan etsekoak igarri zedagien⁴ ondo izango da, kotxea ona orduko, zeu onaxe biar goizean etortea.

— Eta nik neure aitari, gaixondoan apapuan daukagun gizon makalduari ta Likanorari, zer esateko?

— Ba... etsea oso-osorik zeuen egiteko, eskribau bategana zoa-

¹ (como un héroe)

² (según la ley)

³ (mutu)

⁴ *Eztagien*-en ordezkari asko entzuten da au Mungia-aldean.



zala, Bilbora, ta... onelango arazoak astia ta astia bear dauela ta... egun batzuk an igaro bearko dozuzala ta... eskutitz bat andik egingo dautsezula.

—Kartzelan neure burua!

—Pedranton, entzun, ondo entzun gero, paper onek dakazan barri, zuk orainarte eztakizuzan barri mamintsuak.

Au esanda, Morroskoren eskutitza sakeletik atara ta geldi geldi irakurri eutsazan bere lerro guztiak, itz batzuk, gaitzenak, euskerara bihurturik. Eta gero itz pozgarri onek esan eutsazan: «Neu zeure lagun izango nozu Bilborako. Eta an zaukezan bi edo iru egunetan egunoro yoango nakizu ordutxo bete gitxienez zeugaz igarotera. Eta zeu andik atara ta Morrosko ta Epiko bertan sartu dagiguzanean, arantzean lez, onantzean be alkarregaz egingo dogu bidealdia.»

Bekosolok au esanda, len baiño askozaz artetsuago gelditu zan Latsibiko gizona.

4

Bitartean Bekosolo ta Larrinoaren lagunak ezegozan lo. Begik, etsean sartu zaneko, gogoera egoki bat¹ izan eban: Anton Imaz arazo negargarri atantxe sartzea. Emazteari Gernikan yazo zana labur-laburtxorik edatsitakoan, Periko, bere zaldi barri Periko bigarrenaren billa auzoko korta baten sartu ta bere ganean trapa-trapa Gatikarako bidea artu eban. Mendiola parrokuari, bestetan lez don Biri-bil esateko gogaldi bage, «Don Blas —esan eutsan—, gure Anton Imaz etsean etedago?»

—Laster yakingo dogu— erantzunda, bere lobatxo bat bialdu eban don Blasek sakristauaren etsera.

Beingoan agertu ekioen au ta pozik, erromarren burua an egoala yakinda.

—Anton Imaz —esan eutsan Begik—, mesedetxo bat euri eskatu bearrean naiagok.

—Don Donato, berorrek ondo daki nire barri. Nire ongile andi don Donatok eskatuazkero, munduaren azkeneragiño yoango nintzate ni, azken ori non dagoan baneki.

—Gureztat munduaren azken ori Bilbon dagok. Ik, Anton, lengo egunean, arako Larrinoa ta Zabaletaren semetxoak Epikok kartzelaratu² ebazanean, gauza on bat egin éuan ik: euren artean sartu

¹ (burutasun on bat)

² (baitegiratu)

ta geuk be buruz dakiguzan *Yalto la* ta *Pieto Signore* kantau ta poz pozik euki euazan eurenez negarti diran mutil babaloratxoak.

Barrezka itoten egozan don Blas ta bere arreba ta loba au entzunda.

— Beste orrenbeste dagikek ik biar Bilboko kartzelan¹. Gure adiskide maite Pedranton Latsibi, Epikok mozkortuta, paper bat faltsifikau² ebalako, ezetariko errurik eztaukala, Bilbora ñaroek biar.

— Epiko ta Morrosko, biak, eroan bear leukeez ara ta luzaro antxe euki.

— Ori gerotxoago, laster, don Blas. Anton Imaz, biar goizean Bilbora yoan gura izango dok?

— Kartzelara, ezta egia? Bai, ta poz pozik, oiñez be bai; ta luzaro baitegian egoten bada be, eztau an iñok negarrik egingo.

— Orretarakoxe gura naioan nik ire laguntasuna. Bazkal-apariak or dagokoak izango dozak.

— Ze ordutakoa da yoate ori?

— Ator neugaz oraintxe Bekosolorenera ta antxe atonduko ñoagu. Aparia geurean gaur. Biar ta etzikoa baizen ona eztok izango, baia... aurrera, San Sebastian!

Ordu lauren geroago Begi ta Anton Imaz Bekosoloren etsean egozan, etseko jauna Yatabetik noiz etorriko begira. Guztiz poztu zan Bekosolo, etsean sartu, Arraitz ta laguna an ikusi ta aren ezpantatik Anton Imazen asmoa yakin ebanean. Eta oni txeratsu esan eutsan: «Zu, Anton, orretarako, erdu onaxe biar goizean zortzirak aldean. Pedrantonen billa etorriko dan kotxea ordu orretarako emen izango dala uste dot. Bada-ezpada lentxoago bazentoz, oba. Bertan sartu ta Yatabera yoango gara biok alkatearen eske. Eztakit, Arraitz, au len esan dautsudan. Bilbon egongo naiz ni, batean Golderaz legegizonaren etsean, bestean Pedrantonegaz, arik eta onen yara egitea³ lortuarte.»

— Eta beste bien, Morrosko ta Epikoren, baituräa⁴ eskuratuarte be ondo izango da an egotea, Bekosolo.

— Esan bearrik eztago.

— Belutxo⁵ da ta goazan, Anton. Lo be geurean egingo dok.

— Etsean arduratan etedaukadazan nago ni, don Donato. Ta oba izango litzate ni andik biar goizean onaxe etortea.

¹ (baitegian)

² (aizundu)

³ (la liberación)

⁴ (la prisión)

⁵ (berandutxo)

—I loti andi bat aiz, Anton Imaz ta Ezkurdi, *natural de Mendata*. Biar goizean an baengo, ezeteintzate i Milango Biffe edo Bufferen kafean agoala ta amesetan asiko? Gatarako ordu-lauren bat naikoa dok ik. Oa oraintxe bertara ta don Biribil gureari emon egiok gure burutasun eder onen barri ta iru-lau bat egunetan beste sakristau bat izan dagiala. Eure etsekoai be agur egin ta ator gero, nire etsea badakik eurea doana-ta.

Oharrak:

(¹) Orij. «Niri». Testuinguruak «Nik» eskatzen dau, argi eta garbi.



XXXIV. Latsibitarrak estu ta larri

1. Pedranton baitegian.
2. Begiren asmo bat.
3. Begi ta Bekosolo Goldarazen etsean.

1

Zortzi ta erdiak inguruan agertu zan Mungian, Yatabeko alka-tearen billa, Bilbotik etorren zalkurdia. Orduko egozan erromarrrik agiriarenak Larrinoarenean batuta: Bekosolo, Larrinoa bera, Zabale-ta, Mauri, Begi ta Anton Imaz. Bekosolok lagunai obeto izango zala, esan eutsen, kotxea etorreanean, seiron orde z Anton Imaz ta bera soil-soilik urreratzea. Besteak ontzat artu ta biak urten eutsen kotxeari bidera.

Barruan etorren juez-ordekoari zerbait esan ta an yoazan irurak Yatabera. Ordu bete gitxienez eroian Pedrantonek udaletseko atar-ian euren etorrerearen begira. Eldu ziraneke, auxe izan zan Beko-solok egin eutsan lenengo itaunea «Aitak zer diño, Pedranton?»

— Pozik gelditu da zetara noan esan dautsadanean. Zetara na-roen baleki! Gizagaixoa!

— Zenbat goizago an, anbat goizago emen — esanda, zalkurdi-barruan sartu zan Bekosolo, beste irurak urrengo.

Juez-ordekoaren belarrietan euren auzia ez aitatzearren, Beko-solok Anton Imazen ezpanetatik italierazko zerbait ikasi gura eban. Batean itandu eroakon «Zelan esaten da italieraz *Egun on, jauna?*»

— *Bon giorno mio signore.*

Bestean, «Zelan arrasti¹ on ta gau on?»

— *Bona sera ta bona notte.*

— Ta *mendia* zelan?

¹ (arratsalde)

— *Monte*.

— Orretarako eztago ara yoan bearrik, bertoko erderaz be *monte* da ta.

Beste itaun-erantzun askoren urren, alkatea, alaitzen asita egoala erakutsiaz, arlo atantxe sartu zan eta itaune auxe egin eban: «I ibili aizan leku orretan, zelan esaten ñoek *Pedranton?*»

— An etxagok ez Pedrantonik ez Yataberik eta etxakiat nik.

Aren barreak! Onelantxe, gogaldi oneko ta goizari labur eritzita eldu ziran Begoñapeko baitegi Larrinagara. Pedranton, bera ikusita, len baiño asko illunago gelditu zan. Bidebarritik atarirako armailletan gora nekez, neke andiz eldu zan.

Baitegiko nagosiagana yoan zan Bekosolo, bakarrik lenengo, beste biakaz gero. Guztiz txeratsu artu ebazan nagosiak. Beste zerbaitz ganera, «Emen —esan eutsen—, emen bazkaria amabi amabietan emoten ñake baituai¹; zazpi zazpiretan aparria.»

— Nagosi jauna —esan eutsan Bekosolok—, bazkal apariak ostati bialduko dautseguz.

— Orretaraezkero ondoen ñatorken orduan eta orduetan.

Bekosolok berak lagun egin eutsen baitu barriai bear ebezan gauzak euren geletara eroaten. Agur egikeran, Pedrantonik samur-samurturik «Don José Andrés —esan eutsan—, nik berorren borondate on oni zelan erantzun dagikeot?»

— Pedranton, geiago al banegi, geiago egingo neuskezu ta pozik. Geroarte —esanda, ostatura yoan zan lenengo, bere maletatxoa an itzi ta Larrinagakoentzat bazkari ugari bat agintzera. Andik Santa Maria-kalerako bidea artu eban.

2

Goldarazek bere adiskide Bekosolo txeratsu artu ta beronegan-dik yakin eban Pedranton gizagaixoari laguntzat sakristau, besterik ez lango sakristau bat emon eutsela.

— Zein egunetan izango da gure auzia?

— Biar ezin dagikeela esan dauste ta guk astelenerarte itxaron bearko. Zer da egitea?

— Nik orain, ostatura yoanda, arentzat bazkaria agindu bear dot eta len bai len eroan dagiela. Iluntzean, eurakaz egon da gero, etorriko nakizu barriro, luzarotxoago egoteko.

Pozik idoro ebazan Bekosolok Larrinagako lagunak, arratsalde-

¹ (a los presos)

erdian ikustera agertu ekioenean. Ezeban Pedrantonek, gogaldia¹ argituteko, Anton Imazen kantarik bear izan, sartu-barria zan ta bazkari ona be bai ta. Bekosolo kalerako egoala baitegiko nagosia euren arteratu ñaken, sorta² bat eskuan ebala, eta itz ónek zuzendu eutsazan berari: «Zeurentzakoa dala uste dot Mungiatik oraintxe ekarri daben paper-pillo au. Ona azalean diñoana: *A don José Andrés Bekosolo, abogado defensor de Latsibi. Cárcel de Larrinaga. Bilbao. Eta beratxoago B.*»

— Egi egia, neuretzakoa da.

Zabaltzen egoan artean, azaleko béaldean *B* ikusita, irribarreko «Betiko gogaldi ona gure Arraitzek» ziñoan Bekosolok. Luzetxoa zan Begiren eskutitza ta baitegiko nagosia eurakaz an egoalako edo, ezeutsen ezer irakurri baituai. «Gorantzi andiak bioi emoteko diraut don Donatok. Ai aren biotza ta burua! Orain leiaz nago, asti gitxi daukat eta biar irakurriko dautsuet barruan diñoana. Anton Imaz, zuk Milango ta ango Erromako⁽¹⁾ barri bere badakizu ta Latsibiri esan egiozu alkarren antzik zetan edo atan etedauken angoak eta gureak, gure Erromatxok.»

Itzok entzunda gozaro barre egin eben barrukoak.

— Biarrarte e? Ta ondo lo egin.

— Bai berorrek be, don José Andrés.

Andik artez Santa Maria-kalera yo eban bere adiskide ta arazolagun Goldarazi bigarren ikustaldia egiteko. Ara eldu ta oi diran len-itzak alkarri esanda, poz-pozik irakurri ebazan Bekosolok eta poz pozik entzun Goldarazek eskutitz luze aren barriak. Asitik amaira auxe ziñoan: «Adiskide maite ta arazokide adoretzu Beko. Goizeon Anton Imaz ta zu gugandik alderatu zakiguzanean luzaro egon gara erromarrok alkarregaz, batak au, besteak ori, mamin andi bagako gauzatxoak esaten. Eta onetan geure arteko bati —«Arraitz bera izan edoda —esan eutsen (*sic*) irakurleak entzuleari, Bekosolok Goldarazi—. Beste bat izan balitz, aitatuko eustan bere izena» —eta onetan geure arteko bati auxe esatea otu ñako: «Denganiñadua! Eta Morroskok auzi-egunean, Treviñori berak egindako eskutitza gure Bekok erakutsi dagionean, *Ori ezta nire leträa* esan balegi, zetan gengokez gu? Ona, ondo baderitxazue, egin leditena: norbait, baia erromar agiria eztedila izan, norbait, emakumeren bat, Kartagora, Olaberen gozotegira, azukerrezaduak edo balioko beste zerbait erostera bialdu; ta polito polito, Morroskok Olaberi eskutitz asko zuzendu izango dautsaz aspaldion eta euretati

¹ (umorea)

² (pakete)

bat edo bi, gomutagarritzat, betiko ezpada be, eskatu dagiozala. An gengoan erromar guztiok gogo batez aintzat artu geuan asmo au. Ta orduan nik lagunai «Gizonak —esan neutsen—, Kartagorako mandataririk egokiena nor dan badakizue? Adona, Epikoren etseko andrea. Ta Adona ara bialdu dagikean egokiena, edo beintzat egoki bat, egokiagorik ezpada, nor dogula uste dozue?» Isilik apurtxo baten egonda *Neu* esan neutsen nik. Badakizue, gizonak, Epikoren *amilikolitis*, mozkor ederra, osatuteko erremedioa arenegun gauean emon neutsan nik Adonari ta guztiz eskertsu gelditu ekidan. Orain beragana noa barriro ta don Pedro Viñas osatu etedan itandu ta gero, eskerrik askoka ikusi dagidanean, nire emazte ta etsekoak arazoz beterik dagozala ta geure etserako azukerrezaduak eroatera bialdu ta begia lez ordu lauren barru eskuetan izango dodazala uste dot gure Morrosko ederrak Olaberi eginiko eskutiz bat edo beste. Barrez, badakizu, Beko, gu erromarrok, batzuk beintzat, diruz or or ibiliarren, barrez ugariak, aberatsak gara guztiok, eta barre zantzoka itxi nebazan lagunak.

Adona kokolo ikustera banoa artez ta aren eskerrak eta aren *Ai berorren biotza langorik!* esateak ezeuken amairik.

Ordu-lauren geroago *dran dran* gure etsean kisket-otsak.

— Nor da?

— Neu naz.

Adona zan izan be ta lau-bost paper Morroskoren eskutikoak, izen ta guztikoak ekarstazan. Emazteari esan dautsat Adonari azukarillo bi edo iruz ardao zuria edo olango zerbait gozatu ta pastel ta guzti gosaritzo bat emoteko. Ta gero ni tipi-tapa tipi-tapa Erromara. Gure lagunen poza ta atsegiña! Beste zelan esango dot? Aren zoraldia, papertxo ónek ikusita! Or doatsuez guztiok, Beko. Goldaraz jaunari gorantzi andiak emonaz ganera, erakutsi egiozuz ta or konpon, Mari Anton.

Biotz-biotzez zeurea ta zeuona (2)

Begi

Barrukoai be gorantzi andi-andiak emon.»

Irakurraldia amaitu zanean, Goldarazek «Bene-benetan biotz andikoa ta burutsua da ori egin dauena —esan eban—. Ederto datorriguz paperok. Bialdu dauskuzanari gorantziz ganera egin daben lan eder orren alderako neure atsegina erakutsi ta gero etzi arratsaldean, astirik badau, onantzalditxo bat berak egitea egoki litzakigula esan egiozu.»

Andik ostatura yoan zan Bekosolo. Lenengo egin ebana barrukoentzat aparria Larrinagara eroan egiela esatea izan zan. Gero ordu ta erdi baiño luzarago bere adiskide maite Arraitz, Sagasti edo Be-

giri eskutitz luuuuuz bat idatzi eutsan. Baitegiko bai nagosi ta bai barrukoan barriak zeatz ta meatz emondakoan, Goldarazegazko ikustaldi biak eta bere eskutitz eder ta asmo egokiak biai eginiko zauzkada ederra ta bien atsegiña erakutsi ta erromarrentzat gorantzi andiak... eta abar.

Apalordua ia amarretan izan eban.

3

Biaramongo ordurik geienak Larrinagan igaro ebazan Bekosolok. Guztiz asko poztu ziran barrukoak Begiren asmo ederra zê ta mē erakutsi eutsenean eta batez be don Donato igande-arratsaldean an izango ebela yakindakoan.

Erromarren gudaiburua bazkalostean Lejarzegi sendalariaren etsera yoan zan lenengo, bera Bilbon zan artean bere ordezeko izan zedin, eta, lagunakaz Erroman kafea artu ta gero, Periko azpiko lagun ebala, Bilborantz ibiltzen asi zan.

Larrinagako baitegira yoan zan lenengo. Barruko biak eta Bekosolok egin eutsen arrera txeratsua ezta esatekoa. Ordu bi edo geiago an igaro ebazan. Amaika barre egin eben Adonaren etseko bere ikustaldiaren barri emon eutsenean! Etorri andikoa zan Begi lagun-arteko autuetan. Arratsalde aretan, eskerrak sei minuturik sei minutu biztu ebazan zigarrotxoai, bestela etentzaka ekingo eutsan bere izmitz-aldiari.

Alango baten Bekosolok «Arraitz —esan eutsan—, onezkero luze deritxola daukagu Goldaraz ta biar be Jaungoikoak argi egingo dau ta goazan.»

—Biar? Biarko eguna? Batzuntzat argia, beste batzuntzat illuna. Pedrantonek eta Anton Imazek gogo onez itxiko dautse euren leku-txo ori Morrosko ta Epikori. Ezta egia, gizonak?

Alkarri gozaro agur ta agur eginda, Zabalbiden bêra San Anton-go eliza-ondora ta andik kale-artean sartuta, laster yo eban Santa Maria-kaleko bostgarren etsera. Etorritsuena orduan be Begi izan zan, isilena Bekosolo. Goldarazek lege ta legegizon batzun barriak emon eutsezan, magistradu-artean urliak au uste ebala, Berendiak ori zinoala. Urrengo barri auxe izan zan ardurazkoena: «Gernikan maipuruko izan zenduen magistradua berbera izango da biar emengo maipuruko. Atzo egon nintzan beragaz auzi-etsean eta auxe esan eustan: “An, Gernikan, yazo zanz erre-ta nago. Mungiar orrek bular sendoegiak daukez. An atara ebezan zarata, burrundara ta iskanbillak! Biar, entzun au ondo, gizo-

nak, biar ezagun-ezagun batzuk izan ezik, arrotzik¹ iñor be ezta gure auzitegian sartuko.»»

— Orretaraezkero —esan eban Begik— edo neu noa lagunai ez etorteko esatera, edo emen bizi dan txorierritarren bat, neure Periko lagun dabela, bialduko dot bertara.

— Orixe gauzarik onena. Zeu yoateari ezteritxot ondo. Non bizi eteda San Agustingo gelunean ogipeko² dagoan laukariztarra?

— Bere izena zelan da?— itandu eutsan Bekosolok.

— Ezizena badakit. Laubegi esaten geutsan Mungiako gelunean egoanean. Ziriako Gondra etedan nago. Bai, Ziriako Gondra.

— Ta ona zelan ekarteko?

— Apalduta gero, ostatura orduko, neu yoango naiz bertara. Beste gauzatxo bat orain, don Andres Goldaraz. Zuk emen baetedagazuz bi-iru eskola-maisu zuzen eta argi?

— Zetarako gura dozuz maisuok?

— Auzi-bitartean ikerle edo peritu izan dakiguzan; Bekosolok Morroskoren eskuzko paperak agertueran «Esku batek eginak dira» esan dagian.

— Ederto esana, don Donato Arraitz —ganeratu eban Goldarazek—. Euren inspektorea nor dan badakit. Artu-emon andirik eztaukat beragaz, baiña non bizi dan badakit eta tarjetatxo bat oraintxe bialduko dausat.

Mai-ganeko tirrinari ots eraginda, neskato bat agertu zanean, «Katalin —esan eutsan ugazabak—, eroazu tarjetatxo au Camino jaunaren etsera. Ortxe azalean diño non bizi dan. Itandu egiozu bera ona etorriko dan ala neu bertara yoatea gurago daben. Bera etorriko dala badiño, gure artera ekarri бага, etsarira³ eroango dozu. Bizkor ibili.»

Begi, Anton Imazen arako Burdeoson orfeonista zanekeo barri gozoak emoten ziarduala, Camino jauna etsarian egoala esatera sartu ñaken Katalin otseña. Berealaxe yoan zan Goldaraz beragana. Amar bat minutu igarota euren urratsak⁴ eta alkarri egindako agurak entzun ebezan gure mungiarrak.

Goldarazek lagunai, arpegia argi-argi ebala, esan eutsen: «*Inspector* yaunak baietz diñost, biar goizean eskolarako ordua baiño lentxoago iru maisuri auzitara yoatea aginduko dautsela. A! Ta beste gauza bat orain. Nor dala esan daustazue len arako ostatari, Epikok Pedranton ta aita mozkortu ebazan etsearen yaubea?»

¹ (kanpotarrik)

² (estazinoan enpleadu)

³ (salara)

⁴ (pausuak)

- Sodupe, Gernikan entzute andikoa.
- Biarko auzitara ekarriko dozuela uste dot.
- Ezkenduke besterik bear! Geure aldeko aldungai batek bera-gaz ekarriko dau, Badiolak.

Oharrak:

- (¹) Orij. «Erromarako».
- (²) Orijinalean ez da bape argi ikusten «zeuena» ala «zeuona» ipintzen dauen.



XXXV. Erroma garailari

1. Bilboko auzitegian.
2. Bekosoloren itzaldia ta Torrealdearen eskutiz batzuk.
3. Garaipenaren ondoko atsekabea.
4. Bigarren auteskundea Yataben.

1

Urrengo eguna, Begiren eritxian «Batzuntzat argia, bestêntzat illuna» eldu zan noizbait. Auzitetsea, goi ta be, mailladi ta atari, gizonetz yosita egoan. Bera datzan kalean, Maria Muñoz-kalean, berreun lagun gitxienez adi-adi egozan, auzia noiz asiko ta atarian sartu nai ta sartu ezinik. Kartagoarrik batu zan, uf! eta ez gorengoak soilik; Epiko ta Treviño, Floren Andraka ta aita, Olabe ta Arandui ta beste onelango entzutetsuen ganera, uri ta uriauzoko lagun-abarrekotan asko egoan. Erromarrik barriz bi, ez geiago: Begi ta Anton Imaz. Eurok ain urri ikusita «Auzi au galduta daukena ortxe da ezagun. Lurpera doa gaur Erroma» ta beste onelangoxe kukurruku-antzeko esakizun batzuk ezpan askotatik aizea artu eben.

Onetan goiko leio batetik, txilintxo bati ots eraginda gero, bronzezko ale edo botoidun gizon batek paper bat irakurriaz «Jaunak —esan eutsen kalekoai—, maipuruko magistradu jaunak, auzitegia kazkarra dalako, erabagi auxe artu dau: aldungei bakoitzak lagun bi ekarri dagikezala barrura, ez geiago. Aiderik be, urko-urkoren bat edo beste; guraso, anai, arreba izan ezik, besterik iñor be ez. Aldungai bakoitzak lagun bi.»

Beste onenbeste irakurri eban txilindunak mailladietan. Lur yota gelditu ziran Mungia ta inguruetatik ara yo eben gizonik geien geienak. Auzitegia zabaldu ebenean, Begi ta Anton Imaz lagun ebazala sartu zan Bekosolo, Gernikako aldungei Badiola, Sodupe ostataria ta beste gizon bat ezker-eskuman artuta. Morroskok batari ta besteari bultz eginda, Floren Andraka yarri ñakon. «Floren, parkatu» esan eutsan Morroskok. Kartago-yaubea, toki goratsu ta de-

duzko a berari baiño besteri ezegokiola uste izanik, Florenen ordeztatu zan. «Olabe, parkatu zuk be. Treviñorentzat daukat leku ori. Maisua izanez ganera, beronen eritxiak Viñasek eta nik...»

Ezeutsen besteak amaitzeko astirik emon. Bai Floren ta bai Olabe suak artuta yoan ziran ataritik kalera, kaletik Atxuriko korta batera ta andik euren zalkurdietan Mungiara. Florenek, diñoenez, zazpi bidar gitxienez aitaren belarrietan itz bi onek «*Gora Bekosolo*» sartu eiebazan.

Morroskoren anai ta arreba bat osaba don Anbrus erdian ebela agertu ziranean «Eta Teresa?» itandu eutsen Epikok.

— Buruko arina edo onelango ondoeztxoren bat daukala ta ez-tatorrela esan dausku.

Bere aizta gaztenari «Epiko Txotxolo ez ikustearren etsean geratu gura dot» esan eutsan Tetek. Aiztatxoa etzan baia au autortzen azartu.

Auzitegia amarrak baino lentxoago zabaldu eben. Orduko, tribunalararen bêaldeko aulki baten, burua makur makur ebala, Pedranton Latsibi gizagaixoa yesarrita egoan. Bere goiko aldean, mai txiki baten ondoan, eukan Bekosolok bere aulkia ta haria¹ gizonez bete baiño lentxoago an agertu zan paper-pillo andi bat eskuetan ebala. Maipurua magistraduz ta legegizonez bete zanean, erdikoak tilin-tilin yo ta egun atako auzia zetarakoa zan aitatu ta gero, *Tiene la palabra su defensor*² esan eban.

2

Bekosolo, lendanik dakigunez, lagun-artean etzan barritsua urretan be. Goiz atan ostera beste bat zirudian. Luzaro ekin eutsan arloari. Bere itzaldi luzea labur, alik laburren, yakin eragingo da emen.

«*Lenengo gaia*. Pedro Viñas y Andres jauna izan zan, ez Pedranton Latsibi, autagiria aizundu ebana³. Goizean Larrinagako baitegian Latsibik utsik itxiko daben gela iluna Viñas y Andresek bete bearko dau, eta nok daki besteren batek lagun egin bear izango eztautsan?»

Entzule ziran amar edo amabi ezker-aldekoak isil-arazteko sarri ots eragin bear izan eutsan maipuruko magistraduak eskuetako txilintxoari.

¹ (saläa)

² (bere gordetzaileak itz egin dagike)

³ (quien falsificó el acta electoral)

«Ona emen nire eritxi gogor onen argibideak —esan eban Bekosolok—. Aizunketa ori Gernikan, Sodupe jaunaren ostatuan yazo zan.»

Eta gero bere agotsa¹ puxka bat gozatuaz eta Badiola aldun-gaiak alboan eukan lagunari begira-begira egoala, «Sodupe jauna —esan eban—, erdu onantzago, mesedez, tribunalekoak zure itzak obeto entzun dagiezan, eta nik egingo dautsudazan itaune batzuri argi ta garbi erantzun egiezu. Baina lenengo ta bein maipuruko jaunari, oi danez, eskari bat egin bear dautsat.

Yauna, onelango auzietan albotiko edo testigutzat agertzen diran guztiak zin² bat egiten dabe beste edozer baiño lenago. Zin dagiala Sodupek nire itauneai egi-egiaz erantzungo dautsela.»

Maipurukoaren esanez, kurtze andi bati begira Sodupek zin egin ebanean, itaune auxe zuzendu eutsan izlariak: «Lengo eguenean, zure etsean, Pedro Viñas deritxon jaun onek nortzukaz izan eban aparria?»

—Ortxe dagoan gizon orregaz— Pedranton Latsibiren aldera luzatu eban eskua au esaeran— eta beste aguratxo bategaz.

— Beronen aita zan a. — Begiren itaunea—. Apaltzen asi ta laster Viñas jauna eskaratzera zeugana yoanda, zer eragin eutsun?

— Maitik ardaodun botella bi berorrek ekarrita, biai kortxoa kendu ta pitxar andi batera botau³ eban bien barruko guztia jaun orrek berorrek. Alkohol botella bat eskatu eustan gero. Ekarrri neutsan eta berorrek, ni arrituta nengoala, ardaodun pitxarrean ustua eban alkohol-bonbiltxoa.

Barriro zarata andiak atara ebezan entzule askok eta maipurukoak txilin-oska luzarotxo yardun eban.

— Zetarako gura eban Viñas jaun orrek pitxarreko ardao alko-holez nastaua?

— Pitxar ondo betea berorrek eroan eban maira ta bein batari ta bein besteari edan eragin eutsen. Ordu erdi igaro zaneko ordi ordirik egozan aita- seme gizagaixoak.

Pedranton negarrez ta inkesaka asi zan, burua len baiño be makurrago ebala. Bere erruki ziran auzitegiko geienak. Kartagoar batzuk be bai.

— Latsibi aita- seme dedu-deduzko uritarrak (*los honradísimos ciudadanos* izan zan Bekosoloren esakera suzkoa) Viñas y Andres onek orditu ebazanean, zer eragin eutsen?

¹ (la voz)

² (yuramentu)

³ (egotzi)

— Lenengo, *Peru Dubako* kantau eragin eutsan semeari.

— Ta gero azkenean, zer?

— Kolkotik autagiria¹ atara eragin eutsan. Neugana etorri zan gero berori tinta ta luma² billa. Ni orduan zer yazoko etezan ikusgu-raz, beitzen ganean ibilita, euren ondoko gela baten sartu nintzan ta begiak zabal-zabal nebazala eurai begira nengoan.

— Eta zer ikusi zenduan, Sodupe?

— Or daukagun gizon ori — len baiño be negar geiago ta inkesa andiagoak Pedrantonek — eskuan luma³ bat ebala, paperean zerbait egiten asi zan, or dagoan gizon gazte orrek — Epikogaitik ziñoan au — eskutik oratuten eutsala.

Gernikako udaletsean ezeben aurreko egunean erakori⁴ an yaso zan baiño burrundara andiagorik. Maipurukoak txilin-oska luzaro ekin bear izan eban.

— *Bigarren gaia*. Len esan dautsuet, Viñas jaun oni Larrinagara doanean, txarto esan dot, gizonak, Larrinagara daroenean, eztala bakar izango, besteren batek lagun egingo etedautsalakoa uste izan dagike. Orain dirautsuet Viñasen lagun au don Tomas Torrealdea Isasti izango dala.

Ango gizonen deadar, emakumên txilio ta guztien ostiko-otsak! Morroskok Treviñoren ordez Floren Andraka laguntzat artu baleu, bildur bear. Egin, eztakigu gauza oker andirik egingo eban, baia esan! Ama maitea! Zer ezaban ak agotik, Bekosolori batean eta beste Begiri begira egokiela, atarako!

Puskatxo bat auzi-ekaitz au baretu zanean Bekosolok, maigane-ko paperak eskuan artuta, bete baiizen artetsu bere adorea eukala, itz onek ezpanetaratu ebazan: «Nire eritzi gogor onen argibideak ementxe daukadaz, esku onetako paperetan. Orain irakurriko do- dan eskutitz au nok egina dan azkenean yakingo dozue. Ona emen asitik amaira, ta letra bakar bat ez geitu ez gitxitu bage, beronen itz guztiak. Entzungo dozuenez gaur zortzi idatzirikoa da:

«Gernikatik 6garren eguna, IVgarren illa, 1890garren urtea.

Pedro Viñas de Andrés jaunari. Adiskide ta erdi anai Periko: Gure azkuzian⁵ laster sartzeko agoan orrek pozik uste doat beteko doala etseko guztiok, batez be ire emaztegai Tetek, gura doagun gauzatxo bat. Yoan adi len bai len, arratsalde onetantxe, biarko itzi

¹ (acta electoral)

² (idaztortz)

³ (idaztortz)

⁴ (goratu)

⁵ (familiar)

bagerik, Yatabeko Latsibi deritxon geure etse batera. Aita-semeai esan egioek, semea Yatabeko alkate dana badakik, gure osaba don Anbrosiok aspaldion izan dabela euren gurari andi bat beteteko gogo. Baiña egun onetako arantz-onantzak eztautse orretarako astirik emon. Gaur ordu batzuk barru Mungiako mediku argi don Pedro Viñas de Andresegaz yoan dadizala Gernikara ta angoxe eskribau baten aurrean merke salduko dautsela eurok bizi diran etse ori. Eurok gura badaue, gaur *Latsibi latsibitarrentzat* izango da.

Ire adiskide ta erdi anai ta oso maite auena —urrengo itzetako egilearen izena irakurri-aurrean, alde batera ta bestera begiratu eban Bekosolok. Geienak burua makurrik eta begiak azalpean ebezala ikusita, bigarrenez lengo itz onek irakurri eutsezan — Ire adiskide ta erdi-anai ta *oso* maite auena. Tomas Torrealdea Isasti»

Zurumuru luze baten ostean, onelan zerraion Bekosolok bere arloari: «Eskutitz onen azalak¹ itz onek darakuskuz:

Urgentísimo

Sr. D. Pedro Viñas y Andres, Médico titular

En casa de Doña Abdona

Munguia»

Morroskok urduritasun anditan ezkerreko lagunari besotik oratuta «Zeuk saldu nauzu ni, Treviño» esan eutsan.

— Nik zu saldu?

— Bai, zeuk. Gau atantxe, baserritar biak Yatabera eroatorduan Perikok burua galduta eukala ikusi nebanean, kotxeruari zuretzat eskutitz labur labur bat emon neutsan, Adonaren etsera yoan ta *Urgentísimo*-dun nire eskutitz ori zeuk urratu zegiala esanaz.

— Nik zure eskutitzik ezneban artu.

— Artu ta ganera erantzun be egin zeustan ugerdo orrek.

— Niiiiik! Ezegidazu, Torrealdea, odola sutu, bestela...

— Eta erantzun be egin zeustan, itz ónek zeure eskuz idatzita: *Al Sr. Diputado Torrealdea. La rasgué. O.*

Maipurukoa txilinketan asi baiño lentxoago batzarkide askok *Ix.x.x* egin eben. Begi, adurra eriola, poz-pozik egoan kartagoar asarratuai begira. Isiltasuna egin zanean, Bekosolok onelantxe yarraitu eutsan bere arloari:

— Jaunak, irakurria baiño mamintsuago da irakurtekoa. Azal onen barruan beste eskutitz labur mamintsu bat bizi da. Esku batek eginak dira lengo ori ta oraingo au. Ondo aztertuezkero, eskutitzizena baiño obeto datorkio lengo eskutitzaren *post data* edo *post*

¹ (sobreak)

scriptum edo onetxen antzeko izenen bat. Auxe dino beronek: «Beste zerbait, Periko. Bigarren papertxo au ezegioek baserritar orrei erakutsi. Gernikan Latsibi euron eskuetan itzi dagigunean, eu yoango aiz eurokaz ostatu batera. Alkarregaz irurok, beste maikide bage, apaldueran, euk «Mediku batek onelango gauzak nik baiño obeto ñakizak-eta» —urrengo itzok gogor-gogor irakurri ebazan Bekosolok— euk, zelanbait ardaoa gogortu ta indarturik, ordituko dozak gizonok eta Yatabeko auteskunde-agiria aizunduta¹, geure aldera ekarri dagiela. Autagiria idatzi daben eskuak berak ezarri bear dau 8-ren aurrean 6 eta 84-ren ordez 24. Ik gero juezaren eskuetara eroango dok autagiri aldatua eta *Gora Kartago!*

Beti beti irea ta ire Tete emaztegai maitearen neba Tomas.» Nik ezer esan ezpaneusk be, igarriko euan, Periko, eskutitz txiki bigarren au iñori etxakola erakutsi bear, Treviñori berari be ez, ezta Arangoitiren emazte Andra Isidora Hayedori be.

Morroskok orduan, zurbil-zurbil arpegia eukala, eztakigu zeinek bultz eginda, Epikok ala Treviñok, zutundu ta, gogor-samar Bekosolori «Guzurrezkoak dira paper orrek, guzur guzur-guzurrezkoak —esan eutsan—. Albotiko ekarri dozunen batek eginak edo.»

Begi, azken-itzok entzunda, sugelindara bat ormazuloren bategatik eguzki-egunetan goratzen dan baizen bizkor zutundu ta Morroskori, beso ta eskuak zabalik eukazala, itz gogor auek zuzendu eutsazan:

—Entzun doguzan gaiztakeri orrek nik asmau dodazala! Laster ikusiko dozue guzurti nor dan, papu nor dan eta baitegira nor eta nortzuk eroanak izan bear daben.

Txalorik gitxi, baiña iraunik, deadarrik eta zaratarik len baiño be luze ta gogorragoak ots egin eben auzitegiaren alde geienetan. Deadartiak nekatu ziranean, Bekosolok beste paper batzuk azal-barurutik atara ta «Maipuruko jauna —esan eban—, onelango zerbait yazo bear ebal aurretiaz igarrita, iru eskola-maisu ekarri dodaz auzi onetara, euron nagosiaren baimenaz. Nik len irakurri dodazan paper biak eta orain irakurteko bi edo irurok *esku batek eginak diran ala eztiran* —gogortxo ebagi ebazan ezpanetan sei itz ónek— iru maisu ikerle azturatsuok² esango dauskue. Eta orduan itsuak eurak guzurti nor dan ta nor eztan ikusi al izango dabe.»

Ango zarata gortugarriak! Maipurukoak, beste ezetara isilarazo ezin ebazanean, zutunik egoala «Jaunak —esan eutsen zarata-tsua—, zuok baketuteko arazoa gudamutillen batzuri emongo ete-deutset? Eznagizue, arren!, ori egitera beartu.»

¹ (falsificada el acta electoral)

² (peritos experimentados)

Bekosolok, bakea zelanbait egin zanean, «Torrealdea Isastik eginak dira esku-artean daukadazan beste eskutitz ónek be —esan eban—. Mungiaiko gozogin Simon Olaberi zuzenduak dira irurak. Lenengoak auxe dino: «Bilbotik 1890(garren urteko) V (Maiatzaren) 24 (garren egunean). Adiskide ta gogaide Olabe: Atekabe andia emon dautse nire osaba maite, Mungia-aldeko ongille andi dozuenari, zuk gure Kartagon, zure denda-ostean esan eidozuzan itz batzuk; eta ez beroni bakarrik, baita *El Rásimo*-ko beste gizon argitsu batzuri be zauskada andia egin dautse. Zeure zalkurdian gu orra ta ona erabilia irabazi dozuzan diruak oraindiño eskuetaratu eztautsuezalako, orain politikan etzarala ezer, kartagoar agirienen artean esan eidozu dirua artuta kartagoar izango zauguzala. Orrelango itzik zerbait dan gizonek ezleukez esan bear...» —Bekosolok, papera berátuta— Eta gatz andi bageko beste lerro batzuren bêaldean itz onek dakuskuz —esan eban—: «Zuen aldungai Torrealdea Isasti.»

Irakiten eukan Morroskok barrua ta urduri ebillen batean Epikori, bestean Treviñori, zerbait esaten.

—Bigarren eskutitz au Olaberi berari aste bete geroago zuzendua da —ganeratu eban Bekosolok—. «Adiskide ta gogaide Olabe —dirautso bigarren onetan be—. Arrituta gagoz emen zugaz. Dirua, zor geutsun dirua artzeko ain estu zengozan ori etzara arean nasaitu dirua artu ta gero. Ondo izango da len bai len ganezka artu dozun orren agiria¹ *El Rásimora* bialdutea. Onezaz ganera zorionak Larraurín egin dozun diskurtsua dala-ta, neure zorionak erakutsi gura dautsudaz. Zuk zure izeko, arako Urbana entzutetsua aitatu zenduanean, negarrez asita, entzuleai be negar eragin eizeutsen.

Urte askotan
Zuen aldungai
Torrealdea Isasti»

Naikoa dala uste dot, jaunak —esan eban Bekosolok—, guzurrak zeintzuk ezpanetan datzazan yakiteko.

Maipuruko yauna, len aitatu dodazan iru eskola-maisu argiok ikertu dagiezala, arren! lau irakurkizunok eta gero betor Legearen arauzko erabagia. —Maisuak maipurura igonda, paperok irakurritakoan, batzar zuzentzaileak «Jaunak —esan eban—, auzia eten bear dogu, gero epaia emoteko²».

Ordu-erdi bat geroago arriturik gelditu ziran goiz atan auzitegian baturiko guztiak, geienak atsakabe andiz, epaiaren barri emon

¹ (erreziboa)

² (*Se suspende el pleito para sentencia*)

ekioenean: «Pedro Antonio Latsibi Unibaso yara¹ gelditzen da ta bere ordez Pedro Viñas y Andrés eta Tomas Torrealdea Isasti eroan-
nak izango dira Larrinagako baitegira.»

3

Bilbon etzan egun áretan mungiarren auzia baiño beste autu ya-
kingarririk erabili. *El Rásimoko* bazkide guztiak don Tito Olabarri-
ren langelan batu ziran eta beste zerbaiten ganera Sagastari, Sagasta
zan orduko ministroen buru-ta, telegrama luze gogor bat bidaltzea
erabagi eben.

Bekosolo epai-ondoan kaleratu zanean, Begik besarkada andi
bat eta agoan, gure artean ikusten eztana, agoan mosu emonda «Zu
etzara Jose Andres —esan eutsan—, Juan Krisostomo Bekosolo,
urrezko agoduna, zara zu.»

Kale atakoxe ostatu baten izan eben Mungiako erromarrok
euren bazkaria. Etsera-bidea arratsaldean artu eben, su-ziri batzuk²
nonbait orduko erosita. Mungiara eldueran, «pli pla» oska erabile-
zan suziriok, eta ez Begiren ez Bekosoloren etsean gelditu bage, zal-
kurdian bertan Yataberako bidea artu eben, Pedranton bere yaiotu-
ritxoan garailari-antzerá artua izan zedin. Eta orduan be ta
Mungiako sarrerán baiño sarriago³ pliplakada asko eragin eutsen
Bilbotik ekarrezan ziritxoai. Udaletse-ondora eldueran, euren eza-
gun ta adiskide andi elizgizon bik bidera urten eutsen, Gatikako don
Blas ta Yatabeko don Emeteriok; baiña atsekabez ta irribarrerik
egiten ezebela, biak.

Ain illun ikusi ebezanean, zalkurditik yatsi ziraneke, barri txar-
ren bat etekarren itandu eutsen elizgizonai bideztiak. «Santi Latsi-
bi gizagaixoa arratsaldeon il da.»

—Zelan yazo ñako ori?

—Atzo, badakizue —esan eutsen Gatikako elizburuak—, ilaren
irugarren domeka guztietan lez, Bilbotik arakin⁴ askok yo eben
Mungiako eriará, idi ta bei ta txal eroatera, ta eurak zabaldu eben
azokan Pedranton Latsibi Bilbon baituta egoan barria. An egozan
yatabetar batzuk, iluntzean etseetaratu ziranean, batak or, bestek
emen, barri txar ori zabaldua, latsibitarren belarrietara eldu zan.
Santi gizagaixoa, asko bear ez, ta aldigaizto batek artu eban, biotze-

¹ (libre)

² (cohetes)

³ (zarratuago)

⁴ (karnazeru)

ra yo eutsan geroago ta gauerdia baiño lentxoago don Emeteriok elizakoak eragin eutsazan.

— Antxe, Latsibin, gau guztia igaro dot — generatu eban Emeterio Barturen jaunak —. Santu bat legetxez arrastiko iru ta erdiak-laurak bitartean il da gizagaixoa.

Au entzun eta bere seme Pedranton matrailletan bêra negar-mal-ko andiak eriozala gelditu zan.

Ne recorderis deritxon errespontsua esan eban orduan parrokuak. «Goazan guztiok Latsibira» Bekosolok esanda, an yoazan oinez, elizgizon biakaz batera, Pedranton, Bekosolo, Begi ta Anton Imaz.

Biaramonean amarretan izan ziran elizkariak eta elizkari-ostean gorpu-lorra. Inoiz ezeida Yatabeko elizan orduko beste gizaki¹ batu, ezta misinoetan be. Mungia erdia an zan goiz atan. Kartagoarrak eurak, Treviño ez besteak, araxe yo eben: Arangoiti ta Busturi, Andraka aita-semeak, Olabe, Arandui, nor ezegoan bertan? Eurak ikusita Begik lagunai «Santi Latsibik beragaz daroa gaur Kartago beste mundura» esan eutsen.

— Amen Jesus —erantzun eutsan Lejartzegik—. Eta, gizonak, Erroma be beragaz baleroa, ezer galduko etegeuke mungiarrok?

Inor etzan Lejartzegi zarrari ezer erantzuten azartu.

4

Egun bi geroago izan zan Yataben bigarren auteskundea. Autarkidun² bakar batek ezeban emon egun atan Morrosko ta lagunen alde bere botoa. Ta urrengo lau urtetarako Gernika-Bermeo-Mungia-ko alduntzat³ Antzora, Badiola ta Bekosolo izan ziran autatuak.

LAUS DEO.

¹ (persona)

² (elektore)

³ (diputadutzat)



Aurkibidea

| | |
|---|-------|
| Arejita, Adolfo : Aurkezpen gisa | VII |
| Villasante, Luis : Hitzaurrea..... | IX |
| Olano, Karmele : R.M. Azkue eta bere obraz zertxobait | XV |
| Alberdi, Mirari : Argitalpenaren prestakuntza | XXVII |
| Azkue, R.M. : Hitzaurrea eta oharrak | 1 |

LATSIBI

| | |
|--|----|
| I. <i>Latsibi latsibitarrentzat.</i> 1. Santi Latsibi bidez. 2. Sondikan eta Artxandan. 3. Bilbon | 11 |
| II. <i>Santiren ibilerak Bilbon.</i> 1. Don Anbrusenean. 2. Mungiara bidean..... | 18 |
| III. <i>Erromarrak Mungian.</i> 1. Antxinako ta Mungiako Erroma ta Kartago. 2. Gudalburu ta gudari agirie- nak..... | 25 |
| IV. <i>Mungiako kartagoarrak.</i> 1. Lenengo batzarra. 2. Erromarrak estu | 31 |
| V. <i>Jauntxoa ta bere ingurukoak.</i> 1. Tete ta Toto. 2. <i>El Rásimo</i> -ko maipuruan don Anbrus | 36 |
| VI. <i>Maipurutik... maipurura.</i> 1. Tete zurikatzaile. 2. Toto egur-duin. 3. Busturiren egitamua..... | 43 |
| VII. <i>Lenengo guduxkak urian.</i> 1. Jauntxoa Mungian. 2. Arangoitireneko batzarra. 3. Izlari ta yardun- asmoa | 49 |
| VIII. <i>Kartagoarrak Kartagon. Asmoa asmo-ganean</i> | 58 |
| IX. <i>Lenengo guduxkak aldaurietan.</i> 1. Yatabera bidean. 2. Luze eritxita. 3. Don Anbrusen yarduna. 4. Iruskinak | 63 |
| X. <i>Indar barriak artuta.</i> 1. Jauntxoa birbizturik. Agin- bako agindun? 2. Morrosko ta Perico Viñas. 3. Viñas idazten. 4. Gatican ta Laukarizen | 76 |

| | | |
|--------|---|-----|
| XI. | <i>El Eco de Vizcaya Mungian.</i> 1. Begiri Viñasek aupadäa. 2. Erromarrak bildurraren. 3. Begi ta Anton Imaz uriauzoetan. 4. Erroman adore geitxoago ... | 88 |
| XII. | <i>Izurria Mungian.</i> 1. Izlari-izurria. 2. Kartagoarren batzarra | 96 |
| XIII. | <i>Estu ta nasai.</i> 1. Busturi estu. 2. Begi eztitan. 3. Epiko jauntxoaren billa..... | 103 |
| XIV. | <i>Casus belli.</i> 1. Aginbako ta Epiko Busturirenera. 2. Ikustaldi iruskintsua. 3. Aginbako ta laguna Kartagora | 113 |
| XV. | <i>Bidaldi bat.</i> 1. Santi Latsibi, Likanora ta Manuko bidez. 2. Begi eurakaz. 3. Baparri-biparri. 4. Itxasoaren aurrean. 5. Gaztelugatxen..... | 122 |
| XVI. | <i>Liberal, demócrata, incondisional.</i> 1. Floren Andraka ta Meñakako itzaldia. 2. Latsibitarrak bere zalakurdian. 3. Gorri, gorri min ta gorri iluna | 133 |
| XVII. | <i>Epiko ta Jupiter ta erube sapaburuak.</i> 1. Epikoren metamorfosis. 2. Andra Isidora ta Epiko. 3. Morroskok Epikori. 4. Arangoitireneko bazkari bat .. | 142 |
| XVIII. | <i>Felipetxu aldarrika.</i> 1. Felipetxu nor zan. 2. Izurria zabalago. 3. <i>¿Dove é il vostro cuore?</i> | 153 |
| XIX. | <i>Epikoren eskutitzak.</i> 1. Aginbako, Morrosko ta Teteri. 2. Eskutitz onen atzea | 157 |
| XX. | <i>Epiko ta adierazlea.</i> 1. Itz ebakeräa. 2. Atz-begiak. 3. Eskuketäa. 4. Berotasuna. 5. Adierazlearen arazoa..... | 162 |
| XXI. | <i>Izkaldi-aurrean.</i> 1. Izlariak euren albotikoakaz udalitsean. 2. A zan gizontza bat! 3. Jauntxoa ta Morrosko izkaldira | 169 |
| XXII. | <i>Izkaldia.</i> 1. Alderdi bietako agirienak. 2. Zantzolariak eta alkatea. 3. Begiren itzaldia. 4. Etenaldiak | 180 |
| XXIII. | <i>Izkaldiaren yerraipena.</i> 1. Epiko izlari ta Ereñozi adierazle. 2. Arangoitiren etenaldia. 3. <i>Un combate épico</i> -ren atzeak | 189 |
| XXIV. | <i>Izkaldi-ostean.</i> 1. Arangoitiren beste asmo bat. 2. Kartagoarren iruskinak. 3. Erriarenak..... | 197 |
| XXV. | <i>Izkaldi-osteragoan.</i> 1. Mungiako eskutitza. 2. Anton Imazen yarduna. 3. Begi Bilbon. 4. Begi ta Arangoiti | 204 |
| XXVI. | <i>Kartagoarren makurraldia.</i> 1. Begiren erantzuna ta Aikoren <i>Gora Bekosolo</i> . 2. Apatxaldia. 3. Jauntxoa ta Morrosko Mungiaira | 216 |
| XXVII. | <i>Irakiten erria, su bagarik.</i> 1. Anton Imaz ta oiulari batzuk txakalakortan. 2. Zabaleta eta Larrinoa | |

| | | |
|---------|--|-----|
| | udaletsean. 3. Lamiaranen ostatuko batzarra. 4. Ingenieru barri bitzuk | 225 |
| XXVIII. | <i>Aukera-eguna.</i> 1. Yata-ganera. 2. Aukerako barri batzuk. 3. Etorkizunerako asmoak | 237 |
| XXIX. | <i>Erromarren garaipena.</i> 1. Epikoren zemaia. 2. Garailarien asmoak. 3. Azpiratuenak. 4. Tete ta Epiko. 5. Morroskoren eskutitz bat | 250 |
| XXX. | <i>Apari bat.</i> 1. Laukinizko bertsolaria. 2. Gure base-rritarra ta pintore batzuk. 3. Edatitzak. 4. Bigarren Perico. 5. <i>Voi che ni notte andaaate</i> | 259 |
| XXXI. | <i>Latsibi latsibitarrena.</i> 1. Aginbako, Morrosko ta latsibitarrak eskribau batenean. 2. Onek eta Epiko ostatuan. 3. Autagiria aizunduta. 4. Treviñori Torrealdeak eskutitz bat | 269 |
| XXXII. | <i>Gau utsez.</i> 1. Begi Gondramenditurik. 2. Bei Epikoren paper artean. 3. Guzur-urtika. 4. Erromarren batzarra. 5. Gizaburuaga ta Yatabe | 278 |
| XXXIII. | <i>Auteskundearen atzea.</i> 1. Gernikako udaletsean. 2. Legegizon entzutetsu baten burubidea. Epiko axe entzun nairik. 3. Pedranton Latsibigana erromar bi Yatabera. 4. Pedrantonen baitegi-laguna .. | 288 |
| XXXIV. | <i>Latsibitarrak estu ta larri.</i> 1. Pedranton baitegian. 2. Begiren asmo bat. 3. Begi ta Bekosolo Goldarazeten etsean. | 297 |
| XXXV. | <i>Erroma garailari.</i> 1. Bilboko auzitegian. 2. Bekosoloren itzaldia ta Torrealdearen eskutitz batzuk. 3. Goraipearen ondoko atsekabea. 4. Bigarren auteskunda Yataben | 304 |

EUSKARAREN LEKUKOAK BILDUMAN ARGITARATURIKO
ZERRENDA

LISTA DE LIBROS PUBLICADOS EN LA SECCION
«EUSKARAREN LEKUKOAK»

1. *Doctrina Christioarén Cathechima*, Joakin Lizarraga, Elkanokoa.
2. *Linguae vasconum primitiae*, Bernard Etxepare.
3. *Manual devotioenezcoa*, Joannes Etxeberri, Ziburukoa.
4. *Mendibururen idazlan argitaragabeak* (bi libururu), Sebastian Mendiburu.
5. *Kredo edo sinhesten dut esplikatua*, Etienne Lapeyre.
6. *Lehen liburua edo filosofo huskaldunaren ekheia (1785)*, Josef Egiategi.
7. *Catechima laburra eta Jesus-Christ goure Ginco Jaunaren eçagutcia, salvatu icateco*, Athanase Belapeyre.
8. *Eguia catolicac salvamendu eternalaren eguiteco necesario direnac*, Bernard Gasteluçar.
9. *Koplak*, Joakin Lizarraga, Elkanokoa.
10. *Ongui iltzen laguntzeco itzgaia*, Joakin Lizarraga, Elkanokoa.
11. *Bayonaco diocesaco bi-garren catichima*, Lavieuvville-Harosteguy.
12. *Euscal-errietaco olqueeta ta dantzeen neurrizco gatz-ozpinduba*, Prai Bartolome Santa Teresa.
13. *Euskal testu zaharrak (I)*, Jose M.^a Satrustegi.
14. *Cristaubaren icasbidea edo doctrina cristiania*, Juan Antonio Moguel ta Urquiza.
15. *Latsibi*, Resurrección María Azcue.

